

17

PORTAERA MASKULINOEN

ETA FEMENINOEN EREDUAK

ETA ERREFERENTEAK

EUSKAL GAZTERIAN



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERABILUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

PORTAERA MASKULINOEN
ETA FEMENINOEN EREDUAK
ETA ERREFERENTEAK
EUSKAL GAZTERIAN

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 2001

IZENBURUA:	"Portaera maskulinoen eta femeninoen ereduak eta erreferenteak euskal gazterian"
EGILEA:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
MAKETATZAILEA ETA KOORDINATZAILEA:	Ana Rincón
DATA:	Ekaina, 2001
DESKRIBATZAILEAK:	Gazteak, jarrerak, sexu desberdintasunak
ALE KOPURUA:	1.000
IRUDI DISEINUA:	Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia
INPRIMAKETA:	Gráficas Santamaría, S.A. Bekolarra, 4. 01010 Vitoria-Gasteiz
LEGE GORDAILUA:	306/01

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
AURRETIAZKO GOGOETAK	11
1. AFEKTUEN EREMUA	23
1.1. Sarrera	25
1.2. Familia	28
1.2.1. Familia eta berdintasunerako garrantzia duten espazioak.	
Mikroespazioak	28
1.2.2. Mikroespazioen azterketa eta "Bernizaren teoriaren" ezarpena	30
1.3. Koadrila	42
1.3.1. Koadrila eta berdintasunerako espazio esanguratsuak.	
Mikroespazioak	42
1.3.2. Mikroespazioen analisia eta "Bernizaren teoriaren" ezarpena	44
1.4. Bikotea	56
1.4.1. Bikotea eta berdintasunerako espazio esanguratsuak.	
Mikroespazioak	56
1.4.2. Mikroespazioen azterketa eta "Bernizaren teoriaren" ezarpena	58
2. AISIALDIAREN ESPARRUA	71
2.1. Sarrera	73
2.2. Esparru ludikoa	81
2.2.1. Esparru ludikoan desberdintasunak eta diskriminazioak antzemateko gazteek duten zailtasuna	82
2.2.2. Gazteek mutilengan neskenak ez bezalako ezaugarriak, kalitateak eta jokabideak antzematen dituzte	85
2.2.3. Desberdintasunak diskriminazio iturri gisa	94
2.3. Kirola	99
2.3.1. Kirolaren esparruan desberdintasunak eta diskriminazioak antzemateko gazteek duten zailtasuna	99
2.3.2. Nesken eta mutilen arteko desberdintasunak	101
2.3.3. Desberdintasunak diskriminazio iturri gisa	109
2.4. Asoziazionismoa	111
2.4.1. Asoziazionismoaren esparruan desberdintasunak eta diskriminazioak antzemateko gazteek duten zailtasuna	111
2.4.2. Nesken eta mutilen arteko desberdintasunak	115
2.4.3. Desberdintasunak diskriminazio iturri gisa	120

3. ERANTZUKIZUNEN EREMUA	123
3.1. Sarrera	125
3.2. Hezkuntza garaia	134
3.3. Orientazio garaia	141
3.4. Langabezi garaia	147
3.5. Lan munduratzeko garaia	156
3.6. Lan garaia	169
4. ONDORIOAK ETA PROSPEKTIBA	185
4.1. Diskriminazio kontzeptua euskal gazteen testuingurutik begiratuta zehaztea eta ulertzea	187
4.2. Berdintasuna lortzeko bidean aldaketak eta aurrerapenak: gazteen iritziak eta jarrerak	192
4.3. Prospektiba eta jokaera jarraibideak	200
4.3.1. "Berdintasun berniza" gaikitzea edo berdintasun kontzeptuaren definizio berria	200
4.3.2. Berdintasunezko erreferente berrien aldeko apustua egitea. Gaur egungo mapen zurruntasuna gaikitzea	205
ERANSKINA	219
E.1. Txostena gazte adituen ikuspegitik	221
E.1.1. Txostenaren azterketa eta ikerketaren ebaluazioa	221
E.1.2. Ondorio orokorrak eta prospekzio elementuak	223
BIBLIOGRAFIA	227



Gure gizarteari giza harremanen eredu berrietarantz aurrera egiteko bultzada ematea da Emakunderen zeregina. Eredu horien bitartez, errespetuan, elkar ulertzean, eta lana eta ardura guztiak gizonen eta emakumeen artean banatzean oinarritutako bizikidetza ahalbidetu nahi dugu, harreman bidezkoago, aberasgarriago eta asegarriagoak eraiki ahal izateko.

Helburu horrek norbanako eta talde guztion lankidetza eskatzen du, baina, batez ere, gazteena, etorkizuna eraikitzeko funtsezko zutabea baitira.

Gaur egungo gazteak berdintasunaren diskurtsoarekin hezita daude, eta balio normalizatu-tzat onartua daukate. Gizartekotu, ordea, berdintasunik eza –eta, askotan, bazterketa– sor-tzen duten genero eredu eta erreferenteekin gizartekotu dira.

Horiek horrela, behin baino gehiagotan sortu zaigu hipotesi hau: gazteak itxurazko berdintasunean bizi dira, azpian desberdintasunak iraunarazten dituzten jokabideak, ohiturak, estereotipoak... ezkututzen direla.

Euskadiko gazteen jokabide maskulino eta femeninoen eredu eta erreferenteak izenburua-rekin orain aurkezten dugun nolakotasuneko azterketaren helburua, hain zuzen ere, Euskadiko gazteek berdintasunaren kontzeptua nola ulertzen duten jakitea izan da. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna adin talde horretan nola bizi eta ulertzen duten, alegia.

Horretarako, bi lan ildo hartu ditugu azterketa egitean. Alde batetik, haien bizipen eta espe-rientzietatik berdintasunari buruz sortutako eztabaida eta gogoetan oinarritutako ildoak. Eta, bestetik, Euskadiko emakumezko eta gizonezko gazteentzat garrantzizkoak diren eremu eta espazioetan kokatutako ildoak, eremu eta espazio horietan bi talde horien jokabideak zehaztea ahalbidetu duena.

Ikerteta eredu horri esker, gazteriak –lehendabizi ezberdintasunetatik at dagoena, eta bere burua berdintasunean ikusten duena– gai horretan sakondu ahal izan du, eta konturatu da itxura eta egia ez datozela guztiz bat, eta ezberdintasunek eta bereizkeriek hor dirautela eta bizi garen sexu eta genero sistemaren emaitza direla.

Erabilitako metodologiari dagokionez, aipatzekoa da gazteen eztabaida eta gogoeta taldeek aztertu zituztela, zuzenean, gazteek bizi edo nabari dituzten bereizkeria egoerak, honako arlo hauek kontuan hartuta: hurbileko harremanak; aisia eta astialdia; eta ardurak.

Azkenik, badakigu jakin gazteen errealitatea sakonago aztertu eta jakinda hainbat emaitza lortu dela, eta emaitza horiei esker emakumeen eta gizonen arteko benetako aukera ber-dintasuna sustatzera zuzendutako neurriak aurrera eramateko tresna eraginkorrak taxutu ahalko direla.



TXARO ARTEAGA ANSA
EMAKUNDE/Emakumearen Euskal
Erakundeko Zuzendaria



**AURRETIAZKO
GOGOETAK**

Gaztaroa garai berezia izaten da gizakion bizitzan. Aldaketa eta trantsizio garaia dugu, eta igarobidea ere bai. 15 urtetik 30 urtera bitartean, bide luzea egiten dute, oro har, gazteek: ikasketa akademikoak burutu, lan munduan sartzen hasi, lagun arteko harreman egonkorak finkatu, bikotekidea aurkitu, euren kasa bizitzera joan, bikotekidearekin bizitzen hasi eta, zenbaitetan, lehen semea edo alaba ere izaten dute. Batzuek urrats horiek guztiak egiten dituzte, baina askok 30 urteen atarian ibilbidea bukatu gabe izaten dute oraindik. Horren ondorioz, gure gizarteetan adina bigarren mailako ezaugarri bihurtu da ia gaztaroaren iraupenari dagokionez, beste kontzeptu batzuk sortu baitira, hala nola, gaztaro soziologikoa. Izan ere, kontzeptu berri horiek irizpide sozial edo kulturaleri biologikoei baino gehiago errepertzen diete. Gazteek geroago uzten dute gurasoen etxea, denbora luzeagoa ematen dute langabezian... Beraz, gaztaroaren eta adinaren arteko loturak inoiz baino malguagoak dira gaur egun.

Ezaugarri nabarmen hori alde batera utzita, bistakoa da urte horietan gizakia errotik aldatzen dela. Bestalde, gazte bakoitzak bere ohiturak, pentsamoldeak eta bizimodua ditu. Hortik abiatuta finkatzen dira gerora izango dituen nortasuna, balioak, harremanei buruzko ikuspegia eta jokabide ereduak. Gazteen ideiei eta iritziei buruzko testak egitea lan erakargarri eta garrantzitsua da, beraz. Horrelako testen bidez, gainera, gizarteak nolako balioak eta ereduak irakatsi dizkien ikusteko aukera ere izaten da eta, horren ondorioz, norantz doan jakiteko modua ere bai.

Ondorengoa izan da gure ikerlanaren helburua: **euskal gazteen artean berdintasun kontzeptua zertan den jakitea**. Sexuen arteko berdintasuna nola bizi eta ulertzen duten eza-gutzea, alegia. Benetako erronka dugu hori, ez baita erraza berdintasunaren aldeko diskurtsoa –gizartearen ondasuna eta funtsezko premisa politikoa– aztertzea, oso muga lausoak baitaude, gainera, asmoen eta praktikaren artean, diskurtsoen eta errealitatearen artean eta topikoen eta eguneroko jokabideen artean.

Horrela, bada, hamaika galdera sortzen zaizkigu: zer da, benetan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna? Ez al ditugu nahasten zuzentasun politikoaren izenean egin ohi diren diskurtsoak eta benetako desberdintasunekiko sentsibilitatean oinarritutako prestakuntza eta hezkuntza? Berdintasun itxuraz jantzitako egoera askoren sorburua eta oinarria ez al da erabateko desberdintasuna? Ikerketa proiektuan adierazi genuenez, beharrezkoa da horrelako galderak egitea, kontuan hartu behar baitugu egungo gazteak, ustez, berdintasunean eta berdintasunerako ari direla hezten. Baina, hala ere, hazterakoan eta sozializatzerakoan hartuko dituzten ereduak eta erreferentzien ondorioz, rol jakin batzuk ikasiko dituzte eta, azkenik, emakumeek diskriminazioa eta desberdintasunak jasango dituzte gizartean nagusi den balio eskala horretan. Aipatutako paradoxak argi erakusten du, berdintasunetik abiatu arren, helmugan beti ez dugula erabateko parekotasunik eta onarpenik aurkituko gizonen eta emakumeen artean.

Testuinguru nahasia dugu, beraz, gaztaroari buruzko definizioak argiak ez izateaz gain, berdintasun kontzeptuaren atzean desberdintasun nabarmenetan oinarritutako egoerak baitaude. Gauzak horrela, oinarritzko bi zeregin finkatu ziren ikerlana abiarazteko: batetik, gazte hitzaren definizioa ematea eta, batez ere, gazteek gaztaroa nola bizi eta ulertzen duten jakitea; bestetik, berdintasunaren esanahia argitzeko bidea emango duten berdintasun eta/edo desberdintasun une, eszena, leku eta egoera jakin batzuk aukeratzea. Izan ere, berdintasuna ameskeria hutsa den honetan, behar-beharrezkoa da alderdi hau argitzea: zein eredutan

eta erreferentzian oinarrituta sortzen duten gazteek kontzeptu hori eta nola bideratzen dituzten ustezko berdintasun eskemen arabera jokabideak. Zein dira euskal gazteen berdintasun ereduak? Eta berdintasun erreferentziak? Nolako berdintasun espazioak ari dira sortzen edo sortu dituzte jadanik?

Kualitate Lantaldea ikerketa institutuak ondorengo erronkak aukeratu zituen Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeak finkatutako testuinguru eta helburuetatik abiatuta:

a) Gazteen bizipen eta esperientzietan oinarritutako eztabaidak eta gogoetak egitea berdintasunaren inguruan.

b) Gazteentzat garrantzitsuak diren esparruetan oinarritutako eztabaidak eta azterketak egitea, esparru horien bidez, sexuen arabera portaerak argi eta garbi bereizteko aukera izango baitugu. Hiru dira esparru nagusiak:

— Erantzukizuna. Gazteentzat garrantzi handikoak diren bi espazio hartzen ditu barne: hezkuntza eta lan mundua.

— Afektuak: Familia, lagun taldea eta bikotea hartzen ditu barne.

— Aisialdia eta tarte libreak. Gazteek hiru espazio dituzte, itxuraz, gogokoen, horiei ematen baitie lehentasuna eguneroko bizitzaren antolamenduan: kirola, asoziazionismoa eta boluntariora eta dibertsioa edo jolas jarduerak.

Kualitate Lantaldeak helburu espezifiko hauek finkatu zituen aipatutako erronkak landu eta gainditzeko:

a) 2000. urteko euskal gazteen portaerak aztertzea. Egungo gazteriaren ezaugarri orokorrak ezagutzea.

b) Aipatutako esparru eta espazioetan gazteek nolako ohiturak, portaerak, jarrerak eta errealitateak dituzten sakontasunez aztertzea. Berdintasunaren inguruko esperientziak biltzea eta esperientzia horiek diskriminazio egoera eta ereduetan nolako isla duten ikustea.

c) Gazteek izandako berdintasun eta desberdintasun esperientzien atzean nolako ereduak eta erreferentziak dauden aztertzea. Honako alderdi hauek hartu behar dira, batik bat, kontuan: alde onei eta txarrei buruzko iruzkinak, aukeratzeko ahalbideak, batzuen eta besteen helburuak, ezkutuko diskriminazioa eta ustezko berdintasunaren amarruak.

d) Sumatutako berdintasun espazio berriak eta sortzen ari diren berdintasunezko ereduak eta erreferentziak aztertzea.

Hainbat fase burutu dituzte, bestalde, aipatutako helburuak lortzeko:

1. KABINETE FASEA. Lehenik eta behin, ikerlanaren gaiari buruzko informazioa bildu zuten. Gazteriaren eta generoaren alorrak zuzenean edo zeharka aztertu dituzten lanen datuak eta emaitzak bildu zituzten, nagusiki.

Lan handia egin zuten bibliografia bilatzen eta aztertzen ere. Ondoren, lan gidoiarako adierazleak eta ildo teorikoak finkatu zituzten. Gidoi horiek erabili ziren, gero, adituek egindako elkarriketetan, eztabaida taldeetan eta talde dinamiketan.

2. ESPLORAZIO FASEA. Bildutako material interesgarriak landu ondoren, gazteriaren eta generoaren alorretako adituekin jarri ziren harremanetan. Ondoren, gazteenganako lehen hurbilketa lanak egin zituzten, talde horren oinarritzko ezaugarriak finkatzeko asmoz.

Ikerlanean parte hartu duten adituen lan esperientzia bikaina izan da benetan: sakoneko elkarrizketetan egindako gogoetak funtsezko oinarriak eta erreferentziak izan dira bai euskal gazteen errealitatea ezagutu ahal izateko, bai gure gizarteko genero dinamikaren funtzionamendua ulertu ahal izateko.

Hezkidetzako, aisialdi eta asoziazionismoko, famili eremuko, lan munduratzearen alorreko eta genero teoriako adituen iritziei esker, askoz ere hobeto bideratu dituzte gazteria eta generoa ikertzeko lehen urratsetarako bideak, moduak eta formulak. Hiru eztabaida talde osatzea erabaki zuten, helburu hauek guztiak lortzeko:

- a) Euskal gazteen erreferentzi esparru diren errealitateen, arazoen eta eguneroko kontuen berri izateko.
- b) Gazteen arteko elkarreraginari, hazteko prozesuari eta nortasuna eratzeko bideari lotutako aldagai nagusiak mugatzeko.
- c) Esparru bakoitzerako ikerketa bideak eta aztergai nagusiak finkatzeko.
- d) Euskal gazteek generoaren alorrean dituzten erreferentzi ereduen oinarritzko ezaugarriak zehazteko. Hau da, desberdintasunaren, berdintasunaren, diskriminazioaren, aniztasunaren eta beste kontzeptu batzuen inguruan nolako argudioak eta usteak dituzten jakiteko.

Hiru adin talde bereiztea erabaki zuten:

- 15 eta 18 urte bitarteko gazteak.
- 19 eta 25 urte bitarteko gazteak.
- 26 eta 30 urte bitarteko gazteak.

Adin bakoitzean espazio, eremu eta gai jakin batzuei ematen zaie lehentasuna, eta horregatik erabaki zuten, hain zuzen, hiru adin talde horiek bereiztea. 15 urtetik 30 urtera bitartean nortasuna eraikitzeke egin beharreko ibilbidean espazio eta esparru guztiek nolako bilakaera izaten duten aztertzea zen helburu nagusia. Eta, halaber, berdintasunaren esperientzian ere nolako gorabeherak izaten diren nahi zuten jakin. Bistakoa da, adibidez, lan munduak ez duela garrantzi bera 15 urtekoentzat eta hogeita hamar urte inguru dituzteentzat. Ondorioz, denek ez dute ikuspegi berbera lan munduko berdintasun edo desberdintasunen inguruan, iritzia aldatu egiten baita adin bakoitzeko esperientzien eta bizipenen arabera.

Hori guztia kontuan hartuta, adin taldeka lan eginez, gazteen ibilbide biografikoari buruzko lehen ondorioak atera genituen: urratsak eta kezkak eta, ondorioz, berdintasunari, desberdintasunari, aniztasunari eta diskriminazioari buruzko ikuspegi eta iritzia.

Adin talde guztietako gazteek bi ordu eman zituzten hainbat gairi buruz hitz egiten. Horrela, solasaldi horien eta adituek egindako elkarrizketen edukietan oinarrituta diseinatu eta zehaztu genuen hirugarren fasea.

3. IKERKETA FASEA. Esparru garrantzitsu bakoitzerako oinarrizko ikerketa ildoak finkatu ondoren, gazteek jasandako edo ikusitako desberdintasun egoerei buruzko zuzeneko informazioa lortzea izan zen hirugarren fasearen helburua. Egoera horiei guztiei buruzko azterketa egin zuten, gero. Bestalde, hiru esparru izan zituzten aztergai, aurreko faseetan bezala: erantzukizuna, afektuak eta aisialdia eta tarte libreak. Esparruetan generoan oinarritutako desberdintasun gunerik ba ote dagoen jakiteko eta horrelako guneak zehatz-mehatz lantzeko aukera izan zuten, horrela. Esparru bakoitzeko xehetasunak sakon aztertu nahi zituzten, mikroskopioa erabili bezala, baina ikuspegi orokorra inondik inora baztertu gabe. Izan ere, ikuspegi orokorra funtsezkoa da elkarreraginak eta harremanak aztertu ahal izateko, horiek baitira, benetan, esparru guztien arteko korridoreak.

Ikerketa prozesua hain zabala eta konplexua zenez, esparru guztiak bereizita landu zituzten, kasuan kasuko testuinguruaren arabeko metodologia, ikuspegiak eta zereginak aukeratu ondoren. Oso emaitza onak lortu dituzte horrela lan eginez. Esparru bakoitzean antolamendu eta tonu jakin bat erabili dute, baina zehatz-mehatz landu dituzte espazio guztiak eta, horri esker, azken txostena askoz ere aberatsagoa eta sakonagoa izan da, gure ustez.

Aztergai bakoitzari buruzko kapitulua kasuan kasuko esparrutik bertatik egindako gogoeta da, beraz: esparru jakin horrek berezkoak dituen ezaugarriak, hizkera eta irudiak izango dituzue irakurgai. Eta txostenaren azken atalean, osagai guztiek osatutako puzzlea: ondorioak, gogoeta orokorrak eta etorkizunerako aurreikuspenak. Baina, ordura arte, banan-banan aztertuko ditugu esparru nagusiak. Aipatu ditzagun, bada, horien ezaugarri nagusiak.

AFEKTUAK

Esparru anbigua dugu, eta elementu anitzak hartzen ditu barne. Gainera, afektuek garrantzi handia izaten dute berdintasun edo desberdintasun esperientziak egituratzen, gauzatzen eta jasaten direnean. Afektuen nondik norakoak ezagutzeko, alderdi hauek guztiak aztertu behar dira: lehen sozializazio espazioak, etxeko gorabeherak, gurasoekiko eta berdinen taldeekiko harremanak eta, azkenik, bikotearekiko harreman intimoak. Elkarreraginak, sentimenduak eta harremanek berebiziko indarra dute eta oso zaila izaten da gauzak zehaztea eta teorizatzea. Arazoak arazo, ikertzaileek afektuen esparruan buru-belarri murgiltzea erabaki zuten, ongi asko baitzekiten nolako eragozpenak gainditu beharko zituzten. Halaber, argi ikusi zuten ikerketa metodologia eta teknika bereziak ere erabili beharko zirela.

Lehenik eta behin, ikerlanerako espazioak mugatu eta aukeratu zituzten. Ildo horretan, aurreko fasean gazteek argi adierazi zuten zein diren oinarrizko hiru alorrak: etxea (familia), lagun taldea eta bikotea.

Hiru alor horiek funtsezkoak dira nortasuna eratzeiko prozesuan eta gazteen unibertsoan, eta alor horietan sortu ohi diren harremanak ere oso biziak eta balio kualitatibo handikoak izaten dira. Beraz, badira nahikoa arrazoak guztiak banan-banan lantzeko eta nolako berdintasun edo desberdintasun estrategiak eta oinarriak sortarazten dituzten aztertzeko.

Ildo horretan, elkarrizketa sakon ugari egin dituzte hainbat tipologiatako bikote, familia eta lagun taldeekin. Informazio garrantzitsua lortu dute, horrela: espazio bakoitzean nolako ikus-

pegiak, bizipenak eta gogoetak sortzen eta transmititzen diren sexuen arteko harremanei eta berdintasun edo desberdintasun esperientziei dagokienez.

Hori guztia jakitea behar beharrezkoa da, gainera, beste esparru batzuetako errealitateak eta egoerak ere aztertzeko. Izan ere, beste esparru garrantzitsu batzuetako (hezkuntzako, lan munduko, aisialdiko...) berdintasun/desberdintasun egoerei buruzko ikuspegiek lotura zuzena izaten dute familian, lagun artean eta bikotean sortutako eta ezagututako egoerekin, hiru sozializazio alor horiek, itxuraz hain formalizatuta ez dauden arren, oinarrizko erreferentziak baitira.

AISIALDIA ETA TARTE LIBREAK

Aisialdiaz gozatzea ez da, jakina, gazte hutsen kontua. Baina argi dago atsedenerako edo zereginik gabeko denbora horrek bizitasun berezia izaten duela gaztaroan. Eurentzako denbora dela uste dute, gazte "izateko" eta gazte jokabideak eta adierazmoldeak hartzeko abagunea. "Betebehar" formalik gabeko denbora izaten da, familiako arauetatik, eskolako zereginetatik edo laneko erantzukizunetatik at. Beste gazte batzuekin elkartu eta egoten dira, eta euren kezka, arazo eta gustuko gaiez hitz egiten dute.

Dena den, aisialdiari buruzko ikuspegia nabarmen aldatzen da, batez ere, adin taldeen arabera. 15 eta 18 urte bitartekoak aisialdian lagunekin "egoten" dira, besterik gabe, edo kirolen bat egiten dute, bestela. Adinak gora egin ahala, gero eta gauza gehiago egiten dituzte tarte libreetan: aisialdia bera ez da jadanik helburua izaten, beste zerbait lortzeko bidea baizik. Kiroletan, zeregin humanitarioetan, politikan, kulturean... jarduteko aukera ematen die. Asteburuko irteeretan, diskoteketan eta horrelako jardueretan emandako denbora nabarmen murrizten da, adinak gora egin ahala. Gazteak zeregin lasaiagoak edo beste era bateko jarduerak hasten dira aukeratzen: bidaiak, zaletasunak, zinea, etab.

Ikusten denez, aniztasuna da nagusi aisialdiko eta tarte libreetako jardueretan, interesetan, helburuetan... Baina, ikerlanaren xedeak kontuan hartuta, espazio batzuk aukeratu behar izan zituzten, berdintasuna/desberdintasuna aztertzeko egokienak eta interesgarrienak diren aisialdi espazioak, alegia. Orduan ere erabakigarriak izan ziren adituen ekarpenak eta gazteen artean antolatutako esplorazio taldeen iritziak. Horien mezu eta esperientziei erreparatuz, ondorengo lan eta metodologi alorrak aukeratu zituzten:

- a) Jolas jarduerak eta dibertsioa.
- b) Kirola.
- c) Asoziazionismoa eta boluntarioritza.

Gazteek garrantzi kualitatibo handia eman zieten hiru alor horiei: euren aisialdi esperientzien ardatzak eta, neurri handi batean, erreferentzi guneak dira, eta berdintasun/desberdintasun ereduen oinarriak ere bai.

Bestalde, metodologia berezi bat aukeratu zuten aipatutako ereduak eta erreferentziak ezaugu ahal izateko. Horrela, ohiko talde dinamikez gain, ikerketa soziologikoetan berriagoak diren beste bi teknika ere erabiltzea erabaki zuten: behaketa eta funtsezko txostenak.

Hiru lan talde eta aditu talde bat osatu zituzten, aipatutako eskematik abiatuta gazteen aisialdiaren eta tarte librean ezaugarriak aztertzeko. Lan talde bakoitzak alor bat izan du aztergai (jolas jarduerak eta dibertsioa, kirolak eta boluntariora eta asoziazionismoa). Aditu taldea, bestalde, mistoa zen eta gazteen inguruko lanetan eta aipatutako hiru espazioetan esperientzia luzea zuten helduak ziren kideak. Ohiko eztabaida taldeen antzeko dinamika erabili zuten adituek; gazteei, berriz, protagonismo handia eman zieten. Hiru gazte talde zeuden (bat dibertsiorako, beste bat kirolerako eta hirugarrena boluntariora eta asoziazionismoarako) eta bilerak bana egin zuten guztiekin, ikerlanaren helburuen berri emateko. Informazioa biltzen laguntzeko ere eskatu zieten: galdeketa antzeko batean egituratuta zeuden aldagai eta elementu batzuen inguruko iritziak, irudiak eta era guztietako datuak behatzeko eta idazteko esan zieten. Eguneroko bizitzan lankideen portaerak eta jarrerak behatzeko eskatu zieten, gero, denen artean, emaitzei buruz hitz egiteko, behatutako espaziorik buruzko gogoeta egiteko eta sexuen arteko berdintasun edo desberdintasunari lotutako egoerak eta elementuak aztertzeko.

Oso esperientzia interesgarria izan dute gazte taldeekin, bai aukeraketa prozesuan eta lehen harremanetan, bai behaketa ariketaren aurreko bileran, eta baita ondorengo lan bileran ere. Gazteek oso motibazio eta interes handia izan dute prozesu osoan eta euren lana aberasgarria izan da erabat ikerlanarentzat. Izan ere, proiektuko faserik positiboenetakoa izan da, gazteek buru-belarri egin baitute lan euren errealitatea aztertzeko.

ERANTZUKIZUNAK

Erantzukizunen alorreko espazioak formalagoak iruditzen zaizkie gazteei. Hezkuntza eta lan mundua dira helduen errealitatearekiko eta errealitate horren ondorio ugariarekiko loturarik zuzenenak. Eskola eta lana kontraesan bezala betetako espazioak dira gazteentzat. Batetik, betebeharez, nekez eta tentsioz betetako denborak eta guneak direla uste dute, baina, bestalde, norbere garapenerako proiektuak, bizi proiektuak edo bikotearen ingurukoak ere ekartzen dizkiete gogora. Bi espazio horiek gaztaro osoan izaten dute jarraipena eta erabat baldintzatzen dute gazteen biografia. Oso garrantzitsua da, beraz, gazteen curriculumaren, lanbide itxaropenen eta helduaren nortasunaren oinarri izan ohi den prozesua edo ibilbidea aztertzea. Honakoa izan da ikerlanaren erronka nagusia: gazteek ibilbide horretaz guztiaz nolako balorazioa egiten duten jakitea, beti ere berdintasunaren ikuspegia kontuan hartuta, bi espazio horietan berdintasunaren/desberdintasunaren inguruan sortutako erreferentziak eta diskurtsoak aztertzea eta, azkenik, diskurtso eta irudi horiek nolako ondorioak eragiten dituzten ikustea. Hau da, sexuen arteko berdintasunean oinarritutako integrazioari kalte edo mesede egiten dioten aztertzea.

Bi izan dira, bestalde, metodologiaren ardatz nagusiak: gazteen ibilbide biografikoa eta gazteen lan errealitate anitzak. Lehenengoari dagokionez, ikasketen munduarekiko eta lan esperientziarekiko ikuspegiari eta iritziei buruzko informazioa bildu dute. Bigarrenari dagokionez, hainbat egoeratan dauden gazteek erantzukizunen alorrean izandako berdintasun edo desberdintasun esperientziei erreparatu diete.

Aipatutako helburuak kontuan hartuta, hiru eztabaida talde osatu zituzten: batetik, langabezian zeuden gazteak (denbora laburrean, egoeraren arabera langabezia edo egiturazkoa);

bestetik, lan baldintza kaskarrak zituztenak (kontraturik gabe, kontratuak bukatzeko zorian, etab.); azkenik, lan egonkorra zutenak (norbere negozio iraunkorra edo kontratu mugagabea). Ondorengo datuak bildu zituzten hiru taldeetan: gazteen heziketa ibilbidea, hezkuntzarako eta lanerako orientazio prozesuaren ardatzak, lan munduan sartzeko bidean izandako esperientziak eta laneko bizipenak. Datu guztiak ikerlanaren oinarrien eta helburuaren arabera landu eta aztertu dira, gerora. Hau da, gazteek izandako berdintasun eta desberdintasun esperientziak jorratu dira.

	METODOLOGIA	HELBURUAK
KABINETE FASEA	Informazioa bildu, aztertu eta egituratzea.	- Gaiari buruzko azterketen datuak eta emaitzak biltzea eta sistematizatzea. - Esparru guztietan desberdintasun adierazleak finkatzea, gero taldeetan eta elkarriketetan erabil daitezen.
ESPLORAZIO FASEA	5 elkarriketa sakon iritzi liderrekin (Hezkidetza, aisialdia, familia, lan munduratzea, generoaren teoria) 3 eztabaida talde, gazteekin (15-18 urte; 19-25 urte; 26-30 urte)	- Helduek eta gazteek nolako Genero ereduak dituzten jakitea. - Aniztasuna onartzea eta desberdintasun guneak mugatzea. - Euskal gazteen errealitatea ezagutzea. - Gazteen identitateetan eraginik handiena duten esparruak mugatzea.
IKERKETA FASEA	AFEKTUAK: (3 familia) (3 lagun talde) (4 bikote) AISIALDIA: (talde bat jolas jardueretarako) (talde bat kiroleterako) (talde bat asoziazionismorako) (aditu talde bat) ERANTZUKIZUNA (talde bat: "langabetuak") (talde bat: "lan ezegonkorra") (talde bat: "lan egonkorra")	- Euskal gazteen portaeren berri izatea. - Generoaren ondoriozko diskriminazioak edo desabantailak ezagutzea. - Gazteek hiru esparru horietan jasandako edo ezagututako desberdintasun egoeren berri izatea. - Desberdintasun egoera horien esanahia ulertzea eta atzean nolako jarrerak dauden ikustea.
ANALISI FASEA	Aurreko faseetan lortutako materialak aztertzeko eta emaitzak gazte talde kualifikatuekin egiaztatzea	- Euskal gazteen eskutuko ereduak ikuspegiaren arabera finkatzea. - Euskal gazteen berdintasun espazio berriak ezagutzea.

Horiek dira ikerlaneko fase eta esparruen ezaugarri nagusiak eta horien inguruan egituratu ditu Kualitate Lantaldea institutuak metodologia eta alderdi epistemologikoa. Arestian aipatu bezala, hiru izan dira ikerlanaren erronken ardatzak: **abiapuntua, ikuspegia eta berdintasun/desberdintasun kontzeptuetara hurbiltzeko bideak eta formulak**. Aipa ditzagun, bada, guztien oinarriak:

A) Euskal gazteak izan dira abiapuntua. Gazteak izan dira ikerketen helburuak, baina, neurri handi batean, abiaburuak ere bai. Gazteak izan dira hilabete hauetan egin diren elkarrietzeta eta talde dinamika gehienen protagonistak. Gazteen ahotsa, mezuak, tonuak eta gizarteari eta munduari buruzko ikuspegiak hasiera-hasieratik hartu dira kontuan. Gazte askok hartu dute parte ikerlanean eta, beraz, pozik egoteko moduan gaude. Dena den, ezin dugu ahaztu azterketa kualitatiboen funtsezko helburua ez dela izaten mezu horiek ezagutzera ematea edo kuantifikatzea, kualitateen berri ematea baizik, sentsibilitate guztiez jabetzea, alegia, oso hedatuta ote dauden kontuan hartu gabe. Jakin badakigu euskal gazteen ezaugarriak anitzak direla oso. Aniztasun hori aberasgarria izaten da gizartearentzat, baina ikertzaileentzat, berriz, arazo iturri, errealitate jakin batera eta errealitate jakin horren materialetara egoten baitira mugatuta. Horrela, bada, emaitza onak lortu ditugu gure ikerlanean parte hartu duten gazteen errealitateen azterketetan, baina ezin izan dugu, jakina, dauden errealitate guzti-guztien berri eman.

B) Bizipenen ikuspegia izan da ikerlanaren bigarren erronka. Gazteen bizipenak, esperientziak, iritziak, zalantzak eta baieztapenak nahi izan ditugu ezagutu. Berez adierazitako mezuei eta adierazpenei material edo informazio teorikoagoei edo gogoetatsuagoei baino garrantzi handiagoa eman zaie. Izan ere, gure ustez, funtsezkoa da benetan zer sentitzen duten eta nolakoak diren jakitea, askoz ere informazio gehiago lortzen baita horrela, alderdi teoriko eta akademikoagoen bidez baino. Lan egiteko modu hori oso baliagarria izan da, batez ere, ikerlana abiarazteko eta azken ondorioak ateratzeko. Material horiek guztiak jorratzen jarraitu behar dugu, ezbairik gabe, eta ildo horretan, gazteek aipatutako inpresioak eta irudiak biltzen saiatu gara, gerora gogoetak eta eztabaidak egin daitezen.

C) Gizarte errealitatera hurbiltzeko bideak eta formulak eta, batez ere, berdintasun / desberdintasunaren interpretazioa izan dira ikerlanaren hirugarren erronkaren ardatzak. Metodologia eta ikuspegi epistemologikoa uztartu dira, beraz. Ikerlanean parte hartu duten gazteen ezaugarriak, gazte horien bidez osatutako materialak eta prozesuaren azken ondorioak eta analisia lanean aritu diren profesionalen apustuaren emaitzak izan dira, jakina. Hala ere, bibliografia, adituen testigantzak eta prozesu osoan parte hartu duten gazteen ahotsak funtsezkoak izan dira. Dena den, txostena irakurtzen hasi aurretik, argi eta garbi nahi dugu adierazi generoaren arabera desberdintasunei eta diskriminazioari buruzko interpretazioa eta ikuspegia ikertzaile taldeak finkatutako interpretazio eskemari lotuta daudela. Hau da, litekeena da testuan balorazio subjektiboak egotea, baina ekarpen teorikoak eta gazteek eta adituek ikerketa prozesuan egindako gogoetak dira, ezbairik gabe, txostenaren euskarririk sendoenak.

Zenbaitek beste errealitate bat ikusiko edo interpretatuko luke, agian. Baina, gizarte ikertzaile garen aldetik, gure helburua ongi bete dugula uste dugu: euskal gazteengana hurbildu eta beraiekin hitz egin dugu, berdintasun eta desberdintasunaren inguruan nolako iritziak eta sentimenduak dituzten jakiten saiatu gara, nolako bizipenak edo esperientziak izan

dituzten ikusi dugu. Eta ez da, ez, lan erraza. Horixe izan da, gainera, txostenaren oinarriko euskarria edo materiala eta, halaber, egin ditugun proposamenen abiapuntua.

Azaldu ditugu, beraz, ikerlanaren norabide, helburu eta metodologiaren nondik norakoak. Orain, txostenaren bidez, prozesuaren ondorio nagusien berri izango duzue eta euskal gazteek berdintasun eta desberdintasunaren inguruan nolako portaerak eta jarrerak dituzten ere jakingo duzue. Horretarako, banan-banan aztertuko ditugu aipatutako hiru esparruak (afektuak, aisialdia eta erantzukizunak) eta, azkenean, gogoeta orokorrak eta etorkizuneko aurreikuspenak egingo ditugu.

1

**AFEKTUEN
EREMUA**

Afektuen eremua, lehen ere adierazi bezala, pertsona ororen bizitzaren eremurik garrantzitsuenetakoa da, garrantzitsuena ez bada. Sentimenduak eta harremanak pertsonaren osasunaren eta ongizatearen alderdia dira, eta ezin diote horri uko egin. Horregatik, afektuak pertsonaren bizitzaren alor nagusia dira, bai alderdi psikikoan, bai eta fisikoan ere. Garrantzitsua da heldu, nagusi zein eta gazteentzat; baina gazteengan du, hain zuzen, eraginik eta garrantzirik handiena, izan ere afektuak gaztearen gizarteratze eta nortasuna lorzeko prozesuari mamia ematen dioten bizipenen parte baitira.

Pertsonak familiako kide, lagun eta bikotearekiko duen harreman pertsonalaren kontzientzia 15 eta 30 urte bitartean areagotu egiten dela adierazi ohi da; hots, haurtzaroa atzean utzi duenean. Garai horretan adierazten dira, hain zuzen, argitasun eta naturaltasun harri-garriz komunikatzeko beharra, adiskidetasun edo konplizitate lotura sendoak ezartzeko beharra. Une horretan sortzen da harreman intimoak izateko beharra, eta horien bidez gaztetan askotan bizi-bizi agertzen diren sentimenduak, eta izateko eta sentitzeko moduak adierazten dira.

Gazteentzat afektuak bizitzako eta egunerokotasuneko hainbat alderditan adierazten dira. Izan ere bizitzaren aldi horretan norbanakoak unibertso afektibo horrekin guztiarekin negoziatu beharko du, bizitzako helburuak eta lehentasunak zehazteko. Garai horretako alderdi oro aztertzeke ezinbestekoa da norbanakoaren bizipenen eta esperientazioaren eremua aintzat hartzea. Hain zuzen, norbanakoaren kezken, nahien eta norbera pertsona gisa errealizatzeko antsiaren arabera ikusiko ditu gazteak lana, ikasketak eta lanbidea. Aisialdiari garrantzia ematen dio harremanak hobetzen dituelako, gozamina eta komunikazioa hobetzen dituelako; hots, oreka afektiboa eta emozionala dakarkiolako.

Illo horretan, gazteek argi eta garbi adierazten dute zer den eurentzat gazte izatea: sentitzea, gozatzea, adieraztea, egotea, hitz egitea, komunikatzea, harremanak izatea, ideiak ezagutzera ematea. Arauak, laneko edo ikasketetako zurruntasuna zama gogorra da gaztaroren lehen urteetan; baina geroago -30 urteen bidean- zurruntasun hori gaztaroko leherketa unean sortutako nahi, erronka eta apustuak errealitate bihurtzeko beharrezko tresna da.

Afektuak gazteen nortasuna egituratzeko harreman, komunikazio eta intimitatearen alderdi garrantzitsuak dira, beraz, eta hori garbi ikusten da bizitzaren gune diren elementuez galdetzen zaienean: familia, koadrila edo gaztearen lagun taldea eta, azkenik, bikotea. Hirurak ere oinarri-oinarrizkoak dira edozein pertsonaren euskarri afektiboan, eta horrexegatik da garrantzitsua hiru unibertso horietara hurbildu eta bertan ematen diren harreman eta jarraira motak aztertzea. Hiru eremu horiek genero ikuspegitik arretaz aztertuta, ondorio erabakigarriak ateratzen dira, gazte horiek erreferente edo ereduak eraikitzerakoan egingo duten bidea ulertzeko, eredu horiek sexuaren arabera berdintasunezkoak izan ala ez, parekideak izan ala ez.

Kontuan izan behar da mutilen eta nesken errealitatearen arloak eta eremuak elkarreragileak direla eta elkarrekin loturak dituztela, eta afektuen alderdiak gaztearen biografian gune-

gunea direnez, ikerketak afektuen alderdi guztiak aztertuko ditu. Alderdi horien dinamika arautzen duten elementuak aztertuko ditugu, eta, bereziki, honakoei emango diegu garrantzia:

- a) Berdintasunaren/desberdintasunaren ereduak aztertzeko garrantzitsutzat jotzen diren espazioak antzematea. Espazioak mikroespazio moduan definitu dira.
- b) Mikroespazioen azterketa sakona egitea, bai eta horien barruan antzemandako berdintasun/desberdintasun dinamikena ere.
- c) Alor bakoitzean –familia, koadrila, bikotea– antzemandako aldaketak balioestea: aldaketa eragiten duten elementuak eta aldaketak geldiarazten dituzten elementuak.

Jarraian, ikerketan adierazitako helburuak garatzen hasteko, afektuen arloko hiru eremuak –familia, koadrila eta bikotea– zehazteko erabilitako eredueta batzuk azpimarratuko ditugu.

A) FAMILIA. Familia edozein pertsonaren erreferente erabakigarria da. Bere biografiaren abiapuntu izateaz gain, familiak zehaztu egiten du lehen gizarteratzeko espazioa, eta funtsezkoa da edozein pertsonaren nortasuna eratzeke. Denok hainbat etapa izaten ditugu familiarekiko eta horren kideekiko harremanetan. Nerabezaroa eta gaztaroa, noski, famili harremanen historiaren bi garai esanguratsu dira. Garai horiek gatazka, errieta eta tentsio uneak dira; baina baita amarekin, aitarekin edota anai-arrebekin harreman estuak sortzeko uneak ere. Gazteek komunikatzeko eta adierazteko behar handia dute, eta horretarako lagunak bilatzen dituzte etxean. Garai horietan gurasoak seme-alaben etorkizuna antzematen hasten dira, eta agerian jartzen dira seme-alaba bakoitzarengan jarritako itxaropenak.

Tentsio, itxaropen, irrika, bizipen, komunikazio gurutzatzea dituen aldi hori, hain zuzen, oso une garrantzitsua da etxeko gunea arautzen duten ereduak sakonean analizatu eta berdintasun/desberdintasun ikuspegitik aztertzeko: zer-nolako harremanak sortzen dira guraso eta seme-alaben artean? Eta, anai-arreben artean? Familian berdintasuneko zer-nolako ereduak eta erreferenteak sortzen dira? Zein dira familiako kideen rolak? Zein itxaropen dago seme-engan eta alabengan? Familiaren dinamika aztertzeko, horrelako eta antzeko hainbat eta hainbat galdera garrantzitsu egin daitezke, eta, beraz, Euskal Herriko gazteek bizitzen eta barneratzen dituzten berdintasun/desberdintasun ereduak aztertzeko.

Ilido horretan –eta hasierako datu gisa– honakoa adierazi behar da: famili gunean egindako berdintasuneko eredu eta erreferenteen azterketen emaitzek adierazten dutenez, familiaren egituraren eta dinamikan aldaketa handia gertatu da. Eta horrek, hain zuzen, agerian jartzen du etxeko espazioan azken hamarkadetan izandako eraldaketa. Aldaketa horiek hainbat alorretan gertatu dira, eta, noski, zalantzan jarri dituzte famili egitura tradizionalak; eta genero sistemari lotutako balio eta ezaugarriak errepikatzeke duten eragina ere agerian jarri dute.

B) KOADRILA. Koadrila edo lagun taldea gazteen unibertso afektiboaren bigarren espazio garrantzitsua da. Koadrilan ematen diren harremanak oso handiak dira, batzuetan familian ezarritako harremanak baino biziagoak eta garrantzitsuagoak. Euskal Herrian lagun egiturek dituzten ezaugarriak eta berezitasunak alde batera utzita, badirudi lagunekin izaten diren harremanek, oro har, gaztaroan dutela intentsitate handiena, eta gerora lagun harreman-

nek beste aro bat izaten dutela, beste bizipen batzuk eta beste itxaropen batzuk ditugula horiekiko. Gure inguruan maiz ikusten dira harremanak hainbat urtetan bizirik dituzten lagun taldeak, ohitura eta erritoak galtzen ez dituzten lagun taldeak. Dena den, harreman horien intentsitatea eta balioa oso desberdina da; eta hori dela-eta, gazteek beraiek ere aitortu egiten dute urteetan zehar koadrilaren esanahia eta garrantzia aldatu egiten dela.

Hala ere, berdinen talde horrek garrantzi izugarria du mutikoaren eta neskatoaren nortasuna egituratzerakoan. Beraz, ezinbestekoa da lagun taldean gertatzen diren harremanak, dinamikak eta jarduerak nolakoak diren ikustea, eta arlo horretan sortutako berdintasun/desberdintasun ereduak, rolak, jarrerak eta erreferenteak aztertzea.

Horrela, azpimarratu egin behar dira mutikoen eta neskatoen harreman informaletan –familian ere gertatu bezala– gertatzen ari diren aldaketak. Aldaketa nabarmenak eta esanguratsuak dira; baina aurrerago adieraziko dugun bezala, ezin dute ezkutatu badirela batere aldatarik gabeko zenbait elementu. Eta elementu horiek izugarrizko garrantzia dute laguntasun harremanak eta horren inguruko afektu, lotura, bizipen, esperientzia eta abar garatzeko.

C) BIKOTEA. Bikotea da afektuen barruan gazteek sakonkien bizi duten espazioa da, izan ere afektuaren, sentimenduaren, espazio intimoaren eremu nagusia baita. Mutikoei eta neskatoei bikotekidearekin duten harremana eta horren esanahia aldatu egiten da urteekin. Baina, hala ere, bestearekiko harreman afektiboa oso garrantzitsua da, beti, gaztearen nortasun proiektua zertu eta zehazteko. Harremanak aldatu egiten dira adinarekin: hasieran –teorian– esperimentalagoak eta azalekoagoak dira, eta ezagutzeko, jakiteko, probatzeko, ikertzeko, esploratzeko beharra da nagusi; geroago harremana helduagoa, sakonagoa eta bareagoa da, eta harremana bera ez da helburua, norberaren errealizaziorako eta etorkizuneko proiektuak gauzatzeko bidea baizik. Aldaketa horien bidez, gazteek, pixkanaka, bestearekiko harremana zehazten dute, eta, aldi berean, maitasuna, sexualitatea, laguntasuna, komunikazioa, elkarbizitza eta abarri buruzko ikuspegia eratu. Bikotearen dinamikaren alderdi horiek –eta beste batzuk– aztertzea funtsezkoa da sexuen arteko berdintasuna/desberdintasuna aztertzeko. Eta oso garrantzitsua da, hain zuzen, bikotea familia berri baten jatorria delako; hots, hurrengo belaunaldien gizarteratze prozesuaz arduratzeko gunea delako.

Horrela, bada, gazteen egungo bikoteen egiturak eta oinarriak zein diren antzematen badugu, eta genero ikuspegitik aztertzen baditugu, generoaren inguruan hurrengo urteetan izango diren joerak aurreikusteko funtsezko informazioa izango dugu. Hori dela-eta, bikotea aztertu eta horren dinamika ezagutzea oso zaila izan arren, ikerketak ahalegin handia egin du horretan, eta bikotearen bilakaera ulertzeko hainbat gako azpimarratzen saiatu gara.

Afektuak aztertzeko eta afektuek genero sistemak sortu eta birstartzeko duten eragina ezagutzeko oinarritzko hiru espazio horiek azpimarratu dira: familia, lagunak eta bikotea. Azterketa soziologikoa egiteko eremu zail eta konplexua da afektuena; eta erronka handia izan da ikerketarako, bai eta ondorioen eztabaidan eta idazketan gehien nabarmendu den alderdia ere. Eta horrek, hain zuzen, afektuen eta harremanen eremuak berdintasunaren/desberdintasunaren azterketan funtsezkoak direla adierazten du.

Hitz gutxitan, abiapuntuko eskema honakoa da (bertan hiru espaziotan zehaztuta dago gatzaroa eta genero aldagaia):

1. ILUSTRAZIOA Desberdintasunaren alde orokorrak



FAMILIA 1.2

FAMILIA ETA BERDINTASUNERAKO GARRANTZIA DUTEN ESPAZIOAK. MIKROESPAZIOAK 1.2.1

Familian berdintasuna/desberdintasuna aztertzea oso lan zaila da, etxeko eremua –printzipioz– berdintasuneko espaziotzat jotzen baita. Hots, familian itxuraz kide guztiak berdinak dira, eta tratuan, eskubideetan eta betebeharretan dauden desberdintasunak antzematea oso zaila da. Horrek, noski, oztopo handiak sortzen dizkio ikertzaileari, eta irudimen eta trebetasun handia beharko du berez diskriminazioa eta desberdintasuna ukatzen dituen egituraren azpian benetan zer dagoen jakiteko.

Egoera horretan, famili egituraren ikuspegi globalak ematen du, hain zuzen, azterketarako argibide gutxien, eta mikroespazioen azterketak –zatikako edo atalkako ikuspegiak– emango du, printzipioz behintzat, etxeko eremuan berdintasuna/desberdintasuna aztertzeko aukera egokiena. Analisi mota horretatik azter daiteke errazen, eta hortik abiatuz sor daiteke familiaren, egitura konplexu horren mapa orokorra.

Elkarrizketa sakonak egin zaizkie hiru famili motari ("etxekoandrea" duen familia, guraso bakarreko familia, eta guraso biak kanpoan lanean dituen familia). Elkarrizketetatik eta familia horietako kideen adierazpenen azterketatik, honakoak azpimarratu behar dira:

- a) Familiak azken urteotan izandako aldaketak, eta egungo familietan dauden egitura motak.
- b) Harreman eremu berri horretan, genero sistemak –eta horri dagozkion berdintasun/desberdintasun dinamikak– hartutako itxura, moduak eta ereduak, eta familian erabiltzen den balio sistema.

Familiak azken urteotan izandako aldaketei buruz hitz egiterakoan, kontuan izan beharko dugu egungo etxeko espazioko kontzeptu nagusia: negoziazioa. Kontzeptu horrek honako esanahia izan dezake: irekitasuna, elkarrizketa, komunikazioa; eta, areago, hitzarmena eta eztabaida familiako kideen arteko harremanaren elementu bihurtzea. Negoziazioak, hain zuzen, hainbat jarrera eta balio adierazten ditu: azterketaren xedeko gazteen gurasoen eta aitona-amonen belaunaldietan aldaezintzat jotzen ziren eskemak, ideiak eta arauak haustea dakarten jarrera eta balioak. Urte gutxitan familiak aldaketa izugarriak izan ditu: funtzionatzeko modu zurrun eta bertikal haiek egitura askoz ere moldakorragoak eta malguagoak dira orain, eta harreman horien eredu irekitasuna eta horizontaltasuna dira.

Famili egitura berri horretan, berdintasuna/desberdintasunaren adiera tradizionalak ez du ez zentzurik, ez baliorik. Horren ondorioz, ez da hori izango azterketaren gunea eta beste hainbat egoerari emango diogu garrantzia, hain zuzen, berdintasuna beste egoera batzuetan negoziatzen da, sotilago edo argiago; beste egoera batzuetan birstortzen dira desberdintasun eskemak eta mekanismoak. Hori guztia agerian jartzeko, ikerketan bost mikroespazio adierazi dira famili antolaketan, mikroespazio horietan genero sistemaren sorkuntzan eta birstorkuntzan eragiten duten dinamikak ematen direla uste baita.

Honako mikroespazioak zehaztu dira:

A) HARREMANEN ETA ELKARRERAGINEN MIKROESPAZIOA: eremu horrek familiako kideen arteko harremanak nolakoak diren adierazten du: aitaren eta amaren artekoak, amaren eta alabaren artekoak, aitaren eta semearen artekoak, anai-arreben artekoak...

B) "ARAUEN" MIKROESPAZIOA: BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK. Familiaren arauen arloari dagokio: etxeko espazioa arautzen duten arauak; hots, zein diren kideen eskubide eta betebeharrak.

C) BALIOEN ETA EREDUEN MIKROESPAZIOA. Familiaren elkarbizitza eta arauak gidatzen dituzten balioen eta erreferentzien eremua. Etxeko dinamika antolatu, agindu eta arautzen duten eredu nagusiak: diziiplina, independentzia, konfiantza, errespetua, etab.

D) ROLEN ETA ITXAROPENEN MIKROESPAZIOA. Familiako kide bakoitzak hartzen duen rola, bere atribuzioak eta rol bakoitzak gizonei zein emakumeei ematen dizkieten eginbeharrak. Familiako kideak balioetsi eta zehazteko, rolez gain, itxaropenak ere funtsezkoak dira, izan ere, eskuarki, berdina izaten baita batzuegandik eta besteegandik espero dena eta gizarteak "aita", "ama", "semea" edo "alaba" batengandik espero duena.

E) FUNTZIOEN ETA ANTOLAKETAREN MIKROESPAZIOA. Mikroespazio horretan familiaren antolaketa eta etxeko lanen banaketa azpimarratzen da, bereziki. Kide bakoitzak zein zeregin dituen aztertzen da, bai eta banaketa hori zein elementuren eta egoeraren arabera egiten den ere.

Laburbilduta adierazi diren "mikroespazio" horiek genero ikuspegitik aztertuko dira ondoren. Ikuspegi horretatik, gizartearen aldaketa benetan nolakoa izan den neurtu nahi dugu, bai eta famili egituraren zein eragin izan duen ere. Izan ere, aldaketa hori –geroago arrazoituko dugun bezala– behar bezala aztertu eta neurtu behar da, gure asmoa sexuaren arteko berdintasuna lortzea bada, behintzat. Bestela, orain artean lortutako gutxieneko berdintasun hori berdintasun maila onargarria dela pentsa daiteke, eta ikerketan antzeman denez, maila hori ez da inolaz ere lortu.

Berdintasun alorrean izandako aurrerapenen azpian, beraz, desberdintasuna edo desoreka dago, eta horren ondorioz, ikerketak bernizaren teoria deitu duena sortu da. Hots, aldaketak bi alderdi ditu –benetako aldaketa, alde batetik, eta aldatu gabe geratu dena, bestetik– baina horrek sortutako irudia ez da benetakoa: gizarte eraldaketa izugarria gertatu dela antzematen da, eta horrek sexuaren arteko parekotasuna eta berdintasunaren irudia ematen du –ilusioa–; horren azpian, ordea, desberdintasun estrukturalaren eskemak, mekanismoak eta dinamikak iraunarazten dituen gizarteko indarra edo inertzia dago.

Txostenean adieraziko dugunez, eremu guztietan –afektua, aisialdia eta arduetan– agertzen da gizon eta emakumeen arteko berdintasun irudi hori: aukera berdintasuna, berdintasuna portaeretan, nahietan, itxaropenetan, jarreretan eta abar. Irudi hori ez da, ordea, indar edo bizitasun berberaz adierazten alor guztietan, eta horretarako oinarria ere ez da berdina. Dena den, gazteen diskurtso eta interpretazio guztietan agertu da, eta indar handiz gainera. Beraz, hori kontuan hartzen badugu, berdintasun berniza hori elementu garrantzitsua litzateke sexuaren araberako desberdintasunaren eta diskriminazioaren sorkuntzan eta birsorkuntzan parte hartzen duten mekanismoak zein diren argitu nahi badugu.

MIKROESPAZIOEN AZTERKETA ETA "BERNIZAREN TEORIAREN" EZARPENA


1.2.2

Arestian adierazi bezala, "Bernizaren teoria" izeneko horrek gailu berezi batzuk identifikatzen eta ulertzen ezin hobeto lagunduko luke, hain zuzen, gazteentzat garrantzia duten eremuetan mutikoen eta neskatuen arteko desberdintasunak eta diskriminazioak itxurazko parekotasun egora bihurtzen dituztenak. Bestela esanda, bernizak gizarte aldaketaren alder-

di positiboak, deigarriak eta nabariak soilik jartzen ditu agerian, eta baztertuta uzten ditu elementu inobilista guztiak. Hots, gizarteko eremu guztietan dirauten desberdintasunaren baliabide eta euskarriak ezkutuan geratzen dira.

Ikuspegi hori familiaren arlora aldatzen badugu, zehaztutako mikroespazio guztietan gizarte aldaketa hori agerian jartzen duten elementuak agertzen dira; baina horrekin batera, aldaketa horren kontrapuntu edo oztopo diren hainbat alderdi ere antzematen dira. Aldaketaren ikuspegi positiboak bernizari oinarri sendoa emango lioke eta horri ematen zaio garrantzia; horri kontrajarrita, ordea, desberdintasun elementuak ditugu, eraldaketa irudi horren barruan ezkutuan.

2. ILUSTRAZIOA Berdintasunaren berniza familiaren eremuan



Famili eremuan azken hamarkadetan benetako aldaketa izan da, aldaketa izugarria, gainera. Hori ukaezina da, eta gertaera batek argi erakusten du: eraldaketa hain handia izanik, familiako kideentzat ere oso zaila da aldaketa nolakoa izan den eta zein eragin dituen ulertu eta antzematea. Gaur egungo gazteen gurasoek bizitako famili egoera, egungoarekin alderatuta, guztiz desberdina da. Hori dela-eta, asko kostatzen zaie euren haurtzaro eta gaztaroaren eta euren seme-alabek bizi dutenaren artean loturarik antzematea. Haustura izugarria izan da, eta hainbat alorretan izan du eragina. Alderdi horietako bat –eta azpimarragarrieneta–

koa– gizonen eta emakumeen egoerari dagokiona da. Emakumeen lorpenak –ama, emazte, alaba, ahizpa edo arreba moduan dituzten errebindikazioak– oso deigarriak dira, eta berehala jartzen dira mahai gainean famili egiturak izandako eraldaketei buruz hitz egitera-koan. Aldaketa horien indarrak eta eraginak famili egitura guztiz irauli duela dirudi, eta fami-liaren balio, eredu eta dinamika askoren jatorrian dagoela.

Mikroespazio guztietan aldaketak eta berdintasunerako aurrerapausoak ikuspegi horretatik aztertzen baditugu, ordea, aldaketa horien zenbait "xehetasun iruzurti" antzemango ditugu.

A) ALDAKETA/BERNIZA HARREMANETAN ETA ELKARRERAGINETAN. Familiako kideen arteko harremanetan eta elkarreraginean izandako aldaketa oso nabarmena izan da. Egun, oso ezaguna da familien *demokratizazioaren* diskurtsoa, bai eta hori nola ezarri ere. Demokratizazio hori maiz aipatzen da: familiako kideen arteko berdintasuneko harremanez hitz egiten denean, guztiek hitz egiteko eta iritzia emateko duten aukera aipatzen denean, gurasoen eta seme-alaben berdintasuneko tratua azpimarratzen denean, etxeko kide guz-tien artean desberdintasunik ez dagoela aldarrikatzen denean.

"Lehen agintaritza urrunago zegoen; orain desberdina da, berdinen artekoagoa. Lehen aita-ren paperak garrantzi handiagoa zuen".

(Aita. "Etxekoandrea" duen familia).

"Lehen gauza batzuei balio handiagoa ematen zitzaien: esaterako, "hamarretan etxean" en-tzun, eta bost minutu berandu iritsiz gero, astebete irten gabe egoteko zigorra zenuen; edota beti ikasten jardun behar zenuen, atsedetik gabe".

(Aita. "Etxekoandrea" duen familia).

"Gainerakoan nahikoa tolerantetxak gara. Bakoitzak geure gauzatxoak ditugu, eta hori ongi edo gaizki iruditzen zaigu, baina ez dugu nahi iritzirik aldatu... Horri buruz hitz egiten dugu eta ez da ezer gertatzen".

(Semea. Guraso bakarreko familia).

Kontzeptu hori –demokratizazioa– berdintasun ideiari lotuta dago, baina praktikan, diskur-tsoa utzi eta eguneroko alderdietan sakontzen denean **neskatoei eta mutikoei emandako tratuan desberdintasunak daude, maiz**. Desberdintasun hori, gainera, diskriminazio bihurtzen da semea gehiago babesten bada. Izan ere, mutilak oinarritzko zereginak egiteko –janaria egin, arropa garbitu eta lisatu, gela txukun eta behar bezala eduki, etab.– gaitasun txikiagoa duela uste ohi da, eta horregatik, maiz, mutilaren beharrei eta eskaerei lehenta-suna ematen zaie. Eta zeregin horiek amak egiten dizkio, edota arrebak edo andregaiak.

" Esaten diot (semeari) nire belaunaldia izango dela hori egiten azkena, ezkontzen denean ez dela horrela izango, ezinezkoa dela. Beharbada, nik baino gehiago maiteko zaituzte, baina ez, ezinezkoa da, egungo egoeran, egungo bizimoduarekin, nik egiten diodan guztia egitea. Flipatuta geratzen dira. Denbora luze ematen duzu horretan, eta nik badakit, behar-bada, gaizki egiten dudala bere emazteak ezin izango baitu egin... patatak panaderara, arrautza galdarraztatu eta guzti..."

(Ama. "Etxekoandrea" duen familia).

"Ni, aitortzen dut, gaizki hezten ari naiz hau. Gaizki hezi ez, baina bai, beharbada, gero ezin-go baita izan horrela, baina nik beti esan diot. Nire belaunaldia izango da horrela egiten duen azkena, ez dezala pentsa gerora horrela izango denik."

(Ama. "Etxekoandrea" duen familia).

"Noski, amatxoren etxean baino hobeto ez zara inon egongo".

(Semea. Aita eta ama etxetik kanpo lanean dituen familia).

Desberdintasuna beste modu batean ere adierazten da: etxean, oro har, alabak sarriagotan egin behar izaten ditu zenbait lan, famili harreman eta konpromiso gehiagori erantzun behar izaten dio. Eta hori diskriminazio modu bat da, izan ere desberdintasun egoerak sortarazten dituzten harreman mota batzuk iraunarazten laguntzen dute, ez baitaie semeek eta alabei berdin eskatzen.

Harremanen eta elkarreraginen mikroespazioan bada hausnarketarako beste alderdi bat: etxean mutikoen eta neskatoen artean dagoen harremana. Izan ere, alor hori sakonean aztertzen bada agerian jartzen dira mutikoek afektuan eta komunikazioan dituzten gabeziak, bai etxean bertan, bai eta gizarteko beste hainbat alorretan ere. Ildo horretan, erraza da amek eta alabek dituzten komunikazio eta harreman estrategia eta dinamikak neskato horiek euren lagunekin eta geroago euren alabekin izango dituzten komunikazio eta harremanekin lotzea. Badirudi, emakumeek, euren artean, intimitate, adiskidetasun eta harreman lotura sendoak dituztela, eta horiek –gehienetan– biziagoak eta ugariagoak izaten dira emakumeek gizonekin dituztenak baino, bai eta gizonen euren artean dituztenak baino. Emakume horien arteko harremanak oso sakonak dira, eta egindako elkarrizketa guztietan argi geratu da hainbat ezaugarri berezi eta ondorio dituztela, bai gizonentzat, eta baita emakumeentzat ere.

Harreman mota horrek harreman eta komunikazio sare sendoa eta garrantzitsua sortzen laguntzen du, eta horien bidez inguru hurbila ezagutu eta kontrolatzeko informazio eta eza-gutza baliotsuak lortzen dira. Baina, beste alde batetik, harreman horietan murgiltzeak emakumeak eragozpenak ere ekartzen dizkio, izan ere zenbait betebeharrak, konpromiso eta zama hartzen ditu bere gain, eta horiek batzuetan astunak eta nekagarriak izan daitezke. Gizonak sare eta harreman horietatik baztertuta egotea, agian, automarginazio gisako zerbait izan daiteke, harreman eta afektu konpromisoetatik urruntzea. Baina, beharbada, jarrera hori gizonaren gabezia edo zailtasunaren adierazle izan daiteke: gizonen pertsona ororen alor nagusi bati –afektibitateari– heldu eta horretan inplikatu eta sartzeko duten gabezia. Beraz, gizonen "uko" egiten diote afektibitateak dakarren aberastasunari. Ikuspegi horretatik ikusi beharko litzateke, hain zuzen, gizonak izan dezakeen desabantaila edo diskriminazioa; hots, oraingoz emakumearena den unibertsoan ez sartzeak dituen abantailak ez izatea.

"Beno, egia esan, gure harremana (aitaren eta semearen artekoa) ez da Lorenak eta amak dutena bezain estua, eurak maiz ateratzen dira elkarrekin. Gu, aldiz, ez. Gu... berak beti eraman izan nau txapelketetara, edo entrenamenduetara joan da nire bila, eta berriketan egiten dugu. Edo zerbait galdetu nahi dudanean, gehiagotan galdetzen diot aitari. Beno, eta elkarrekin, ba filmak edo horrelakoak; elkarrekin, ba, elkarrekin ez gara ateratzen, bakoitzak bere gauzak ditu, bakoitzak bere hobbyak ditu, bere istorioak; eta, bestalde, oso zaila da bat

etortzea, bera bere lagunekin ateratzen da, eta bestela amarekin; eta ni ere nire neskarekin ateratzen naiz, edo, bestela, nire lagunekin".

(Semea. "Etxekoandrea" duen familia).

"Harremana dugu... niretzat ama baino gehiago laguna da... Ez dakit gazte ikusten dudalako den edo... ez zait axola nire gauzak kontatzea..."

(Alaba. Guraso bakarreko familia).

"Dena, badakit nirekin izango dudala, lagunduko didala. Faborea eskatzen badiot egiten dit, nire gauzak kontatzen dizkiot eta adorea ematen dit, edo gaizki iruditzen bazaio iritzia ematen dit".

(Alaba. Guraso bakarreko familia).

"-Nik uste dut errazago uzten dutela alde batera festa. Gizonok ez, festan bagabiltza festan gabiltza.

(Gizona)

- Eta askotan arazoan gehiegi sartzen zara eta gau guztia hondatzen dizu".

(Emakumea).

(18-21 urte bitarteko koadrila).

Dena dela ere, gauza bat azpimarratu behar da: egoera horiek eta beste zenbaitek berdintasun teorikoa zalantzan jartzen dute, dela etxeko harremanetan, dela etxeko ondasunak eskuratzeko aukeretan. Izan ere, praktikan mutikoen eta neskatoen arteko harremanak eredu, dinamika eta rol klasikoetan oinarritzen dira.

"Niri gertatzen zait, baina ez bakarrik haiekin, emaztegaiarekin ere bai. Gauza batzuk bada-kizkit, ama maite dut, baina badakit esaten ez badiot ere berak badakiela, edo nik esan ez arren, berak badakiela uste dut. Beharbada bera ez da konturatuko, baina nik uste dut bada-kiela, eta horregatik ez diot esaten. Horregatik ez diot inoiz esaten, baina ez berari soilik, emaztegaiarekin ere gertatzen zait".

(Semea. Guraso bakarreko familia).

"Baina desberdina da. Nik arrebaren edo amaren babesle ikusten dut nire burua, zerbait gertatuko balitz, aurpegia atera beharko lukeen lehena nik izan beharko banu bezala. Zerbait hartzera ateratzen garenean, zakar jartzen naiz norbait bere onetik aterata ikusten dudanean, zigarro baten eske etortzen bada, tartean jartzen naiz..."

(Semea. Guraso bakarreko familia).

B) ALDAKETA/BERNIZA FAMILI ARAUETAN: ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK. Familiaren egituraren aldaketak famili arauetan ere eragin du. Duela hamarkada gutxi batzuk eskubideak eta betebeharrak oso argi banatuta zeuden: eskubideak, lehenik eta behin, aitari eta amari zegozkien (eta, bereziki, aitari), eta ondoren semeei; betebeharrak, aldiz, seme-alaba guztiei zegozkien, baina alabei betebehar gehiago (elikadurari eta gainerako kide guztien ongizateari eta zainketari buruzkoak, bereziki).

Egungo familiari begiratzeko badiogu, eskubideen eta betebeharren banaketa teorikoa askoz ere malguagoa eta irekiagoa da, eta gurasoei dagozkien ahalmenak eta eskubideak eta seme-alabei dagozkien betebeharrak ere asko aldatu dira.

"Nik desberdina ikusten dut, lehen... nire aita lanetik etxera etortzen zenean, ez zuen ezer egiten".

(Gizona. 23-25 urte bitarteko familia).

"Gizonak esaten zuena nahitaez bete behar zen, eta uste dut hori, ba, ezetz..."

(Gizona. 23-25 urte bitarteko familia).

Arauen edukia eta horren esanahia ere ez da lehengoak, eta aldaketa, oro har, ontzat jotzen da: funtzionatzeko eta antolatzeke ereduak asko lasaitu dira –konfiantza handiagoa eta giro lasaiagoa dago–, arduen banaketa demokratizatu egin da eta kideen arteko berdintasun handiagoa dago –horrek esan nahi du den-denek gutxieneko ardura pertsonal bat hartu behar dutela beraien gain– eta, azkenik, gauzak behin-behinekoak direla onartuko da, onartu egingo da familiak une bakoitzean duen egoerara egokitu egin behar duela. Arauak, eskubideak, familiako kide bakoitzaren betebeharrak, batez ere, familiaren aldaketaren arabera-koak izango dira; eta ez egitura hierarkiko eta bertikal zurrun batek ezarritakoak, familian edo horren inguruan gertatutako aldaketei jaramonik ez egin eta aldatzen ez zen funtzionamendu zurrunean ezarritakoak.

"Lehen neska batek, nahitaez, mutil batekin egon behar zuen, mutilak babesa eta segurtasuna ematen baitzuen, eta hori hein batean logikoa zen, gizona baitzen lan egiten zuena".

(Gizona. Elkarrekin bizi EZ den bikotea).

Famili arauen aldaketaren zenbait elementu aztertu ditugu, eta azken hamarkada hauetan familiaren egituraren izandako aldaketaren ondorioz malguagoa eta irekiago dela azpimarratu da; baina adierazi egin behar ditugu, halaber, mikroespazio honetan antzemandako zenbait desberdintasun, izan ere famili egituraren berdintasun teoriko horri eragiten baitiote. Ildo horretan, alabari betebeharrak gehiago egozten zaizkiola ikusi da, eta alabaren mugimenduak, ordutegiak, etab. gehiago kontrolatzen direla. Beraz, neskaren "eskubideak" mutikoari ematen zaizkionak baino murriztagoak dira.

"Astuna bai, nahikoa astuna. Goitik bera ikuskatzen zaitu (amak) etxetik ateratzerakoan, ez baitzaio gustatzen nola jantzita zauden, eta aldatu egiten zara berak ezer esan ez arren".

(Alaba. "Etxekoandrea" duen familia).

"Kanpaldira joatea erabakitzen badugu, eta kanpaldira noala aitari esaten badiot, ez dizute ezer esaten; aldiz, neska batek esaten badu mutil batekin kanpaldira doala, beno, kontuz".

(Gizona. 18-21 urte bitarteko koadrila).

C) ALDAKETA/BERNIZA FAMILIAREN BALIO ETA EREDUETAN. Seguruenik, balioena izan da, hain zuzen, familian aldaketarik handiena izan duen alorra. Izan ere, balioak eta ereduak dira familiako antolaketa eta egiturako gainerako elementuen euskarri. Alor horretan, familiei egindako elkarriketetan honako aldaketa izan da azpimarratuena eta deigarriena:

egitura hierarkiko, autoritario, patriarkal eta bertikala mantentzeko balio eta ereduak utzi eta funtzionatzeko modu malguagoak, berdinagoak eta horizontalak onartu eta pixkanaka ezarri joan dira. Familia ikusteko modu horretatik dinamika eta balio berriek hartu dute lekua: elkarriketa, komunikazioa, parekotasuna, berdintasuna, etab. Izan ere, gizarteko prestigio eskalan hierarkiak, argi eta garbi, indarra galdu du, famili egiturari dagokionez behintzat. Izaera hierarkikoaren orde, egun, errespetua edo norbanakoaren autonomia eta independentzia eskatzen dira.

Familiaren portaeran eta orientabidean balio eta eredu multzo horrek berdintasun handiagoa ekarri badu ere, ezin izan dituzte desagerrarazi generoen arteko desberdintasunak irauten laguntzen duten zenbait elementu. Oro har, familian nagusi den ikuspegia eta irizpidea, gaur egun, gizonezkoena da. Aita da, semeak dira, etxean arreta eskatzen dutenak; antolaketa irizpideak adierazi eta ezartzen dituztenak; euren ordutegi, behar eta abarren arabera familiako dinamikak alde batera utzi edo berriro hartzen dituztenak. Azken finean, eurak dira –bereziki– arreta berenganatzen dutenak, eta hortik familiek gizonezkoen ohiko dinamika eta balioak birsortzen dituzte; eta, horren emaitza, noski, matxismoa da. Matxismoa salatu egiten da, bai, baina familiaren ustezko demokratizazio horretan onartu egiten da edo, behintzat, ez zaio aurre egiten. Eta paradoxa hori argi adierazten da elkarriketa guztietan: gizonek gutxiago hitz egiten dute, baina egiten dutenean iritziak sendoagoak dira, ia eztabaidezinak, gainerako kideen gainetik nagusitasuna eta agintea adierazi nahiko balu bezala.

" (...) nik esaten dut asko egiten duela (semeak) eta baita lo kuluxka errespetatu (egin behar zaiola) ere. (...) Nik, bakearen izenean, ez dut parte hartzen, baina aitortzen dut mutikoak lo kuluxka egin dezan neskak kanpora joan behar izaten duela".

(Ama. "Etxekoandrea" duen familia).

D) ALDAKETA/BERNIZA ROL ETA ITXAROPENETAN. Familian izandako aldaketetan beste bi gauza ere azpimarratu behar dira: batetik, neskei eta mutilei emandako roletan izandako aldaketak; bestetik, mutilengandik eta neskengandik espero denak izandakoa. Orain artean aipatutakoarekin bat etorri, mikroespazio horretan gertatutako eraldaketak etxean mutikoei eta neskatoei ematen zitzaizkien zeregin, eginkizun eta jardueren banaketa zurrana hautsi izanaren ondorio dira. Egun, mutikoak eta neskatoak zer diren, etorkizunean zer izan daitezkeen edo horiengan zein itxaropen dagoen adierazteko askatasun eta permisibitate handiagoa dago, orain dela bi hamarkada baino. Gaurko gazteek, semeek edo alabek, euren rola, eginkizuna eta betebeharra hautatzeko aukera zabalagoa dute; eta horietako zenbait, gainera, bi sexuek aukeratzeko modukoak. Ildo horretan, aldaketak onartu eta bereganatu egin dira, eta aitari, amari, semeari edo alabari buruzko rol edo irudi tradizionalak hausten dituzten erreferente berriak agertu dira. Adibide moduan honako biak aipa daitezke: aurrez erretiratutako aita, etxeko lan batzuk egitea onartzen duena; edo bere lanpostua uzteko prest ez dagoen ama, etxeko lanaren eta eginkizunen banaketa zuzenagoa eskatzen duena.

Era berean, mutikoek eta neskatoek, biek, lortu dute hezkuntza; eta prestakuntzak gizartean balio handia lortu du. Horren ondorioz, epe luzera, mutikoek eta neskatoek –teorian– lan aukera eta lanbide garapen berberak dituzte. Familiek duten guztia eman dute semei eta alabei hezkuntza emateko, eta horrek zera adierazten du: mutikoengandik eta neskatoen-

gandik espero dutena pixkanaka berdindu egin dela. Baina itxurazko berdintasun horretan, maiz, desberdintasun egoerak gertatzen eta birsortzen dira, bai eta adierazi ere; eta, gehienetan, neskatoak izaten dira galtzen ateratzen direnak.

"Esaterako, senarrak errieta egiten dit honi (alabari) zenbait gauza irakatsi ez dizkiodalako; izan ere, botoiak josten ere ez daki".

(Ama. "Etxekoandrea" duen familia).

"Honek (senarrak) errieta egiten dit ez diodalako irakatsi (alabari) janaria prestatzen, nik esaten diot alabari jango duela, ez dela gosez hilko. Nahiago dut liburuak irakurtzea eta daukana bezalako karrera izatea, eta kultura inork ez dio kenduko, nahiz eta gero, beharbada, hiper bateko kutxan lan egin beharko duen edo garbitzen aritu; baina kultura hor dauka. Orduan, etxe bat eramatea, etxe bat eramaten bakarrik ikasten da, ikasiko du".

(Ama. "Etxekoandrea" duen familia).

"Rolak. Mutikoak duen rolean neskatoak ere badu zerikusia. Hor ere norberak izandako hezkuntzak badu zerikusia".

(Emakumea. Bikote homosexuala).

lido horretan, deigarria da, halaber, mutikoek eta neskatoek egiten dutena aintzat hartzeko ezarritako irizpide desberdina: mutikoaren ahaleginak eta neskatoarenak; nabarmentzen diren ezaugarriak eta berezitasunak; mutikoek nahiz neskatoek egiten dituzten jardueretatik azpimarratzen direnak eta ezkutatzen direnak, etab. Alderdi horietan, oro har, semearen gizarte itxaropenak nabarmentzen dira: langile, profesional edo kirolari gisa dituen aukerak –gainera, gizarteak onartu eta aintzat hartzen dituenak–. Eta alabarenak, aldiz, gutxietsi egiten dira gizartean ospe txikiagoa duten alderdiak azpimarratzen baitira: konstantzia, adorea edo dena emateko gaitasuna. Eta semeen eta alaben ahalmenak desberdinak direla irizten da, eta horiek azpimarratu egiten direnez, maiz, mutikoen eta neskatoen itxaropenak eta ibilbideak desberdinak izaten dira. Hori barneratu egiten da, eta egun gazteak aztertzean nabarmentzen diren generoen arteko zenbait diskriminazio eta desberdintasunen oinarri bihurtu.

Mutikoek eta neskatoek itxaropen desberdinak izatea beste gauza baten adierazle ere bada: gurasoek neskatoari eskatzen dizkioten jarrerak, portaerak eta jarduerak, askotan, famili eta gizarte unibertso tradizionaletik edo "tipikotik" hurbilago daude.

"Nik ez ditut konplikatuagoak ikusten, neskak izateagatik ez ditut liskartiagoak ikusten, ez ditut zailagoak ikusten. Batzuek etxean ikusitakoa ikasi dute, emakume delako modu batean jardun behar duela, baina beste etxe batzuetan ez. Eta mutilekin ere gauza bera gertatzen da, batzuek aitak esandakoa ikasi dute, zuk hemezortzi urterekin larrutan egin behar duzu eta sekulako esperientzia lortu, zure semeei kontatu ahal izateko; baina beste hainbatek ez dute horrela ikusi".

(Gizona. 18-21 urte bitarteko koadrila)

E) ALDAKETA/BERNIZA EGINKIZUNETAN ETA ANTOLAKETAN. Ikerketan zehar familiekin izandako elkarriketetan adierazitakoari jarraitzen badiogu, badirudi etxeko eginkizune-

tan eta antolaketan iraultza moduko zerbait gertatzen ari dela. Eta, gainera, iraultza horren protagonista emakumea dela adierazten da argi eta garbi. Emakumeek zein gizonek aitortzen dutenez, emakumea lan munduan sartu izanak eraldaketa handiak eragin ditu, eta, gainera, bide horri jarraitu diote *etxeakoandre* deitzen ziren beste hainbat emakumek. Hori dela-eta, emakumeak etxetik kanpo lan egin ala ez, etxean onartu egiten da eginkizunak familia osoaren artean banatzea, onartu du eta gizarteak positibotzat jotzen du. Banaketaren onarpena bi modutan adierazten da: batetik, familiako kideak laguntzeko prest agertzen dira; bestetik, benetan lagundu egiten diote etxeko lanen arduradunari edo arduradunei, eskuarki ama eta etxean bizi diren emakumeak. Hainbat argudio erabiltzen dira lan hori egin beharra arrazoitzeko, eta bide batez, ingurune hori mantendu, antolatu eta aurrera eramateko lankidetzak kontzientzia sortzen laguntzen dute. Horrela, inguru hori, inoiz baino gehiago, elkarbizitza estuko espazioa da, nahiz eta partzela indibidualak eta intimitate gordelekuak sortu eta babestu egiten diren (mutikoaren gela, neskatoaren gela, etab.).

"Zer egin behar duten esaten diet, neskato, komunak garbitu behar dituzu, edo mutiko, sexuaren arabera desberdintasunik egin gabe, hori betidanik planteatu dut horrela, eta egin behar dutena egiten dute, lagundu egiten didate. Enkarguren bat egin behar badute, beno, ez dago arazorik. Eta nik esaten diedan moduan antolatuta dago: zuk egongela egin behar duzu edo xurgagailua pasatu, eta arazorik gabe egiten dute..."

(Ama. Aita eta ama kanpoan lanean dituen familia).

Aldaketa horiek benetakoak direla eta horren ondorioz jendeak gehiago laguntzen duela onartuta, interesgarria da —eta beharrezkoa— eraldaketa horien azala urratu eta *berniz* deitu diogun itxurazko berdintasun horren azpian zer dagoen aztertzea. Ildo horretan, funtzioen eta antolaketaren mikroespazioa, hain zuzen, azpian emakumeen diskriminazio handiena duen eremuetako bat da. Izan ere, aztertutako kasu guztietan agertzen da etxeko lanak egiteko eskaria, bereziki, alabei egiten zaiela. Halaber, etxeko lanen banaketetan alabak eginkizun gehiagoren ardura du, eta hainbat argudio erabiltzen dira eginkizun horiek antolatu eta egitean semeak lan gutxiago izatea arrazoitzeko.

"Baina niri, esaterako, 14, 15 urterekin izugarri gustatzen zitzaidan kristalak garbitzea. Zuk (alaba) ez didazu inoiz galdetu: ama nola egiten da hori? Ez horixe, ez zaizulako gustatzen".

(Ama. "Etxekoandrea" duen familia).

"Zuk (arrebak) ez zenuke jakingo zer egin etxean, ikasi besterik ez duzu egiten, ez dakizu beste ezer egiten."

(Anaia. "Etxekoandrea" duen familia).

"Davidi gehiago gustatzen zaio berak egin beharrean beste norbaitek egitea. Ez dakit matxista den ala ez, baina zentzu horretan matxista da. Sofan badago eta emaztegaia etxean bada, gauza bera: ekar diezadazu hori, eta ekar diezazkidazu zapatilatxoak".

(Ama. Guraso bakarreko familia).

** (...) berak (neska) sukaldea garbitzen zuen eta beste zenbait gauza, eta mutilak esaten zigun amorrazioa ematen ziola neskak hori egitea, izan ere berak ez du lisatzen baina ez zaio axola ez lisatzea, baina neska bi ordurako etortzen da, eta bere pentsaera da; izaera edo*

bere etxean bizitza osoan ikusi duena; baina ez du mutilak agintzen diolako egiten. Geldirik ez egoteko eta garbitzeko duen joera naturala da. Nik uste dut garbitzeko eta gauzak pres-tatzeko joera natural hori arruntagoa dela neskengan mutilengan baino.*

(Emakumea. Elkarrekin bizi EZ den bikotea).

Hainbat estrategia eta argudio erabiliz, azkenean neska da etxeko lanen ardura handiena hartzen duena. Eta horrek iragarri egiten du, hain zuzen, neskak bere familia osatzea era-bakitzen duenean bere ardura zein izango den.

Orain arte azpimarratutakotik honako ondorioa ateratzen da: familian aldaketa handiak izan dira hainbat mailatan: antolaketan, balioetan, ereduetan, etab. Eta horien ondorioz, famili egitura tradizionalan jasaten ziren desberdintasuneko harremanak asko aldatu dira (des-berdintasun horiek emakumeei hainbat kostu eta gabezia zekarzkien). Aldaketa deigarri horiek berdintasun berniza –itxurazko berdintasuna– sortzen lagundu dute, baina horren azpian desberdintasun estruktural handiak daude, eta genero sistemak eta horrek emaku-meari dakarkion diskriminazioa oraindik ere hor egotea dakarte.

3. ILUSTRAZIOA Familian dauden diskriminazioak



Eta, hain zuzen, familiaren diskurtsoa berniz horretan atzemanda geratzen da: mutilek, semeek, familian duten rol berria berenganatzeko prestatu eta mentalizatu behar dute. Rol horrek baditu erreferente eta eredu berriak (bere etxean laguntzen duen anaia, emazteak etxetik kanpo lan egiten duelako; erretiratutako aitak zenbait eginkizunen ardura hartzen du, etab.; eta publizitatean, komunikabideetan eta filmetan ikusitako hainbat eta hainbat irudi) eta normaltasunez onartu eta bereganatzen den zerbait da; hori esaten da, behintzat.

"Zenbait mutil ongi hezita daude etxeko lanak egiteko, ni, adibidez. Eta mutila ongi hezita badago, neskak lana izan duelako eta hezi egin behar izan duelako izan da. Amek dena egin diote, eta neska batekin bizi direnean, hura ez da bere ama. Hasieran, mutilaren eta neska-karen elkarbizitzan arazotxoak izan ohi dira. Gauzak elkarren artean banatu egin behar dira".

(Emakumea. Bikote homosexuala).

Semea gizonenak ez diren obligazioak eta paperak bere egiteko prestatzen da, eta horrek gazteari mentalitate irekiagoa ematen diote, eta etorkizunean izango dituen zenbait eskaerari erantzuteko adiago egotea. Prestaketa horrek, ordea, hutsune handiak ditu. Hutsuneen artean bada azpimarratu beharreko bat, izan ere horren ondorioak familiaren eremutik harantzago baitoaz: ez dago ia erreferente edo eredurik mutilak etxeko espazioko eta horren inguruko afektu, harreman eta komunikazioan gehiago inplikatzeko laguntzeko. Eta hutsune horrek, epe luzera, gabezia larria eta zailtasuna dakarkio mutilari hainbat ardura onartzeko, hainbat egoerari aurre egiteko, itxaropenak errealtate bihurtzeko... Hutsune hori zenbaitetan pertsonak berak onartu eta sustatu egiten du (afektuari eta harremanei dago-kienez, bere burua marjinatuz), baina beste batzuetan mutilari ezintasunak eragiten dizkio, eta horrek neskarekiko desabantaila dakarkio zenbait esperientzia edo bizipen izateko, edo hainbat eginkizun burutzeko. Hots, gaur egun, mutilek desabantaila dute –hainbat arrazoi direla-eta– gozatzen ez duten unibertso aberats bat eskuratzeko.

Familien aldaketa horrek gazteen sozializazioan dituen ondorioen bi alderdiak aztertuz maki-na bat egoera eta adierazpen ditugu hausnarketarako, eta egoera horietan argi adierazten dira familian izandako aldaketak, baina baita horren mugak ere. Aurrerapausoak izan dira, gizonak etxeko lanetan gehiago parte hartzen duela aitortu baita, eginkizunak banatu egin behar direla eta familiaren antolaketan eta funtzionamenduan oreka handiagoa eta berdintasun kontzientzia handiagoa izan behar dela onartzen baita. Mugak, ordea, familiaren kide-en arteko komunikazioan eta elkarriketan daude. Mugak daude, hain zuzen, aitortu egiten baita arrebarekiko, amarekiko, aitarekiko harremanean hutsuneak daudela; mugak daude, adierazi egiten baita arrebaren eta amaren arteko harremana nolakoa eta zein sendoa den ikusteak inbidia ematen dietela. Beraz, aldaketak muga handiak ditu, eta mutilek arriskua dute emozioen eta afektuen arloan etorkizunean, epe nahiko laburrean, aurre egin behar izango dieten emozioei erantzuteko behar adinako maila ez izateko. Hots, afektuen arloan hutsuneak izan ditzakete lagun moduan, lagun min moduan, bikote moduan edo lan talde bateko kide moduan izan ditzaketen beharrei erantzuteko.

Neskei azterketa eskema hori ezarritik gero, antzeko egoera dikotomikoa aurkituko dugu. Alde batetik, aurrerapen handia izan da, eta onartu egiten dira alaben rol eta itxaropen berriak. Neskek emakumeen aurreko belaunaldiak bultzatutako eraldaketak bere egin dituzte, eta barneratu egin dute prestakuntza beharrezkoa dutela lan munduan sartzen direnean ahalik eta baldintza onenetan parte hartzeko. Horrek, batetik, ikasketak izatea eskatzen die;

eta, bestetik, bereganatu egin behar dute lanean garatzeko mentalitatea behar dutela. Pentsaera hori, jada, ez da mutilena soilik, eta gurasoek (aitak eta amak) gogor defendatzen dute euren alabentzat. Hezkuntza eta prestakuntza helburu bihurtu dira, eta ikuspegi horretatik benetako balioak dira, bai mutilentzat, bai eta nesKentzat ere.

"Nire bizitza sentimental oso garrantzitsua da, baina baita lana ere. Bizitza osoa daramat ikasten (orain kazetaritza egiten ari naiz) lan duin bat lortzeko. Nire amak txikitatik irakatsi dit independentzia ekonomikoa oso garrantzitsua dela, eta berdin zait mutil batekin edo neska batekin egotea, nik independentzia ekonomikoa behar dut, ezin dut mantenduko nauen bikote bat izateko zain egon. Gero neurtu egin beharko duzu lanean jarraitu edo biko-teari jarraituko diozun. Nik bi alor ikusten ditut: sentimental eta lanekoa".

(Emakumea. Bikote homosexuala).

"Nik ere horrela ikusten dut. Bikotean bizitzeko, norbaitek lana edo ikasketak uztea matxis-ta iruditzen zait. Bai gizonak egin, bai emakumeak egin. Nik ez nituzke ikasketak utziko, edo bokazioa, bikotean bizitzeko".

(Gizona. Elkarrekin bizi EZ den bikotea).

Egoera horrek badu, ordea, beste alderdi bat: neskek, hainbat mekanismoren bidez, ikasi eta barneratu egiten dute familiaren afektuaren eta harremanen euskarri gisa duten rola eta zeregina. Eta neska askok rol hori defendatu egiten dute, benetako aberastasun afektiboa dela argudiatuz. Eta horren defentsan balio handia ematen zaio etxeko emakumeen arteko konplizitateari, euren artean askatasun osoz hitz egiteko, komunikatzeko, elkarrekin gauzak egiteko aukerari. Azken finean, balioa ematen zaio etxeko afektu, komunikazio eta harremanen unibertsoaren zati handi bat eraikitze gaitasunari, izan ere alor horretan eroso eta aske sentitzen baitira.

Nesken profilaren bi alderdi horiek, txanponaren bi alde horiek oso garrantzitsuak izan daitezke, baina aztertutako gainerako gizarte alorren azterketan ikusiko den bezala, baditu arriskuak ere bien arteko oreka lortzen ez baldin bada. Oreka beharrezkoa da, gazteen arteko berdintasuna/desberdintasunaren azterketak adierazten duenez, bai baitira konpondu beharreko arazoak. Horietan nabarmenenetakoa afektuak bere egiterakoan mutilen eta nesken artean dagoen desberdintasuna da. Alor horretan ez dago orekarik, eta, azken finean, arazoak eta zailtasunak dakartzkio gizon eta emakumeentzat berdintasun handiagoko espazioak sortzeko ahaleginari.

4. ILUSTRAZIOA Rolak barneratzea familiaren eremuan



KOADRILA

1.3

KOADRILA ETA BERDINTASUNERAKO ESPazio ESANGURATSUAK. MIKROESPAZIOAK

1.3.1

Gazteen adiskidetasun espazio nagusia, hain zuzen, lagun taldea da (edo koadrila, gure inguruan deitu ohi zaion bezala). Gehienentzat, koadrila askatasunerako, komunikaziorako, adierazpenerako eta lasaitzeko lekua da; batzuetan, espazio terapeutikoa ere bada, barre-

nak lasaitu eta gazteek euren arazoez edo kezkatzen dituzten gauzez hitz egiteko lekua. Mutilentzat zein neskentzat, hurbileko jendeak osatutako espazioa da, eurek aukeratu eta hautatu dituztenek osatutako taldea.

Gazteek koadrilaz aipatzen dituzten dohain gehienak benetakoak badira ere, askotan ez datoz bat koadrilaren irudi idilikoa eta benetan taldearen dinamika arautzen duten ereduak. Izan ere, mutil eta neska askok aitortzen dutenez, ez dute harreman berdina koadrilako kide guztiekin. Eta harreman horiek, gainera, denboran zehar aldatu egiten dira eta, pixkanaka, helduen adiskidetasun eskema eta ereduetara hurbildu. Hor ere badago aldea gazte-gazteenen eta hain gazteak ez direnen artean; hots, 15 eta 18 urte bitartekoen eta 27 eta 30 urte bitartekoen artean. Bi talde horiek gauza berberaz hitz egiten dute, bere koadrilaz; baina lagun taldea identifikatzeko adierazten dituzten kidetasunak eta elementuak oso desberdinak dira talde batean eta bestean.

Gazteenentzat koadrila kideen taldea da, berdinen taldea; arazo, kezka eta nahi berberak dituzten gazteen taldea. Elkarrekin egoteko, denbora pasatzeko, barre egiteko, ongi pasatzeko lagun taldea da. Eurentzat taldea irekia, malgua eta moldaerraza da. 30 urtetik hurbilago daudenentzat, ordea, koadrila talde ia formala da, askoz ere zehatzagoa, eta bertan denek elkar ezagutu eta elkar onartzen dute, askotan familiaren antz handiagoa duen modu eta baldintzetan: *koadrila ez da perfektua –diote– baina... beti hor daude, eta diren bezala onartzen dituzu*. Gazteenentzat koadrila "dena" da: mutiko eta neskatoentzat bizitzaren aldi horretako erreferenterik garrantzitsuena. Gazte helduenentzat koadrilaren nagusitasuna ez da hain handia, eta horren orde zedo, behintzat, horren pareko badira beste batzuk: bikotea, bi edo hiru lagun minak edo harreman berezia duten familiako zenbait kide.

Garrantzitsua da gazte segmentu horiek koadrilaz duten ikuspegi desberdina azpimarratzea, koadrilak norbanakoaren bizitzaren aldi desberdinetan duen pisua erakusten baitu. Eta horrez gain, koadrilako berdintasun/desberdintasun ereduak gaztearen gizarteratze eta nor-tasun eratze prozesuaren aldi horietan duten eragina zenbatekoa izango den neur daiteke.

Adinaren araberako desberdintasunak alde batera utzita, koadrilaren egungo kontzeptuan jarriko dugu arreta, eta afektuaren alor horretan, berdintasunean/desberdintasunean izandako aldaketak azpimarratuko ditugu. Egun, duela urte batzuk ez bezala, neska eta mutilen koadrila gauza arrunta da, eta gizar-tean onartutakoa. Mutilak eta neskak naturaltasunez eta lotsarik gabe hartzen dute parte laguntasun egitura horretan. Horrekin, oharkabea, tabuak eta aurreiritziak hausten dituzte, eta, aldi berean, genero sistemaren eta horrek eragindako desberdintasunen aurka doaz.

Illo horretan, koadrilari esker, mutil eta nesken arteko harreman eta komunikazioak asko aldatu dira; eta koadrila elkarbizitza eskola dela esan dezakegu, izan ere mutil eta nesken arteko elkarbizitza laguntzen baitu. Errealitateak, ordea, badu beste alderdi bat, eta horregatik ezin da ahaztu egitura horiek Euskal Herrian tradizioz dakarten zama: koadrilaren dinamika eta arau gehienetan ezaugarri maskulinoak –eta askotan matxistak– nagusi dira.

Galderak eta zalantzak lehengo berberak dira: noraino iristen da aldaketa? Zein mailataraino? Zer aldatu da, eta zer ez? Zerk oztopatzen du aldaketa?

Familia aztertzerakoan adierazi bezala, galdera horiek oso orokorrak eta zabalak dira orokortasun horretan aztertze-ko, eta horregatik oraingoan ere hainbat mikroespazio zehaztu

eta mugatu ditugu analisia fokalizatzeko. Mikroespazio horietako bakoitza aztertuz aldaketa benetan zenbatekoa izan den jakin ahal izango dugu, bai eta bernizaren teoria koadrilaren espazioan ere erabil daitekeen ere. Teoria horrek, hain zuzen, aldaketari jartzen zaizkion oztopoak antzematen lagunduko digu.

5. ILUSTRAZIOA Koadrilaren eremuan dagoen berdintasunaren berniza



MIKROESPAZIOEN ANALISIA ETA "BERNIZAREN TEORIAREN" EZARPENA

1.3.2

"Bernizaren teoria" koadrilaren edo lagun taldearen eremuan ezartzeko, lehen esan beza-la, aurretik afektuen eremu berezi horretako mikroespazioak aztertu behar dira. Eta, horren ondoren, espazio oso horren irudi eta ikuspegi globalarekin alderatu.

Zehaztutako mikroespazioak familia aztertzeko erabilitakoen oso antzekoak dira:

A) HARREMANEN ETA ELKARREKINTZEN MIKROESPAZIOA. Mutilen eta nesken arteko, edo mutilen arteko eta nesken arteko harremanen eta ereduaren eremua.

B) KOADRILAREN DINAMIKAREN ETA JARDUEREN MIKROESPAZIOA. Mutilak eta neskak elkarrekin daudenean koadrilan egiten diren jarduerak eta ekintzak. Zer egiten ematen duten denbora.

C) KOADRILAREN BALIO ETA EREDU NAGUSIEN MIKROESPAZIOA. Mutilen eta nesken portaera arautzen duten eredu eta elementu nagusiak: mutikoek neskekiko dituztenak eta alderantziz.

D) ROLEN ETA ITXAROPENEN MIKROESPAZIOA. Mutilek zein neskek euren rola egiten duten lekua, eta mutilengandik zein neskengandik zer espero den adierazten duena.

E) LAGUNEN FUNTZIOEN ETA ESPAZIOAREN ANTOLAKETAREN MIKROESPAZIOA. Lagunen taldean nagusi den antolaketa modua, gauzak egiteko denbora nola –edo zeren arabera– banatzen duten, funtzioen banaketa nork erabakitzen duen eta nola erabakitzen den, etab.

Koadrila aztertzeko mikroespazioak adierazi ondoren, hurrengo urratsa mikroespazio horiek banan-banan eta zehatz-mehatz aztertzea da.

A) ALDAKETA/BERNIZA MUTILEN ETA NESKEN ARTEKO HARREMANETAN ETA ELKARREKINTZETAN. Harremanen eta elkarrekintzen arloa izan da, hain zuzen, aldaketarik nabarmenenak izan dituenak. Arlo horretan, oso denbora laburrean aldaketa handia izan da: mutilen eta nesken unibertsoan haustura handia zegoen (nahiz eta batzuetan adiskidetasun espazio berean bizi), eta orain aitortu egiten da mutilen eta nesken arteko harremanak berdindagoak izateko urrats handiak eman direla. Berdintasun hori mutilen eta nesken arteko tratuan eta harremanetan naturaltasunez jokatzeko da; gauzak, kezak, afektuak, sentimenduak mutil eta neska guztien artean elkarbanatzerakoan. Azken finean, berdintasuna mutilak eta neskek dituzten koadriletan eta mutil eta neska gazteen harremanetan izaten diren giro irekian eta elkartrukean adierazten da.

“Ez dio axola nork hitz egiten duen, mutil edo neska izan, nik edozeinekin hitz egiten dut inolako arazorik gabe, desberdintasunik egin gabe, guztiz bereizitako talderik ez dago”.

(Gizona. 23-25 urte bitarteko koadrila).

Ondorioz, mutilen eta nesken artean berdintasuna dagoela sentitzen da, eta horren beharra antzematen da: mutilak zein neskak, itxuraz, berdina izatea. Ideia horrek hautsi egiten du aurreko sexuen arteko banaketa dinamika. Koadrilen diskurtsoa eta mutilek eta neskek emandako informazioa aztertuta, ordea, ideiak porrot egiten du: eguneroko jardunean harreman eta elkarrekintza zirkuitu desberdinak daude mutilentzat eta neskentzat, eta mutilaren eta neskaren arteko harremanetan aurretik ezarritako ereduak dago. Ildo horretan, argi dago mutilak elkarren lagun handiagoak direla, bai eta neskek elkarren lagun handiagoak ere. Horrela, mutil eta nesken arteko harremanen irudi zatitua agertzen da, talde bakoitza –mutilak eta neskek– bere aldetik; hizpide dituzten gaiak, aztertzen dituzten kontuak, etab. desberdinak dira. Eurek aitortzen dituzten desberdintasun horiei jarraituz, mutilak eta neskak alde batera edo bestera joaten dira unearen edo egoeraren arabera. Horrela, neska batek futbolaz edo automobilez hitz egin nahi badu taldeko mutilekin elkartzeko saiatuko da;

eta mutilen batek famili arazoren bat edo arazo sentimentalen bat baldin badu, neska baten laguntza eskatuko du.

" (...) 30 lagun baldin bagara 6 taldetxo sortzen dira, eta automobilez hitz egiten duzu, hautsi egin zaizula, arropa erosi behar duzula; eta emakumeak hasten dira... ikusi al duzu denda hura?... ez dakit, ez gai garrantzitsuez behintzat".

(Gizona. 23-25 urte bitarteko koadrila).

"Beno, oro har ez, ez dago inolako arazorik, beharbada gizonek gehiago hitz egiten dugu futbolaz".

(Gizona. 23-25 urte bitarteko koadrila).

"Egia gehiago kontatzen diogu elkarri, eta mutilek elkarri kontatzen diotena baino gehiago kontatzen diogu elkarri".

(Emakumea. 23-25 urte bitarteko koadrila).

"Bai, (neskak) mizkinagoak dira".

(Gizona. 27-30 urte bitarteko koadrila).

"Mutilak itxiagoak dira, gu zeragoak gara, zera..."

(Emakumea. 27-30 urte bitarteko koadrila).

" (Neskak) koadrila berekoak gara, baina koadrilaren barruan mutilak eta neskak daude. Txikitan denak elkarrekin egoten ginen, baina beharbada Davidek esaten duena da, zerbait lehenago heltzen gara (emakumeok), eta hor hasten zara, irten nahi duzula eta... Pixkanaka aldentzen joaten zara. Baina zigarro bat erretzera jaitsi nahi badut, Davidekin joango naiz edo... gero gauean elkartu egiten gara, baina kalera ateratzeko geratu, nesken artean egiten dugu, ez gara mutilekin elkartzekotan geratzen".

(Emakumea. 27-30 urte bitarteko koadrila).

"Pertsona bati entzuten egon soilik, ezer esaten ez badiozu ere, ezta? eta azkenean esan: lasai, ez da ezer gertatzen. Ba, mutila arazoen aurrean askoz ere kaskarinagoa da, beharbada esango dizu: goazen, garagardo batera gonbidatuko zaitut eta ahaztu egingo dugu; edo gaia utzi eta hitz egin dezagun atzoko partidaz".

(Emakumea. 18-21 urte bitarteko koadrila).

Beraz, bereizitako bi harreman eta elkarrekintza mundu daude, baina, gainera, aurretik ezarritako hainbat eredu ekartzen dira koadrilara, eta horiei ihes egitea oso zaila da.

Egoera hori kaltegarria izan daiteke berdintasuneko eskemak garatzeko, bai nesken ikuspegitik, bai eta mutilenetik ere. Izan ere, gizarteak zehaztutako –eta onetsitako– rola eta eginkizunak sailkatu egiten badira –batzuek neskenak eta besteak mutilenak–, izugarri oztopatzen da afektuen eta komunikazioen elkartrukea; eta horiek dira, azken finean, mutilek eta neskek elkar aintzat hartzen eta harreman mota berdinagoak lortzen laguntzen dutenak. Beste alde batetik –lehen ere adierazi dugu eta gero ere berriro adieraziko dugu–, azpimarratu egin behar da nesken harremanez galdetzen denean afektiboak eta intentsitate han-

dikoak izaten direla nabarmen; eta mutilenak, aldiz, arinak eta azalekoak. Definizio horiek neskek afektuen alorra bereganatzeko duten joera adierazten dute, mutilek maila pertsonal eta sozialeko alor horretan parte hartzeko aukeraren kaltetan.

"Zuek (neskak) intimitate handiagoz hitz egiten duzue".

(Gizona. 23-25 urte bitarteko koadrila).

"Nik neskarekin arazo bat badut, bakarrik irensten dut".

(Gizona. 23-25 urte bitarteko koadrila).

"Egia da, Gasteizen, nire gelan 3 edo 4 mutil ginen, eta nik nahiago nuen neskekin egon mutilekin baino, (barreak) ni horrelakoa naiz. Eta beraiek (neskek) esaten duten bezala, errazagoa da neskekin irekitzea mutilekin baino, errazagoa da neskekin gauza guztiez hitz egitea, mutilekin joaten bazara badakizu zertaz hitz egingo duzun".

(Mutila. 27-30 urte bitarteko koadrila).

"Mutilekin joaten bazara, sexu heavyaz, emakumeaz eta futbolaz eta edariaz hitz egingo duzu, oro har; eta neskekin joaten bazara, beno, badituzte beren uneak, ikusi liburutegiko hori, zein ederrak diren, begira iezaiozu gorriko horri edo urdinekoari; baina egia esan oso desberdina da, eta gero gaua iristen denean eta denekin elkartzen zarenean, mutilak ez dira kafea hartzeko elkartzen".

(Mutila. 27-30 urte bitarteko koadrila).

B) ALDAKETA/BERNIZA KOADRILAREN DINAMIKAN ETA JARDUERETAN. Koadrilaren dinamika, jarduerak, koadrilak egiten dituen gauzak ere aldatu egin dira azken urteetan. Horretan ere eragina izan du neska-mutilen koadrilak ugariagoak izatea, eta naturaltasun handiagoz ikustea; eta, ondorioz, mutilak eta neskak luzaroago egotea elkarrekin planak egiten eta egin nahi dutenaz hitz egiten, nola egin nahi duten, etab. Mutilen eta nesken arteko elkarbizitza horren ondorioz, garrantzi handiagoa ematea zaio, zalantzarik gabe, koadrilak egin eta planifikatzen duena anitza eta bateragarria izateko beharrari. Gazteek behin eta berriro adierazi dute koadrila berdintasuneko espazioa dela, eta bertan neska-mutil guztiek gainerako guzti-guztiak izaten dituztela kontuan edozer gauza egiteko, eta koadrilan antolatzen edo egiten den guztia denon gustukoa izaten ahalegintzen direla.

Hala ere, koadrilaren dinamiketan eta jardueretan irizpide integratzaileak eta berdintasunekoak ezarri nahi diren arren, praktikan, ordea, oraindik ere jardueretan birstortu egiten dira zatiketa eskema tradizionalak iraunaraztea dakarten joerak: jarduera batzuk mutilentzat dira eta beste batzuk neskentzat. Horrela, mutilak futbolera jokatzeko eta kirola egiteko bildu ohi dira, eta neskak kafea hartzeko eta denda denda ibiltzeko. Alor horretan zatiketa izugarria da, eta mutilak ia inoiz ez dira neskek antolatutako jardueretara joango, eta alderantziz. Askotan aipatu ere ez da egiten, onartuta dagoen zerbait da, besterik gabe onartzen den zerbait da.

"Mutil guztioi kirola gustatzen zaigu, futbola, eta horren arabera sortu da koadrila, elkar eza-gutzen joan gara... neskak ezagutu ditugu, ez dugu egunero elkar ikusten, partida ostean, partida dagoen bakoitzean, amaitzen denean elkartzen gara guztiok eta denok batera ibiltzen gara"

(Gizona. 23-25 urte bitarteko koadrila).

"Niri makina bat aldiz esaten dit mutilak, kafea hartzeko geratu zarete? atsoak dirudizue, eta niri hori egitea gauza izugarri logikoa iruditzen zait".

(Emakumea. 23-25 urte bitarteko koadrila).

"Baina zuek irten egiten zarete, leku batera joan eta ordubete egon zaitezke kafea hartu eta hitz egiten, nik denbora horretan hiru zerbeza edango nituzke, mugitu egingo nintzateke, mutilak beti bestelako gauzak egiten ditu, zuek (neskak) eserita egon zaitezke edo zertaz hitz egiten..."

(Gizona. 23-25 urte bitarteko koadrila).

Mutilek eta neskek jarduera desberdinak egiten badituzte ere, taldeko guztiak bat datoz koadrilaren helburuetako bat zein den zehazterakoan: ongi pasatzea. Hain zuzen, mutilek eta neskek espazio zein une horretan egiten dute bat: koadrila ongi pasatzeko da. Alderdi hori, ordea, arretaz aztertu behar da, eta bereziki azpimarratu ongi pasatzeak zer esan nahi duen mutilentzat eta zer neskentzat. Izan ere, alderdi hori da, eskuarki, aisialdiaren eta jaiaren inguruan gertatzen diren desberdintasunak eta diskriminazioa antzemateko modu nagusia, koadrilak horretan parte hartzen baitu. Ez da alderdi hori aztertzeko lekua, hori aisialdiaren alorra jorratzen denean aztertuko baita behar den bezala. Hala ere, oharra eta azpimarra eginda dago: koadrila eta jaiarekin parekatzeak garrantzi handia du gazteen adiskidetasun egiturak benetan berdintasunekoak diren ala ez neurtzeko.

C) ALDAKETA/BERNIZA KOADRILAREN BALIOETAN ETA EREDUETAN. Gizarteko beste hainbat alorretan gertatu bezala, koadrila ere bere balio eta eredu tradizionalak egokituz joan da, eta berdintasun eta parekidetasun handiagoko eskemak hartu dituzte. Horren ondorioz, mutilek eta neskek askatasun eta independentzia handiagoa dute. Izan ere, ikerketan zehar gazteek erabilitako diskurtsoari jarraituz, lagun taldeak defendatzen duen balio nagusietako bat berdintasuna da, eta hori guztiz onartu eta bereganatu duten gauza da. Ondorioz, gazteek desberdintasunik gabeko adiskidetasuna aldarrikatzen dute, taldean benetan garrantzitsua komunikazioa, kontaktua, elkarrekin egotea, adiskidetasuna dela; eta kidearen sexuak ez duela garrantzirik.

Taldean izandako bizipenak kontatzean honakoa adierazten dute: neskentzat eta mutilentzat oso garrantzitsua da koadrilak babesten dituela sentitzea, bai eta neska eta mutil guztiekin eragozpenik gabe, konfiantzan hitz egitea ere. Taldearen baldintzarik gabeko laguntza ere azpimarratzen dute: beti ere zurekin norbait izango duzula jakiteak lasaitasuna ematen du.

"-Gauza batzuez aholkua eska diezaiokezu familiari, anai-arrebei; baina beste batzuez lagunei soilik, koadrilan planteatzen dituzu.

-Taldea bat izatea, adiskidetasuna. Beti hor egongo diren pertsonak dira, ikuspegi desberdinak izango dituzu, taldea bat duzu, batzuekin konfiantza handiagoa izan dezakezu, baina horrela ikuspegi desberdinak dituzu, ez zaitu mugatzen, hala ere beti norbaiti jaramon handiagoa egiten diozu.

-Batez ere euskarria, laguntza, adiskidetasuna dira".

(Gizonak. 23-25 urte bitarteko koadrila).

Gazteek urrats handiak eman dituzte adiskidetasun egituretan mutilen eta nesken arteko harremanak berdinagoak izan daitezen; baina egun, oraindik, koadriletako jarrera eta diskurtso askotan bizirik dira mutilen eta nesken artean aldeak eta desberdintasunak irautaraztea dakarten eskemak.

Izan ere, gauza bitxi bat gertatzen da: gazteek lagun taldea berdintasuneko gune izatea eskatzen dutela adierazten dute, eta, aldi berean, mutil eta neska horietan behin eta berriro adierazten dute gizon eta emakumeen arteko desberdintasun "naturalak" gorde egin behar direla. Izaera desberdintasunak, izateko eta jokatzeko era desberdinak, hasiera edo jatorri *ezezagunekoak*, baina nolabait ere desberdinak gairela adierazten dutenak, eta desberdinak izaten jarraitu behar dugula –gaineratu dute–.

Gazte gehienek ez dakite desberdintasunak nondik datozen, eta horiek defendatzeko desberdintasunen izaera historikoa (*horrela izan da beti*) eta gizonen eta nesken ezaugarri desberdinei aitortzen zaizkien alderdi positiboak hartzen dituzte aitzakiatzat. *Onena* –diote– *mutilak eta neskak orain diren bezalakoak izaten jarraitzea da*.

"Neska baten izaera ez da inoiz mutil batena bezalakoak izango, hori argi dago".

(Gizona. 23-25 urte bitarteko koadrila).

"Bai, hobe da gizonen ezaugarriak eta emakumeen ezaugarriak izaten jarraitzea".

(Emakumea. 23-25 urte bitarteko koadrila).

"Izan ere, ez da berdintasuna izatea ala ez, zenbait ezaugarri jada bizitzako lege antzekoak dira, beti egon izan dira hor, oso errotuta daude. Beharbada hormona kontua da".

(Emakumea. 18-21 urte bitarteko koadrila).

Ez dugu eztabaidatuko hemen zein diren gizonen eta emakumeen ohiko ezaugarritzat jo izan diren desberdintasunak izan ditzaketen alderdi onak edo txarrak. Baina gauza bat argi dago: desberdintasunak eztabaidatzerakoan hutsune handiak daude, batez ere desberdintasunak zergatik gertatzen diren, desberdintasunak norainokoak diren, desberdintasunen esanahia zein den eta, bereziki, desberdintasun horiek sexuen arteko erreferentzia edo eredu berdinoak lortzeko izan dezaketen eragina aztertzerakoan. Hainbat desberdintasunen jatorrian dauden aldeak beti hor izan direla arrazoitzat hartuz justifikatzeak sortzen du, hain zuzen, desberdintasuna natural bihurtzeko arriskua, eta diskriminazioaren mamua sortzeko arriskua. Horixe da balio desberdinak desberdintasunak gizartean dituzten ondorioak aztertu gabe defendatzearen arriskua. Hots, desberdintasunak desberdintasun horiek eurekin daramaten diskriminazio alderdia aztertu gabe defendatzearen arriskua.

D) ALDAKETA/BERNIZA ROLETAN ETA ITXAROPENETAN. Koadrilaren balioetan eta funtzionamendu ereduetan antzemandako aldaketa nabariez gain, azpimarratu egin behar ditugu koadrilan mutil eta nesken rolen eta itxaropenen inguruan izandako eraldaketak. Orain artean aztertutako aldaketen ildo berean, mutilek zein neskek taldearen osaketan eta bilakaeran duten zeregina aztertu eta neurtzen badugu, koadrila gaur egun irekia, irazkorra eta malgua da. Neska-mutil guztiek edozein eginkizun eta betebeharrak egin dezakete, baldintza berberetan eta antzeko aukerekin. Neska-mutil guztiek eman dezakete iritzia, bere sexua dela medio kritikarik jasotzeko inolako beldurrik gabe.

Eskema horri jarraituz, rol edo portaera eredu horiek betetzeko modu desberdinei balio handia ematen zaie: aldaeren eta aniztasunaren adierazgarri dira eta berezitasun horiek taldearentzat aberasgarriak dira.

Diskurtso horren azpian dagoen errealitatean sakontzen badugu, ordea, zalantzan jarri behar da –neurri batean behintzat– planteamendu horren egokitasuna, izan ere aurreiritzi eta estereotipo sexista argiak jartzen baitira agerian. Azaletik sakonago joate horretan, hain zuzen, errealitatearen beste alderdi bat jartzen da agerian: mutilak parrandazaleak, alaiak, berritsuak direla adierazten da, baina baita asto, astakirten, alprojak, etab. Direla ere; eta neskak, aldiz, aspergarriagoak dira, baina taldea nolabait alaitu egiten dute, bekaiztiagoak dira, euren artean arazo gehiago dituzte... Beraz, ikus daitekeenez, diskurtsoak gizartean zabalduta dauden rolak eta estereotipoak birsortzen ditu, eta ez dira horiek sakonean aztertzen, ez dira horien azpian dauden arrazoiak aztertzen.

"(...) guk futbola ez beste konturik ez dugu, mutilak bakarrik izango bagina tabernaz taberna ibiliko ginateke, beste hiztegi bat izango genuke, zakarragoak izango ginateke, zuzenagoak, argiagoak".

(Gizona. 23-25 urte bitarteko koadrila).

"(...) nire iritziz mutilen koadrila nesken koadrila baino askoz sendagoa da, hasteko mutilak euren artean lagun handiago direlako gu (neskak) gure artean baino, gu gure artean bekaiztiagoak gara, askoz ere gaiztoagoak gara".

(Emakumea. 23-25 urte bitarteko koadrila).

"(...) nesken koadrilan beti arazo handiagoak izaten dira, liskar gehiago, bekaizkeria gehiago, gauzak diren bezala!".

(Emakumea. 23-25 urte bitarteko koadrila).

Horrela, mutilen eta nesken irudi estatiko eta estereotipatua ematen da: mutilak eta neskak nolakoak diren, nolako jarrera duten taldean, koadrilaren dinamikari egindako ekarpena, mutilengandik eta neskengandik zer espero daitekeen.

- *"Beti da atsegina koadrilan neskak izatea, iruditzen zait.*

- *Taldea alaitzen dute".*

(Gizonak. 23-25 urte bitarteko koadrila).

- *Mutilak oso alaiak dira.*

- *Izugarri parrandazaleak dira."*

(Emakumeak. 27-30 urte bitarteko koadrila).

E) ALDAKETA/BERNIZA KOADRILAREN EGINKIZUNETAN ETA ANTOLAKETAN. Aztertuko dugun azken mikroespazioak orain artean koadrilaren izaerari eta ezaugarriei buruz esandakoaren laburpena egiteko balio du; eta, halaber, genero ikuspegitik horren kritika egiteko. Alor horretan, aztertutako gainerako alorretan bezala, aldaketa handiak izan dira mutilen eta nesken arteko dinamikan eta harremanetan. Izan ere, egun –eta inoiz baino gehia-

go– koadrilen antolaketa eta eginkizunen banaketa bidezkoa dela adierazten dute; hots, eginkizunak banatzerakoan edo nesken zein mutilen ekarpena aztertzerakoan sexuak ez duela inolako garrantzirik. Mutil eta neska guztiek berdintasunez parte hartzen dute koadrilan, mutil eta neska guztiek taldeari egiten dioten ekarpena aintzat hartzen dela uste dute, sexuaren arabera inolako bereizketarik gabe.

Errealitateak, ordea, beste gauza bat erakusten digu: nesken eta mutilen artean aldeak dira, eta askotan, gainera, alde horiek desberdintasun bihurtzen dira. Hori gertatzen da, esaterako, neskek gauzak egin eta prestatzeko gogo gehiago izaten dutela esaten denean; eta antolaketa kontuetan mutilek –nahita– bigarren bazterrean geratzeko joera dutela adierazten denean. Hori gertatzen da, baita ere, mutilak axolagabeagoak direla, eta, aldiz, neskek edozer gauza egiteko prest daudela esaten denean. Dirudienez, edozein unetan jo daiteke neskengana; eta, mutilak, aldiz, gauza batzuetarako soilik izango dituzu zurekin.

"Batzuetan mutilengana jotzen dugu opariren bat erosteko, baina ez beti".

(Emakumea. 23-25 urte bitarteko koadrila).

"Mutilak askoz axolagabeagoak gara".

(Gizona. 23-25 urte bitarteko koadrila).

"Ez dakit, neskak bakarrik egon (nahi dugu), neskak izan, uste dut mutilek eurak bakarrik egon nahiko dutela".

(Emakumea. 27-30 urte bitarteko koadrila).

"Hori esan ohi da, faltsuagoak garela, baina harreman sakonagoak ditugu, esaterako mutilen koadrilan norbaiten urtebetetzean ez diote telefonoz deitzen, ez dut inola ere ulertzen".

(Emakumea. 27-30 urte bitarteko koadrila).


"(...) baina kopako partida ikusteko plana ez baduzu atsegin, ez zara joaten eta kito, eta erosketetara etortzen ez badira...".

(Emakumea. 27-30 urte bitarteko koadrila).

"Futbolera etortzea ongi dago, baina ez badaki zer den eta nazkatu egiten bagaitu, hobe ez etortzea ez baita gustura egongo, hori da garrantzitsuena".

(Gizona. 27-30 urte bitarteko koadrila).

6. ILUSTRAZIOA Koadrilan dauden diskriminazioak



Irudi horiek, hain zuzen, gizarteko inertziak eta estereotipoak birsortzen dituzte: koadrilako mutilek zein neskek inertzia eta estereotipo horiek bere egiten dituzte, bai eta erabili ere taldean mutilei zein neskei egotzitako eginkizunak negoziatzerakoan.

Mikroespazioak analizatu eta *berdintasun berniza* sortzen laguntzen duten elementuak aztertu ondoren, ikuspegi globala lortu dugu. Hots, koadrilak izandako aldaketaren eta mutil zein neskentzako egitura eta eskema berdinagoak lortzeko emandako urratsak zein diren adierazten duen irudia lortu da.

Lehen ere adierazi bezala, aldaketa hori, bereziki, lagun taldeak mutilen eta nesken arteko elkarbizitzan eta tratuan berdintasuneko jarduerak eta esperientziak burutzeko gaitasuna da. Elkarbizitza hori, inoiz baino naturalagoa, irekiagoa, askeagoa eta berdinagoa dela sumatzen da; eta ez du zerikusirik hamarkada gutxi batzuk lehenago bizitako giro askoz ere zurrunago eta askoz ere itogarriagoarekin. Koadrila, inoiz baino gehiago, elkarbizitzarako eskola da, eta –hasieran behintzat– benetako elkartrukea egiten uzten du –afektuen, iritzien, esperientzien elkartrukea–, bai eta elkarrekin komunikatzen ere, eta hori funtsezkoa da mutil zein neskentzako eskema, egitura eta dinamika berdinagoak sortu ahal izateko. Eta irekitasun horrek, noski, aukera ematen du adiskidetasun erreferente berriak sortzeko, lagun eta kide eredu berriak sortzeko, eredu berriak eta diskurtso berriak sortzeko.

"Niri kaltegarria iruditzen zait koadrila bat mutilena edo neskena soilik izatea, gauzak ukatzea iruditzen zait. Koadrilan elkartzen zara gainerako beste gauzez ahanzteko aukera ematen duelako, harremanak izateko, eta, ez dakit, gizartearen parte izateko modu bat da, izan ere, ez dakit, hogeit edo hogeita bi urterekin badirudi ez zarela gizarteko partaide, ezin duzu lanaz hitz egin ez dakizulako lan egitea zer den, ikasketak, zure eginkizun bakarra gainditzea da, baina ezer gutxiago duzu esateko, eta etxean ere antzekoa. Eta ateratzen garenean, mutilak soilik ateratzen bagara, gizartearen zati bat bizi duzu soilik, beste zatia ahazten ari zara. Lehen esan duzuenaren antzekoa iruditzen zait –tabernetan lehen gizonak soilik sartzen zirela–, iruditzen zait alderdi hori soilik ezagutuko duzula."

(Gizona. 18-21 urte bitarteko koadrila).

"–(...) gizartea matxista dela pentsatuz ez naiz eroso sentitzen.

–Bai, ni ados nago, baina gero eta elkarren antz handiagoa izango dugu.

–Uste dut mutilak lehen baino sentikorragoak garela".

(Gizonak. 23-25 urte bitarteko koadrila).

"–Pixka bat sentikorrago egingo dira (gizonak), ez hainbeste "nik negar egiten dut eta horrelakoak", baina...

–Beharbada gizonaren irudiaren falta igarriko da".

(Emakumeak. 23-25 urte bitarteko koadrila).

"Asko aurreratu dugu. Ez dugu pentsatzen emakumeak etxean garbitzen egon behar duenik, ez baita horrela. Bidegabekeria izugarria da, neskek guk adinako eskubidea dute. Baina desberdinak izatea, zuk esan bezala ligatzeko gaian, nire ustez beti izango gara desberdinak. Uste dut emakumeek sen handia dutela eta horregatik beti gure gainetik egongo direla. Gu baino aurreratuago daude eta uste dut horrela jarraituko dutela".

(Gizona. 18-21 urte bitarteko koadrila).

Dena den, gazteen lorpenzat aldarrikatu eta aitortzen den berdintasun eta parekotasun irudipen horren aurrean, bada aldaketaren benetako garrantzia zalantzan jartzen duen beste ikuspegi bat ere, berriro aldaketaren paradoxa agerian jartzen duena, aldaketaren mugak adierazten dituen, aldaketa hori "berniz" gisa ikusten duena, gizartearen eta norbanakoen egitura sakonena –oraindik– aldatu ez dituen. Oztopo horien alderdi deigarrienetako bat

festaren eta dibertimenduaren espazioa da, koadrilaren eragile eta motibatzaile nagusia. Txostenak kapitulu berezi batean aztertuko du festaren eta dibertimenduaren espazioa, baina ezinbestekoa da egun festa eta dibertimenduaren barne dauden zenbait elementu aipatzea, izan ere mutil eta nesken arteko harreman orekatuagoa eta berdina lortzeko oztopo baitira.

Festa, dibertimendua (horren ezaugarriak, espazioak, dinamikak, etab.) oraindik gizonetako en esparru mugatua da: gizonen ikuspegiaren arabera, gizonen jardueren, beharren eta ezaugarrien arabera zehaztutakoa eta horrek baldintzatutakoa. Eta, gainera, askotan diskriminatu ez ezik, neskei eraso ere egiten diela adierazten da. Horrexegatik, dibertsioak eta parrandak lagun taldea sortzerakoan izan dezakeen garrantziak kezka sortzen du; hots, lagun taldea mugatu eta horren dinamikak ezartzerakoan izan dezakeen garrantziak. Eta kezka sortzen du, hain zuzen, koadrila parranda egiteko eta ongi pasatzeko soilik den elementu gisa ikusten bada, zenbait balio jakin onartu egiten direlako, eta beste zenbait argi eta garbi baztertu. Eta horixe gertatzen da, hain zuzen, balio afektiboekin, gazteen bizitzan hain garrantzitsua den alderdiarekin: koadrilek bigarren mailan "uzten" dute, eta, eskuarki, nesken esparruko bihurtzen da.

"Normalean, larunbatean parranda egitera ateratzen zarenean, arazoez-eta ahazteko ateratzen zara, goizeko zazpietan-edo amaitu dezakezu, mozkortuta edo mozkortu gabe, larunbat arrunt batean. Baina larunbat horretan edozergatik burutik jota bazaude eta dantzari hasten bazara zure onetik aterata amaituko duzu. Baina larunbatero ez dago zertan mozkortu beharrik".

(Gizona. 18-21 urte bitarteko koadrila).

"Astegunean ikusteko geratzen bagara gehiago hitz egiten dugu, asteburuan kankarro bat, beste bat, eta gero jada..."

(Gizona. 27-30 urte bitarteko koadrila).

"Baina hitz egin, hitz egin, ezer ez bada gertatzen ez, normalean ez dugu hitz egiten. Festara ateratzen bazara, aitaz ahanzteko ateratzen zara, anaiak ahanzteko, zure zera horretaz ahanzteko. Orduan, onena futbolaz hitz egitea da, ahaztu ahal izateko".

(Gizona. 18-21 urte bitarteko koadrila).

"Eta, bestela, arazoak atzean utzi eta paso egin, ongi pasatu nahi duzu eta kito".

(Gizona. 18-21 urte bitarteko koadrila).

"Uste dut mutilak askoz ere astakiloagoak direla. Esaterako, mutilak eta neskek elkarrekin ateratzen bagara, primeran ibiltzen naiz, askoz ere lotsagabeagoak dira, ez dakit, ez dute hainbeste erreparorik adierazten".

(Emakumea. 18-21 urte bitarteko koadrila).

Espazio, esparru eta eginkizun horiek bereizteko dinamika da, hain zuzen, desberdintasunak eta diskriminazioa iraunaraztea dakarrena. Izan ere, betiko estereotipoak eta rola birsortzen dira, eta horrek neska-mutil gazteen nortasunaren eraikuntza askatasunez egitea eragozten dute. Berriro ere bikoiztasuna dugu: batetik, ongi ikusten dira berdintasun ere-

duak sortzeko emandako urratsak; eta, bestetik, eredu tradizionalak birsortzeko joerak oztopoak jartzen dizkie aukera berriei eta gizarteko eredu berriei. Gazte horiek lortutako aurrerapena adierazi eta nabarmendu egiten da: koadrila elkarbizitza eta elkartruke eskola da; gazteak gazte direlako dituzten arazo eta kezka adierazi eta ezagutarazteko espazio irekia; desberdintasunik ez sortzeko espazioa, mutilak eta neskak elkarri hurbiltzekoa, elkar aintzat hartzekoa. Baina, horrekin batera, gizartearen inertzia birsortzeko joera nabaritzen da, mutil eta neskentzako amarruak birsortzekoa, berdintasuna eta parekotasuna lortzeko oztopoak birsortzekoa. Eta hori guztia, hain zuzen, argi ikusten da mutilen eta nesken ezaugarriak estereotipo edo kalkomania gisa adierazten baitituzte: mutilak alfer hutsak dira, parrandazaleak, futbolariak, lagunak, zintzoak, zakarrak; neskak lagun minak, alaiak, sekretuak gordetzen dituztenak, taldeari oreka ematen diotenak, eta abar. Eta hori berdintasuna lortzeko oztopoa besterik ez da.

7. ILUSTRAZIOA Neska eta mutilen arteko rolen desberdintasunak koadrilan



Ezaugarri horiek, eskuarki, neska eta mutilen arteko desberdintasunak adierazteko erabiltzen dira –eta onak edo txarrak diren aztertzen hasi gabe– eta izugarri baldintzatzen dute mutilen zein nesken euren nortasuna sexu bakoitzerako aurretik ezarritako parametroetatik kanpo eratzeko aukera.

**BIKOTEA ETA
BERDINTASUNERAKO
ESPazio ESANGURATSUAK.
MIKROESPAZIOAK****1.4.1**

Bikote bat osatzea, zalantzarik gabe, gaztearen bizitzaren unerik garrantzitsuenetakoa da. Eta, gainera, oro har, gaztearen bizitzaren alor guztietan izan ohi du eragina. Beraz, bikote batekin harremanetan hastea ez da "iraultza soil bat" afektuen alorrean; norbanakoaren jardura guztietan du eragina: lanean, gizartean, familian, etab. Eta txosten honen bidez, hain zuzen, horixe erakutsi nahi dugu: zein lotura ezar daitezkeen –eta ezartzen diren– bikotearen, bikoteko kideen arteko harremanen –bai berdintasunekoen, bai berdinak ez direnen– eta harremanek gaztearen bizitzaren beste alorren garapenean eta bilakaeran dituen eraginen artean.

Dena den, bikotearen alorreko adierazpenak zehaztu egin behar dira, izan ere bikoteari ez baitzaio garrantzi berbera ematen gazteak 15 urte dituenean eta 30 urte inguru dituenean. Bietan ere gertaera garrantzitsua da, baina gazteengan duen eragina sakonagoa izan ohi da –eskuarki– gaztea heltzen doan heinean. Neska-mutil gazteenentzat bikotea behar-beharrezko esperientzia da, eta horren bidez norbera ezagutu ez ezik, beste hainbat alderdi ere lantzen dira: sexualitatea eta bestearekiko komunikazioa, besteak beste. Esperientzia izugarri bizia da, baina, hala ere, badago astia lagun taldearekin elkartzeko, norberaren zaletasunetarako; hots, mutilek zein neskek egin nahi dituzten gauzetarako.

15 urterekin bikoteko harremana jolas zirragarria da, baina pixkanaka, adinean gora egiten den heinean, funts, garrantzi eta sakontasun handiagoa izaten du. Pixkanaka bikotea pertsonaren bizitzaren gune bihurtzen da, eta harreman horren eremutik kanpo geratzen ziren hainbat alderdi bikotera biltzen dira: koadrila, laneako proiektuak eta familiarekiko harremana. Hain zuzen, bikote harremanak eta horren inguruan egindako proiektuek baldintzatzen dute –hein batean zein bestean– bizitzan alor horiek eta beste zenbaitek duten lekua.

Gehienetan, bikotea sendotu eta formala bihurtzean, norbanakoaren gaztaroaren amaiera badatorrela adierazten du. Gazteak une horretan hartzen ditu berez helduenak diren ardurak, egitekoak eta kezkak; eta horren ondorioz, bizitzaren aro bat amaitzen ari dela adierazten dio senak. Une hori aldaketa eta egokitze unea izan ohi da. Hori kontuan izan behar da eta duen garrantzia eman behar zaio, sexuaren arteko berdintasuna laguntzeko dinamika eta estrategietarako une egokia baita.

Bikotea –berdin gartzetan edo helduagotan sortua– elementu garrantzitsua da berdintasunaren aurrerapenerako. Bikotearen sorrerak, hain zuzen, espazio eta dinamika berri bat dakar: bi pertsonen euren sentimenduak aitortzen dizkiote elkarri eta harremanetan, elka-

rreriko errespetuan eta komunikazioan sakontzeko asmoa adierazten dute. Premisa horiek bi pertsonen arteko maitasunaren funtsa dira; baina hori ez ezik, berdintasun eta parekotasun harremanak sortzeko oinarri ezin hobea ere badira.

Bikotearen mikroespazioak, hain zuzen, berdintasunerako dituen aukera horiek abiapuntutzat hartuta aztertuko dira, eta ikuspegi horretatik balioetsiko da afektuen alor garrantzitsu horretan berdintasun/desberdintasun alorrean izandako aldaketak.

Bikoteko harremanak, bikoteko elkarbizitza, eta bikote kontzeptua bera ere oso garrantzitsuak dira sexuen arteko harremanen aldaketari buruzko diskurtso guztietan: azken hamarkadetan gizartearen berdintasunaren inguruan izandako aldaketez hitz egiten dugunean, ezin bestekoa da bikotea aipatzea. Gazteek euren harremanaren eta gurasoen harremanaren arteko aldaketak sakonak direla antzematen dute, baina gurasoek beraiek ere euren esperientziaren eta aurreko belaunaldiaren artean metamorfosi handia izan dela aitortzen dute.

Dena dela, ikerketaren tesiari jarraituz, diskurtso horren azterketa kritikoa egin beharra dago. Hots, aldaketa benetako aldaketa izan den, irudi hutsa den, aldaketa erdipurdikoa izan den, edo mutilen eta nesken arteko desberdintasuna ezkututzen dituen berdintasun berniza duten. Bernizaren atzean zer dagoen ikertzeko, mikroespazioak banan-banan aztertu behar dira horrela jakingo baitugu itxurazko berdintasun horren azpian zer dagoen. Horrekin, hain zuzen, aldaketak benetan zenbaterainokoak izan diren jakin nahi dugu, bai eta horren atzean zein paradoxa dauden ere.

8. ILUSTRAZIOA Bikotaren eremuan dagoen berdintasunaren berniza



Bikotean honako mikroespazioak izan dira kontuan azterketa sakona egiteko:

A) **SEXUALITATEAREN ETA INTIMITATEAREN MIKROESPAZIOA.** Bikoteak alor honetan dauka komunikazioaren alderdirik intimoena; afektuak eta sentipenak adierazteko alorra da; norbanakoaren sexu beharren alorra.

B) **AMATASUNAREN ETA AITATASUNAREN MIKROESPAZIOA.** Gizonak zein emakumeak mikroespazio honetan bizi, zehaztu eta gauzatzen dute amatasuna eta aitatasunaren kontzeptua. Espazio honetan zehazten da familiaren kontzeptua, familiaren ezaugarriak eta batak zein besteak norbanako edo bikote gisa hartzen dituen rolak eta eginkizunak.

C) **BIKOTEA GIDATZEN DUTEN BALIOEN ETA EREDUEN MIKROESPAZIOA.** Bikotearen dinamika gidatzen duten balioen eta ereduaren eremua: bikotea zer den eurentzat, bikotearekiko zein asmo duten, eta bikoteak bakoitzari zer ematen dion.

D) **ROLEN ETA ESPEKTATIBEN MIKROESPAZIOA.** Bikoteko kide bakoitzak bestearekiko duen zeregina, batak bestearekiko duen irudia, bikoteko bere rolaiekiko bakoitzak duen irudia. Ezinbestez, mutilei eta neskei egotzitako estereotipoek eta rol eta eginkizunak hitz egin behar da, bai eta horiek guztiek bikote ereduak sortzerakoan duten garrantziaz.

E) **BIKOTEAREN EGINKIZUNEN ETA ANTOLAKETAREN MIKROESPAZIOA.** Batak zein besteak duten betebeharren eta zereginen alorra da: zer den, euren ustez, biek (batak zein besteak) egin behar dutena, zer pentsatzen duen kide bakoitzak bikotearen funtzionamenduari edo antolamenduari buruz.

MIKROESPAZIOEN AZTERKETA ETA "BERNIZAREN TEORIAREN" EZARPENA

1.4.2

Arestian adierazi bezala, mikroespazioen azterketaren bidez gazte gehienek adierazten duten berdintasun diskurtso horren azpian zein trikimailu dauden adierazi nahi dugu. Izan ere, diskurtso horrek mutilen eta nesken arteko itxurazko berdintasun berniza iraunarazten laguntzen dute, eta horrek, askotan, nahasketa, zalantza edota itxaropen faltsuak eragiten ditu.

A) **ALDAKETA/BERNIZA BIKOTEAREN SEXUALITATEAREN ETA INTIMITATEAREN ALO-
RREAN.** Badirudi bikotearen alorrean aurrerapen handia izan dela afektuen eta intimitatearen komunikazioan. Gizartean sexualitatea –bikotearen adierazpen eta komunikazio moduan hartuta– askatasun handiagoz ikusten da, eta beste alderdi batzuetan izandako aurrerapenak –antisorgailuetan, esaterako– eta beste hainbat faktorek bikote harremanen une eta espazio intimoak lasaiagoak, askeagoak eta atseginagoak izatea eragin dute. Alor horretan, mutilek eta neskek honakoa azpimarratzen dute: bikotearekiko komunikazioan lortutako konfiantza; adierazpen askatasuna, eta sentimenduak, kezak eta pentsatzen dutena azaltzeko askatasuna; bai eta, noski, lagun minak barru-barruko sentimenduak adierazteko ematen dion konfiantzak duen garrantzia.

Guraso, aitona-amona eta, oro har, helduen belaunaldien eredu eta erreferentziekin alderatuta, neska-mutilek ongi irizten die bikoteko harremanetan izandako lorpenei. Bereziki, aldaketak oso sakonak direla azpimarratzen dute, eta parekotasunaren eta berdintasunaren alorrean aurrera egiteko asmoa dutela. Ez da zalantzan jartzen gazteek harreman afektiboetan izandako aldaketen balioa, ez eta horien eraginak ere. Baina ez da ahaztu behar, praktikan, mutilek zein neskek, une oro, harreman tradizionalak birsortzen dituzten amarruak egiten dituztela, eta amarru horiek itxurazko oreka hori hautsi egiten dutela. Ildo horretan, sarritan entzun ohi da neskek euren lagunekin hitz egiteko beharra dutela; beharra dutela elkarri esperientziak, bizipenak, fantasia sexualak, kezkak, bikotearekin dituzten arazoak eta abar kontatzeko. Neskek adierazten dutenez, nesken arteko harreman horretan aurkitzen dute laguntza, aholkua, konfiantza, eta euren kezkak adierazteko askatasuna ere bai.

"(Neskek sexuaz hitz egiten dugunean) Sentimenduez hitz egiten dugu, sentipenez. Orain arte zer esperientzia izan duzun. Bai eta gauza gogorragoez ere, ba, ez dakit... Ba... zuri zer eskatzen dizuten, zer ez, zure fantasietan norekin egon zaren. Batzuetan gaia aipatu ere ezin da egin. Imaginatu dezakezun guztiaz. Baita esperientzia txarrez, lehenengo esperientziez. Zenbat gauza. Izan ere, hor barrena husten duzu, gai horietaz ezin duzulako edozeinek hitz egin, eta hor daude horiek zuk haiekin hitz egiteko".

(Emakumea. 18-21 urte bitarteko koadrila).

"Guk (neskak) esperientziak elkarri kontatzen dizkiogu, elkarrekin bizi ditugu, baina sakonago. Elkarri aholkua ematen diogu, sentitutakoa adierazten dugu".

(Emakumea. 18-21 urte bitarteko koadrila).

"Nik uste dut ezetz, neska izanik hobeto konpontzen zara, neskak gauzak zure antzerago pentsatzen dituelako. Mutil batek, beharbada, beste ikuspegi bat emango dizu. Gizonak eta emakumeak oso desberdinak gara. Nik izan ditut gizonezko lagunak, baina lagun minak emakumeak izan dira. Gizonezko lagun minik ez dut izan, oso desberdinak garelako. Niri gaizki iruditzen zaizkidan gauzak, beharbada, mutilarentzat gauza barregarriak dira, eta ez zaizkio hainbestera iruditzen. Neskak, ordea, lagundu egingo dizu zuk bezala pentsatzen duelako".

(Emakumea. Elkarrekin bizi EZ den bikotea).

"Eta, nahi gabe, nesken arteko harremanak errazagoak dira. Nik neskekin serioago hitz egiten dut, eta uste dute neskak garelako dela. Mutilekin ere gertatu zait, baina nesken artean errazagoa da".

(Emakumea. Bikote homosexuala).

Emakumezko lagun minarengana jotzea ohiko jokaera da, eta, beraz, komunikazioan eta afektuetan bikoteek adierazitako aurrerapenak benetakoak direla zalantzan jar daiteke. Berritoki ere afektuen eta harremanen eremua neskena soilik dela ikusten da, mutilek komunikazioaren alor pertsonal eta intimoenean parte hartzeko dituzten zenbait zailtasun ezin dituztela gainditu.

B) ALDAKETA/BERNIZA AMATASUNEAN ETA AITATASUNEAN. Bikoteak etorkizuneko amatasunaren eta aitatasunaren inguruan duten jarrera eta diskurtsoak ere bikotean eta

gizarte osoan gertatzen ari diren aldaketan adibide dira. Aldaketak hainbat alorretakoak dira: haurtzaroa nola ikusten den, seme-alabek familian duten rola, amatasuna eta aitatasuna zen den eta hori nola bizi den. Ildo horretan ohiko irudiak eta erreferenteak aldatu egin dira: amak, esaterako, izugarrizko indarra zuen, seme-alaben babesle eta hezitzaile zen, eta bera zen seme-alaben zaintzaz arduratzen zen bakarra ia; orain, ordea, etorkizunean izan ditzaketen seme-alabekiko ikuspegi eta jarrera orekatuagoa dute bikoteek. Ildo horretan, amatasuna eta aitatasuna bi kideen proiektua dela uste dute, bien elkarlana behar duen zerbait dela, eta bien konpromisoa eta adostasuna behar duen zerbait. Izan ere, neskek eta mutilak hitz egiten dute seme-alaben auziaz, horri buruzko ikuspegia adierazten dute, eta horri buruzko aurreikuspenak egiten dituzte, etorkizuneko planetan sartzen dituzte, *"proiektu komuna"* deitzen dioten horretan sartzen dituzte. Horregatik, seme-alaba bat izatea *"bion gogokoa izan behar du"*, *"biok nahi dugun zerbait"* izan behar du, izan ere *"ardura handia da biontzat"*. Ikuspegi horretatik –eta itxaropen horiek gero errealitatean nola gauzatzen diren kontuan izan gabe– gauza bat dago argi: gai horretako abiapuntuak erakusten duenez, biko-teko bi kideak helburuetan eta itxaropenetan lehen baino hurbilago daude.

Hurbiltasun teoriko horrek, ordea, hutsune handiak ditu. Izan ere, neskek eta mutilak amatasunari eta aitatasunari buruz duten ikuspegia eta, batez ere, batzuk zein besteak horri ematen dioten garrantzia ez dira berdinak.

Gazteek egindako adierazpenen arabera, neskek ama izateko aukera hori *emakume izatearekin* lotutako zerbait bailitzan ikusten dute, edo hobeto esan *emakume gisa errealizatzearekin*, eta batzuetan *emakume gisa dituen helburuekin* lotutako zerbait. Emakume guztiek iritzi berbera ez badute ere, neska askok seme-alaba bat izatea ia-ia euren soilik, emakumeena soilik den bizipentzat hartzen dute. Eurentzat esperientzia intimoa eta pertsonala litzateke, eta gizonek modu partzial batean soilik hartuko lukete parte. Emakumea seme-alaben babesle eta horien ia arduradun bakartzat jotzeak ondorio ugari ditu neska gazteengan bai lan arloan, bai afektuen arloan eta baita garapen pertsonalean ere.

"Beharbada emakumea naizelako pentsatuko dut horrela, baina uste dut haurrak amarekiko lotura handiago duela. Horretan ez nizkioke utziko Igorri amatasun bajako hilabeteak".

(Emakumea. Elkarrekin bizi EZ den bikotea).

Izan ere, ama rola hain errotuta izateak eta amatasuna bereziki berari dagokion ardura dela aitortzeak ondorioak dakartzkio neska gazteari: bere bizitza, bere nahiak eta bere kezkek gertaera horren inguruan planifikatu behar ditu, eta horrek eragin handia du gizartean. Hain zuzen, Euskal Herriko neska-mutil gazteek salatzen dute, bai, emakumeek ama potentzialak izateagatik lan alorrean jasaten duten diskriminazioa, baina aldi berean ugalketa funtzioari behar afektibo eta sozial gisa –gizakiari lotutako behar gisa– ematen zaion garrantzia txikia adierazten dute. Baina adierazpen hori mikroespazioetan, bikoteen benetako praktikan ezartzea oso zaila da. Eta zailagoa bihurtzen da zenbait arrazoi dela medio, adibidez, bikoteko emakumea ez dagoelako prest amatasunaren zenbait alderdiri uko egiteko (esaterako, amatasuneko baja), edo haurrenganako babes eta menpekotasun jarrerak justifikatu edo arrazoitzeko *natura arrazoiak* aipatzen jarraitzen duelako. Eta are zailagoa bihurtzen da gizonak –nahita edo nahi gabe– seme-alaben zainketari eta hezkuntzari buruzko lan eta eginkizun gehienak emakumearen gain uzten dituelako, edo aita eginkizunetan bere burua balio eta itxaropen desberdinetan ikusten duelako. Emakumeentzat amatasuna barne-bar-

neko zerbait da, barneko aldaketei lotutako zerbait; gizonentzat, aldiz, kanpoko zerbait da, kanpotik eragingo dien zerbait; azturak, eguneroko gauzak, ohiturak eta abar aldatuko zaizkiolako, bizitza aldatuko dien zerbait.

- (Emakumea) *"(...) nik betidanik, txiki-txikitatik, nahi izan dut haurra izan. Niretzat haurra da garrantzitsuena, senarraz gain. Dena da. Egonkortasuna emango dit, zera gehiago..."*.

- (Gizona) *"ni ez nintzateke hain axolagabea izango. Askotan garagardotan ari naizela, ez zait axola 20 aldiz jarraian ordaintzen dudana ala ez. Baina haurra izango banu ez nuke 20 aldiz jarraian ordainduko, eta hiru garagardo edango nituzke, eta ez 20"*.

- (Emakumea) *"Eta etxera etortzeko orduari garrantzi handiagoa emango zenioke, orain berdin baitaizu 12etan etorri edo 3etan etorri"*.

(Elkarrekin bizi den bikotea).

Ikusi dugunez, aita edo ama izateak ondorio desberdinak ditu mutilarentzat eta neskaentzat afektuen eta bizipenen alorrean. Eta, beraz, erraz ulertzen dira emakumeak bikotearen alorrean jasaten dituen zenbait bereizketa, bai eta beste hainbat alorretan gertatzen direnak ere, esaterako, lanean, edo aisialdia antolatze eta bizitzeko moduan.

C) ALDAKETA/BERNIZA BIKOTEAREN BALIO ETA EREDUETAN. Bikotea eratze eta aurrera eramateko jarraitu ohi diren balioek eta ereduak ere aldaketa handiak izan dituzte azken hamarkadetan. Garai haietan bikoteetan zenbait gauzak garrantzi handia zuten –ugalaketak, esaterako– eta lotura batzuk interes ekonomikoen ondoriozkoak izaten ziren. Egungo bikoteetan, ordea, bikotea eratzerakoan garrantzia duten helburuak eta motibazioak guztiz bestelakoak dira. Gazteek adierazten dutenez, maitasun erromantikoa, adiskidetasun estua lortzea, garapen pertsonala eta bizitzako proiektu bat beste pertsona batekin batera bizitzeko asmoa dira, besteak beste, bikote bat sortzerakoan dituzten helburuak.

Illo horretan, bikote bat sortzeko eta horren oinarriak jartzeko erabiltzen diren arrazoi batzuk honakoak dira: adiskidetasuna –maitasunaren ideia ukiezin hori baino lehenago, edo sexualitatea baino lehenago–, errespetua, gauzak eta bizipenak elkarrekin banatzea eta, bereziki, proiektu komuna izenez ezagutzen den hori aurrera eramateko asmoa.

Beraz, oro har, defendatzen diren balio eta motibazioak bi kideentzat onargarriak dira, bi kideak etor daitezke bat horiekin. Ikuspegi horretatik bikote gazteen jatorriaren eta bilakaeraren oinarrian dauden irizpideak berdinzaleagoak dira, ustez, urte batzuk lehenago bi pertsona elkarri lotzeko erabiltzen zirenak baino. Baina dena dela, aldaketak aldaketa, egungo hainbat bikotetan –praktikan– ohiko eskemak erabiltzen dira harremana, bikotea eta esperientzia horrek norberari dakarkiona balioesten denean. Horrela, mutilek beren harremanak egonkortasuna, lasaitasuna eta oreka ekarri diela adierazten dute; neskek, aldiz, alderdi onak sentimenduèi lotutako gaiekin lotzen dituzte –maitasuna, elkar ulertzea–, baina hainbat alderditan –askatasuna edo independentzia– atzera egin duela aitortzen dute. Agi denez, mutilarentzat eta neskaentzat elkarbizitza edo bestearekiko loturaren esanahiak desberdina dira; eta, beraz, mutilek eta neskek jokoan dutena, mutilek eta neskek espero dutena desberdina da. Hori desberdintasunen jatorri da, izan ere mutilek bikotearen bidez "irabazten" dutena azpimarratzen baitute, eta neskek "galtzen" dutena nabarmentzen baitute.

"Galdu egiten da, beti bestea kontuan izan behar duzulako. Independentzia galtzen da. Askatasuna ere bai, duzun denbora bestearekin eman behar duzulako".

(Emakumea. Elkarrekin bizi EZ den bikotea).

"Uste dut bikotea izatea aurrerapausoa dela. Bikotea izateak gauza askotan pentsatzeko modua aldarazten dizu. Egonkortasuna ematen dizu eta serioago zaude. Serio hori bi zentzuetan izan daiteke; beharbada adarjotzailea izan zara, eta bat-batean bikotearen menpe zaude. Edo, agian, parrandazale izugarria zara eta formalago bihurtzen zaitu".

(Gizona. Elkarrekin bizi EZ den bikotea).

"Lehen, egunean 1.000 duro xahutzen nituen. Ez nuen inolako loturarik! Amari etxean bizi nintzelako eman behar niona eman, eta gainerako guztia niretzat! Orain ez, aldaketa handia da. Ni orain ezkontuta nago, eta zenbateko soldata izango dudana pentsatzen dut, Ogasunak dirua itzuliko didan... kontuak egiten ditut hil amaierara iritsiko naizen ikusteko... Inoiz egin ez dudana egiten ari naiz ezkontuta nagoenetik!"

(Gizona. Elkarrekin bizi den bikotea).

D) ALDAKETA/BERNIZA BIKOTEAN ROLAK ETA ITXAROPENAK ZEHAZTERAKOAN. Lehen adierazitako alderdiez gain, bikoteko kide bakoitzari egotzitako rola eta horrek espero duena ere sakonean aztertu beharreko gaiak dira. Egun, neska-mutil gazteek, inoiz baino gehiago, eurei egokituko zaien bikote bat bilatzen dute; euren "osagarria" bilatzen dute; bizitza eurekin partekatuko duen norbait; antzeko bizimodua, zaletasunak eta ingurunea ikusteko eta ulertzeko modua dituen norbait. Norbaitekin enpatia izatea, elkar ulertzea, lagunak izatea, guztia elkarbanatzea. Ildo horretan, neska-mutilek euren antzeko norbait bilatzen dute, euren gazte izaerari hurbilduko zaien norbait eta bikotearen eskema tradizionaletik urruntzen duen norbait. Ondorioz, neska-mutil gazte gehienek bikotearen eredu klasikoa hautsi nahi dute. Eskuarki, hori euren gurasoen bikote ereduarekin identifikatzen dute, eta planteamendu matxistekin lotu: emakumeak etxean egon behar zuen seme-alabak zaintzen eta etxeko lanak egiten, eta gizonak etxetik kanpo lan egin soldata atera eta familia mantentzeko.

"Nik uste dut kontzientzia kontua dela. Nik argi neukan, bikotea edozein izanda ere, ez nuela nire gurasoek zuten harremana izan nahi. Emakume moduan berdintasuneko harremana nahi nuen".

(Emakumea. Bikote homosexuala).

"Bikotean bizitzeko, pertsona batek bere lanbidea edo ikasketak uzten baditu, matxista iruditzen zait. Dela gizonak uzten baditu, dela emakumeak uzten baditu. Nik ez nituzke ikasketak utziko, edo bokazioa, bikotean bizitzeagatik".

(Gizona. Elkarrekin bizi EZ den bikotea).

Gazteek nahi ez duten bikote eredu horrekin erreferente berri bat eraiki nahi dute, beste eskema batzuetan oinarritutako eredu bat. Izan ere, garbi dute eskema tradizionalak –gizona familiaren babeslea, emakumea etxea zaintzen duena– ez duela egun funtzionatzen. Aldaketa prozesua aurrera doa eta bikoteen egungo dinamikan aldaketa handiak ekarri ditu,

baina oraindik euren ikuspegietan eta diskurtsoan sexuen arteko desberdintasuna dakarten eskemak agertzen dira. Esaterako, neska gazte askok mutilaren jendetasuna –irekia izatea eta jendearekin harremanak izateko gaitasuna– miresten jarraitzen dute; hots, gizonari egotzi ohi zaizkion dohainak: jendetasuna eta kanpoko ezaugarriak. Gizonak, aitzitik, pertsonaren barneko aldearekin lotutako ezaugarriak azpimarratzen ditu, pribatuarekin eta afektuarekin lotutako alderdiak: neskaren izaera maitekorra eta ulerkorra. Eta horiek neskengandik eta mutilengandik espero dena eta horiengandik eskatzen dena adierazten dute, horren irudiak dira; iraganeko irudien ispilua, gazteen belaunaldietan bizirik dirauten ereduak eta erreferenteen ispilua.

"(Neska) pertsona argia da, oso aktiboa, oso maitekorra".

(Gizona. Elkarrekin bizi EZ den bikotea).

"Oso argia da, eta oso egoskorra. Kanpora oso alaia da, baina nirekin serioagoa".

(Emakumea. Elkarrekin bizi EZ den bikotea).

"Azkenean, ba, berarekin gustura sentitzen zaren pertsona bat behar duzu. Arazo bat azaltzen diozunean ez da azalpena ematea soilik, une horretan baretzea nahi dut, ez soilik hitz egiten, bai eta keinuekin ere, oso gustura geratzen naiz. Lasaitu egiten nau, ez da komunikazioa soilik, edo hitzezko komunikazio soilik, dena da".

(Gizona. Elkarrekin bizi EZ den bikotea).

"Oso jatorra dela, eta behar dudanean hor egoten dela, behar izan dudanean beti hor izan dut, eta behar izan ez dudanean ere bai. Baina oso jatorra da, oso atsegina da jendearekin, eta oso harreman onak ditu; berak esan duena, arazorik ez duela jendearekin ongi konpontzeko."

(Emakumea. Elkarrekin bizi EZ den bikotea).

"Oso irekia da, batzuekin, ordea, gehiago kostatzen zaio. Lagunen lagun handia da".

(Emakumea. Elkarrekin bizi den bikotea).

"(Bere –neskaren– ezaugarriengatik zer gustatzen zaidan gehien?) Nola prestatzen duen janaria. Nire lehengusu-lehengusinak etorri dira bazkaltzera, eta ezin hobeto moldatzen da sukaldean. Eta gero, oso maitekorra dela. Gauean nekatuta etortzen naizenean, emadazu besarkada bat!, eta pixka bat animatzen nau... Oso maitagarria eta oso sukaldari ona, oso ona".

(Gizona. Elkarrekin bizi den bikotea).

E) ALDAKETAK/BERNIZA BIKOTEAREN EGINKIZUNETAN ETA ANTOLAKETAN. Aztertutako mikroespazio guztietatik alor horretan barneratu eta onartu dira gehien aldaketak. Badirudi, bizitza modernoaren baldintzek, antolaketak eta eskakizunek bikote ereduaren aukera bakarrari uzten diotela lekua: eginkizunen banaketa zuzena eta bidezkoa egiten duen bikotearen eredua. Ildo horretan, egun, neskek eta mutilek eginkizunak eta lanak zuzen banatu beharraz egiten dituzten adierazpenek ideala baino gehiago behar dutela adierazten dute. Egungo bikote ereduak bi kideek etxetik kanpo egiten dute lan, eta horretarako arra-

zoiak –besteak beste– ekonomia eta lan merkatuaren baldintzak, eta emakumeen prestakuntza eta lanean garatzeko apustua dira. Hortik abiatuta, lana eta famili antolaketa uztartzeko estrategiak hainbat modutakoak izan daitezke, baina, beti ere, etxeko eredu berrian ezinbestekoa da ahaleginak koordinatu eta eginkizunak banatzea.

Eskema horretan eginkizunak partitu eta partekatu egin behar dira, eta mutila etxeko protagonista pasiboa izan beharrean agente aktibo bihurtzen da. Gurasoen etxean gizonak pribilegiatuak izan dira etxeko lanak egiteko orduan; baina oraingo belaunaldietan, mutilak "etxean lan egin behar dutela" onartzen eta barneratzen hasi dira. Pentsamolde eta itxaropen aldaketa horrek, ezbairik gabe, etxeko lanen antolaketa aldatzea ekarri du, baina baita bikotearen arteko harremanetan eta etxea ulertu eta bizitzeko moduan ere: etxea zaindu, mantendu, garbitu eta abar.

" (...) goizetan lanera joaten garelako eta gauean lanetik etortzen garenean ez dugulako asti handirik izango, ezta eztabaidatzeko ere. Biok nekatuta helduko gara eta etxeko lanak ahal dugun egokien banatuko ditugu, eta asteburuan orain artean bezala".

(Emakumea. Elkarrekin bizi EZ den bikotea).

"Baina, beno, biok garbi daukagu biok egin beharreko gauzak direla. Ni gehien amorratzen nauena honakoa da: senarrak lagundu egiten dit edo mutilak lagundu egiten dit esatea; ez dit laguntzen, ez, ez baita nire eginbeharra. Niri Mikelek ez dit lagunduko, bion artean egingo dugu, ez da berak nik egin behar dudana lan batean lagunduko didan ala ez, biok egin beharreko gauza da, mailegua bion artean ordaintzen dugun bezala, ba xurgagailua pasatu, harrikoa egin edo landareak ureztatu ere bion lana izango da".

(Emakumea. Elkarrekin bizi EZ den bikotea).

Beraz, badira aldaketa gertatu dela egiaztatzen duten elementuak, baina beste zenbait elementu emakumeen diskriminazioarekin lotutako gizarte inertziek bizirik dirautela eta birsortu egiten direla adierazten dute. Izan ere, onartuta dago emakumeek etxean lan gehiago egiten dutela eta gehiago egin behar dutela, dela etxeko lanen inguruan *adituagoak* direlako, dela tradizioz *beti emakumeek egin izan dituzten* gauzak direlako. Egoera eta diskurtso horren aurrean beti gizonen *laguntzaren* leloa agertzen da, zenbait mutilek aldatzeko duten gogoia eta asmoa adierazteko, arlo horretan berdintasunak aurrera egin duela adierazteko.

"Hasieran nik egiten nuen dena. Ez genuen horretaz hitz egin eta, noski, betikoa, emakume guztiek egiten dutena: txukundu, garbitu, janaria prestatu... Baina egun batean depresioa izan nuen eta oso garai txarra pasatu nuen. Noski! amaren etxean bizi ondoren, ezer egin gabe bizi ondoren, hona iritsi eta bazkaria eta afaria egin, txukundu, arropa garbitu... Izugarrizko depresioa izan nuen... Hitz egin nuen eta hori erabaki genuen: berak lagundu egingo zidala, berak garbitu egingo zuen eta nik janaria prestatu eta arropa garbituko nuen."

(Emakumea. Elkarrekin bizi den bikotea).

"Berak nire izena jarri zion xurgagailuari, berak ukitu ere ez zuelako egiten. Esan zuen: xurgagailua zuretzat, eta esan nuen bale... Hori egitea ez da nekosoia niretzat".

(Gizona. Elkarrekin bizi den bikotea).

Bikotearen alorreko mikroespazioen azterketan berriro lehen ere familia eta koadrila aztertzean adierazitako errealitate paradoxiko edo dikotomikoarekin egiten dugu topo. Ildo horretan, berdintasun berniza deitu diogun horretan bikotearen dinamikaren aldaketaren alderdi positiboak ditugu, bi pertsonen arteko harreman intimoen testuinguru korapilatsu horretan berdintasunak izandako aurrerapauso izugarria, esaterako; baina desberdintasunen iraupen eta barneratze alorrean, eskema eta rol tradizionalak birsortu egiten dituzten inertziak eta joerak mantendu egiten direla ikusten da, bai eta aurrerapen handiagoa, errealagoa eta sakonagoa oztopatzen duten elementuak ere.

9. ILUSTRAZIOA Bikotearen eremuan dagoen diskriminazioa




Bernizaren aldean, aldaketaren eta aurrerapenaren aldean, mutilaren jarrera berria azpimarratu beharra dago: gizartean izandako aldaketa onartu egiten du, bai eta mutilek zein nes-

kek etorkizunean izango dituzten balio eta rol berriak ere. Mutilarentzat aldaketa harrigarria eta ikusgarria da, emakumeek eragindako aldaketa, berak ikusle gisa soilik ikusi izan duen eta ikusten duen aldaketa. Eta adi-adi egoteko, zain egoteko jarrera horretatik erantzun nahi diete neskek egindako eskaerei, eta ezin dute jarrera pasibo eta nahasi hori aldatu. Aldaketa onartu egiten da, edo, hobeto esanda, berenganatu egiten dute; gizon eredu bat –babeslea, familiaren barneko dinamikan parte hartzen ez duena, matxista, etab.– desagertu egin dela ikusten da, baina ezin dute beste erreferente bat jarri. Mutilak zain daude, aldaketaren dinamikak ezarritako bidean jokoaz kanpo ez geratzeko; batzuetan urduri, besteetan zer egin ez dakitela, gehienetan inguruko aldaketen abiaduraz harrituta.

Aldaketaren beste alderdian, ezkutuan dagoen desberdintasun horretan, ordea, hainbat oztopo ditugu: badirudi, gazteek oraindik eredu eta eskema tradizionalak eutsi egiten dietela. Horrela, mutilek aurreko belaunaldietatik jasotako matxismoaren hainbat zantzu dituztela ikusten da. Baina gauza txundigarriagoa da emakumeengan aldi berean muturreko bi egoera, bi egoera guztiz kontrajarri ematea: alde batetik, berenganatu egiten dituzte azken ehun urteetan emakumeek izandako aldaketen emaitza diren balio, irudi eta ereduak; eta, beste alde batetik, ezin dituzte eskema tradizionalak baztertu, ezin dute amek, amonek eta beste hainbatek irudikatzen duten emakume irudia atzean utzi.

Egoera paradoxiko eta gatazkatsu hori argi eta garbi adierazten da neska askoren diskurtso antagonikoetan: emakumeek adierazten dutenez, euren helburu nagusia nolabaiteko independentzia ekonomikoa izatea eta lanean garatzeko borroka egitea dira; baina, aldi berean, aitortu egiten dute –eta berenganatu– bikoteko bizitzan eurak izango direla, batez ere, horren ardura nagusia izango dutenak. Badira beste adibide batzuk ere: etorkizunean proiektuak burutu ahal izatea eta hautatzeko askatasuna izatea defendatzen dute; eta, aldi berean, ahapetik bikotearekiko eta bikoteko bizitzak dakartzan eginkizunekiko menpekotasuna aitortzen dute.

10. ILUSTRAZIOA Bikotearen eremuan neska eta mutilen gizarte aldaketa



Gazteen afektuen alorreko espazio guztiak aztertu ondoren, adierazitako alderdi guztiei buruzko ikuspegi orokorra emango dugu. Eta laburpen bat egingo dugu, gizartearen aldaketak berdintasunaren alorrean zein ondorio izan dituen jakiteko; hots, zein eragin izan duen gizon eta emakumeen, mutilen eta nesken, eta, beraz, etorkizuneko gizartearen berdintasun eskemak eta aukerak sortzeko.

Egungo egoeraren ikuspegi orokorra emateko, baliagarria da afektuen alorrean aztertutako hiru espazioak –familia, koadrila eta bikotea– continuum batean aztertzea, gaztearen bizitzako etapak bereizteko, gutxi gorabehera 15 urtetik 30 urtera bitartera doan aroaren etapak bereizteko. Hiru espazioek –familiak, koadrilak eta bikoteak– garrantzia handia dute gaztearen bizitzaren etapa guztietan, baina argi dago neska eta mutil horiek erabakitzen dutela une bakoitzean zeinek edo zerk duen garrantzia handiagoa.

Illo horretan, 15 urte inguru arte –nerabazarora arte– neska-mutilen afektuen alorrean garrantzi handiena duen esparrua, ia esparru bakarra, etxeko sozializazioa eta bizipenak dira. Esparru horretan lortzen dituzte neskek eta mutilek nortasunaren elementuak eratzeko oinarritzko tresnak, gizon edo emakume izateko tresnak. Eta familian nabaritzen dira, hain zuzen, mutilek eta neskek barneratzen dituzten elementuen, diskurtsoen, ereduen eta erreferenteen arteko desberdintasunak. Egun, oraindik ere, mutilen heziketan kanpoan, alor publikoan, gizartearen prestigioa duten alorretan moldatzen lagunduko dieten tresnak berenganatu behar dituztela azpimarratzen da: mundu horretan moldatzeko hainbat trebetasun behar dira, eta trebetasun horiek sustatzen dira mutiko eta nerabeengan, izan ere indarra, boterea, trebetasuna, kontrola eta abarrekin lotutako jardueretara bultzatzen baitituzte. Eta horretarako, gainera, nortasun sendoa, unibokoa eta zehatza behar da.

Etxeko espazio hori bera neskarentzat eskola bat da, bizitzen ikasteko eskola, bizitzan zehar aurre egin beharreko hainbat egoerarekin bizitzen ikasteko eskola. Egun, neskei bizitzan eta lanean proiektu bat izan dezaten bultzatzen zaie, baina famili bizitzarekin lotutako beste hainbat gauza ere azpimarratzen dira: bikoteko bizitza, amatasuna, familiararen ardura, familiarekin lotura mantentzea, etab. Eginkizun horiei aurre egiteko nortasun konplexua behar da, askotarikoa, eta ezustekoei, aldaketei eta iraultzei aurre egiteko gai izango den pentsamoldea (esaterako amatasunari aurre egiteko).

Pixkanaka-pixkanaka gaztearen bizitzan famili esparruak garrantzia galdu eta koadrilak hartzen du nagusitasuna. Esparru horretan mutilek eta neskek lehengo sozializazioan (familian) berenganatutako trebetasunak praktikan jar ditzakete. Koadrilak gizonen balioak eta ezaugarriak erakutsi eta erabiltzeko aukera ematen die mutilei, esaterako harremanetarako gaitasuna, jendetasuna, lidergoia, espazioa menperatzea, baita agresibitatea ere. Neskentzat koadrila familian barneratutako alderdiak praktikan jartzeko lekua da: antolatze gaitasuna duela, arazoak entzungo dizkizun laguna dela, zuhurragoa eta prestuagoa, baina baita hainbat unetan ekimena, segurtasuna, erabakitzeko gaitasuna erakutsiko duena.

Bikote bat osatzeko beharrezkoa da etapa bat atzean utzi eta gaztea helduen mundura eramango duen etapa hastea. Une berezia da afektuen alorrean, izan ere gizarteak eta inguruak itxaropen batzuk baititu mutil eta neska horiengan. Eurengandik espero dutena betetzeko ordua da; mutilek eta neskek ezaugarri, eredu eta erreferente tradizionalak birsortuko dituzten ala, aitzitik, funtzionatzeko eta harremanetarako eskema alternatiboak sortuko dituzten ikusteko unea da. Orain arte familiarako eta koadrilarako adierazitako ereduak

jarraitzen badiogu, erreferente eta diskurtso nagusiek pixkanaka ezarri dizkieten eredu sozialak eta kulturalak birsortuko dituzte mutilek, ziurrenik. Eta ikusi den bezala, eredu horietan aldaketak izan dira, baina oraindik eskema sexisten eta matxisten eragina handia da, eta genero sistema eta sexuen arteko desberdintasunak iraunaraztea eragiten dute.

Emakumeak, ordea, une horretan –gehienetan– barne borroka bat izaten du, izan ere rol eta itxaropen kontrajarriak uztartu eta bateratu nahi ditu: lanbidea, familia, bikotea, amatasuna, etab. Eta egoera nahasi horretan oso neska gutxi sentitzen da eroso eta ziur; eta gehienek, etengabe, egoera paradoxikoak jasan behar dituzte eta horiei aurre egin.

11. ILUSTRAZIOA Gaztearen ibilbide biografikoa familian, koadrilan eta bikotean



12. ILUSTRAZIOA Neska eta mutilarentzako aldaketa prozesua eta oztopoak familian, koadrilan eta bikotean



2

**AISIALDIAREN
ESPARRUA**

Kontsumoa jendea gogobetetzeko iturri nagusi eta gizarte integrazio/bazterketaren zedarri bilakatu den gizartean, beharrezkoa da genero sistemak gizarte alor honetan dituen ondorioak kontuan hartzea.

Bestalde, aisialdia familiaren eta gizarte egituren kontroletik kanpo beste esparru batzuk baino neurri handiagoan geratzen denez, gazteek arlo horretan hartzen dituzten erabakiak nolabait beraiek sortutakoak direla eta beren identitatearen adierazle direla pentsa dezakegu.

Aisialdiaren esparrua sozializazio esparrua da, nork bere nortasuna egituratzeko, bere burua besteekin neurtzeko eta nork bere identitatea eratzeko arloa, alegia.

Hori horrela, aisialdiarena autoespresioko esparru gisa ikus dezakegu, emakumeei, eta baita gizonei ere, beste zenbait arlotako jarraibide zurrin eta estuetatik ihes egiteko aukera ematen diena. Aisialdiko esperientziek hautabide teorikoak eskaintzen dituzte, eta pertsonen beren ahalmen pertsonala gauzatzeko askatasuna ematen diete; ahalmen hori, bestalde, generoaren arabera eratu diren oztopo, murrizketa eta eragozpenak gainditzeko modu gisa ere erabil liteke.

Atal honen zeregina oraindik ere hor dirauten desberdintasunak eta bazterkeri egoerak antzematea besterik ez da eta, are garrantzitsuagoa dena, gai horri buruz gazteek dituzten bizipenak jasotzea, desberdintasuna eta berdintasuna ikerketa honetan aztertutako beste arloetan baino naturaltasun handiagoz konbinatzen diren arlo honetan.

Aisialdiaren esparrua baliagarria eta funtsezkoa da euskal gazteriaren egoera generoaren ikuspegitik aztertzeko garaian.

Lehen elementu esanguratsua, aisialdiak azken urteotan izan dituen aldaketa handiak dira. Izan ere, gaur egun daukagun aisi motak ez dauka zerikusi handirik iraganekoarekin. Aldaketa maila askotan gertatu da:

- KONTZEPTUA: "Aisialdia" terminoaren esanahia dezente aldatu da.

Tradizionalki, aisialdia lanik egiten ez den denboratzat definitu da, betebehar guztiak egin ondoren datorrena. Gaur egun, kontzeptu hori nahiko aldatu da; izan ere, orain aisialdiak pertsonak denbora beretzat betegarria eta kualitatiboki esanguratsua den moduan erabiltzea esan nahi du, eta pertsonak berak askatasunez hautatzea hori nola gauzatu, horrek atsegina eta ongizatea eskaintzen dion neurrian.

Beraz, lehen aisialdia lanaren aurkakoa zen, ez produzitzeari lotua. Aisialdia lana bukatu ondoren zetorren. Horregatik, aisialdiko jarduerak funtsean gizonezkoek egiten zutenaren —edo egiten ez zutenaren— arabera definitzen ziren nagusiki, lanaldia eta aisialdia (kirolak, tabernetako eta elkarteetako gizarte harremanak) ongi banatuta baitzituzten. Hori horrela, aisialdirako eskubidea eskubide maskulinoa izan da, eta hor emakumeak ez zuen lekurik.

"Lehen, emakume bat ezin zen tabernara ere joan, eta orain bai, gero eta gehiago".

(Emakumezkoa. Koadrilako bilera, 18-21 urte).

"Nire garaian, neska bat taberna batean ikusiz gero, ordu jakin batetik aurrera, zerbaiten bila zebilela pentsatzen zen. Nire ustez, gaur egun dagoen gauza ona neska asko egotea da".

(Emakumezkoa. Adituen elkarrizketa).

- **ESKUBIDEA:** Emakumeek aisialdiaz gozatzeko eskubidea lortu dute.

Tradizioaren ikuspuntutik, gizonaren eskubideak aipatzen dira tarte libreei dagokienez. Beti etxetik kanpo lan egin duenez, bere eginkizunetik eta lan arduratik askatzeko denbora tarte bat izan dezake eta izan behar du. Lana, horrela, aisialdia eduki ahal izateko lizentzi bilakatzeko da.

Alabaina, emakumezkoak pixkanaka lan munduan sartzearekin eta gizartearen antolamendu aldaketarekin, beste bide bat urratu da, gaurko egoerara iritsi arte; egoera berri honetan, teorikoki behintzat, emakumeek aisialdiaz gozatzeko eskubidea aitortu zaie.

"Lehen tabu gehiago zegoen, emakumeak tabernako atean itxaron behar zuen, edo ezin zen etxetik irten, eta hori orain aldatu egin da, gazteriak horrela ikusten baitu, mutilen eskubide berberak dituztela".

(Emakumezkoa. Koadrilako bilera, 18-21 urte).

- **MODUA:** Lehen neskak eta mutilak bereizita ibiltzen ziren (nesken koadrilak eta mutilen koadrilak); gaur egun, berriz, koadrilak nahasiak izaten dira. Gero eta ohikoagoa da koadrila nahasiak ikustea, neskek eta mutilek osatutakoak, eta emakumezkoak lehen gizonezkoen esku soilik zeuden aisialdiko egituretan (tabernak, futbol zelaiak, eta abar) sartzen dira.

"Nik ikusten dudan aldea hauxe da: duela hamabost edo hogeit hamar urte ez zela neska-mutilek osatutako koadrilarik ikusten, edo nesken soilik, sekulako aitzurrak harrapatzen hortik, eta orain bai. Hori jadanik aldaketa da".

(Emakumezkoa. Adituen elkarrizketa).

Neskak eta mutilak elkarrekin irteteak sexuen arteko hurbilketa eta ezagutza handiagoa ekarri du berekin, eta gizartean hedatutako eta ongi barneratutako estereotipo batzuk hausteko lagundu du. Koadrila mistoek, jarduerak elkarrekin burutzen ez ezik, nesken eta mutilen arteko harremanak iraganean baino berdinezaleagoak eta normalizatuagoak izaten ere laguntzen dute.

"Atzera begiratuta, lehen mutilekin egotean, zirkulu ia erabat itxia zela konturatzen zara, neskek ez zegoela ia traturik. Eta orain ez, orain normala da, talde osoarekin, berdintasunean".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Nire ustez aldaketak daude, uste dut ez dagoela nesken eta mutilen artean lehen zegoen alde handia, eta harremanak normalizatuagoak direla, adiskideen artekoak direla".

(Emakumezkoa. Adituen elkarrizketa).

Hala ere, eta aldaketa horiek gorabehera, gizonezkoen eta emakumezkoen artean erabateko berdintasunezko harremanak izatea eragozten dituzten hainbat oztopo aurki ditzakegu. Generoari buruzko estereotipoak iraganeko gizartean gaurko gazteen artean baino ugaria-
goak eta sendagoak izan badira ere, neskek eta mutilek aurreiritziz ongi bustitako kultur adierazpenak izaten dituzte oraindik ere.

"Emakumeek gaur duten egoerak duela hogeit edo hogeita bost urtekoarekin zerikusirik ez badu ere, egoera horrek ez du bere isla aurkitzen benetan erabakiguneak diren espazioetan, edo diferentziak adieraz ditzaketen espazioetan, hala nola gau batez goizeko hiruretan lasai-lasai irten ahal izatea; hori neskak ezin dugu egin, eta are gutxiago bakarrik".

(Emakumezkoa. Adituen elkarrizketa).

Gazteek, oraindik, askotan izaten dituzte aparteko eragozpenak identitatea erabat garatu ahal izateko, sozializazio prozesuan feminitateari eta maskulinitateari buruzko estereotipoek sortzen dituzten oztopoak direla-eta. Izan ere, estereotipo horiek bere horretan dihardute sinesmenei, jarrerei eta baliabide eskaintzei begiratzen badiegu, eta azken batean aisialdiaren esparruan leku asimetrikoak bultzatzen dituzte.

"Mutil askorekin ibiltzen den neska... da, baina alderantziz denean, mutila mila neskarekin egona denean, "sekulakoa" da. Hori ez da aldatu".

(Gazteen bilera, 18-25 urte).

"Sentimenduak isilpean gordetzearena ere aurreiritzia da".

(Koadrilako bilera, 18-25 urte).

ildo horretan, generoari buruzko estereotipo askok beren legitimazioa (edo legitimaziorik eza) komunikabideek –gizartearen ispilu diren aldetik– hedatzen dituzten kultur eredu-
etan aurkitzen dute. Eredu horiek berdintasunaz hitz egiten dute, baina funtsean erabat hierarkia-
koa den gizartea eszenaratzen dute. Gizonezkoak pertsonaia nagusiki aktibo bilakatzen
dituzte, eta gertaera garrantzitsu eta sozialki nabarmenetan agertzen dira. Horrela, adibidez,
kirolariei, oso eremu publiko maskulinoko protagonistei alegia, arreta handia eskaintzen
diete (gazteek diotenez).

"Telebistan, prentsan, non ikusten duzu, adibidez, nesken arteko partida bat? Nesken arteko eskubaloia partida bat? Badaude, baina ez dira ikusten, ez zaie mutilen futbolari adinako garrantzirik ematen".

(Gizonezkoa. Aisialdiko adituen bilera).

Hori horrela, elkarrizketatu ditugun gazteri eta genero adituen artean, komunikabideen aurkako kritika gogorrak entzun ditugu, "elkarren aurkako balioak" transmititzeagatik; izan ere, balio horiek, gazteei lagundu baino gehiago, are nahaspila handiagoa sortzen diete. Gainera,

oraindik identitatea osatu gabe duen kolektiboa izanik, komunikabideen mezuek eta irudiek eragin handiagoa dute.

"Gizonezkoengan nahiz emakumezkoengan, pertsona independenteen irudia transmititzen da, beren nortasunarekin, nolabait irekiak eta aurrerakoiak diren balioekin. Baina aldi berean, hurrengo iragarkiak erakusten diguna garbiketa produktuak saltzen dituen emakumea da, menpeko pertsona, betiko gauzez kezkatuta, eta beste batean berriz luxuzko kotxea saltzen duen emakumea, gizon luxuzaleak eros dezan".

(Emakumezkoa. Adituen elkarrizketa).

Publizitatean rolak bete beharrekoak bailiran agertzen dira eta, gainera, ongi zehaztuta daude: etxekoandrea, gero eta modernoagoa (hau da, etxetik kanpo lan egiten duena) eta etxera itzultzen den gizonezko profesionala, bere egoera ekonomiko eta sozialak ahalbidetzen dizkion eta kontsumo gizarteak eskaintzen dizkion baliabideez gozatzera –askotan, erosteaz eta etxeaz arduratzen den emakumeari esker–.

Beraz, eredu horiek dira, gazteen famili guneetan daudenei gainjarrita, gizonezkoen eta emakumezkoen artean askotan izaten diren jarrera diskriminatzaile batzuk sortzen dituztenak. Jarrera horiek bazterkeriak bere horretan jarrai dezan ahalbidetzen dute, berdintasunaren aldeko pentsamoldea izanik ere.

"Gazteek, diskurtsoari begiratzen badiogu, aldaketak egon daitezkeela onartzen dute, baina gero praktikan ez dut aldaketarik ikusten".

(Emakumezkoa. Adituen elkarrizketa).

13. ILUSTRAZIOA Aldaketak eta oztopoak aisialdiaren esparruan



Gazteek eremu honi ematen dioten garrantziari lotutako bigarren elementua aisialdiak haientzat duen balorazio handia eta garrantzia da, beste espazioetatik argi eta garbi bereizten baitute.

"Egunero daukazunaz gain beste zerbait edukitzeko modua da. Nik egunero liburuak, gurasoak eta beste ezer gutxi ikusten dut".

(Gizonezkoa. 18-21 urteko koadrila bilera).

"Asteburuan, nahiz eta nekatuta egon, irten egiten zara, koadrila ikusteko eta lana ahazteko".

(Gizonezkoa. 23-25 urteko koadrila bilera).

Lan esparrua helduen gauzatzen hartzen da; aisialdiaren esparrua, ordea, sozialki eta kulturalki gazteei dagokien gauzatzen hartzen da. Horrek ez du esan nahi helduek aisialdirik ez dutenik, baizik eta gazteen aisialdia beren espazio propioa bailitza jotzen dela, nolabaiteko askatasuna duten espaziotzat.

Gainera, gaztaroa luzatu izanak (soziologikoki, 15-30 urte bitartean kokatzen da) aisialdiak are interes handiagoa hartzea ekarri du berekin. Gaur egun, "gazte izatearen" mugak zabaldu egin dira eta horren eragile izan dira, mendearen bigarren zatian, hezkuntza gizarte maila guztietara hedatzea eta, batez ere, lan munduan sartzeko zailtasuna. Bi elementu horien arteko konbinazioak gurasoen diru sarrerekiko menpekotasuna dakar, gazteen lan munduratzeko eta independentzia ekonomikoa atzeratzen du eta, horren ondorioz, etxebizitza eskuratzeko eta familiarengandik askatzeko aukerak murrizten ditu, eta horiexek dira gazteen munduaren eta helduen munduaren artean aldeak ezartzen dituzten alderdi nagusiak.

Ikerlan honek planteatzen duen aisialdiaren analisia ondoko arlo hauek zehazki bereiziz egingo da:

- **Arlo ludikoa:** gaurko euskal gazteriaren aisialdiko gune bereizgarriena da. Gaur egun, gauak, gazteek eta jaiak osotasun bat eratzen dute.
- **Kirola:** gazte askok modu informalagoan egiten duten jardura da.
- **Boluntarioen erakundeak eta asoziazionismoa:** gizartean gero eta garrantzi handiagoa duen beste alternatiba bat da.

Bereizketa hori, bestelako justifikazioak alde batera utzita, hauetan oinarritzen da: gazteri eta genero adituek beraiek gazteriaren heterogeneitateari ematen dioten garrantzian eta, halaber, aisialdiaren esparruan gazteen errealitate eta jardura desberdinak jasoz aniztasun hori aztertu beharrean. Aukera desberdinen artean, hiru arlo horiek ziren, gure ustez, egokienak.

"Gazteen artean oso jende desberdina dago. Aisialdian, oso eredu desberdinak dituzte. Gauzarik deigarriena asteburuetakoko gazteak dira, dantzalekuetakoak edo tabernetakoak, sekulako mozkorraldiak izaten dituztenak zenbait substantziaren eraginez, alkoholaren eraginez ia beti..., baina badira beste gauza asko egiten dituzten gazteak, nahiz eta hori ere egin. Horregatik, gazte errealitate asko daude".

(Emakumezkoa. Adituen elkarrizketa).


Adierazgarria da, lehen ondorio gisa, aisialdiaren esparruan generoaren inguruko gizarte diskurtso zehatzik ez izatea, nesken eta mutilen arteko aldeak nabarmenenak eta halaber "lazgarrienak" diren esparruan, hain zuzen ere. Kontsultatutako adituen iritziz, gabezia horren arrazoa hau da: generoaren inguruko eztabaidetan tradizionalki aisialdiari eskaini zaion arreta eskasa. Eskastzat hartu behar dugu beste gai batzuei (hala nola lan munduari, partaidetza politikoari eta abar) eskaini zaien arretarekin alderatuta, behintzat.

"Arauetan dago berdintasuna. Nire ikuspuntutik, zenbait arlotan ez dute planteatu ere egiten. Nire ustez, berdintasunaz ari direnean, politikaren arloan pentsatzen dute, gizonak eta emakumeak botoa eman ahal izatea eta emakumeak Legebiltzarrean egon ahal izatea, presentziari dagokion berdintasuna da, nik mutil batek egiten duena egin ahal izatea, baina oso azaletik".

(Emakumezkoa. Adituen elkarrizketa).

Bestalde, esparruak berak dituen ezaugarriak direla-eta, zaila da gazteek nesken eta mutilen arteko desberdintasunak botere harreman asimetrikotzat har ditzaten, ondoko eskemak erakusten digunez:

14. ILUSTRAZIOA Berdintasuna/desberdintasuna aisialdiaren esparruan



Hala, aisialdiaren esparrua aztertzeko gazte talde guztiek beren diskurtsoan ukatu egiten dute hasieran nesken eta mutilen artean desberdintasunik dagoenik, eta horiek diskriminazio egoeretara eramaten dutenik. **Hasiera batean, euskal gazteriak ez du generoaren arabera desberdintasunik hautematen aisialdiaren esparruan, eta desberdintasunak pertsonalak eta indibidualak direla uste du.**

"Pertsona bakoitzaren arabera da".


"Gehienetan kasu banakoak dira".

Baina gazteei beren ingurua eta eguneroko egoerak aztertzea eskatzen zaienean, gauzak aldatu egiten dira. Une horretan, askotan harrigarriro, aitortzen hasten dira **nesken eta mutilen artean badagoela desberdintasunik, eta diskriminazio egoera batzuk ere aurkitzen dituzte.**

"Badira zuk ikusten dituzun gauza asko, badakizu hor daudela, baina ez duzu horretan pentsatzen".

"Gauza bitxi batzuk ikusten dira".

15. ILUSTRAZIOA Nesken eta mutilen arteko desberdintasunei dagokien autokontzientzi prozesua



Dena den, nahiz eta gazte horiek desberdintasunak eta aldeak deskribatu ahal izan, abiapuntua beti hauxe da, desberdintasun horiek ez dutela zertan diskriminatzaileak izan sexu batentzat edo bestearentzat. Gazteentzat, desberdintasun horiek ez dute, berez, mutilarentzat edo neskarentzat desabantailarik ekartzen.

"Desberdintasun horiek neskek dituzten akatsak dira, batzuk besteak baino gehiegizkoagoak, baina azken batean, berberak dira. Beraz, berdinak gara".

(Gizonezkoa. Koadrilako bilera, 15-18 urte).

"Nire ustez ez dago desberdintasunik, gizartean bai, baina gure artean ez".

(Gizonezkoa. 15-18 urteko gazteen bilera).

Egoera dezente aldatzen da beste eszenatoki hierarkikoago batzuetara edo botereari eta aginteari lotutako ezaugarriak dituztenetara igarotzen garenean, norberaren eta gizarte eskalan daukan kokapenaren artean lotura estua dakarten eszenatokietara alegia, hala nola hurrengo kapituluan helduko diogun lan arlora. Arlo horretan, gizonezkoen aldeko desberdintasuna neurri batean ikusi edo antzeman egin daitekeen errealitatea da gazteentzat.

Gazteek diskriminazio egoera batzuk ezin ikusteak agerian uzten du genero banaketa, hain bortitza izanik, neurri handi batean barneratuta daukagula eta gauza naturaltzat hartzen dugula. Banaketa horrek arlo desberdinak hautemateko, aztertzeiko eta baloratzeko moduan ere eragina dauka, eta hori aldatzea gauza zaila izaten da. Izan ere, gazteek ez dituzte desberdintasun horiek beren nortasuna mugatzen duen gauza negatibotzat jotzen, baizik eta neskak eta mutilak elkarren osagarri eta aberasgarri izatea ahalbidetzen duen gauza positibotzat.

"Nire ustez beharrezkoa da desberdinak izatea".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera).

"Jakina, jarraibideak ematen dizkizu, osagarria da".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera).

Gainera, gazteriaren sektore batzuen artean, badago oraindik diskurtso atzerakoiagoa –gutxiengo batena– duena, diskriminazioa gizarte arazoa dela ukatzen duena eta bere kritika kolektibo zehatz bati, feministei alegia, zuzentzen diena.

"Ni ez naiz inoiz diskriminatuta sentitu; beste neska batzuk bai, oso zorrotz hartzen dutelako gizonezkoen eta emakumezkoen zera hori".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera).

Diskurtso horrek diskriminazioari buruz oso pertzepzio partziala uzten du agerian, edozein argudio eta justifikazio bilatzen baitu sakonean dagoen arazoari ez heltzeko. Emakume batzuk diskriminazio subjektu direla ez onartzeak, gizonezkoen azpiko direla ez sentitzeagatik, edota beste batzuek egoera hori berdintasunetik ezaren adierazpen gisa ez ikusteak, zaildu egiten du diskriminazioaren arloan sakontzeko lana. Hori horrela, begi bistakoak dira ikerlan

honek dituen oztopoak, aztertzen dugun esparruan diskriminazioak ez baitira lan munduan edo politikan bezain agerikoak eta objektiboak, gazteek beren elkarreraginean dituzten bizi-penei lotuta daudela-eta. Gauza subjektiboa eta barnekoa da, eta, beraz, zailagoa da antzematen eta azaleratzen.

Gazteek aisialdiko gune desberdinetan diskriminazioa badagoela ukatzeko erabiltzen dituzten argudio zehatzak, ondoko ataletan aztertuko ditugunak, hauexek dira:

- LUDIKOA
 - Neskek eta mutilek jokabide berbera dute (edatea, erretzea, dantzatzea eta abar).
 - Aisialdiko gune berberak erabiltzen dituzte (tabernak, dantzalekuak eta abar).
- KIROLA
 - Desberdintasun biologikoak.
 - Kulturak eta gizarteak sortutakoa.
- ASOZIAZIONISMOA
 - Boluntarioen erakundeetako balio inplizituak (elkartasuna, justizia, berdintasuna eta abar).
 - Hezkidetzaren kontzeptua sartzea.

ESPARRU LUDIKOA

2.2

Ikasketan, arlo ludikoa jaiaren eta parrandaren espazioa da. Definizio horren abiapuntua hau da: gazteen diskurtsoan bi gai zehatzek, gauak eta edariak, hartzen duten protagonismoa. Hori horrela, ludikotasunaren kontzeptuak jaia, dibertsioa, parranda, mozkorraldia, kontrolik eza eta abarren ideia dakar, hau da, dibertsioa berez beste helbururik gabe, eta definizio hori da gazteen artean gazteenek (15-18 urte) indar handiagoz bere egiten dutenak.

"Asteburua edatea da, funtsean".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Kontuan hartu behar da larunbatak garrantzitsuak direla, edan egin behar baita ondo pasatzeko, hori baita ondo pasatzeko modua, trago batzuk hartzea koadrilarekin, eta horrela".

(Gizonezkoa. Koadrilako bilera, 18-23 urte).

Jakina, gazteek beste jarduera ludiko batzuk ere egiten dituzte: kafea hartzea, zinera joatea, mendian ibiltzea, afaltzera irtetea eta abar, baina gaua eta edaria dira, zalantzarik gabe, beren diskurtsoaren eta hausnarketen ardatza.

Gazteek argi bereizten dituzte lanegunetan eta asteburuetan egiten dituzten jarduerak. Jarduera horiek, egiten dutenaren arabera ez ezik, norekin egiten dituztenaren arabera ere bereizten dituzte. Hau da, asteburuetan koadrila osoa elkartzen da, egun batean behintzat, edateko eta dibertitzeko. Baina lanegunetan bi edo hiru pertsona elkartzen dira nagusiki, hitz egiteko edo jarduera lasaiagoren bat egiteko:

"Asteburuan, irteten bazara, parrandara joaten zara, lanegunetan, irteten bazara, lasaiago irteten zara, zerbait hartzera".

(Gizonezkoa. Koadrilako bilera, 23-25 urte).

"Lanegun batean geratzen bazara gehiago hitz egiten duzu, asteburua zurruta eta zurruta da".

(Gizonezkoa. Koadrilako bilera, 23-25 urte).

"Lanegun batean askoz ere partzialagoa da, pertsona zehatz batekin geratzen zara, edo birekin".

(Gizonezkoa. Koadrilako bilera, 23-25 urte).

Gazteek egiten dituzten jarduera ludiko guztiei garrantzi berbera ematen diete, baina adinarekin, gauza batzuen edo besteen zaletasuna dezente aldatzen da. Gazteenek asteburuaz gozatzen dute gehiago, eta denbora horretako jarduerak edatera, dantzatzera eta abar mugatzen dira.

"Gaztea zarenean, badirudi asteburuz asteburu bizi zarela".

(Emakumezkoa. Gazteen bilera, 26-30 urte).

Urteak igaro ahala, ordea, gazteek beste jarduera batzuk ere hautatzen dituzte; zinera joatea, mendira joatea, afaltzera irtetea eta abar.

"Gaztea zarenean, lagunekin geratzea eta dantzalekura joatea edo tabernaz taberna ibiltzea gustatzen zaizu. Gero, zaharragoa zarenean, lehen bezain ondo edo hobeto pasatzen duzu lagunekin bazkari bat egiten, edo etxean afaltzen eta ondoren solasean. Hau da, dibertitzeko modu desberdinak dira, ez da bata bestea baino hobea".

(Emakumezkoa. Gazteen bilera, 26-30 urte).

ESPARRU LUDIKOAN DESBERDINTASUNAK ETA DISKRIMINAZIOAK ANTZEMATEKO GAZTEEK DUTEN ZAILTASUNA

2.2.1

Gazteei zaila egiten zaie espazio hau generoaren ikuspegitik aztertzea; are gehiago, harrituta geratzen dira zeregin horri heltzeko eskatzen zaienean. Haientzat, neskentzat zein mutilentzat, sexuaren araberako arazo, desberdintasun edo diskriminazioak lan munduan

edo politikan daude, are etxean ere, baina badirudi zaila dela hori dibertsioaren gune "informalean" planteatzea.

Beharrezkoa izango da, hortaz, gazteek erabiltzen dituzten analisiak eta argudioak zehazki aztertzea, hor egongo baitira nesken eta mutilen arteko desberdintasunak eta, horren ondorioz, sexu batentzat edo bestearentzat diskriminazio gisa interpretatu eta bizitzea eragozten duten oztopoak.

Bileretan erabiltzen diren argudioen artean, ondoko hauek aipa ditzakegu:

- **Gaur egun presentziazko berdintasuna dago**, hau da, neskek eta mutilek beren aisialdia partekatu egiten dute, leku beretara joaten dira (tabernak, dantzalekuak eta abar). Nolabait esateko, horren azpian badago ideia bat, hau da, nesken eta mutilen artean zenbat eta kontaktu eta elkarbizitza handiagoa egon, orduan eta aukera gutxiago egongo dela jokabide eredu sexistak izan litezkeenak barneratzeko eta birsortzeko.
- **Norberak aukeratzen duen espazioa da**. Gune honetan gazteek libreki aukera dezakete zer egin, norekin egon, zer kontsumitu eta abar, eta, hortaz, ustez urrunago dago beste esparru formalago batzuetan (eskola, lantokia) egon litezkeen oker edo ajeetatik.
- **Jarduera berberak egiten dituzte**. Koadrila mistoei esker, neskek eta mutilek gauza berberak kontsumitzen dituzte, jarduera berberak egiten dituzte eta beren arteko harremanak naturalagoak eta berezkoagoak dira. Esperientzia berberak edukitzeak, berez, badirudi nola-baiteko homogenizazioa dakarrela aukeretan, esperientzietan eta jokabideetan.

"Gertatzen dena da zuk bezalatsu edaten dutela, eta zuk egiten duzuna egiten dutela".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

Horren ondorioz, gazteek diotenez, motibazio berberak dituzte jarduera ludikoak egiteko garaian.

"Ondo pasatzea"

"Deskonektatzea"

"Funtsean dibertitzea"

"Barre egitea, jendea ezagutzea"

- **Ez du egitura antolaturik**. Azken batean, dibertsioaren gunean agertzen da gazteria berezkoen, eta familiaren eta gizartearen presioak txikiagoak dira hor; beraz, gazteek askatasun handiagoa edukitzearen sentsazioa dute.

Dena den, gazteak esparru ludikoa generoaren ikuspegitik aztertzen hasten direnean, ustezko berdintasun hori ez dela hainbesterainokoa ikusten dute, eta gehiago dela inertziazko pentsamendu baten ondorioa, "berdintasunaren gizarte bernizaren" azpian ezkutatzen denaren irudi desitxuratua. Gazteak benetako desberdintasunak zenbait mikroespaziotan antzematen hasten dira, baina gune horiek aurrerago aztertuko ditugu, aurkikuntza horrek eragiten dituen erreakzioekin batera. Oraingoz, lehen hurbilketa bat egiteko, hona hemen elementu adierazgarri batzuk:

- **Esparru ludikoa espazio maskulinoa da**, hau da, funtsean mutilek okupatzen eta mutiak nagusi diren espazioa. Emakumezkoak orain arte ia erabat gizonezkoentzat soilik zen eremutat definitutako egituretan sartu dira, eta horietara egokitu. Hori uste dute, behintzat, gizartearen duten lekutik (tabernariak, begiraleak eta abar) esparru ludikoetan gazteekin zer gertatzen den ikusten dutenak.

"Aisialdiko esparruak maskulinoak dira. Gaua maskulinoa da, espazioak maskulinizatuta daude, eta emakumea espazio horietan sartzen da, eta bertan parte hartzen du baldin eta espazio maskulinizatu horietan nolabait inposatu diren arauak betetzen baditu".

(Emakumezkoa. Aisialdiko adituen bilera).

"Gaua maskulinoa da, mutilek espazioa markatzen dutelako. Zu kalean barrena zoaz, eta haiek okupatzen dute espazioa. Modu jakin batean okupatzen dute. Izkinetan pixa egiten dute eta hori ez dugu egiten emakumeok".

(Emakumezkoa. Aisialdiko adituen bilera).

- **Sozializazio espazioa da, gizartearen balioak agerikoak dituen**: Esparru ludikoan, gazteek beren gizartearen arauak, balioak eta tabuak ere barneratzen dituzte. Gazteek egiten dutenaren, ustez direnaren eta izatera iritsi nahi dutenaren fruitu gisa, norberaren identitatea eraikitzeko esparrua da. Sozializazio prozesu horretan, gazteek balioak, jarrerak eta rolak ez ezik, beldurrak ere barneratzen dituzte. Badaude finkatutako jarraibide batzuk (adibidez, hitz goxoak esatea, bultzatzea eta abar), planteatu ere egiten ez dituztenak eta gizartearen kultur ereduari lotuta daudenak.

- **Espazioa partekatzeak ez du esan nahi modu berean partekatzea**. Lehenik, baliabide ekonomikoak berdinak ez direlako. Azterlan kuantitatiboek⁽¹⁾ adierazten dutenez, neskek diru gutxiago jasotzen dute gurasoengandik. Bigarrenik, gastuek, nahiz eta nahiko ezkutuak izan, ñabardura adierazgarriak dituzte. Kapitulumurik garrantzitsuena edariena eta tabakoarena da; mutilek, batez ere, produktu horiek erosten dituzte. Halaber, mutilek diru gehiago gastatzen dute zinean eta ikuskizunetan eta lagunak gonbidatzen; neskek, berriz, erabilerak pertsonaleko objektuetan eta janarian.

Erosketa ohituretako eta gastuetako desberdintasun horiek droga kontsumoaren jarraibideetan ere islatzen dira. Mutiak dira edari alkoholduen kontsumitzaile nagusiak, batez ere zerbeza, kubatak eta whiskyarenak –astero kontsumitzen dira–. Neskak, oro har, ez dira horren alkoholzaleak izaten eta mutilek baino gehiago erretzen dute. Etorkizunean espero da, hala ere, neska-mutilek aisialdiko praktiketan gero eta gehiago bat egitearen ondorioz edarien kontsumoan gaur egun dauden aldeak orekatzea, nahiz eta oraindik ere gizonezkoek nolabaiteko aldea atera, emakumearen "ahuleziaren" konbentzimenduak (eta beraz gizonaren "eramanak") bere horretan jarraitzen duen artean.

"Mutilek hobeto jasaten dute alkohola".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

(1) F. ORTEGA (1993), *La flotante identidad sexual*, Madrilgo Unibertsitate Konplutensean, 24-25 or.

- **Egitura informal hierarkiko eta diskriminatzaileak izatea:** Kasu honetan, presioa ez dator kanpotik (familia, gizartea), baizik eta kideen jokabidearen mugak zehazten dituen taldea bera da eragilea. Gizonak eta emakumeak nolakoak diren dioten estereotipo oso sus-traituak daude, eta horiek mugatu egiten du jokabidea, are ongi egituratu gabeko esparru ludikoan ere.

GAZTEEK MUTILENGAN NESKENAK EZ BEZALAKO EZAUGARRIAK, KUALITATEAK ETA JOKABIDEAK ANTZEMATEN DITUZTE

2.2.2

Bi sexuetako gazteak gero eta egoera gehiagotan daude elkarrekin. Horren ondorioz, jarre-rak eta sinesmenak are gehiago aldatuko zirela pentsa bagenezakeen ere, gazteen diskur-tsoak zera erakusten digu: oso barneratuta dauden genero estereotipoek oraindik ere hor jarraitzen dutela.

Izan ere, gazteek autopertzepzio desberdinak dituzte:

— Jokabideari dagokionez:

MUTILAK

"inprobisatzaileak"
"pazientzia txikikoak"
"zirt edo zartekoak"
"aktiboak"
"liskartiak", "dibertigarriak"
"lotsagabeagoak"
"azalekoak"
"materialistak"
"parrandazaleak"

NESKAK

"prestatzaileak"
"pazientzia handikoak"
"ziurtasun gutxikoak"
"pasiboak"
"aspergarriak"
"zuhurragoak"
"sakonak"
"sentimentalak", "sentikorrak"
"sakrifikatuak"

— Hizkerari dagokionez:

MUTILAK

"zuzenak"
"zakarrak"
"oldarkorrak"

NESKAK

"zeharkakoak"
"finak", "sotilak"
"neurritsuak"

Maskulinoa denaren eta femeninoa denaren arteko banaketa garbi horrek ondorio batzuk dakartza berekin, eta horiexek aztertuko ditugu, mundu ludikoko mikroespazio desberdinetako egoera erreala ikustea ahalbidetuko diguten adierazle batzuei esker.

ESPAZIOA: Espazioaren dimentsio fisikoa adierazi nahi dugu, hau da, gaueko lekuetan (tabernak, dantzalekuak...) izaten den kokaera, okupazioa eta mugimendua; jokabideak aztertu ondoren, hemen gazteek ateratzen duten ondorioa hauxe da: mutilek espaziorik estrategikoenak kontrolatzen dituztela, hau da, sarrera, barra, bainugeletako sarrera eta korridorea.

"Mutilak sarreran egoten dira, eta baita ateetan ere, esanez bezala bizkartzain konplexua daukat eta hementxe geratuko naiz, edo jendea sartzen den bakoitzean ikus nazatela, bainugelen inguruan, sarreran. Barraren inguruan. Mutilak, nire ustez, beti egoten dira gehiago kopa eskuan dutela".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

Egoera horretan neskak deseroso egoten dira, mutilek askotan barrara edo bainugelara iristea eragozten dietelako, edota zelatatuak sentitzen direlako.

"Eta ez dira ez atzera ez aurrera mugitzen. Taberna batean ordubete egon zaitezke, barrara joan eta ia berberak jarraitzen dute han".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Barrara iristea da arazorik handiena. Hori bai dela biologikoa nire ustez, gizonak handiagok baitira, indartsuagoak, eta ez dira mugitzen".

(Emakumezkoa. Aisialdiko adituen bilera).

"Korridorea mutilek bakarrik kolonizatzen dute, badirudi pasabide batetik igarotzen zarela".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

Neskak, dantzarekin lotuagoak, pistan, oholtzan eta bainugeletan kokatzen dira nagusiki. Gazteen hitzetan, horiek nor bere burua nabarmentzeko, intsinuatzeko eta mutilekin maite jolasetan ibiltzeko espazio egokiak izango lirateke.

"Mutilak barran jartzen dira iritsi bezain laster, eta neskak beti pistan egoten dira, lehenak izaten dira".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Neskok gehiago ibiltzen gara dantzan, komunetan eta oholtzetan edo dena delakoetan".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

Neskek hautematen dute mutilek pistan beraiek ez bezalako jokabidea dutela. Mutilek zerbaiten bila egoteko jarrera izaten dute: geldirik egoten dira, neskek nola dantzatzen duten begira, azkenean erabakia hartu eta neskaren batekin solasean hasi arte, ligatzeko asmoz nagusiki.

"Mutilak pistan jartzen badira, toki batean kokatu eta ez dira handik mugitzen. Neskak gehiago mugitzen dira, bainugelara joaten dira. Baina mutilak gehiago daude zelatan bezala, neska talde bat ikusi eta haiekin hitz egiten dute".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

KONTSUMOA: Mutilek neskek baino baliabide ekonomiko gehiago izaten dutela komentatzen dute, baina errazago xahutzen dutela ere bai. Neskak "aurreztaileak" direla esaten dutenean, badirudi horiek ekonomikoki jasaten duten diskriminazioa justifikatzen dela, dauzkaten baliabideekin moldatzeko gauza direla pentsatzen baita.

"Gure giroan denok ikasten ari gara, baina egia da mutilek diru gehiago erabiltzen dutela".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Mutilek normalean diru gehiago izaten dute, eta batzuetan diruarekin okerrago moldatzen dira eta neskek baino lehenago gastatzen dute".

(Gizonezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Guk neskek baino lehenago xahutzen dugu".

(Gizonezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

Mutilek neskak gonbidatzeko joera handiak oraindik ere bere horretan jarraitzen du, eta haiei eman zaien rolaen beste adierazpen bat da: mutilek neskekiko harremanetan ekimena hartzen dutenak eta egoera kontrolatzen dutenak izan beharko lukete, eta, hortaz, komeni da haiek baliabide ekonomiko handiagoak izan ditzaten. Nesken aurrean ematen den ziurtasun irudi hori normalizat eta onargarritzat jotzen da, berez gazteen artean genero estereotipoak birsortzearen beste adibide bat ez bada ere.

"Adibidez, nik dirurik ez badut, mutilek normalki gonbidatu egiten naute beti".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

Alkoholaren eta tabakoaren kontsumoa nesken eta mutilen artean berdintsua bada ere, legez kanpoko droga hornitzaileak mutilak izan ohi dira, eta besteekin partekatu eta neskak gonbidatzen dituzte. Mutilei ahalmen ekonomiko handiagoak produktu garestiagoak eskuratzeko aukera ematen die. Ondorioz, neska batek horrelako substantzia bat kontsumitu nahi badu, askotan mutilaren ekimenaren menpe egongo da.

"Nik porroak biltzen mutilak ikusten ditut, baina gero askotan neskentzat izaten dira".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Mutilek gonbidatzen gaituzte".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

LIGATZEA: Ligatzeko garaian ere, mutilentzat eta neskentzat eskema eta jarraibide estereotipatu ugari dago. Oro har, ez dira pertsona helduen artean bezain agerikoak edo deigarriak, baina sakonean elementu komun asko dago gazteen eta helduen artean. Neskak, normalki "pasiboak", "zuhurak", "sentikorrak", "sentimentalak", "sakrifikatuak" adjektiboez defi-

nitzen dira, eta badirudi jarrera irekiak eta harberak erakutsi behar dituztela. Espero da beti besteei ulertzeko prest egon behar dutela. Eta hori, lehen aipatutako ezaugarriekin ez ezik, konfiantzazko eta enpatia afektibozko giroa sortuz ere lortzen da. Alderdi honetan, emakumeengandik ia dena espero da, eta haiek kalitate bereziak dituztela uste da oraindik ere. Erakarri eta liluratzeko gaitasuna neskari dagokio. Horrela, sedukzioa ezaugarri erabat feminotzat hartzen da, eta emakumeak horretarako baliabideak dituela uste da.

"Neskak baditu armak".

(Gizonezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Neskoi arreta erakartzea gustatzen zaigu".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

Beraz, ligatzeko garaian, rol aktiboa mutilei eta pasiboa neskei dagokiela uste da. Mutilak, azken batean, ekimena hartzearekin eta egoera kontrolatzearekin lotutako jarrerak bere egiten dituztenak dira. Mutilak, "oldakorrak", "zuzenekoak", "zirt edo zartekoak", "lotsagabeak" bailiran definitzen direnez, haiengandik jokabide "ausartagoak" espero dira, prozesu guztia menperatzeko gai izan daitezen.

"Gehienetan mutilak izaten dira aukeratzen dutenak, zera esaten baitute: horixe gustatzen zait, eta zuzenean joaten dira, eta neskak beti daude bestea berengana joateko zain".

(Emakumezkoa. Koadrilako bilera, 18-21).

"Mutila hor joaten da, eta harrapatzen badu, ondo harrapatua".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Beti mutilak dira lehen pausoa ematen dutenak".

(Emakumezkoa. Gazteen bilera, 15-18 urte).

Mutilek rol aktiboa hartzen dute oraindik moral tradizionalak mugatuta dagoen emakumearen aurrean; ziur aski muga horiek ez daude pentsamenduan, baina bai roletan, eta neskak, oro har, jarrera estatikoagoa hartzen du. Genero estereotipoak izateak nesken jokabidean eragina dauka eta jarrera pasiboagoak hartzera behartzen ditu.

"Lehen pausoa guk ematen badugu, badirudi mutilak ehizatzen dituzten otsoak garela".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Hori txorakeria hutsa da, berdin izan beharko luke, baina badaude balio batzuk... nahiz eta zu ez ados egon horiekin, nahi eta nahi ez, badirudi mutilen ehizan ari zarela".

(Emakumezkoa. Koadrilako bilera, 18-21 urte).

Gazteriak badaki, sozialki eta kulturalki, neskei eta mutilei rol desberdinak ematen zaizkiela sozializazio prozesuan, eta horrek azken batean beren balioak, jarrerak eta jokabideak erabakiko dituela.

"Tabernetara joaten zarenean, konturatzen zara mutilak direla beti neskengana joaten direnak, lege unibertsala da, beti izan da hala".

(Gizonezkoa. Gazteen bilera, 18-25 urte).

"Nire ustez emakumearen rola da, gizonak zuekin hitz egin arte zain geratu behar duzue".

(Gizonezkoa. Koadrilako bilera, 27-30 urte).

Dena den, bai mutilei eta bai neskei, ligatzeko garaian emakumearen jarrera errazagoa dela iruditzen zaie, berak ez baitu lehen urratsa eman behar eta, beraz, errefusatu izatearen lotatik libre geratzen dira.

"Onena haiek etortzearen zain geratzea da".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Nesken jokabidea aldatu egin da. Neskak ez dira lehen bezainbeste uzkuartzen, orain, elkarrekiko interesa badago, mutilak urratsa eman ondoren, neskak begiradez iradoki egiten dio. Orain lehen baino errazagoa da".

(Gizonezkoa. Gazteen bilera, 15-18 urte).

Dena den, esan beharra dago "ligatzearen" ideien eta praktikaren inguruan oraindik bizirik dirauten arau eta jarraibideak hausteko berdintasun espazio txikiak sortzen hasi direla emakumeak.

"Gure artean, neska bat hirurekin ligatze kontuan hasten bada, oso ondo, baina kanpotik hori ez da hain ondo ikusten".

(Emakumezkoa. Koadrilako bilera, 18-21 urte).

Beraz, bi sexuetako gazteek gizarte harremanetan eta adiskidetasunean neskak protagonista direla uste dute. Dena den, harremana sexualagoa den eremurantz doanean, mutilen protagonismoa hasten da. Horri dagokionez, badirudi estereotipo tradizionalak ez direla gehiegi aldatu.

"Nik gizonezko lagun batekin husten dut barrua, baina aholkua eskatu, neska bati eskatuko diot beharbada".

(Gizonezkoa. Gazteen bilera, 15-18 urte).

"Aitortzen dut gehiagotan egin dudala negar nesken aurrean, mutilen aurrean baino".

(Gizonezkoa. Gazteen bilera, 15-18 urte).

"Nik arazoak izan nituenean neskei kontatu nien dena, hor sostengu handia aurkitu nuen. Ezer konpontzen ez badizute ere, kontatu eta barrua husten duzu".

(Gizonezkoa. Koadrilako bilera, 18-21 urte).

Emakumearen kontzeptu orokorrak, "entzuten", "aholkuak ematen" eta "laguntzen" duen pertsona gisa, horretarako bere aisialdiari uko egin behar badio ere, "benetako lagunaren" rolean ezartzen du beti, beregana doan pertsonaren sexua edozein izanik ere.

Aitzitik, mutilen inguruan eratu den irudiak, "liskartiak", "parrandazaleak", "dibertigarriak", "azalekoak" bailiran erakutsiz, mutila sentimenduetan eta gai pertsonaletan sakontzeko adiskidetasun intimoago baterako subjektu egokitze hartzea eragozten du.

"Baditut bost urte nituenek geroztik ezagutzen ditudan lagunak eta ez ditut ongi ezagutu, bestelako kontzeptua dutelako, kopa bat hartzera irten eta lau gauzak hitz egiten duzu, arrunkeiez. Eta emakumezko lagun batekin geratzen naizenean, gauza pila bat kontatzen dizkit. Nire ustez errazagoa da neska batekin hitz egitea".

(Gizonezkoa. Gazteen bilera, 26-30 urte).

"Baliteke neskek pairamen handiago izatea. Zerbait kontatzen denean, bada neska entzuten geratzen da, arrazoia emanez bezala. Mutilak, berriz, gaia futbolera aldatzen du edo trago bat ateratzen du, eta eskatzera doan bitartean ahaztu zaio dagoeneko eta jadanik ez du horretaz hitz egiten".

(Gizonezkoa. Koadrilako bilera, 18-21 urte).

"Nire ustez, neskek gehiago sakrifikatzen dute jaiak. Mutilak parrandan badabiltza, parrandan dabiltza".

(Gizonezkoa. Koadrilako bilera, 18-21 urte).

ELKARRIZKETA GAIK: Nesken eta mutilen arteko balioen eta jokabideen artean dagoen bereizketa zurrin hori bultzatzen duen beste alderdietako bat hau da: neskek eta mutilek elkarrizketa gai desberdinak edukitzea.

Nahiz eta gaur egun koadrilak mistoak izan, oso ohikoa da oraindik ere neskek alde batetik eta mutilak beste batetik ikustea, gauza desberdinez hitz egiten. Gazteek esaten digutenez, mutilek "gertatzen dena" dute mintzagai: futbola, kirolak, kotxeak, motoak, ordenagailuak eta abar dituzte mintzagai, eta neskek, berriz, "gertatzen zaiena": bizipenak, arazoak eta abar.

"Guk ikusten ditugun gauzei buruz hitz egiten dugu, eta haiek ikasgelan gertatu zaienaz."

(Gizonezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Gure elkarrizketa gaiak kotxeak, telefono mugikorak eta ordenagailuak dira. Eta neskekin uste dut gauza gizatiarragoez hitz egiten dela, sentimenduez, adibidez".

(Gizonezkoa. Langabetuen bilera, 20-30 urte).

"Nesken elkarrizketetan gaiak pertsonalagoak dira, beren gauzez hitz egiten dute; nire ustez, mutilen artean gehiago hitz egiten dugu eguneroko gaiei buruz".

(Gizonezkoa. Koadrilako bilera, 23-25 urte).

Neskek eta mutilek gauza desberdinei buruz zergatik hitz egiten duten eta gauza desberdinez zergatik arduratzen diren justifikatzeko saioan, etengabe jotzen da azpikultura maskulinoa eta femeninoa bereizten dituzten estereotipoetara.

"Neskak mutilak baino sakonagoak eta sentimentalagoak dira; orduan, zu azalekoago gai batean geratzen zara, materialistagoan".

(Gizonezkoa. Koadrilako bilera, 23-25 urte).

"Guk kotxeetan eta horrelako gaietan sakontzen dugu gehiago, ez sentimenduetan".

(Gizonezkoa. Koadrilako bilera, 23-25 urte).

AGRESIBITATEA: Maskulinoaren eta femeninoaren arteko dualitateak –gazteen arabera– egoera berberetan neskek eta mutilek desberdin erreakzionatzea dakar berekin. Oro har, "oldarkorrak" omen diren mutilek jokabide agresiboa erakusteko joera handiagoa izango lukete. "Zuhurragoak" diren neskek gaitasun handiagoa daukate arazoak elkarrizketaren bitartez konpontzeko.

"Nik ikusi ditudan hamabost liskarren artean, hamalau mutilen artekoak izan dira, eta bakarra nesken artekoa".

(Gizonezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Mutilok agresiboagoak gara; gainera, zaplastako batekin horrela txantxetan hasten zara eta gero..."

(Gizonezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Nik uste dut neskek elkarrizketarako joera handiagoa dutela".

(Gizonezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

Neskei egozten zaien "paimenerako gaitasuna" edo pazientzia da gazteek erabiltzen duten argudioa gatazka egoeretan duten jokabide berezia justifikatzeko.

"Neskek gehiago jasaten dute; mutilak, berriz, lehenago haserretzen dira".

(Gizonezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

Emakumeari esparru publikoan oharkabea igarotzen erakutsi zaio, jokabide zuhurra eta diskretua izaten. Horren ondorioz, neskek gatazka egoeretan erreakzionatzeko tresnak eta baliabideak dituztelako ustea dago.

"Neska bati kopa bat-edo gainea erortzen zaionean, aizu kopa bota didazu, barkatu. Mutilen artean, ordea, normalean aizu, zer uste duzu, kopa bota didazu gainera, eta bereizi egin behar dituzu. Edo bultza egiten dute, edo kanpoko norbaitek zure lagunaren neska lagunarekin ligatu nahi du, eta horrelakoak. Hori amorragarria izaten da".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

Illo horretan, neskak jabetzen dira mutilek "lurraldea markatzeko" joera dutela. Agresibitateak nolabaiteko balio positiboa dauka mutilentzat eta beren burua eta beren interesak defendatzeko gaitasuntzat interpretatzen da.

"Niri gertatu izan zait, talde batekin nagoela, neskak eta mutilak, andregaiak eta senargaiak, eta mutil bat hurbiltzea eta senargaiaren laguna atzean egotea".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Koadrila misto batean, larunbat batean irteten bazara, badakizu ez zaizula mutilik hurbilduko ezer esatera, lau mutil dituzulako inguruan".

(Emakumezkoa. Gazteen bilera, 18-25 urte).

Mutilei egozten zaien agresibitate hori, fisikoa ez ezik, hitzezkoa ere bada. Hitz egiteko garaian, mutilak zakarragotzat eta basatiagotzat jotzen dira. Neskak, presio sozialaren eraginez, beren hizkera leuntzera behartuta daude.

"Taberna batean zaude, mutil dotorea ikusi eta: hara, a ze mutil katxarrua esan beharrean, bista ederrak daude hemen! esaten duzu, baina ez gehiago".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

Hala ere, alderdi honetan ere antzematen dira aldaketa batzuk emakumeen jarreretan. Estereotipoak hausten hasi dira, eta hori egiteko nagusiki kideen taldea aukeratzen dute. Ziurtasuna eta konfiantza hartzeko, taldearen laguntza beharko balute bezala da, beste inguru batzuetara igaro aurretik.

"Gure artean esaten dugu: -hara, a ze ipurdia daukan horrek..., baina mutilekin gaudenean, ez dugu hain erraz hitz egiten".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

Bai mutilek, bai neskek, hizkera leuntzeko joera izaten dute beste sexukoekin nahasten direnean. Kideen taldean askatasun handiagoa dago gauzak inhibiziorik gabe adierazteko.

"Neskek mutilei mugak ezartzen dizkiete, eta mutilek neskei ere bai".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

JARDUERAK: Deigarria da, koadrila mistoetan naturaltasunez ibili arren, neskek eta mutilek jarduera desberdinak egiten jarraitzea nagusiki, neskei eta mutilei aparte egozten zaizkien balio eta jarrerei lotutakoak, hain zuzen ere.

MUTILAK

"kirola"
"edan"
"motoan ibili"
"motoziklismoa"
"kontzertuak"

NESKAK

"kafea hartu"
"edan"
"kontzertuak"

Datu esanguratsu gisa, aipatu beharra dago edatea dagoeneko ez dela mutilek soilik egiten duten jarduera. Nolanahi ere, gure garaiko maskulinitatearen irudi berriak sortzeko eta birsortzeko jarduerak badaude oraindik. Horri dagokionez, azterlan kuantitatiboek⁽²⁾ adieraz-

⁽²⁾ Op. cit., 25 or.

ten dutenez, gidatzeak gehiago erakartzen ditu mutilak, eta horregatik hasten dira lehenago gidatzen, lehenago lortzen dute kotxea (beraiena edo gurasoek utzitakoa) eta motoa edukitzeko nahia –gehienek– laster adierazten dute; nahi hori, gainera, gehienetan bete egiten dute gurasoek.

Oro har, haurtzarotik barneratutako estereotipoek neskek eta mutilek jarduera, produktu eta abar desberdinak gustuko izatea baldintzatzen dutela konturatzen dira gazteak.

"Motoarena gizonarekin lotzen da. Bikote batean beti esaten da: kotxea mutilarena eta etxea neskarena, nahiz eta bi gauzak bienak izan. Gauza sotilak dira, xehetasun txikiak, baina hor daude".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte)

16. ILUSTRAZIOA Esparru ludikoan dagoen berdintasun berniza



Desberdintasunak aztertu ondoren, esparru ludikoa maskulinoa dela esan dezakegu, hau da, nagusiki mutilek kontrolatzen duten esparrua dela, eta bertan neskak desberdintasun edo diskriminazio egoeretan aurkitzen direla.

Neska historikoki mutilei emandako espaziora sartzearen ondorioz, neskak esparru horretako jokabide tipiko edo bereizgarriak bere egiten ditu, eta jokabide horiek normalizat hartzen dira, sakonean beretzat nabarmenki diskriminatzaileak diren konnotazioak badituzte ere.


Izan ere, neskak maskulinoa den esparru ludikoan, esparru horretako arauak, jarraibideak eta egiturak errespetatzen dituen neurrian hartzen du parte.

Neskaren aurkako diskriminazio hori ondoko jarraibide hauen arabera dekodifika liteke:

- Egitura ludikoetan (tabernak, dantzalekuak eta abar) neskak mugatuta dauka kokatzeko espazioa, lekuri estrategikoenak (barra, korridorea, sarrera eta abar) mutilek okupatzen dituztelako. Neskak arazorik gabe, nahi dutenean, espazio horietara guztietara ezin iristea diskriminazio zeinu garbia da.
- Espazio horretan neska subjektu behatua da. Mutilak neskak ikusteko pistaren inguruan, bainugeletatik hurbil edo korridorean kokatzeak nolabaiteko gauza bilakatzen ditu neskak. Mutilek esparru ludikoan dagoen guztiaren nagusitasun jarrera hartzen dute, neke-na barne. Nagusitasun horrek interesatzen zaizkien neskak behatu, aukeratu eta berengantzeko legitimazioa ematen die.
- Baliabide ekonomiko urriagoak izateak neskaren mugimenduak mugatzen ditu, eta hori dela-eta, neskak mutilarekiko menpekotasun jarrera hartzen du nolabait. Diru gutxiago edukitzeak, produktu gehiago edo produktu garestiagoak eskuratu ezin izateaz gain, mutilak gonbidatzeko garaian ekimen handiagoa ezin izatea ere badakar.
- Gizarte presioak neska askori harremanetan ekimena hartzea eragozten die, eta baita ligatzeko garaian jokabide aktiboagoa izatea ere, horregatik gutxiespenez "prakazale" edo "mutil ehiztari" gisa baloratua izan gabe.
- Neskak mutilenak omen diren mintzagaietatik (futbola, motoak, kotxeak, ordenagailuak eta abar) kanpo uzten dira. Etengabe gai pertsonalez eta sakonez aritu behar izateak, beste gai azaleko eta garrantzirik gabekoez hitz egin izan gabe, aspergarriak bailiran ikusiak izatea dakar, eta, beraz, errefusatu egiten dira festarako lagun gisa. Dibertitzeko garaian mutilak nahiago izateko arrazoiak, batez ere, bi hauek dira: mutilak esparru ludikoan nagusi izatea eta bertan mugitzeko askatasun handiagoa izatea.
- Bere burua eta bere interesak defendatzeko neskak agresibitatea balio positibotzat berreskuratu ezin izatea. Neska ezin da erabateko askatasunez adierazi eta gizarte estereotipoen menpe dago. Gainera, neskak askatasun txikiagoa dauka jokatzeko garaian, mutilek "lurraldea markatzen" dutelako eta jardun eremua mugatzen dutelako.

- Bestalde, neskaren sexu identitatea zalantzan jartzen da orain arte mutilak bakarrik egiten zituen jarduerak (edatea, motoan ibiltzea eta abar) bere egiten dituenen eta gogor kritikatzeko da, gutxiespenez "marimutil" deituz edo maskulinizatu egin dela esanez.

17. ILUSTRAZIOA Esparru ludikoan dauden diskriminazioak



Segurtasun ezaren gaiak aipamen berezia merezi du. Kontu hori etxera itzultzearekin lotzen da, gai horretan bakarrik aitortu baitute neskak diskriminazio subjektu direla. Horri dagokionez, mutilek ez dute hainbeste jasaten segurtasunik eza eta, haien aldean, neskak mugatuta sentitzen dira.

"Neskak lehenago itzultzen dira etxera eta beti taldean. Hamarrak eta erdietan, hamaiketan edo den orduan, 'goazen etxera', metroa hartzen dute eta beti elkarrekin joaten dira. Mutil batek, berriz, 'bakarrik noa' esan dezake, baina neskak beti joaten dira elkarrekin etxera".

(Gizonezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

Gazteen diskurtsotik ondorioztatzen denez, neskek gaua beldur handiagoz bizi dute, neska izateak dakartzan arriskuez jabetzen direlako.

"Arriskuak neskentzat dira".

(Emakumezkoa. Gazteen bilera, 15-18 urte).

"Gehiago mugatzen zaitu neska izateak, mutila izatea desberdina da. Arrisku handiagoa daukazu neska bazara".

(Emakumezkoa. Gazteen bilera, 15-18 urte).

Diskurtsoan zehar, neskek gaueko segurtasunik ezak dakartzan kostuak jartzen dituzte mahai gainean. Etxera itzultzea gazteek beldurrez eta mesfidantzaz bizi dute, eta horregatik gehienetan beste norbaiten babesa eskatzen dute.

- **Familian:** Gurasoek neskak babesteko premia handiagoa dute. Gurasoek askatasun eta ekimen pertsonal handiagoa ematen diete mutili eta, horren ondorioz, adibidez, ez diete etxera itzultzeko ordurik ezartzen; neskei bai, ordea.

"Mutili askoz gehiago uzten diete".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Irteteko garaian bezala, neskei beti mutili baino gutxiago utzi diete".

(Emakumezkoa. Gazteen bilera, 18-25 urte).

Gazteen arabera, gurasoek emakumearen ikuskera biologikoan oinarritutako balorazio kodea daukate. Emakumearen ahulezia bere sexualitatean datza: haurdun geratu ahal izatea eta bortxatua izateko arriskua neskentzat neurri zorrotzagoak hartzeko arrazoi eta aitazkia bihurtzen dira.

"Nik nire nebarekin nabaritu dut, hari gehiago uzten diote. Esate baterako, hari ez diote ordurik ezartzen eta ni oraindik ez nago ordurik gabe, eta gainera aitzak zera esaten dizu: zu neska zara, eta hori horrela da".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Nire ustez, gurasoek gehiago uzten diete mutili; nire amak, behintzat, zera esaten dit: –mutila bazina, gehiago utziko nizuke".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

Gurasoek ere kezka desberdinak izaten dituzte alabekiko eta semeekiko. Semeen kasuan, kezkatzeko arrazoiak kotxea –istripua izateko arriskua dela-eta–, liskarrak eta abar izaten dira. Alabei dagokienez, berriz, kezkak haurdun geratzearen eta sexu erasoen ingurukoak izaten dira; beraz, kulturen alderdi biologikoa erabakigarria da emakumeari zehazki lotutako irudikapenetan. Neska gazte babesgabeak, inguruan arrisku eta mehatxu ugari dituztela, gehiegizko babesa izaten dute normalki, euren nebek ez bezala.

"Nik esaten diot: –itxaron zure nebari, eta bestela taxi bat hartu, baina ez etorri bakarrik, ez eman aukerarik".

(Ama. Familiako bilera).

"Nire amak beti esaten du: –itzuli taxiz edo mutil lagunak lagunduta, amari etxera itzultzearenak beldur handia ematen dio-eta".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Nire nebak nahi duela egin dezala, ez baita haurdun geratuko".

(Emakumezkoa. Gazteen bilera, 18-25 urte).

- **Kostu ekonomikoa:** Neskek askotan garraiobide segurua hartu behar izateak badu eragina bere diru sarreretan ere; izan ere, gauaren azken unera arte gorde behar dute dirua, gero etxera itzuli ahal izateko. Neskek haserre eta amorruz ikusten dute garraiobide seguruagoa –eta, beraz, garestiagoa– hautatu behar izatea, mutilek baino ordainsari edo paga gutxiago jasotzen dutela kontuan hartuta, egoera ekonomiko nahiko kaxkarrean uzten baititu.

"Bakarrik itzultzen naizenean, nahiago dut taxia hartu metroa baino. Dirurik ez badut ere, etxera igo eta ondoren ordaintzen diot, baina metroan bakarrik ez".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Nekatuta banago eta Ivan etxera ez badator, geratu egin behar dut, edo taxia hartu. Bederatzehun pezeta kostatzen zait hona etortzea, eta bi kilometro besterik ez dira".

(Alaba. Familiako bilera).

- **Kostu pertsonala:** Independentzia eta askatasun gehiago duten mutilak ez bezala, etxera itzultzeko garaian, neskak askotan beste norbaiten menpe egoten dira.

"Ni bakarrik ez naiz inoiz etortzen, eta nire neba ez badago, normalki, Barakaldon gertzen naiz lotan, lagun baten etxean, eta hurrengo goizean etortzen naiz, gosalduta autobusa hartu eta hona etortzen naiz".

(Alaba. Familiako bilera).

"Nire taldean, mutilek beti laguntzen dute, etxera eraman eta gero parrandara itzultzen badira ere, beti laguntzen dizute".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Ni taxian askotan itzultzen naiz bakarrik. Taxistari esaten diot: –itxaron ezkaratzera iritsi arte, eta gero joan egiten da".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

"Batzuetan ezkaratzera jaisten dira nire bila".

(Emakumezkoa. Gazteen bilera, 15-18 urte).

Neskek taldeetan etxera bakarrik itzultzeak sortzen dizkieten beldurrak eta segurtasunik eza adieraztea erabakitzen dutenean, mutil asko harrituta geratzen dira horrek neskengan duen eragin traumatikoa ikusita.

"Banekien beldurrez joaten zirela, baina aurrera eta atzera begiratzen ibiltzeraino, ez".

(Gizonezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

18. ILUSTRAZIOA Emakumeen diskriminazioa etxera itzultzeko garaian



KIROLAREN ESPARRUAN DESBERDINTASUNAK ETA DISKRIMINAZIOAK ANTZEMATEKO GAZTEEK DUTEN ZAILTASUNA

2.3.1

Esparru ludikoan gertatzen den bezala, kirolean ere badaude faktore batzuk zenbait diskriminazio neskentzat eta mutilentzat oraindik ikusezin egiten dituztenak. Faktore horien artean, gizartean azken hamarkadotan berdintasun handiagorantz joateko gertatu diren aldaketak daude, neurri batean oraindik bere horretan jarraitzen duten beste diskriminazio egoera batzuk bigarren maila batean ezartzen baitituzte.

- **Kirola egiten duten nesken kopurua areagotzea.** Emakumea kirolaren munduan oraintsu sartu da, eta pixkanaka kopurua handitzen ari da.
- **Emakumeen presentzia handiagoa tradizionalki gizonezkoenak izan diren kirolean.**
- **Hainbat kirolean emakumezko ikusleak gero eta gehiago izatea;** adibidez, futbol zelaietan duten presentzia: gehien erabiltzen den erreferentzietako bat da.

Hala ere, ustezko berdintasun horren azpian, elementu batzuek berdintasun hori ez dela halakoa esaten digute, eta horretarako ez dugu gehiegi sakondu behar edo kontzientzia handirik hartu behar, oso oinarritzko gauzetan ikus baititzaiegu. Berdintasunik ezaren elementuak hauexek izango lirateke:

- **Nerabezaroan, neska askok kirola alde batera uzten dute.** Kirolean neskek dituzten aukerak eta itxaropenak hain urriak izanik, beste jarduera batzuk lehenesten dituzte. Neskek familian, eskolan eta gizartean aurkitzen duten laguntza eskasa dela-eta, kirolean aurrera jarraitzeko eragozpenak izaten dituzte.

"Emakumeek kirola txikitatik nerabezaroa arte egiten dute, baina emakume askok uzten dute kirola adin jakin batetik aurrera, emakume gutxik egiten dute kirol elitista, edo mini-moki profesionalak diren edo publikoan eragina duten mailetan".

(Emakumezkoa. Adituen bilera).

"Kontua zera da: hamahiru edo hamalau urterekin, emakumearen kezka nagusiak Portugaleten ibiltzea, minigona janzea, ezpainak pintatzea eta irtetea direla; eta mutilaren ardura, berriz, kirola egiten jarraitzea. Ematen dizkizudan arrazoiak sozialak dira, nagusiki".

(Gizonezkoa. Aisialdiko adituen bilera).

- **Neska gutxiak egiten dute kirola eliteko lehiaketa mailetan.** Hainbat arrazoi direla medio (emakumeak kirolaren munduan berandu sartzea, kirolean aurrera egiteko aukera txikiagoak, publikoaren eta komunikabideen interesik eza) gaur egun emakumeek eliteko kirolean gutxiago parte hartzea eragiten dute. Gazteriaren diskurtsotik datu adierazgarri hau ondorioztatzen da: kirola gauza serioztat edo bizimodutzat hartu nahi duten emakume askok mugak dituztela eta, beraz, diskriminazioa.

"Neskek, futboleak aritzen direnean, ezin dute esan 'nik lehen dibisioan jokatu nahi dut', ez dagoelako. Mutilek, berriz, hori esan dezakete, lehen dibisioa badagoelako eta garrantzitsua delako".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

- **Emakumezko kirolari gutxiak daukate eragina gizartean eta oihartzuna komunikabideetan.** Emakumeak kirolean jasaten duen diskriminazioaren adibide garbia nesken partaidetzak komunikabideetan duen oihartzun txikia da. Komunikabideek gizonezkoen kirolari arreta handia eskaintzen diote eta emakumezko kirolariak baztertzen eta diskriminatzen dituzte. Beraz, komunikabideek kirol errealitateaz ematen duten ikuspegia parziala eta alde bakarrekoa da.

"Nesken futbol partidak ez dira telebistan ikusten".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Nik uste dut telebistarena dela batez ere; izan ere, motoziklismoa eta motoa erabiltzen den horrelako kirolean, neskak eta mutilak berdin-berdinak izan litezke, baina beti mutilak ikusten dira. Ez dut inoiz ikusi nesken moto edo kotxe karrerarik".


(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

- **Kirol espazioak mutilek okupatzen dituzte, eta neskek baino baliabide hobeak izaten dituzte.** Gazteen diskurtsoaren erakusgarri bat hau da: mutilek kirol instalazio guztietan jaun eta jabe direla: kiroldegietan, gimnasioetan, estalperik gabeko kirol zelaietan eta abar, eta horrek neurri batean uzkuritu egiten ditu horrelako espazioetan parte hartzea planteatzen duten neskak.

"Kirol guneak, pilotalekuak, mutilek okupatzen dituzte. Zelai irekiak, hemen futbol zelaiak izaten direnak, mutilek; kiroldegia, mutilek".

(Emakumezkoa. Aisialdiko adituen bilera).

19. ILUSTRAZIOA Kirolean dagoen berdintasun berniza



NESKEN ETA MUTILEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK

2.3.2

Kirolaren esparruak, beste esparruekin batera, berdintasunaren aldeko mundu formalaren irudi desitxuratua dakarren berniza eta horren azpian aldaketaren aurkakoa den mundua baditu ere, esan beharra dago espazio horretan gazteek garbiago ikusten dituztela nesken eta mutilen arteko desberdintasunak, eta lehen une batean alderdi biologikoari egozten dizkiotela, gero kultur edo gizarte aldagaien garrantzia adierazteko. Azter dezagun xehetasunez pertzepzio bikoitz hori.

Gazteriak osagai biologikoa argudio gisa erabiltzen du, nesken eta mutilen arteko desberdintasunak legitimatu eta justifikatzeko; izan ere, kirolean gorputza da oinarritzko tresna, eta hor ez dute zerikusi handirik gaitasun intelektualek eta jarrerak. Gazteen iritziz, neskek eta mutilek biologikoki desberdinak diren gorputzak dituzte.

"Orokortzera trebetasunetan soilik ausartuko nintzateke, baina gauza genetikoengatik. Indarra mutilena handiagoa da, eta malgutasuna neskena. Hortik datoz desberdintasunak".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Nahiz eta neska mutila bezala entrenatu, nire ustez mutilak beti izango du neskak baino indar handiagoa".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

Illo honetatik doa kirol monitore batzuen diskurtsoa, biologi alderdiak erabiltzen baitituzte gizonezkoen gorputza eta emakumezkoena desberdinak direla azaltzeko argudio ukaezin gisa, horrela, baldintza fisikoen arteko desberdintasuna emakumeak kirol askotan dituen abiapuntuko eragozpenen arrazoi dela adierazteko. Desberdintze horrek baldintzatuko du, berez, neskek edo mutilek aukeratzen duten kirola.

"Inork eztabaidatu ezin duen gauza zera da, gizonak, pubertarotik aurrera, gihar gehiago garatzen duela, eta orduan, abiadura eta indar handiagoa izango dituela. Emakumeak beti malgutasun handiagoa izango du, eta gizonak indar handiagoa eta abiadura azkarragoa. Baina ez argiagoa delako, baizik eta, nik potentzi zaldi gehiago baditut, eta gihar gehiago, jauzi handiagoak egingo ditut, eta bizkorragoa izango naiz korrika".

(Gizonezkoa. Aisialdiko adituen bilera).

Gazteek trebetasun edo gaitasun maskulinoen eta femeninoen artean egiten duten bereizketa nahiko homogeneoa da talde guztietan eta ez da inoiz zalantzan jartzen. Hori horrela, desberdintasun hori egitea kulturen arketipo gisa kokatuta dagoela esan dezakegu, eta hor-tik datozela neurri handi batean kirolaren ikuspegitik egiten den genero desberdintasunen inguruko diskurtsoa eta balorazioa.

Bestalde, arketipo hori bat dator esparru ludikoan ikusi dugunarekin, eta erakundeen kasuan ikusiko dugunarekin.

MUTILAK

"indarra"

"bizkortasuna"

"erresistentzia"

"arintasuna"

NESKAK

"malgutasuna"

"koordinazioa"

"erritmoa"

"teknika"

Indar fisikoa da nesken kirolen eta mutilen kirolen arteko bereizketa egiteko erabiltzen den aldagaia. Bi sexuen arteko desberdintasun biologiko objektiboak emakumeek arlo honetan duten gutxiagotasuna eta, beraz, kirol jakin batzuk egiteko duten gaitasun txikiagoa edo ezintasuna baieztatzeko argudio ukaezintzat hartzen dira.

Horregatik, gazteak konbentzituta daude ezinezkoa dela sexuak ekipo berean nahastea eta baldintza berberetan lehiari aritzea.

"Tenisean, adibidez, noizbait egin izan dute neskak eta mutilak osatutako bikotea, eta beste bikotea berdin, mistoak biak. Baina jokatzeko dutenean txantxa hutsa da, puntu bat irabazi nahi badute neskari bortizki botatzen diote eta, mutilak indar handia duenez, puntua irabazten du".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Boxeoan ere egin izan da horrelako gauza bat, neska bat mutil batekin jartzea, baina pisu txikiagoa duen mutila pisu handiagoa duen neskarekin orekatuz. Nire ustez, egoera bazuetan ez dira bateragarriak".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

Dena den, biologiaren argudioak gero eta pisu txikiagoa du gazteen diskurtsoan, kirol bazuetan mutilei egozten zaien indar fisikorik behar ez dela aitortzen baitute, hala nola motoziklismoan. Kasu horretan, kultur argudioa erabiltzen da desberdintasunak justifikatzeko, eta desberdintasun horiek pertsonalki nahiz sozialki jaso eta barneratutako balio sistemaren ondorio bilakatzen dira.

"Gorpuzkera eta gizartea da neskak eta mutilak bereizten dituenak. Txikitatik, jolastokian mutilak futbolean eta neskak sokasaltoan aritzen direla irakasten dizute. Orduan, handitzen zarenean kirol horretan ematen duzun denbora txikitatik egin duzunagatik eta erakutsi dizutenagatik da".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Badirudi motorrak eta lasterka dabilen guztia mutilen barruti pribatua dela".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

Kultur edo gizarte aldagaia aipatzen dugunean, tradizioz eta ohituraz maskulinoztat edo femeninoztat jo diren balio eta jarduerak adierazi nahi ditugu. Hau da, desberdintasunei eustea ez dago biologiar (sexuari) lotuta, baizik eta kulturari (generoari).

Bereizketa hori zaila da argudiatzen, ez baitago itxurazko arrazoirik kirol baten ezaugarriak sexu baten edo bestearen ustezko gaitasunekin lotzeko. Baina, hala ere, gizarte diskurtsoan txertatuta dago, kirol batzuk maskulinoagoak eta beste batzuk femeninoagoak direla komentatzen baita. Horren zergatia, zalantzarik gabe, genero sistemaren funtzionamendu ezin hobe da, eta bere balioak kirolaren esparruan zabaltzea, hezkuntzaren, kulturaren eta tradizioaren bitartez –ondoren ikusiko dugunez– lan munduan birstortu diren bezalaxe.

"Nik hezkuntzarekin horixe esan nahi nuen, eskola bateko partida bat ikustean, txikia zine-nekoa, mutilak futbolean jokatzeko duela eta neska sokasaltoan dabilela. Eta horregatik, handiagoa zarenean gehiago egiten duzu kirol bat bestea baino".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

Desberdintasun biologiko eta kultural horiek ondorio batzuk dauzkate kirol bat egiteko garaian, eta gazteek adierazitako mikroespazioak aztertuz ikusiko ditugu.

KIROLAK: Gazteen sailkapenaren arabera, kirolak neskenak, mutilenak eta mistoak dira. Horretarako, gazteriak estereotipoetara jotzen du, komunikabideetatik hartutakoetara askotan.

"MUTILEN KIROLAK"	"KIROL MISTOAK"	"NESKEN KIROLAK"
"futbola"	"atletismoa"	"gimnasia erritmikoa"
"boxeo"	"igeriketa"	"balleta"
"txirrindularitza"	"hipika"	"aerobic-a"
	"tenisa"	
	"boleibola"	
	"saskibaloia"	

BIZIPENAK: Bereizketa horrek badu eragina, halaber, neskek eta mutilek kirola bizitzeko duten moduan. Tradizionalki maskulintzat jo diren kirolak, futbola adibidez, egiten dituzten emakume askok, mutilek era berezian ikusten dituztela sentitzen dute, eta une batzuetan beren kirol aukera kolokan jartzen dietela aitortzen dute. Gainera, kirol femeninoak gizarte baloraziorik ez izateak baliabide txarragoak edukitzea dakar berekin, eta horrek amorru eta haserre bizia eragiten emakumezko kirolariengan.

"Mutilen taldeak ekipamendu ona dauka, eta guri inork nahi ez duena ematen digute, sobe-rakinak".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Mutilek futbolean jokatzen ikusten bazaituzte, badute arrazoia zutaz barre egiteko. 'Emakumeok ez duzue horretarako balio' esaten dizute".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

Hori dela-eta, neskek etengabe justifikatu behar izaten dute maila txikiagoa izatea gehienbat mutilek egiten dituzten kirolean, kirolean berandu hasi direla argudiatuz.

"Oraintxe hasi gara jokatzen, orduan ezin da alderatu, gu txikitan ez baikinen futbitoan ari-tzen, eta haiek txikitan futbolean jokatzen zuten. Orduan, mutil batek futbolean dituen tre-betasunak ez dauzkagu guk".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

Mutilek, aldiz, kirola etorkizunera begira egiten dute, bere bizitzan eragina eduki lezakeen jarduera gisa eta are gizartean nolabaiteko ospea ekarri liezaiokeen jarduera gisa ere.

"Kirolean gero eta hobeto egitea da helburua".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

JARDUERA: Nesken eta mutilen gaitasunen eta jarreraren bereizketak badu eragina, kirolaz, jarduera gisa, gazteek egiten duten balorazioan ere. Mutilen artean kirola, gizarte proiektzioa duen gizarte jarduera gisa bizi izaten da, askotan komunikabideetan "gizonezkoen kirolak" duen presentzia handiagoaren eraginez. Neskentzat berriz, kirola jarduera pertsonala da nagusiki, "emakumezkoen kirolak" gure inguruan duen gizarte eragin eskasaren ondorio garbia.

"Mutilak, kosta ahala kosta irabazi nahi dutelako etortzen dira hona. Eta haiek bizi egiten dute hori. Neskek ez dute etorkizuneko motibazio hori".

(Gizonezkoa. Aisialdiko adituen bilera).

"Gurea, gure neurak dira, eta haiena berriz gauza jarraia da, kirol ekipo batean, liga batean edo horrelakoetan dauden emakumeen kasuan izan ezik, eta horiek gutxi dira; gainera, kirola hego haizeak ematen digunean egiten dugu".

(Emakumezkoa. Bilera ludikoa, 15-18 urte).

MOTIBAZIOAK: Aurrekoarekin batera, neskek diotenez, kirola egiteko beren motibazio nagusia dibertitzea da. Mutilek, berriz, gizarte proiektzioari lotutako beste motibazio batzuk dituzte. Mutilek, nagusiki espazio publikorantz zuzentzen direnez, etengabe hobetzeko motibazio handia sentitzen dute.

"Kirol orokorretan, egiteko errazak direnetan, futbolean eta saskibaloian adibidez, nire ustez neskek txantxetan hartzen dute gehiago, dibertsio hutsa da haientzat, ez da hor sartzeko. Baina mutilei, adibidez, futbolean, entrenatzaileek asko eskatzen diete eta oso zorrotz betetzen dute esaten dietena".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Kirola gustatzen bazaizu, hobetu nahi duzu, eta ongi egiten duen norbait ikusten baduzu, nik horrela egin nahi dut, esaten duzu".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Niri futbitoan aritzea gustatzen zait, ongi pasatzen dudalako, nire ekipoa gustatzen zait, eta baita aldageletako giroa ere, eta larunbatetan partidak jokatzera irtetea, horixe gustatzen zait".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Nik dibertsio eta denbora-pasa gisa hartzen dut, baita benetan ere, eta niretzat erantzukizun bat bezalakoa da, baina ez da nire bizitza".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

Illo horretan, gazteek ikusten dutenez, familiak nahiz entrenatzaileek desberdin laguntzen diete neskei eta mutilei kirola egiteko garaian.

"Entrenatzaileak guri eskatzen diguna eta neskei eskatzen diena oso desberdina da".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Gure irakasleak neskak ardura handiagoaz tratatzen ditu".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

Modu agerikoan edo sotilagoan, familiak, eskolak eta komunikabideek neskari adorea kentzen diote kirolean inplikatzeko, eta mutilari espazio publiko horretan protagonismo handiagoa hartzen uzten diote.

"Neskei, telebistan, aldzkarietan, etxean futbolekin zer arraiotarako jarraituko duten esaten zaie, horrek ez baitie probetxuko ezer ekarriko; mutila, berriz, futbolekin jarrai dezan animatzen da, beharbada futbolari ona izango delako".

(Gizonezkoa. Aisialdiko adituen bilera).

Laguntzarik, saririk eta gizartean onespenik jasotzen ez duenez, emakumeak etengabe frogatzen ibili behar du, nolana eta edonoren gainetik, baduela edozein kirol egiteko gaitasuna, nahiz eta oso gogorra izan.

"Lanean ez ezik, kirolekin ere gehiago eskatzen zaio eta gehiago frogatu behar du. Askoz ere indar handiagoa erakutsi behar izan du, askoz ere gehiago atera behar izan du bere baitatik hori frogatzeko, eta gizonak ez".

(Emakumezkoa. Aisialdiko adituen bilera).

ERREFERENTEAK: Gazteen diskurtsoan datu garrantzitsu hauxe antzematen da: komunikabideek eta gizarteak kirol batzuei edo besteei, neskenak edo mutilenak izatearen arabera, ematen dieten garrantzi desberdinaren ondorioz, erreferente femininorik ez izatea. Emakumei oso zaila egiten zaie beren sexu bereko idoloak edukitzea, kirolekin, telebistan, irratan eta abar ez baitago emakumezko kirolariak eskaintzen zaien saiorik.

"Nire ustez, nesken futbitoan askoz ere zailagoa da idolo bat edukitzea, telebistan futbola eta futbola ikusten duzu, baina Ronaldo, Rivaldo eta ez dakit zein, baina ez da emakumezkoen futbolik ikusten, ezta areto futbolik ere".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Baina, adibidez, futbol partida bat ikusteko, telebistan, neskena ez bada ikusten, orduan ezin duzu jakin nola jokatzen duten eta gustatuko ote zaizun. Orduan, neska izan edo mutila izan, erreferentetzat ikusten duzuna izango duzu".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Futbolekin edo hockey-an, edo dena delakoan, ez dituzu inoiz neskak jokatzen ikusten, orduan beti erreferentea mutila izango da".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

INPLIKAZIOA: Sozializazio prozesuan, identitate maskulinoa kanporantz proiektatzen da, eta femeninoa barrurantz. Mutila sozialki egiten duenaren arabera baloratzen da, eta bere identitatea jarduerak baldintzatzen du. Beraz, gizonak arlo publikoan inplikatzeko beharra sentitzen du. Hori horrela, gizonak bere bizi rola dagoen tokian prestigioa eta protagonismoa duen neurrian beteko du. Horregatik, gizonak bere energia guztia eta helburuak arlo

publikoetara (lana, kirola, politika eta abar) bideratzeko joera dauka. Emakumea, aitzitik, hain publikoak ez diren beste arlo batzuetan dago eta ez du gailentzeko behar hori sentitzen.

"Nire ustez, gizonari asko gustatzen zaio protagonismoa, agerian egon nahi izaten du, hemen nago esan; emakumeak, berriz, ez du inoiz aukera hori izan".

(Emakumezkoa. Aisialdiko adituen bilera).

Interpretazio hori lagungarria izan daiteke mutilek kirol praktikarako duten jarrera ulertzeko, hau da, kirola serioago eta ardura handiagoaz hartzeko duten joera, eta neskek zergatik hartzen duten hain serioa ez den aisialdiko jardueratzat ere bai. Badirudi neskak ez direla konturatu kirola gaur egungo gizarte espaziorik desiragarrienetakoa dela.

"Tarte librerik badute, mutilek kirola egiten dute eta neskek nahiago izaten dute itzuli bat egitera joan".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Entrenamenduak gauza bera izanik ere, mutilek atsedenaldira partida bat jokatzen dute, baina neskak hizketan geratzen dira".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Neskok, futbolearen pentsatzean, entrenamendua daukagula pentsatzen dugu, baina nik ez dut futbolearen pentsatzen egun guztian, ez zaidalako interesatzen. Nire neba, berriz, egun osoan dabil hori ikusi nahian, futbolari buruzko telebista programen atzetik, futbolari buruzko egunkariak irakurtzen. Futbolarekin zerikusia duen guztia bilatzen du, eta hori da gustatzen zaiona, eta niri ez".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Igandean partida badaukat, normalean ez naiz larunbatean irteten; eta irtetekotan, oso lasai".

(Gizonezkoa. Koadrilako bilera, 23-25 urte).

"Neskek ganora gutxiagoz entrenatzen dute, ez dira hain buru-belarri sartzen egiten ari direnean".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Mutilak, jolas garaian jokatzeaz gain, entrenatzen direnean kontzienteagoak direla beti ematen du".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

Gazteen diskurtsoan, badago joera bat motibazioak, itxaropenak eta inplikazioa osotasun batean sartzeko, eta hori izango litzateke mutilek kiroletan duten posizio pribilegiatuaren arrazoia.

"Nire ustez, inplikazioa motibazioen ondorioa da. Zerbait handia lortu nahi baduzu, asko entrenatuko zara eta gehiago inplikatu zara, eta, bestela, gutxiago".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

ITXAROPENAK: Neskak eta mutilak oso desberdin sozializatu dira, eta sortutako eta prozesu horri esker birsortutako balio sistemaren arabera hezi dira. Zirkunstantzia horrek, batzuek eta besteek kirol praktikan dituzten itxaropenak ere desberdinak izatea ekarri du. Mutilen itxaropenak gizarte onespina, ospea, prestigioa eta abar lortu beharrari lotuta daude. Neskek, berriz, ez dute gauza handirik espero, kirolaren munduan, kirola jarduera publiko prestigidodun gisa ulertuta, baztertuta daudenez.

"Badago nesken futbol liga, baina erabat baztertuta dago. Ez dakizu dagoenik ere, orduan neskek ez dakite horra irits daitezkeenik".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

20. ILUSTRAZIOA Genero desberdintasunak kirolean eta ondorioak



Kirola mutilen gauza da.

Ikerketan zehar jaso ditugun elementu batzuek, gure ustez, kirolaren esparruko diskriminazioaren jatorrian dauden alderdi esanguratsuak laburbiltzen dituzte:

- **Korporatibismoa:** Kirola indarrarekin eta lehiarekin lotzeak, kalitate horiek historikoki maskulinitateari egotzi zaizkionez, jarduera hori oraindik mutilen eta mutilentzat den gauza tipikotzat definitzen laguntzen du, haiek baitira nagusiki kirola egiten dutenak. Horren ondorioz, kirolean emakumeek duten partaidetza zaila, konplexua eta askotan gizonezkoen korporatibismoak mugatutakoa da; muga horiek ez dira beti erraz antzematen eta ikusten.

"Mutilek zerbait gaizki egiten badute, gauza xelebrea da haientzat. Baina neskek gaizki egiten badute, umilazioa da".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

Datu kuantitatiboen(3) arabera, mutilen erdiak baino gehiago kirola bere sexuko kideekin soilik egiten du. Bestalde, neskak direnez mutilekin batera gehien egiten dutenak, mutilek emakumezko kideak onartzeko garaian errezelo jarrera handiagoa izaten dutela esan genezake.

- **Sexu identitatea kolokan jartzea:** Kirolak, lehia, ikusgarritasun eta irudi gisa, azpikultura maskulinotzat eta femeninotzat ulertzen denaren bereizgarri eta mugatzaile gisa jokutzen du argi eta garbi. Bereizketa hori –kulturalki– zurrana izaten da, eta zigortu egiten da "eskema" klasikoak nahasten diren kasuetan; hala, "femeninotzat" hartzen diren kirolak egiten dituen mutila nola edo hala zigortu egingo du gizarteak.

"Mutil batek 'niri aerobic-a egitea gustatzen zait' esaten badu, litekeena da nesken kirola izateagatik isiltzea eta zera esatea: –ezta pentsatu ere! beharbada maritxu bat naizela esango dute-eta".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

- **Gizarte presioa:** Gizonak, bere kirolari rolean, gizarte balorazioa jasotzen du, baina emakumeak ez du gizartearen onespenean hori, batez ere nagusiki mutilek egiten duten kirol batean ari bada. Kasu honetan ere, lehen adierazitako gizarte zigorra aurkitzen dugu berriro.

"Futbitoan, neskek egiten dutenean, mutilek barre egiteko erabiltzen dute, gero aste gutxian iseka egiteko: –ederra egin zenuen, jai daukazu eta horrelakoak".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

(3) Op. cit, 23.or.

"Gizarteak esaten du hau mutilen kirola den edo neskena den. Orain, bat-batean, lehen dibisioko nesken ekipoak ere egon daitezkeela erabakiko balitz, konbentzituta nago futbolearen aritzen diren neskek askoz ere gehiago izango liratekeela, askoz serioago hartuko luketela, jendeak ez lukeela esango:- --hara, begira nola dabilen neska hau futbolean".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

- **Hedabideak:** Prentsak, irratiak, telebistak..., gizonetzkoak pertsonaia aktibo bilakatzen ditu, sozialki garrantzitsuak diren esparruetan, kirolean adibidez, ageri direnak. Aitzitik, ez dute emakumeen presentzia era berean bultzatzen. Komunikabideek futbola bezalako kirolak lehenesten dituzte, hor garatu baitira maskulinitateari lotutako ezaugarriak, eta gehienbat neskek egiten dituzten beste kirol batzuk (gimnasia erritmikoa, dantza eta abar) ezkututzen dituzte, hor eskatzen diren gaitasunak eta trebetasunak bestelakoak baitira.

Hori horrela, gazteen diskurtsoan kritika bat antzematen dugu, alde batetik hedabideen aurka, estereotipoen transmititzaile diren aldetik, kirolaren irudi partziala eskaintzeagatik; eta bestetik, futbolaren aurka, hain zabaldua ez dauden beste kirol batzuk baztertzen dituen kirol nagusia izateagatik.

"Badakit futbola dela herri honetan jarraitzailerik gehien duen kirola, baina gimnasia erritmikoa ere baditu Estatuko, Europako eta munduko txapelketak. Badaude Estatu espainiarrreko gimnastak hor, eta niri lotsagarria iruditzen zait futbol partida bat ematea eta gero mundu txapelketa bat ateratzea eta beste kate batzuetan ematea, telekirol programa gisa, edo ordu erdiko laburpen bat egitea".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Nire ustez, garrantzi gehiago emango baliote, askoz ere jende gehiagok jarraituko luke".

(Emakumezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

"Dena telebistaren menpe dago. Bihar telebistan nesken futbola ematen hasiko balira, jendea gustatzen zaiolako, nire ustez gauza aldatu egingo litzateke, ez dut esaten erabat, baina bai neurri handi batean".

(Gizonezkoa. Kirol bilera, 15-18 urte).

21. ILUSTRAZIOA Kirolaren esparruko diskriminazioak



ASOZIAZIONISMOA

2.4

ASOZIAZIONISMOAREN ESPARRUAN DESBERDINTASUNAK ETA DISKRIMINAZIOAK ANTZEMATEKO GAZTEEK DUTEN ZAILTASUNA

2.4.1

Esparru honetan ere, nesken eta mutilen arteko desberdintasunak ez ezik, sexu batentzat edo bestearentzat desabantailak dakartzaten egoerak antzemateko gazteei oztopoak jar-tzen dizkieten elementu batzuk ere aurki ditzakegu.

Alderdirik esanguratsuenen artean, elkarteetan emakumeen presentzia areagotzea azpimarratu behar dugu. Gero eta gehiago dira beren denbora eta jarduerak beste emakume eta gizonekin partekatzeko erakunderen bateko kide diren emakumeak.

Esparru honetan desberdintasun egoerak ez dira hain garbi antzematen, eta gehiago uste da nesken eta mutilen arteko desberdintasunak naturalak direla. Irudipen hori bera jaso dugu jadanik afektuen arloan, eta aurrerago hezkuntzari eta lan munduan ere aztertuko dugu. Asoziazionismoaren analisiaren kasuan, interesgarria da aipatutako hiru esparruen ikuspegi orokorra edukitzea, aisialdiaren eta tarte librean esparru hau mugakidea baita, alde batetik, balioen munduarekin eta, bestetik, hezkuntza ez-formalarekin. Lotura horiek, bide batez, kaltegarriak dira, boluntarioen erakundeak eta asoziazionismoa desberdintasunik gabeko barrutiak bailiran ikusten baitira.

Hori horrela, gazteen diskurtsoak asoziazionismoaren esparrua balizko desberdintasunen aurrean immunizatuta egongo balitz bezala deskribatzen du. Diskriminaziorik ez dagoela azaltzeko erabiltzen dituzten argudioak boluntarioekin lotzen diren balioetan eta esparru honetan ustez dagoen hezkidetzan oinarritzen dira, funtsean. Gizartean ez bezala, hor etekin ekonomikoari, indibidualismoari edo lehiari ematen baitzaio lehentasuna, asoziazionismoan balio nagusiak elkartasuna, justizia, altruismoa eta berdintasuna dira, eta, beraz, ez dago printzipioz desberdintasun egoerarik gertatzerik.

"Hona iritsi den jendeak, nolabait esateko, ahalegin bat egin du, prestaketa bat eta asmo jakin bat dauzka; beraz, desberdintasunak gizartean baino txikiagoak dira".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

Esparru honetan, hezkidetzako balioek egin duten aurrerapena ikusi eta goraipatzen dute gazteek; izan ere, praktikan neskak eta mutilak berdin bultzatzen dira jarduera desberdinak egitera, eta ez dagoela "berez" maskulinoa edo femeninoa den gizarte jokabiderik. Gazteen diskurtsotik ondorioztatzen denez, bateraezina da berdintasunerako hezteak eta jarrera diskriminatzaileak edukitzea.

"Berdintasunerako hezten da, adibidez, dena denentzat berdin egiten dugu".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

"Elkarte batean diharduzunean, ez dituzu neskak eta mutilak ikusten".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

"Gainera zuk berdintasunerako hezten duzu, baina mutila ez dago zurekin denbora guztian, hor daude familia, eskola, eta guztiz aurkakoa erakusten badiote, alderdi bat bakarrik gertatzen zaio".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

Azken batean, gazteek, asoziazionismoaz ari direnean, motibazioetan, balioetan pentsatzen dute, baina ez dira ohartzen elkartea bera ere izate politiko bat dela, inguruan eragina izatea helburu duena, eta kasu askotan –mimetismoz– gainerako egituretatik eta beste arloetako dinamiketatik kopiatzen duela azkenean. Gazteek elkarte formal edo egituratuagoen eta hainbeste ez diren arteko desberdintasuna aipatzean hautematen dute hori.

Formaltasunaren hainbat elementuk desberdintasuna eragin dezakete, adibidez, gizarte prestigioak, esku hartzeko ahalmenak, hierarkiak.

"Oso ongi bereizten dira erakunde ludikoak eta politikoak, azken horiek beste gauza batzuk inplikatzeko dituzte-eta".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

Alabaina, erakunde egituratuak eta ez horren egituratuak arteko desberdintasunak ez du esan nahi azken horietan genero desberdintasunak birstortzen ez direnik. Antolamendu eskeman egitura garbirik ez badago ere, desberdintasunak daude gauzak egiteko eta jokatzeko moduan. Gazteek desberdintasunak erakunde egituratuagoetan soilik hautemateko arrazoia erakunde horietan hierarkiak agerikoagoak izatea da, eta mutilarentzat desiragarriak diren postuak hobeto ikustea; zirkunstantzia horrek garbi erakusten ditu boterea lortzeko prozesuan martxan jartzen diren elementuak eta dinamikak. Hori horrela, sindikatu batean hierarkia bat dakarten postuak gehiago izango dira aisialdirako erakunde batean baino.

"Badago desberdintasun bat, beharbada sakonekoa, eta zera da: irekia den boluntarioen erakunde batean beharbada neska gehiago egon daitezkeela; ni, adibidez, sindikatuan nago, eta hori hierarkikoagoa da, beste egitura gorenago baten baitan zaude, badago gauzak egiten dituen jendea eta egiten ez dituenak. Egiturekin arazoak hasten dira, eta hori beharbada, emakumezko lehendakaria izatea harrigarriagoa da".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

Elkarriketatu ditugun adituek adierazi dutenez, erakundeetan nesken kopuruak gora egin badu ere, zuzendaritza karguak –gehienbat– gizonezkoen esku daude oraindik.

"Erakundeen munduan, kirol elkarteetan izan ezik, emakumeen presentzia eta zehazki emakume gazteena, askoz ere handiagoa da; baina, hala ere, erakunde horietan gutxitan ikusiko dugu emakumezko lehendakari".

(Emakumezkoa. Adituen elkarriketa).

Emakumeak, zuzendaritza postuetara gutxiagotan iristeaz gain, normalki gizartean gehiegi baloratzen ez diren postuetan eta zereginetan kokatzen dira. Asoziazionismoak, hortaz, eskema tradizionalak birstortzeko eta kopiatzeko joera dauka, eta normalean gizonezkoen alde jotzen du. Lan munduan gertatzen den bezala, asozianismoak ere egitura hierarkikoa sortzen du eta emakumeari arlo publikora iristea eragozten dio. Lido horretan, asoziazionismoak beste esparru batzuetan (enpresetan eta arlo profesionalean, adibidez) dauden eskemak birstortzen ditu.

"Erakunde handiak enpresak bezalakoak dira eta enpresak bailiran funtzionatzen dute. Eta, jakina, zuzendaritza kargu guztiak gizonezkoen esku daude".

(Gizonezkoa. Aisialdiko adituen bilera).

"Erakunde batek boterea eta dirua dituenean, ez dakit nola gertatzen den, baina beti egongo da gizonen bat, besterik gabe han goian jarri eta 'orain nik daramat hau guztia' esaten duena".


(Emakumezkoa. Aisialdiko adituen bilera).

Bestalde, elkarriketatu ditugun adituek, halaber, emakumeek dinamika horretan sartzeko dituzten zailtasunak azaldu dituzte, arazoak kanpoan ez ezik, barruan ere badaudela azpimarratuz, batez ere; izan ere, lehendik dauden genero klitxeak eta estereotipoak apurtzen zaila baita.

"Gure kultura izugarri maskulinoa da, eta ildo horretan, nire ustez mundu maskulinoan ez ezik, femeninoan ere erresistentziak daude. Jakina, eskubideak eta pribilegioak besteei lagatzea boterea lagatzea da, eta hori da gizonen kostatzen zaiena, eta hori da erresistentzia sinbolikoetako bat. Baina, bestalde, emakumeen kasuan, dependentzia galtzeak, gizonen menpe egoteari uzteak edo, nolabait esateko, gizarte subjektu gisa adin nagusitasuna onartzeak emakumeek normalizat hartzen ditugun beste elementu batzuk galtzea dakar berekin".

(Emakumezkoa. Adituen elkarriketa).

22. ILUSTRAZIOA Erakundeen munduan dagoen berdintasun berniza



Nahiz eta asoziazionismoaren esparruan nesken eta mutilen artean desberdintasunik ez dagoela esan, gazteek etengabe uzten dute agerian bi profil daudela: bata maskulinoa eta bestea femeninoa, erabat bereizita.

	MUTILAK	NESKAK
Izaera	"independentek" "ziurrak" "autoritarioak" "nobleak"	"menpekoak" "ziurtasunik gabeak" "afektiboak" "aihertsuak"
Jokabidea	"azalekoak" ("bazter nahasleak", "liskartiak") "zirt edo zartekoak" "dinamikoak" "ekintzaileak" "nahasleak"	"langileak" "praktikoak" "zehatzak" "ordenatuak" "txukunak"
Hizkera	"zuzena" "kategorikoa" "ausarta"	"zeharkakoa" "leuna" "zuhurra"

Beren diskurtsoan, gazteek bi eskala erabiltzen dituzte neskak eta mutilak balioesteko. Bien ezaugarriak eta kalitateak abstraktuki alderatzen badituzte, oro har emaitza positiboagoa da neskentzat: langileak, ordenatuak, organizatuak eta abar. Baina pragmatikotasunari eta gizarte balioei begiratuta, emaitza mutilen alde dago: ziurrak, zirt edo zartekoak eta abar.

Generoaren arabera desberdintze horrek, erakundearen baitako postuak ez ezik, jarduerak, zereginak, funtzioak eta asoziazio esparruaren beraren bizipena ere baldintzatuko ditu. Horregatik, komeni da mikroespazio horietako bakoitzaren analisi zehatza egitea, hain ondo bereizita dauden estereotipoek edo genero arketipoek zer-nolako eragina duten ikusteko.

ESPAZIOA: Asoziazionismoa esparru maskulinoa da; izan ere, erakundeetara hurbilduz gero, egitura hierarkikoaren goiko aldean eta zuzendaritza postuetan gehienak gizonetzkoak

direla begi bistakoa da, eta emakume askoren partaidetza ia anonimoa eta ikusezina dela ikusiko dugu.

"Kargu garrantzitsuak hautatu egiten dira eta gizonezkoek eskuratzen dituzte, eta hori gauza orokorra da gizarte osoan".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

"Elkartean gehienak neskak izanik, lehendakaria gizonezkoa da".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

Taldean diskurtsoan zehar, gazteek argudio bat ematen dute desberdintasuna azaltzeko. Horren arabera, mutilak goiko postuetan egotea gizarteak neskei eta mutilei ematen dien tratu desberdinaren ondorioa dela aitortzen dute.

"Egiten duzunagatik eta egiteko moduagatik arduratzen irakasten dizute; mutikoak egiten dutenagatik balioesten dira, gol bat sartzeagatik, eta neskatoak marrazki hori oso polita delako, txukuna delako".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

Illo horretatik, gazteek hezkuntzara jotzen dute, kulturara, genero estereotipo horien barneratzea azaltzeko.

"Gauza kulturala da, gogoratzen naiz udalekuetan intendentzia mutilen kontua zela".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

"Nire ustez egia da neskek gehiago balioesten dutela pertsonekin zuzeneko tratua izatea, eta uste dut horregatik boluntarioak batez ere emakumezkoak direla, ia elkarte guztietan, laguntzako gauzetan batez ere. Baina bakeari buruzko gogoeta egiteko, gehiago dira gizonezkoak, jaso dugun heziketagatik".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

Illo horretan, genero desberdintasunek neskek eta mutilek erakundearen baitan postu desberdinak betetzea dakarte. Neskak eta mutilak rol desberdinak jokatzeko hezi dira, eta horrek ikasketa jakin batzuetara eta, horren ondorioz, postu jakin batzuetara bideratuko ditu.

"Mutilek gehiago jotzen dute intendentziara, kontabilitatera, argi eta garbi zientziara, zenbakietara; neskak gehiago makurtzen dira letretara, humanitateetara. Letretako karrerak ikusi besterik ez dago: %90 emakumeak dira".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

"Gizonak zaletasun handiagoa dauka informatika, zenbakiak erregistratzea eta kudeaketarekin zerikusia daukan guztiarekiko emakumeak baino".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

"Guk nahiago dugu kafea hartzeko garaian norbaitekin egon ordenagailuarekin baino".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

Erakundean bertan erantzukizun handiagoko postuetara ezin iristeak frustrazio sentimendua eta amorrua eragiten du neskengan.

"Gure elkarteko idazkaria naiz, oraindik ez baitzaie bururatu neska bat lehendakari jartzea. Nire herrian matxismoagatik da".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

"Sartu eta norbait erantzukizun postu baterako aukeratzekotan, mutila aukeratuko dute".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte.).

Nesken eta mutilen arteko desberdintasunak ongi markatuta egoten dira gazteen irudietan. Mutilek ezaugarri eztabaida ezina izaten dute: autoritatea. Mutilek larderia "berezkoa" izango balute bezala da, eta neskek ez. Izan ere, horixe da genero maskulinoari legokiokkeen izatera definitzeko estereotipoaren ezaugarri nagusietako bat. Gazte baten hitzetan adierazita:

"Mutilak aginpidea dauka aisialdiko taldeetan, neskari gehiago kostatzen zaio hamalau edo hamabost urteko mutil nerabeek bere aginpidea onar dezaten".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

"Nerabeak gehiago hartzen du aintzakotzat autoritatea gizonarengan emakumearengan baino".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

"Nire ustez emakumezko begiraleak arazo gehiago dauzka autoritatea irabazteko".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

Genero maskulinoari edo femeninoari egotzitako estereotipo horiek direla-eta, neskek eta mutilek erakundeetan postu desberdinak betetzen dituzte, eta batzuen eta besteen egoera nahiko asimetrikoa izaten da.

"Joera beti hau zen: txikienentzako neskak eta handienentzako mutilak".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

Bestalde, hain barneratuta dagoen generoaren arabera gizarte banaketa hori dela-eta, gauza desberdinak espero dira neskengandik eta mutilengandik. Horren aurrean, emakume askok haserrea eta sumindura sentitzen dute funtzio jakin batzuk betetzera mugatzen dituztenean eta –beste zirkunstantzia batzuetan– kritikatu edo baztertu egiten badituzte sozialki eman ez zaizkien beste rol batzuk betetzen dituztenean.

"Nire esperientzia zera da: begiralea izatea, amatxo izatea eskatzen dizutela".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

JARDUERAK: Gazteen diskurtsoan, beren erakundeetan egiten diren bilerek garrantzi handia daukate, kolektiboaren edo entitatearen garapenerako funtsezko jarduera baitira. Eta, hain zuzen ere, erakundean, bileren dinamikan eta garatzeko moduan aurkitzen dituzte gazteek desberdintasun gehien nesken eta mutilen artean.

"Bileretan mutilek edozer gauzaz hitz egiten dugu, neskak lasaiago egoten dira, gutxiago hartzen dute parte, baina bileraren harira joaten dira bakarrik. Gu lagunekin egotera ere joaten gara, solasera eta ondo pasatzera".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

"Neskak zehatzagoak dira, ez dute denboraren erdia ere galtzen, askoz ere normalagoa da mutilok txorakeriak esaten hastea".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

"Nire ustez emakumeak gehiago heltzen dio hariari, ahalmen handiagoa dauka askoz gauza gehiago edukitzeko buruan eta zera esaten du: -hau honetarako dudan denbora da, gero beste zerbaiten bilera baitut".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

Modu desberdinean jokatzek neskek eta mutilek barneratu dituzten itxaropenekin dauka zerikusia. Neska eta mutila erakunde batean sartzen direnean, badakite bataren eta bestearen jarrera, jokabide eta abarri dagozkien itxaropenak oso desberdinak direla.

"Egoera zailen aurrean erreakzionatzea kulturala da, modu jakin batean erantzutea oso barneratuta daukazu-eta. Nire ustez hor badaude desberdintasunak".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

Neskak eta mutilak badakite besteek zer espero duten beraiengandik. Hori desberdina da neskaren eta mutilaren kasuan. Mutilak badaki esparru publiko batean dagoela eta "diskurtsoa" egin behar duela, nolabait, hori bailitzan beragandik espero dena. Neskari, berriz, bestelako gauzak eskatzen zaizkio.

"Muturreko egoera batean, mutilak gaitasun handiagoa dauka, neska deprimituagoa da, emakumea berehala joaten da haurrekin egotera udalekuetan, afektibitatea dela-eta; gizonak, berriz, arrazionalagoak dira, jokabide zehatz batzuk dituzte."

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

Gainera, prozesu honetan neskei nahiz mutilei funtzio eta rol horiek behar bezala bete ditzaten tresna batzuk eman zaizkie.

"Nesken artean, erakunde batean sartzeko motibazio nagusia norbait ezagutu ahal izatea da; mutilak gehiago sartzen dira gustatzen zaielako, barruan kontakturik izan gabe gehiago ausartzen dira gauzak egitera; niri, adibidez, inor ezagutu gabe sartzea gehiago kostako litzaidake".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

Gizonari autoestimua handiagoa emango balitzaio bezala da, bere rola esparru publikoari lotuta baitago, eta emakumeei afektibitate handiagoa egozten zaio, bere esparru tradizionala pribatua izan delako. Beraz, lehenik eta behin, funtzio desberdinak dira eta bakoitzak tresna desberdinak ditu.

Mutilak esparru publikoan bere burua adierazteko beharra du eta horrek neska baino interesatuagoa eta utilitaristagoa izatera bultzatzen du. Gizarte itxaropenik ezean, neska –normalean– desinteresatuagoa eta idealistagoa da. Mutila bi funtzio betetzera joaten da erakundera: alde batetik, besteei laguntzea; bestetik, han egotea, ezagutzea eta abar.

"Mutilek diskurtso aurreratuagoa, idealistagoa dute eta neskak pragmatikoagoak dira, nolabait".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

"Utopiarena arlo politikoan sartzen da, gizon gehiago daude hor, eta egunerokotasunean, maila baxuagoan, hor beharbada neskek gauzak garbiago dituzte".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

Mutilek gizarte transzendentzia eta aintzatespen handiagoko funtzioak betetzen dituzte. Sari materialak handiagoak dituzten funtzioak. Neskek, berriz, gizarte transzendentziarik gabeko funtzioak betetzen dituzte. Adibidez, pertsonen zaintzaz arduratzen dira, eta alderdi horrek gaurkoz ez du gizartean aintzatespen handirik. Horren erakusgarri dugu, adibidez, laguntzazkoak diren elkarteetan mutilen kopuruak txikiagoa izateko joera.

Emakumeei "pragmatikoak", "praktikoak", "lurrean hobeto finkatuak", "gogorak", "eraginkorak", "hobeto sintetizatzen dutenak", "arazoari begira daudenak", "oharrak hartzen dituztenak", "txindurriek bezala lan egiten dutenak" eta antzeko ezaugarriak esleitzen zaizkien neurrian, arazoaren muinean egoteko gaitasun handiagoa esleitzen zaie. Mutilei, berriz, ondoko ezaugarriak esleitzen zaizkie: "diskurtso filosofikoa dutenak", "idealistagoak", "hitz handikoak", "gehiago ibiltzen dira inguru-minguruka", "ez dira hain zehatzak", eta horrela, badirudi mutilak direla han-hemenka ibiltzen direnak, politikoak izateko gaitasun tipikoak dituztenak.

Bereizketa hori gizartean ere birsortzen da. Horrela, kanpokoarekin zerikusia duten erakunde batzuek gizartean aintzatespen handia dute; barrukoari lotuago dauden beste batzuek, berriz, ospe txikiagoa dute. Azken horiek, normalki laguntza zerbitzuekin, harremanekin, hezkuntzarekin eta abar daukate zerikusia.

"Laguntza kontuetan, oraindik ere gehienak neskak izaten dira".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

INPLIKAZIOA: Mutilek esparru publikoetan agertzeko behar handiagoa sentitzen dutenez, dauden tokian gehiago inplikatzeko dira. Neskek ez dute halako beharrik, esparru batean baino gehiagotan baitaude eta, gizartean, gauza jakin batean gailentzeko ere ez zaie eskatzen.

"Neskek egin behar dutena egiten dute, eta alde egiten dute; izugarri gustatzen zaien jarduera bat egiten dute, baina beren bizitzako gertaera bat besterik ez da. Niretzat gauza jarraia da, bizimodu bat. Ez da gauza puntuala, mutilok gehiago inplikatzeko gara, esanahi handiagoa dauka guretzat. Barruko gauza bat da, niretzat taldea funtsezkoa da; neskentzat garrantzitsua da, baina ez funtsezkoa, beharbada askoz ere praktikoagoak direlako".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

23. ILUSTRAZIOA Genero desberdintasunak asoziazionismoan eta ondorioak



DESBERDINTASUNAK DISKRIMINAZIO ITURRI GISA

2.4.3

Lehen aztertutako desberdintasunek ongi bereizitako bi profil erakusten dizkigute: maskulinoa eta femeninoa. Arketipo horiek bereizten dituen esparru publikoa eta esparru pribatua banantzen duen lerroa da. Asoziazionismoan, esparru publikoan mutilak dira nagusi, erantzukizun eta gizarte aintzatespen handiagoko postuak betetzen dituztenez, prozesuan buru direnez, jarraibideak egituratzen dituztenez eta erakundean sortzen denari etekina ateratzen diotenez. Pribatutasuna, berriz, nesken esparrua da, haiek baitira gehien lan egiten

dutenak, espazioa kontrolatzen dutenak, afektibitateaz hitz egiteko garaian gehiago inplikatzeko direnak eta abar.

Hori horrela, gure ustez egitura horren zurruntasuna nesken eta mutilen kalterako da, esparru batetik bestera igaro nahi izanez gero, zigorra jasoko bailukete. Hori kontuan hartuta, diskriminazioa honela planteatzen da:

- Neskei ez zaie esparru publikora igarotzea ukatzen. Baina, euskal gazteen iritziz, esparru publikora igaro nahi duen emakumeak etengabe frogatu behar du bere balioa, eta gauzak oker egiten baditu gogor kritikatzeko dutelako ustea dago.

"Gizartean, huts egiten duen emakumeak jai dauka".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

"Neskei gehiago eskatzen zaie".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

- Normalki, erantzukizun postuak gizonezkoek eskaintzen zaizkie. "Ziurrak", "zirt edo zarte-koak", "dinamikoak" omen direnez, horrelako karguetarako gaituagotzat jotzen dira. Beraz, neskek mutilek ezarritako ildoetatik ibili behar dute.
- Neskak aginpiderik gabekoak baina subjektibotasunaren barne munduan aberatsak eta giza harremanetarako gaitasun handiagokoak direla uste da. Horrek zeregin jakin batzuk haiei esleitzea dakar berekin, gizartean oihartzun handirik ez dituzten funtzioak, hain zuzen ere. Neskei, alde batetik, pertsonen zaindariaren rola betetzea eta arlo afektiboaz arduratzea eskatzen zaie eta, bestetik, ez da uste aginpidea inplikatzeko duten rolak betetzeko gai direnik.
- Neskek eta mutilek beraingandik espero dena desberdina dela jakitea diskriminatzailea da batzuentzat zein besteentzat, beren jokabidea sozialki ezarritako muga –zurrun– batzuen baitara murrizten baitu. Mutilak, gizartean erabakimena eta ekimen handia dutenak bailiran erakusten dituen irudiarekin identifikatuta, nagusitza lortzera bideratzen dira. Neskak, berriz, barrutik kohesio handiagoa duen identitatearekin, ziurrago sentitzen dira harreman afektiboetan eta, beraz, harreman horietarako jarrera irekiagoa daukate. Hori horrela, adierazgarria da neska baten ondoko iruzkin hau:

"Emakumeontzat garrantzitsuak dira harreman afektiboak, gure mundua da, eta orduan dena arlo horretara eramaten dugu; gizonari gutxiago axola zaio".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

- Sozializazio prozesuan, ez zaizkie baliabide berberak eman mutilei eta neskei. Ez da nesken autoestimua bultzatu; hori dela-eta, ez dira ziur sentitzen esparru publikoan eta askotan beldurrezko jarrerak eta errefusatzekoak ere izaten dituzte.

"Sindikalismoan hitzaldiak prestatzen ditugu, eta komunikabideen aurrean irteteko garaian neskak uzkurrago agertzen dira, eta nahiz eta haiek izan hitzaldiak landu dituztenak, guk joan behar izaten dugu".

(Gizonezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

Bestalde, mutilei ez zaie erakutsi bizitzari afektibitatearen arlotik heltzen, ez maitasuna ematen eta hartzen, ezta harremanetan samurtasunez jokatzeko eta besteak ulertu eta haiekiko empatia sentitzen ere, eta horregatik askotan beren sentimenduak ezkutatzera behartuta sentitzen dira.

"Zuek eutsi egin behar diozue, baina guk hementxe bertan egin dezakegu negar".

(Emakumezkoa. Asoziazionismo bilera, 18-30 urte).

24. ILUSTRAZIOA Asoziazionismoan dauden diskriminazioak



3

**ERANTZUKIZUNEN
EREMUA**

Erantzukizunen eremu horrek EAEko gazteak ulertzeko eta ezagutzeko oinarritzko bi arlo hartzen ditu bere baitan: gazteen prestakuntza eta hezkuntza garaia, eta lan edo lanbide garaia. Bi arloak jarraiak dira, hezkuntza mundutik lan mundura arte, baina tarteko hiru garai hauetatik igarotzen dira: prestakuntza eta lan orientazioko garaia, langabezi garaia eta lan mundura sartzeko garaia, bertan behin betiko kokatu arte. Garai bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu. Horrela, gazteen bizitzan zehar ibilbide biografiko moduko zerbait egin daiteke eta desoreken azterketarako unerik garrantzitsuenak aurkitu eta genero sistemaren erreprodukzioan bat egiten duten elementu eta faktoreak hobeto zehaztu ahal izango dira.

Txosten honetan jada aipatu dugun bezala, gazteen deskribapena erantzukizunen eremu horretan kokatzeko, behar-beharrezkoa da kontuan hartzea azken hamarkadetan zein aldaketa gertatu diren generoen arteko harremanetan, euren eginkizun, itxaropen eta jarreretan. Aldaketa horiek guztiek generoen arteko berdintasunerantz jo dute eta "berdintasun berniz" baten eragina izan dute; gazteek berehala onartu dute, euren buruari benetakoa den ala ez galdetu gabe.

Diskurtso sozialak nolabait adierazten die generoen arteko berdintasunean aurrerapen handiak lortu direla, arlo jakin batzuetan lortu dela berdintasuna: hezkuntza mistoa ikasgeletan, emakumezkoak unibertsitate esparrura sartzea, gero eta emakumezko gehiago sartzea lan mundura, emakumezkoen lan eskubideak (amatasun baja, aitatasun baja, edoskitzaroa...) gehiago errespetatzea, etxeko indarkeriaren kontrako aurrerapenak, emakumezkoen egingako erasoen kontrako aurrerapenak, etxeko lanen erantzukizuna banatzeko prozesuan izandako aurrerapenak, etab.

Diskurtso hori barruraino sartu da gure gizartean, eta, horren ondorioz, gure gazteen artean ere bai. Izan ere, gazteek ez dituzte errepikatu nahi gurasoen eta belaunaldi horretakoen artean ikusi dituzten portaera diskriminatzaileak.

Txostenean zehar esan dugu generoen arteko berdintasunaren aldeko diskurtso sozialak eragina izan duela gizarte maila askotan. Baina zein izan da horren arrazoa? Gizarteak dituen berdintasun erreferentzia asko lortu direla jada. Adibidez, gazteen diskurtsoan argi eta garbi ikusten da euren berdintasun erreferentziak bete egiten direla, eta, beraz, egungo gizartean mutilak eta neskak berdinak direla uste dute. Diskriminazioa ere gertatzen da hainbat esparrutan. Hala ere, oro har, euren belaunaldian nesken eta mutilen arteko ezaugarri nagusia berdintasuna dela pentsatzen dute. Bigarren mailako ezaugarria mutilen eta nesken arteko desberdintasunen justifikazioa litzateke; eurengandik aparte daude, naturalak dira edo, bestela, gizarteak ezarri ditu, eta desberdintasun horiek ezin dira saihestu eta ez dute horiek desagertzerik nahi.

Gazteen arteko berdintasun diskurtsoa bereziki egoskorra da, euren hezkuntza eta prestakuntza (lan) orientazioari buruz hitz egiten dugunean. Langabezian, diskriminazioko egoerak ikusi eta bereizi egingo dituzte, berdintasunerako joeraren barruan. Lan mundura sartzeko garaian eta lanean ari direnean, berriz, egoera batzuetan bereizketak egiten direla ikusiko

dute eta beste batzuetan diskriminatu egiten dela, gazteek zenbaitetan zalantzan jartzen duten berdintasun esparruaren barruan.

"Nik ere ez dut uste diskriminazio estereotiporik dagoenik".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Orain parekatzen ari da".

(Emakumezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Gure belaunaldian, mutilak eta neskak sartzen dira unibertsitatara".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Bereizketak egiten dira, baina gero eta gutxiago".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Nik ez dut uste (bereizketarik egiten denik)".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Lan mundura sartzera desberdintasunak egon daitezke, baina prestakuntza eta orientazioan ez dut uste".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

Berdintasun diskurtsoa ezin hobeki osatzen dute gazteek generoen arteko desberdintasunen gorespen diskurtsoaren bidez; desberdintasun horiek, euren ustez, ez dute bereizketarik edo diskriminazio egoerarik ekartzen. Diskriminazioa kanpotik dator (gizarte, kultura, biologia, enpresa, hezkuntzatik...), gazteek hezkuntza eta prestakuntza ingurune zoragarria uzten dutenean.

"Berdin hartzen dituzte, baina beti ere batzuk mutilak eta besteak neskak direla kontuan hartuta. Hori ezin da alde batera utzi".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Ez zait iruditzen hori desoreka denik, baizik eta emakumezkoek ikasketa batzuk egiten dituztela, eta gizonezkoek beste batzuk".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Desberdintasunak izan badira, baina erabateko bereizketarik ez. Neskei ez zaie atea ixten soldadura ikasteko, baina seguruenik ez dute ikasiko desberdintasun kulturalak daudelako".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Nire ustez izaeran eta horrelako beste alderdietan daude desberdintasunak, baina hezkuntzak eragin ditu batez ere".

(Esplorazio bilera, 15-18 urte).

"Bakoitzak (mutilek eta neskek) zerbaitetarako gaitasuna du".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Nire ustez beharrezkoa da desberdinak izatea".

(Gizonezkoa. asoziazionismoari buruzko bilera).

Mutilek eta neskek desberdinak direla uste dute, trebetasun, gaitasun eta abileziari dago-kienez. Eta, beraz, berezitasunik pertsonalenak alde batera utzita, genero bakoitzaren ezaugarriak biltzen dituen mapa argi eta garbi marraz dezakegu. Oraindik ere, lortutako berdintasuna eta generoen arteko desberdintasuna izango dira benetako berdintasuna lortzeko oztoporik garrantzitsuenak.

Neskak mutilengandik bereizteko ezaugarriak aipatuko ditugu lehendabizi:

"Emakumezkoak metodikoagoak dira, arduratsuagoak agian... inbidiak izugarri mugiarazten gaitu, zinikoak gara, oso bekaiztiak, oso maltzurak".

(Emakumezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Nire lantokian emakumezkoak daude eta arduratsuagoak dira".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Emakumezkoak bekaiztiagoak eta lehiakorragoak dira".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Arduratsuagoak dira".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Hobeto antolatzen dira".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Saiatuagoak".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Zorrotzagoak dira".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Independenteagoak".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Independentzia handiagoa lortu nahi dute".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Ordenatuagoak".

(Gizonezkoa. asoziazionismoari buruzko bilera).

"Neskak gu baino ordenatuagoak direla uste dut".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Neskak kontserbadoreagoak direla uste dut".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Ezegonkorragoak garela uste dut, baina baita borrokalariagoak ere".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Emakumezkoak analitikoagoak, pentsakorragoak gara gizonezkoak baino, gauzei buelta gehiago ematen dizkiegu eta hori lanean antzematen da".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Aktiboagoak, kezkatsuagoak".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Zuhurragoak direla uste dut".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Emakumezkoek gauza praktikoetara jotzen dute".

(Emakumezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"Nire ustez eraginkorragoak dira".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Emakumezkoak askoz ere gogorragoak dira".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Ingurune handiagoa hartzen dute".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Adituagoak dira".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

Horiez gain, baditugu beste esaldi batzuk ere nesken ezaugarriak osatzeko:

"(Neskek) hartzen dituzte apunteak".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Emakumezkoek nolabaiteko pairamena dute lanarekiko".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Neskek lehenagotik genituen kezkak, lehenago hasi ginen zenbait lantxo egiten".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Neskak gu baino lehenago hasten ziren lantxoak egiten, diru hori beti etortzen baita ondo".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Beti zalantzan egoten dira, ez dakit, agian neska izateagatik ez dutela lanean gora egingo eta askoz hobeto egin nahi izaten dute".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"(Bikote bati buruz) mutilak kalera irtetea nahi izaten zuen beti eta neskak ezetz esaten zion, azterketa garaia zela-eta".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Azterketa garaian, neskak gutxiago irteten dira eta mutilak, aldiz, gehiago".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Emakumezkoek askoz hobeto egiten dute lan".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Neskek gehiago balioesten dute pertsonen arteko harreman zuzena".

(Emakumezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"Emakumezkoek beste era batera egiten dute lan eta beste era batera erantzuten dute, sentiberagoak dira, gizonezkoek baino hobeto antzematen dituzte gauzak, harberagoak dira".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Arkeologoek nahiago izaten dituzte emakumezkoak lanerako, arduratsuagoak direlako eta langileak garelako (...) eta ez gara nekatzen".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Gizonezkoekin alderatuz gero, neskak gai dira ordu gehiago lan egiteko eta gutxiago kexatzeko".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Neskek gehiago pentsatzen dute etorkizunean eta (ikasketak) amaitzea nahi izaten dute. Gu, ordea, orainak soilik kezkatzen gaitu, eta ondorioak jasan behar izaten ditugu gero".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Nire inguruko neskek gehiago pentsatzen dute etorkizunean".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"(Emakumezkoek) gehiago jasaten dute".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Emakumezkoek askoz ere lan gehiago egiten dute etxean mutilek baino".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Konfiantza gehiago dugu geure buruan".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Bai, antzematen zaio, emakumezkoei gehiago eskatzen zaie".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Emakume izateagatik gutxietsi egiten dira".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Neskek gauza askori egiten diete uko. Mutilek gauza gutxiagori (...), eta bai, lagundu edo hainbat gauza egiten dituzte, baina, gauzei uko egiteko orduan, euren zaletasunak sakratuak dira, eta neskenak, ordea, ahal denean baino ez".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Mutilek ez dute ezer uzten, euren bizitza eta euren gauzak, eta guk gauza asko eta asko utzi behar izaten ditugu".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

Mutilei egokitutako ezaugarriak erabat bestelakoak dira:

"Gizonezkoak on puskak dira (...), laguntasunari dagokionez, lanean gizonezko kidea nahia-go dut emakumezkoa baino (...), gizonezkoak jatorragoak eta xaloagoak dira".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Gizonezkoak zuhurragoak dira".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Gizonezkoek gehiago balioesten dute euren burua".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Betikoa. Nire ustez, gizonezkoak gehiago ibiltzen dira ihesi".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Gizonezkoek gauza gehiagori ekiten diete emakumezkoek baino".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Txistezaleagoak".

(Emakumezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"Neskak baino ausartagoak dira".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Konfiantza gehiago duzue".

(Emakumezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"Mutilek beldur gutxiago dituztela uste dut. Seguruagoak direla iruditzen zait".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Gizonezkoek oso autoestimua altua dute eta liluragarriak direla uste dute eta ez dira lotsatzen".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Mutilek, agian, konfiantza gehiago dute euren buruan".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Mutilei gehiago gustatzen zaie arriskua".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Zuek lehenago hartzen duzue arriskua zeuen gain, guri segurtasuna gustatzen zaigu gehiago".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

Beste esaldi batzuk ez dira hain zuzenak, baina mutilak neskengandik bereizteko ezaugarriak, portaerak eta jarrerak biltzen dituzte:

"Mutilek azkarrago hartzen ditugu azken erabakiak".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Gizonezkoek gehiago errespetatzen dute euren burua, langileak diren aldetik".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"(Arkeologoek) hauxe esaten dute: mutilak gehiago ibiltzen direla ihesi, gehiago disimulatu eta denbora gehiago egiten dutela bidean".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Nire inguruko mutilek gurasoekin ahalik eta denbora luzeagoan bizitzea nahi izaten dute".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Nik bihar edo etzi egingo dudana izaten dut gogoan, ez aurrerago egingo dudana".


(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"(Mutilen segurtasuna) garbi ikus daiteke, esate baterako, une jakin batean ikasketak utziz".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

Ondorengo grafikoan (25. ilustrazioa) gazteek generoen arteko desoreken inguruan zein ikuspegi duten agertzen da. Erantzukizunen eremuan aztertuko ditugun garai guztiak ikusten dira bertan.

25. ILUSTRAZIOA Agerikoa eta ezkutukoa erantzukizunen eremuan



Jarraian, goiko garai horietako bakoitza labur azalduko dugu.

a) **Hezkuntza:** egungo gazteek ez dute ezagutu neska eta mutilen bereizketa ikasgeletan. Denak batera egon dira txiki-txikitatik. Gainera, pertsona bakoitzak nahi duen hezkuntza bideari jarraitzeko aukera dauka, teoriarik. Bi alderdi horiek direla-eta, berdintasuna hezkuntza esparrura iritsi dela onartu dute.

Esan bezala, egungo gazteek haxe ikusi dute: neskak eta mutilak batera egon direla geletan eta, teoriarik, denek ikas dezaketela nahi dutena. Horiexek dira, hain zuzen ere, euren berdintasun erreferentziak. Ondorioz, garai horretan berdintasuna lortu dutela uste dute, eta ez dira diskriminazio egoerez jabetzen.

Berdintasun faltsu horrek oztopoak jartzen ditu ezkutuko desorekak (sakonagoak) ikusteko.

b) **Orientazioa:** garai hau eta aurrekoa oso lotuta daude, eta beraz, oso zaila izaten da bi garaia bereiztea mutilen eta nesken diskurtsoan. Edonola ere, EAEko gazteen ustez, berdintasuna lortu da prestakuntza eta/edo lanbide orientazioari dagokionez. Hezkuntza esparruan erabateko berdintasuna dagoela pentsatzearen ondorio zuzena da aipatutakoa.

Esan dugu zein den mutil eta nesken berdintasun erreferentzia: edozein ikasketa egiteko aukera dutela denek. Hori, teorian, halaxe denez, gazteek zera esaten dute: neskak eta mutilak berdinak direla eta euren artean ez dela diskriminazio egoerarik izaten.

Diskriminazio iturriak eurengandik aparte daudela adierazten dute. Hona hemen iturriak: gizartea, estereotipoak, lan merkatua bera (mutilen eta nesken lan jakin batzuk ematen dizkie eta bestelakorik gertatzea saihesten du), enpresaburuen jarrera, etab.

Hezkuntza garaian gertatzen den moduan, berdintasun faltsuko egoera hori oso oztopo larria da diskriminazio egoerak ikusi ahal izateko.

c) **Langabezia:** langabezi garaia prestakuntza garaia eta lan garaia artean dago eta nahiko zaila da hurrengo garaitik (lan munduratzea) bereiztea, tarteko garaia delako, hain zuzen ere. Gainera, gaur egun, une garrantzitsua da, baina ez da batere zehatza. Izan ere, garai hori kronologikoki txandakatu egiten da lan garaiekin (lan egonkorra eta/edo ezegonkorra) eta arautu gabeko hezkuntzako beste garai batzuekin (masterrak, ikastaroak, hizkuntzak, graduatu ondoko ikasketak, etab.).

Fase honetan oraindik ikusten da aurreko garaietan mutilen eta nesken artean hautemandako berdintasuna, baina lehenengo diskriminazio egoerak azaldu eta antzematen dira. Egoera horien artean, haxe da larriena: neskek zailtasun gehiago dituztela lana aurkitzeko, hau da, emakumezko gehiago daudela langabezian gizonezkoak baino, nahiz eta prestakuntza akademiko hobe izan.

Ez da bestelako diskriminazio egoerarik antzeman eta ez da iritsi desoreka hori azaltzen duten arazoen jatorria.

Garai honetan, mutilek eta neskek honakoa pentsatzen dute: langabeziak denei berdin eragin behar diela berdintasun egoera izateko, eta beraz, mutilen aldeko diskriminazio egoera gertatzen dela ikusten dute argi eta garbi.

d) **Lan munduratzea:** urte gehiago dituzten gazteek bizi esperientzia handiagoa dute eta, horren ondorioz, ordura arte ikusi ez dituzten diskriminazio egoerak antzematen hasten dira, neskak batez ere. Mutilak ez dira hain sentiberak egoera horien aurrean, eta garai horretan ere berdintasuna nagusi dela pentsatzeko joera handiagoa dute.

Gazteen berdintasun erreferentziak (lan munduratzeko aukera berdinak izatea teorian eta legez) lan munduaren ageriko alderdian ikusten dira, eta beraz, berdintasunaren aldekoek argudio biribila izaten dute.

Diskriminazio egoera jakin batzuk argi eta garbi ikusten dira, baina beste asko ezin dira objektibitatez aztertu (hizkera, jokabideak, estereotipoak, balioak, aukerak, etab.), ezkutuan geratzen dira eta diskriminazio seinale garbiak adierazten dituzte. Baina ez dira agerian

uzten. Horren ondorioz, mutilak nahastu egiten dira desberdintasun pertsonalak direla-eta; bestalde, neskek zapuztu egiten dira, ez baitakite desorekak nola adierazi. Oraingoan ere, erreferentzia neurgarrietatik aparte bestelako erreferentziarik ez dagoenez, ezin izango ditugu ezkutuko diskriminazio egoerak agerian utzi, nahiz eta nabarmenak izan.

e) **Lana:** garai honetan dira nabarmenenak diskriminazioak gazteentzat. Gazteen esperientzia dela-eta, neskek batez ere (eta mutilek gutxiago) desoreka egoerak ezagutu dituzte jada, eta ondorioz, errazago antzemango dituzte ("betaurreko" hobeak dituzte eta inguruko errealitatea zehaztasun eta argitasun handiagoz ikusten dute).

Zenbait egoeratan berdintasuna agerian geratzen da; egoera horiei "zuzenbidezko berdintasuna" deituko diegu guk. Berdintasuna teorikoa da eta objektibitatez ikusten dira, baina ez da beti betetzen eta horrek "izatezko desorekak" eragiten ditu (neskek kontzientzia handiagoa dute).

Zuzenbidezko berdintasun eta izatezko desoreka horiez gain, beste zenbait egoera aztertzeko, gazteek ez dute behar bezalako erreferentziarik eta horrek mutilak nahastu egiten ditu, eta neskek, berriz, haserretu egiten dira. Egoera horiek azaltzeko, mutilen eta nesken arteko desberdintasun "naturalak" aipatzea baino ezin izaten dute egin, mutilen aurrean batez ere, neskek jarrera errebindikatiboagoa, aktiboagoa eta zorrotzagoa baitute.

HEZKUNTZA GARAIA

3.2

EAEko gazteek argi eta garbi dute nolakoa den, euren ustez, mutilen eta nesken egoera hezkuntza garaian: erabateko berdintasuna dago euren artean. Ez dago diskriminazio egoerak eragiten dituen desorekarik.

"Ez dut uste desberdintasunik dagoenik adin horretan (eskola garaian)".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"(Unibertsitatean ere) ez zegoen bereizketarik, ezta alderik ere mutilen eta nesken artean".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Ez dut uste (eskolan) desberdintasunik dagoenik mutilen eta nesken artean".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Nik ere ez (dut uste desberdintasunik dagoenik)".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Nik, oro har (desberdintasunik) ez dagoela pentsatzen dut".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Ikastetxe publiko mistoan ibili naiz, ikastetxe guztiz arruntean".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Ikastetxe mistoan ibili naiz eta ez dut (tratu) desberdintasun gehiegi ikusi".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

Mutilek eta neskek hezkuntza mundua espazio neutroa dela uste dute, bertan ez dela diskriminaziorik egiten. Ainhoa Castellsek(4) ere ondorio bera lortu du. Honakoa aipatu du: "EAEko gazteen iritziz, mutilek eta neskek ikasteko aukera berberak dituzte eta ez dute eskolan diskriminaziorik jasaten".

Gazteek berdintasun sententzio hori izateko, mutilek eta neskek ondorengo bi alderdiak baino ez dituzte buruan:

- Hezkuntza zikloa mistoa dela: txiki-txikitatik neskak eta mutilak batera egon dira ikasgeletan, irakasgai berberak ikasi dituzte, irakasle berak izan dituzte, jolaserako leku berberak (nahiz eta espazioaren erabilera desberdina izan), etab. Ondorioz, ez dute desoreka nabarmenik hauteman mutilen eta nesken artean. Alderdi asko daude hezkuntza neutroko irudia hausteko, hala nola, irakasleen jokabidea, irakasleek erabilitako adibideak, mutilei eta neskei gomendatutako hezkuntza orientazioa, atentzioaren kantitatea eta kalitatea, hezkuntza eta prestakuntza ibilbideko estereotipoak, benetako aukerak... Hala ere, horiek guztiak ez dira nahikoak aipatutako irudia hausteko eta, beraz, gazteen ustez, mutilak eta neskak berdinak dira gauza guztietan.
- Mutilek eta neskek nahi duten prestakuntza izan dezaketela, teorikoki: emakumezkoek (eta gizonezkoek) gero eta oztopo gutxiago dituzte ikasteko orduan. Hori dela-eta, EAEko gazteek hezkuntza garaiak desoreka nabarmenik ez duela barneratu dute.

EAEko gazteek ez dute zalantzan jartzen irakasleen adibideak diskriminatzaileak diren ala ez (esate baterako, gizonezkoen eta emakumezkoen ohiko rolak erabiltzea horiei aspalditik egokitutako lanak, portaerak eta jarrerak identifikatzeko orduan). Ez dituzte hainbat eta hainbat galdera planteatu ere egiten. Adibidez, ikasketa teknikoei dagokienez, emakumezkoek joera txikiago dute ikasketa horiek egiteko gizonezkoek baino; zergatik? Zergatik egoten dira gizonezko gutxiago humanitateetako arloetan? Zergatik jotzen dute mutil askok lanbide heziketara? Zergatik ez dugu ia neskarik ikusten arlo horretan, lan mundura sartzeko aukera gehiago dituela jakinda? Galdera horiei erantzuteko mutilen eta nesken arteko desberdintasunak aipatzen dituzte, baina desorekak alde batera utzita. Honakoa ere ez dute planteatzen: zergatik diren desberdinak nesken itxaropenak eta portaerak eta mutilenak. Orduan ere "desberdintasun naturalak" jotzen dute eta horrela euren "berdintasunaren pertzepzioa" bere horretan geratzen da. Irakasleek mutilekin eta neskekin tratu desberdina dutela ikusten dute, baina ez dute garbi ikusten diskriminazioa den ala ez:

"Nik izugarrizko aldeak ikusten ditut unibertsitatean. Neska gehiagok gaintitzen dituzte azterketak, irakasleekin hitz egitera joaten direlako"

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

(4) CASTELLS AINHOA (2000) "Juventud vasca. Cómo son, cómo están" *Emakunde* aldizkaria. Emakunde, Gasteiz. 6-23 or.

"Irakasleren batek neskaren batekiko, agian bai".


(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Ez pentsa, (irakasle) batek baino gehiagok egiten ditu (bereizketak), batez ere adineko irakasleek".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

Esan bezala, gazteek ez dute zalantzarik eta hezkuntza garaian mutilak eta neskak denbora guztian batera egoten direla ikusi dute argi eta garbi. Gainera, badakite denek zabalik dituztela prestakuntza bide guztiak. Ondorioz, gure gazteak ziur daude berdintasuna eta desoreka eza direla garai horren adierazgarriak, hurrengo eskeman ikusiko dugun bezala:

26. ILUSTRAZIOA Hezkuntza espazioko berdintasun berniza



Diskriminazio egoerei konponbidea emateko, mutilen eta nesken arteko desberdintasunak ("naturalak") aipatzen dituzte, EAEko gazteek erakusten dizkiguten adibideetan:

"Nik egia dela uste dut, (neskak) hobeto antolatzen direla ikasteko, baina denbora gehiago pasatzen dute, ziurtatu nahi dutenez, gehiago eskatzen diote euren buruari mutilek baino"

(Gizonezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"Boluntario zaudenean eta begiraleak ikasleak direnean, mutilek errazago huts egiten dute azterketa garaian (aurreikuspen eza)".

(Emakumezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"Denak mutilak ginen eta zalaparta gehiago zegoen, nahasmendu gehiago. Gero, institutuan, UBI egiten ari ginenean, neska gehiago ziren eta (...) lasaitasun gehiago zegoen, baretasun gehiago ikasgelan".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Mutilek iskanbila gehiago sortzen dute ikasgelan".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 15-18 urte).

"Ikasgelan, mutilekin hobeto pasatzen duzu".

(Esplorazio bilera, 15-18 urte).

"Eskolak aspergarriagoak dira neskekin".

(Esplorazio bilera, 15-18 urte).

"Zaharrenek eta mutilek nahasten dituzte bazterrak".

(Esplorazio bilera, 15-18 urte).

"Nire gelan mutil pila bat dago eta gainera errepikatzailak eta... nik ez dut inoiz entzun neska-karen batek bazterrak nahastu dituenik".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 15-18 urte).

"Nire ustez, adin horretan (16 urte) neskek mutilek baino gehiago ikasten dute beti".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 15-18 urte).

"Ikasterakoan, neskak arduratsuagoak dira, ordu gehiago ematen dituzte ikasten, nire ustez".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Nik unibertsitatean ikusi dut. Taldean mutilak eta neskak geunden: neskek beti nota hobeak ateratzen zituzten, apunte hobeak zituzten, hainbat gauza egiten zituzten. Ni musean jokatzera joaten nintzenean, neskak euskara ikastera joaten ziren".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Emakumezkoak antolatu egiten dira, azken ordurako ezer ez uzteko".

(Emakumezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"Nire ustez, gaur egun neskei oztopo gehiago jartzen zaizkie eta emakumezkook zerbait gehiago izan nahi dugu, zailtasun gehiago jartzen dizkigutelako, zerbaitetan nabarmendu behar dugu".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Mutilak zoroagoak dira, asentatuenak barne".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Urduriagoak gara".

(Emakumezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"Gizonezkoak lasaiagoak dira".

(Gizonezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"Mutilak, agian, irakasleekin arazoak izateko beldur gara".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 15-18 urte).

"Neskek, agian, errespetu handiagoa diote horri".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 15-18 urte).

"Neskak, normalean, gehiago kikiltzen dira".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 15-18 urte).

"Mutilek, akaso, azkarrago hartzen ditugu erabakiak".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

Mutilek eta neskek oso desberdin deskribatzen dute euren burua:

- Mutilen inguruan ezaugarri hauek aipatzen dira: gutxiago ikasten dute, espediente okerragoak dituzte, gutxiago antolatzen dira, ez dute aurreikuspenik egiten azterketetarako, gutxiago arduratzen dira euren buruaz, ausartagoak, oldarkorragoak, zaratatsuagoak, etorri handikoak, segurtasun handikoak, arreta eta kontrol gehiago behar dute, etab.
- Nesken inguruan, berriz, honako hauek: saiatuagoak dira, gehiago ikasten dute, nota eta espediente hobeak dituzte, txukunagoak dira, zorrotzagoak, arduratsuagoak, ordenatua-
goak, pentsakorragoak, helduagoak, zuhurragoak, urduriagoak, etab.

Ezaugarri horietako batzuk agerian geratu ziren aurreko azterketa batzuetan. Mairena Fernández Escalantek⁽⁵⁾, hain zuzen ere, hauxe esan du: emakumezkoek, hezkuntza prozesuaren maila guztietan, kalifikazio akademiko altuagoak lortzen dituztela eta gizonezkoek baino jarrera hobeak erakusten dituztela. Félix Ortégaren⁽⁶⁾ esanetan, gazteek honakoa adierazten dute: nesken errendimendu akademikoa hobe dela, ikasten ordu gehiago ematen dituztelako eta antolatzeko ahalmen handiagoa dutelako. Javier Elzok⁽⁷⁾ ere aipatu du

(5) FERNÁNDEZ ESCALANTE, MAIRENA (1996) "Mujeres en el umbral del S XXI" *Revista de Estudios Sociales*, Madril (101. alea)

(6) ORTEGA, FÉLIX ETA BESTE BATZUK (1993) *La flotante identidad sexual*. Madrilgo Unibertsitate Konplutensea, Madril.


(7) ELZO, JAVIER ETA BESTE BATZUK (1990) *Jóvenes españoles 99*. S.M. Argitaipenak. Madril.

neskek ordu gehiago ematen dituztela ikasten mutilek baino eta eskola errendimendu hobeak dituztela.

EAEko gazteek desberdintasun horiek ia naturalak direla pentsatzen dute, sarrerako atalean aipatu dugun moduan. Euren ustez, ez dira mutilek eta neskek ikasitako portaerak eta jarrerak. Mutilak eta neskak desberdinak direla baino ez dute uste. Horrela, beraz, ez dute desoreka edo diskriminazio egoerei buruz hitz egin behar; mutilak eta neskak desberdinak direla esan eta egiaztatu baino ez dute egin behar: portaera desberdinak, jarrera desberdinak, hezkuntza itxaropen desberdinak, euren eta inguruaren eskakizun desberdinak, baina inoiz ez desorekatuak.

Ondorioz, neskek prestakuntza orientazio bat edo beste aukeratuko dute euren gustu pertsonalaren arabera. Eta nahiz eta mutilek eta neskek prestakuntza desberdina izan, ez dago arrazoirik diskriminazio egoeraren ondorio direla pentsatzeko: gazteen ustez, aukeraketa prozesu horretan agerian geratzen dira mutilen eta nesken desberdintasun naturalak.

27. ILUSTRAZIOA Genero desberdintasunetan sartutako arketipoak eta gazteen balioespenak



Mutilek eta neskek esandakoa kontuan harturik, ondorio hauek atera ditugu: batetik, berdintasun erreferentzia gutxi dituztela, eta bestetik, erreferentzia horiek hezkuntza munduaren ageriko edo azaleko eremuan aurkitzen dituztela. Eremu horretan, gazteek alderdi hauek ikusten dituzte: ikasgeletan batera daudela (gurasoen belaunaldian ez), irakasgai berberak eta irakasle misto berberak dituztela (lehen, hori ere ez zen horrela) eta nahi dutena ikasteko aukera teorikoak dituztela (mutilek eta neskek hainbat curriculum dituztela ikusten dute). Alderdi horiek osatzen dute azaleko eremua, gazteen berdintasun erreferentzia eta, beraz, erreferentzia horrekin ados daudela adierazten dute.

Berdintasun baldintzak bete egiten direla ikusten dute eta ez dute bestelako zalantzarik izaten. Desoreka egoerak desberdintasun naturalen diskurtsoaren bidez justifikatzen dituzte. Gazteen ustez, hezkuntza esparruan desorekei buruz hitz egitea diskurtso zaharkitua mahaigaineratzea da: desorekak gainditu ditugu jada. Genero gaiaren inguruko zenbait adituk adierazi dute aipatutako egoera berdintasun berniz eraginkorra dela. Izan ere, hezkuntza esparruaren ezkutuko aldean sartzeko oztopoa baita, eta ezkutuko alde horretan izaten dira, hain zuzen ere, benetako desorekak.

Gazteek ez dute normalean ezkutuko alderdien inguruan pentsatzen, ezta zalantza egiten ere. Lan mundua (diskriminazio egoerak ikusten dituzte bertan) eta hezkuntza mundua ere ez dituzte lotzen. Euren ikuspuntutik, haxe adierazi digute gazteek: ikastetxean, unibertsitatean, erabateko berdintasuna dagoela, eta egoera hori desoreka egoera bilakatzen dela helduen munduarekin harremanetan jartzerakoan, lan merkatura sartzekoan eta lanean hasitakoan.

Baina gazteak ez dira egoera horren errudun bakarrak. Hezkuntza eremuan ikuspuntu teorikoegitik jorratu da hezkuntza desoreken gaia; ikuspuntu horretan, gainera, ez dago definituriko eredu eta erreferentziarik, gazteek egoera beste ikuspegi batetik ikusi ahal izateko. Hezkuntza sistemak gizartearen gainerako arloetan nagusi diren diskriminazio estereotipo eta ereduak errepikatzen ditu. Eta behar-beharrezkoa da egoera horretaz jabetzea eta ezkutuko diskriminazioak agerian uztea, ikusi ezin direnak, hots: ikasgeletako adibideek estereotipo eta rol klasikoak errepikatzea egiten dutenak; neskei soldadura ikasteko eta mutilei haurtzaintza edo erizaintza ikasteko oztopoak jartzen dizkietenak; irakasleen portaera ikasleen generoaren arabera izatea eragiten dutenak, etab.

28. ILUSTRAZIOA Hezkuntza espazioan agerian dauden diskriminazio motak



ORIENTAZIO GARAIA

3.3

Garai hori hezkuntza garaiaren amaiera edo emaitza da azken finean: ikasten hainbat urte eman eta gero, eta hezkuntza orientazioaren ondorioz, gazteek lanbide profil jakin bat izaten dute prestakuntza garaia amaitutakoan.

Prozesu osoan zehar, gazteek presioak izaten dituzte kanpotik, erabaki bat edo bestea hartzeko, prestakuntza profilari dagokionez. Presioak familiatik, lagunengandik (berdinen taldea), iritsi nahi den ingurunetik (erreferentzia taldea) eta lan merkatutik jasotzen dituzte.

Lan merkatua erreferentzia garrantzitsua da gazteentzat. Izan ere, generoaren arabera orientazio jarraibideak finkatzen baititu lan merkatuak. Mutilak eta neskak oso sentsibilizata daude langabeziaren inguruan eta lanpostu ona lortu nahi dute, independentzia eta garapen pertsonala erdietsi ahal izateko. Horri dagokionez, gazteek aintzat hartzen dituzte lan merkatuak generoaren arabera eskainitako prestakuntza profilak. Halaxe adierazi zuen, hain zuzen ere, Rosa Díez Gonzálezek(8): "hemen diskriminazio egoerak ez dira lan inguruan bezain nabarmenak edo zuzenak, baina ez da ahaztu behar emakumezkoen prestakuntza aukerak lan merkatuan emakumezkoen eskatutako lanbide profilen arabera izaten direla".

(8) DÍEZ GONZÁLEZ, ROSA (1997) *Baztertze sozialari buruzko II. Jardunaldiak*: "Mujer y exclusión social". Gizarte eta enplegu saila. Santurtziko Udala, 103-111. orr.

Horrela sortu eta/edo finkatzen da, beraz, gazteen diskurtsoa, mutilen prestakuntza/profila eta nesken prestakuntza/profilari buruz hitz egiten dutenean. Baina bereizketa horrek ez du esan nahi desorekak ikusten dituztenik bi generoen artean. Gazteek honakoa aipatzen dute argi eta garbi: prestakuntza orientazioko prozesuan ez dagoela desorekarik, ezta diskriminaziorik ere. Horixe bera adierazi zuen Javier Elzok(9): Espainiako gazteen %77ren ustez, emakumezkoek, emakume izateagatik, ez dute ez abantailarik ez oztoporik prestakuntza jasotzeko orduan. Gazteen adierazpen batzuetan ere argi ikusi dugu:

"Desberdintasunak izan badira, baina erabateko bereizketarik ez. Neskei ez zaie atea ixten soldadura ikasteko, baina seguruenik ez dute ikasiko desberdintasun kulturalak daudelako".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Ez zait iruditzen hori desoreka denik, baizik eta emakumezkoek ikasketa batzuk egiten dituztela, eta gizonezkoek beste batzuk".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

Hala ere, badakite mutilen prestakuntza profilak eta neskenak desberdinak direla, nahiz eta aurreko belaunaldietan baino nahasketa handiagoa egon:

- Mutilek arlo hauetan egiten dute lan: albaitaritza klinika, enpresa ikasketen inguruan, LH elektrizitatea, LH inprenta, zurgintza, zerbitzari, LH metala, soldatzaile, saltzaile, goma fabrika, ebanista, ingeniari, farmazia, albaitaritza, politika zientziak, LH informatika, dentista, diseinu grafikoa, ostalaritza, arte ederrak, gizarte graduatua, ingeniari teknikoa, zuzenbidea, LH mekanika, psikologia, LH hotza, LH elektronika, LH berokuntza, informatika, ekonomialaria, topografoa, LH zurgintza, arkeologia, etab. Lanbide heziketa, eskulanak eta lanbideak ia erabat hartzen dituzte, eta prestakuntza profil tekniko ugari agertzen dira.
- Neskek arlo hauetan egiten dute lan: LH erizaintza, pedagogia, itzultzaile, idazkari, saltzaile, ume zaintzaile, musika, psikologia, irakasle, jantzigintza tailerra, politologia, enpresa ikasketen inguruan, filologia, masajista, abokatua, ekonomialari, administraria, erizaina, pedagogoa, gizarte hezitzailea, turismoa, ingeniari teknikoa, gizarte graduatua, aparejadore, azafata, harreman publikoak, etab. Lan administratiboetan eta zerbitzuen sektorean aritzen dira asko, harreman pertsonaletan batez ere.

Orientazio desberdintasun hori Siadecoren(10) azterketa batek ere adierazi zuen. Honakoa azpimarratu zuten: mutilek produkzioan duten rola mantentzen dutela oraindik ere, "gizonezkoen" lanbide arloetan soldatapeko lana egiten dutela, prestigio handia dutela gizartean eta soldata ona jasotzen dutela; neskek, ordea, lan mundura sartuz gero, "emakumezkoen" lanbide arloetan eta lanbideetan egingo dute, gizonezkoen baino gutxiago ordainduko zaie eta prestigio gutxiago izango dute gizartean. Javier Elzok(11) ere azpimarratu du gai hori:


(9) ELZO, JAVIER ETA BESTE BATZUK (1994) *Jóvenes españoles 94*. SM, Argitalpenak, Madril.

(10) SIADeco (1996) *Detección de dificultades relacionadas con el riesgo de exclusión de las chicas jóvenes basadas en estereotipos de género: planteamiento de estrategias*. Donostia.

(11) Op. Cit (1994).

prestakuntza esparruan gazteek berdintasuna lortu dutela, baina gizonezkoei eta emakumezkoei orientazio desberdina ematen zaiela, ikasketen edukiaren arabera. Azterlanean honakoa ere aipatzen du: oso neska gutxi daudela arlo zientifiko edo teknikoetan, bai lanbide heziketako mailan, baita goi mailako unibertsitate eskoletan ere. Bestalde, neska asko daude letrak, humanitate, osasun, hezkuntza, administrazio... ikasketetan. M. Martínek eta O. Velardek (12) ere halaxe pentsatzen dute, ondorio hau atera baitute: neska gehiagok nahiago dituztela letretako ikasketak eta mutil gehiagok nahiago dituztela zientziak eta eskulana eskatzen dituzten ikasketak.


29. ILUSTRAZIOA Berdintasun berniza lanerako orientazio espazioan



(12) MARTÍN SERRANO, M. eta O. VELARDE (1996) *Informe Juventud en España*. Instituto de la juventud.

Gazteek lanbide eta/edo prestakuntza profil desberdinak aipatu dituzte eta badakite hala dela, baina ez dute inolako kontraesanik ikusten. EAEko gazteek ez dute zalantzarik: mutilak eta neskek prestakuntza profil desberdinak aukeratzen dituzte mutilak eta neskek berez desberdinak direlako eta lan merkatuak etengabe gogoratzen baitie hori. Baina oso gutxitan esaten dute desberdintasun horiek desorekak edo diskriminazio egoerak sortzen dituztela.

30. ILUSTRAZIOA Genero desberdintasunak lanbide orientazioetan eta gazteen balioespenak



"Nire ustez izaeran eta horrelako beste alderdietan daude desberdintasunak, baina hezkuntzak eragin ditu batez ere".

(Esplorazio bilera, 15-18 urte).

"Bakoitzak (mutilak eta neskek) zerbaitetarako gaitasuna du".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Nire ustez beharrezkoa da desberdinak izatea".

(Gizonezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"Mutilen joerari dagokionez (...), zientzietara, zenbakietara jotzen dugu; neskek, ordea, letretara, humanitateetara jotzen dute gehiago".

(Gizonezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"Badirudi inposatu egiten digutela. Egunkarietan hauxe agertzen da beti: 'neska bat behar da haurrak zaintzeko'; inoiz ez 'mutil bat behar da'".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Ikasketa batzuk mutilenak izaten dira, beste batzuk neskenak eta beste batzuk mistoak, zuzenbidea, esaterako. Ikasketa mistoak dezente dira, medikuntza adibidez, baina psikologia neskena da eta ingeniariak mutilena".

(Gizonezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"Lanbide heziketako zenbait arlotan denak emakumezkoak izaten dira, esate baterako, ile apainketan. Mekanika arloa gizonezkoentzat da gehiago. Nik uste dut hori lanaren arabera-koa izaten dela".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

Neskak ere ez dira kexatzen aurretik esleitzen zaizkien profilak eta/edo lanbideak direla-eta. Hezkuntza garaiko egoeraren antzekoa da oraingoa ere; generoen arteko berdintasun berriza barru-barruraino sartu eta itsumustuan sinetsi dute gazteek eta diskriminazio egoerak desberdintasun pertsonalak eta banakoak direla esaten dute.

Gazteek duten berdintasun erreferentzia, oraingoa ere, eskasa da eta modu objektiboan har daiteke, azalekoa eta neurgarria da, motza eta irudikagarria. Funtsean, erabateko hezkuntza berdintasuna dagoela uste dute, eta ondorioz, orientazio prozesuan ere (hezkuntza prozesuaren jarraipena eta/edo amaiera denez), ez dago desoreka egoerarik euren ustez. Esan dugu edozein pertsonak, mutila izan edo neska izan, edozein prestakuntza profil izateko aukera duela teorikoki. Horra hor goian aipatutakoaren frogak, neurgarria, objektiboa, irudikagarria. Beraz, badira neska kamioilariak, elektrizitatean aritzen direnak, gerenteak, abokatuak, ministroak... Eta badira mutil psikologoak, erizainak, gizarte laguntzaileak... Alegia, honakoa barneratu dute gazteek: norberak aukeratzen duela prestakuntza profila eta generoak ez duela aukeraketa baldintzatzen. Generoak baldintzatzeak, edonola ere, ez du esan nahi diskriminazio egoera sortzen denik.

Gazteek alderdi hauek aipatzen dituzte desorekei buruz aritzerakoan: nonbaiten ez egotea, ezintasuna, babes legalik ez izatea, betebeharrak mugatzea. Horixe da, hain zuzen ere, euren berdintasun erreferentzia, agerikoa eta azalekoa. Baina gazteek ez dute gaian sakontzen eta ez diote euren buruari galdetzen zergatik ikasi eta aritzen diren mutilak lanbide jakin batzuetan eta neskak beste batzuetan. Erreferentzia osatuagoak falta zaizkie, alderdi horiek jorratu eta errealitatea interpretatzeko jarraibideak emango dizkieten erreferentziak, alegia.

Berdintasun erreferentzia osatuagorik ez dutenez, gazteek ez diote euren buruari galdetzen zergatik jotzen dute neskek eremu batzuetara (humanitate, zerbitzu, laguntza eta harreman jarduerak eta jendea atenditzeko jarduerak) eta mutilek beste batzuetara (prestakuntza tekniko, lanbide, industria, eskulan eta merkataritza lanak).

Mutilek eta neskek emaitza desberdinak izaten dituzte ikasketetan, baina, horrez gain, ikasketen iraupena ere desberdina izaten dela ikusi dugu. EAEko mutilek, oro har, lehenago amaitzen dituzte ikasketak neskek baino, eta lehenago hasten dira lanean. Hori lotuta dago ikasketa orientazioan izaten diren desberdintasunekin. Izan ere, ikasteari laster utzi eta lanean hasi nahi duten gazteek lanbide heziketa aukeratu behar dute. Neskek, ordea, bide hori itxita izaten dute, berez, eta ikasketa ertain eta goi mailako ikasketetara jo behar izaten dute, lehen aipatutako arloetan.

Hainbat egilek adierazi dute aipatutakoa. Félix Ortégak(13) ondorengo hau jakinarazi digu: neskek gehiago luzatzen dituztela ikasketak, eta mutilak, ordea, lehenago hasten direla lanean, etxeko lanetan izan ezik. Isabel Sánchez Bianchik(14) emakumezko gazteen prestakuntza bideak luzatzen ari direla adierazi zuen.

Garai honetan, berdintasuna ulertzeko modua (berdintasun berniza) oztopo ikaragarria da gazteak generoen arteko orientazio desorekez benetan jabetzeko. Oztopo horri alderdi hauek gehitu behar zaizkio: rol klasikoaren hezkuntza estereotipatu bera, gazteen inguruko presioa eta lan merkatuaren presioa. Izan ere, lan merkatuak, eskaeren bidez, gizonetzkoen eta emakumezkoen betiko prestakuntza eta lanbide orientazioetan sozializatzen baititu gure gazteak, oraindik ere.

31. ILUSTRAZIOA Ezkutuko diskriminazioak lan orientazioan



(13) Op. Cit (1993).

(14) SÁNCHEZ BIANCHI, ISABEL (1994): "Las jóvenes de los 90, ciudadanas del siglo XXI", *Entre jóvenes* aldizkaria, 35. alea. Bartzelonako Udala. 46-51. or.

Garai honetan, gazteak hazi egin dira adinez, eta bizi esperientziari dagokionez ere bai. Prestakuntza profil zehatza dute eta bizitzako bidegurutze garrantzitsuan daude: lan mundura sartzea. Bitartean, langabezi garaia behin edo gehiagotan bizi izango dute gazte askok.

Gazteek antsietatez bizi dute langabezi egoera, noski, euren bizitzen etorkizuna markatuko duen garaia baita. Baina antsietate hori areagotu egiten da, lan merkatuak eskainitako aukerak ez direlako batere itxaropentsuak. Egungo lan merkatuaren ezegonkortasuna eta segurtasunik eza agerian geratzen dira gazteen diskurtsoan. Izan ere, gazteek lanbide etorkizunaz izugarri kezkatzen dira, bizi proiektua baldintzatuko dielako. Eta hori mutilen artean ez ezik, nesken artean ere gertatzen da.

Lehen, mutilek lanbide bat ikasi eta lan merkatura sartzeko prestatzen ziren (alde publikoa); neskak, ordea, ama izateko eta lana etxean egiteko prestatzen ziren (alde pribatua). Orain, atzean geratu dira eredu tradizional horiek. Gaur egun, mutilak eta neskak berdin prestatzen dira lan munduan nahiz etxean lan egiteko. Orain, mutilek badakite etxeko esparrura sartzea eskatuko zaiela, erantzukizuna banatuta, edo zehazkiago esanda, etxeko lanak banatuta, hau da, banan-banan aipatu eta modu objektiboan har daitezkeen lanak banatuta (garbiketa, janaria prestatzea, seme-alabak zaintzea, hornikuntza...). Neskek, bestalde, badakite etxeko esparruko erantzukizuna euren gain hartzen dutela oraindik ere eta aipatutako lanak zuzen banatzea eskatzen dute, nahiz eta erantzukizunkidetza kontzeptua ez duten zalantzan jartzen, hots, kontua ez dela mutilek onartzea etxeko zenbait lan egin behar dituztela, baizik eta lan horien erantzukizuna euren gain hartu behar dutela.

Duela hamarkada batzuk arte, mutilen aritzeko eremua lan merkatura mugatzen zen; gaur egun, lan esparruan eta etxeko esparruan aritzen dira, baina euren habitat naturala (propioa) lan merkatua dela uste dute oraindik ere, eta etxeko esparrua arrotza egiten zaie. Neskek, ostera, ez dute gaia horrela ikusten: etxeko esparrua "beraiena" dela uste dute oraindik ere, baina baita lan merkatua ere, nahiz eta mutilek eta gizarteak oro har eremu hori besterena dela gogorarazi.

Nahiko paradoxikoa da hau guztia: gizarteak exijitu egiten die neskei lan merkatura sartzea, baina esparru hori eurentzat –neurri batean– arrotza dela gogorarazten die etengabe. Aurrerago hitz egingo dugu horri buruz, ondorengoa sakonago aztertzerakoan: gizonezkoen etsaitasuna eta korporatibismoa, emakumezkoak lan mundura sartzeko direla ikusita.

Edonola ere, langabezia egoera zaila da mutilentzat eta neskentzat. Mutilek eta neskek, lan merkatuaren aurrean, inolako babesik ez dutela uste dute. Mutilek esaten dute lana bilatuz gero, dena irentsi eta pairatu beharko dutela, lana galtzeko beldur direlako. Neskek gauza bera adierazi dute. Baina mutilak lasaia daude. Badakite lan esparrua euren dela eta lehenago edo beranduago bertara sartuko direla, modu batera edo bestera. Neskak, ordea, babesgabe sentitzen dira, baina, halaber, borrokalariagoak dira. Babesgabe, badakitelako lan mundura sartzeko oztopo gehiago izango dituztela, zailagoa izango zaielako eta ahalegin handiagoa egin beharko dutelako. Eta borrokalariak, egoera horri kontra egiten diotela-

ko, lana lortu behar dutelako, gauza guztien gainetik, euren amek izan ez zuten independentzia izateko.

32. ILUSTRAZIOA Berdintasun berniza langabezi egoeran



Badirudi neskek behar handiagoa dutela lana aurkitzeko mutilek baino, edo antsietate handiagoz bizi dute langabezi egoera, lana izanez gero, independentzia lortzeko aukera izango dutelako. Independentzia funtsezko balioa da neskek iraganeko irudia hausteko (izan ere, garai batean emakumezkoak baztertu eta diskriminatu egiten zituzten). Neskentzat, bizi proiektu propioa izateko aukera da lana, amen belaunaldiko estereotipoak eta rolak baztertzeko aukera, alegia.

Emakumezkoek, azken finean, argi dute lana egin behar dutela independentzia ekonomikoa lortzeko, eta independentzia hori funtsezkoa da berdintasunaren arloan aurrera egiteko, berdintasuna lortzeko abiapuntu gisa.

Bestalde, eskola garaitik, gehiago exijituko zaiela barneratu dute neskek eta lan mundura sartzeko zailtasun gehiago izango dituztela mutilek baino. Ondorioz, areagotu egiten da nesken antsietatea eta estresa langabezi egoeran.

"Ikasketak amaitutakoan, lana bilatzea da garrantzitsuena. Gu guztion helburua da, ahal izanez gero".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Lanean hasten zara zure heziketak independenteago izan behar duzula eskatzen dizulako, edo zuk independenteago izan nahi duzulako".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Baina niri lana eta egonkortasun ekonomikoa axola zaizkit".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Emakume askeagoa izango naiz, matxismorik ez jasateko".

(Emakumezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

Eta egia esateko, neskei ez zaie arrazoirik falta: neska gehiago daude langabezian mutilak baino, eta, gainera langabezian, gehiago eskatzen zaie neskei mutilei baino eta eurek bada-kite hori. Eta ez dute soilik estatistika ofizialek adierazten. Baita hainbat azterlanek ere:

- Javier Elzok(15) hauxe adierazi du: neskei eragiten dietela zuzenago ezegonkortasun egoerak eta ziur daude emakume izatea oztopoa dela. Mutilek ere, neurri handi batean, horixe uste dutela esan behar dugu.
- Isabel Sánchez Bianchik(16) honakoa azpimarratu du: emakumezkoen lan baldintzak direla kaskarrenak.
- Anna Parése eta Rifak(17) gai berbera azpimarratu dute: neskek lan baldintza okerragoak dituzte mutilek baino.
- Mairena Fernández Escalante(18) kritikoagoa da. Hau adierazi du: biztanleria aktiboaren igoerak ez dituela gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desorekak murriztu eta langabeziak emakumezkoengan eragiten duela gehien.
- Siadecok(19) hainbat zifra eman ditu: neskek talde txikia osatzen dute biztanleria aktiboan, %34,6; gizonezkoak, ordea, %65,4 dira. Lanean ari diren emakumezko guztien artean, %66,2k lanaldi partzialeko kontratua dute; gizonezkoen kasuan, berriz, %33,8k baino ez dute halako kontratua. Ez dugu ahaztu behar ezkutuko ekonomian emakumezko askok egiten dutela lan.
- Azkenik, M. Martínek eta O. Velardek(20) hauxe azaldu dute: edozein adin hartuta ere, gizonezkoen artean gazte aktibo gehiago daudela emakumezkoen artean baino, eta emakumezkoek lan baldintza eskasagoetan egiten dutela lan gizonezkoek baino.

(15) Op. Cit (1994)

(16) Op. Cit (1994)

(17) PARÉS ANNA eta RIFA (1994). "Los valores sociales de los jóvenes", *Entre jóvenes* aldizkaria. ICB, 40-42. or.

(18) Op. Cit (1996)

(19) Op. Cit (1996)

(20) Op. Cit (1996)

EAEko mutilek eta neskek iritzi bera dute: badakite mutil gehiago ari direla lanean eta lanpostu hobeak lortzen dituztela neskek baino, eta neskek, batzuetan, laguntzaren bat jaso behar izaten dutela.

"Oro har, nire inguruko mutil eta nesken artean, mutilak ari dira lanean".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Lanbide heziketako nire lagun guztiek (mutilek) egiten dute lan".

(Emakumezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Mutilak ez dira entxufez hasten lanean; neskak, ordea, bai".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Ikasketak amaitu genituenen artean, mutil gehiago hasi dira lanean neskak baino".

(Emakumezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Mutil guztiek noten edo espedientearen beharrik gabe egiten dute lan eta mutil izateagatik hartzen dituzte".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

Gainera, beste egoera batek ere zuzenean eragiten du neskek langabezia denbora gehiago ematea mutilek baino. Estatistika ofizialek adierazten dutenez, lanbide heziketako profilei gutxiago eragiten die langabeziak, eta humanitateko goi mailako tituludunengan, aldiz, askoz ere eragin handiagoa du. Kasualitatez (edo ez) mutilak bereziki lanbide heziketara orientatu dira (orientatu dituzte); neskak, ordea, prestakuntza humanistikoen arlora orientatu dira (orientatu dituzte).

"Unibertsitate ikasketak egin dituzten asko langabezia daude, eta oinarritzko ikasketak edo lanbide heziketa egin duten beste batzuk edo (ikasketarik) amaitu ez zutenak, aldiz, lanean ari dira".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Enpresa ikasketen eta zuzenbide arloko lagunak (mutilak) langabezia daude eta lanbide heziketakoak, berriz, lanean, elektronika eta mekanika arloetan".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Lanbide heziketa (elektrizitatea, hotza eta berokuntza) egin zuten lagunak (mutilak) ari dira lanean".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

Egoera horren aurrean, mutilek eta neskek oso jarrera desberdina hartzen dute. EAEko gazteen adierazpenek erakusten dutenez, mutilek jarrera pasiboa dute argi eta garbi, ez dute iniziatibarik, ez dira mugitzen, ez dute ezer bilatzen, besoak gurutzatuta gelditzen dira, ez dira kezkatzen, lasai-lasai geratzen dira, telebistako urrutiko agintea hartuta ematen dute denbora asko, konformistak dira. Neskak aktiboagoak dira, iniziatiba dute, ez dute itxaro-

penik galtzen, prestatzen jarraitzen dute, konstanteagoak dira, indar handiagoa dute egoera deserosoen aurrean, konformagaitzak dira, etengabe mugitzen dira, borrokalariagoak dira, etab.

33. ILUSTRAZIOA Diskriminazioak langabezian



"Jendeak ez du ikasitakoan lan egiten, baina lan egin eta bizimodua ateratzen dute, haurrak zaintzen edo horrelako gauzak egiten, neskek".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Mutilek, karrera amaitutakoan, beste arloren bateko lana eskainiz gero, hartu egingo dute, dirua nahi dutelako eta egunean bizi direlako. Guk itxaron egiten dugu, ikastaroak egin... Neskak konstanteagoak gara".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Nire lagun guztiek (neskek) bizimodua atera eta inizatiba gehiago dute".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Gu askoz ere lasaiagoak gara (...). Lan hobearen zain egoten gara".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Neskok mutilek baino lehenago independizatu nahi dugu".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Neskek, akaso, beste zeregin batzuk bilatzen dituzte; gu ordea, besoak gurutzatuta geratzen gara".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Gu etxean geratzen gara gehiago; neskek, berriz, ikastaroak egiten dituzte edo gimnasio-ra joaten dira. Gehiago mugitzen dira, gure aldean. Neskak aktiboagoak dira".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Gu telebistako aginteari itsatsita geratzen gara".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Neskek ikastaroak egiten dituzte, hizkuntzak ikasi, ez dute sekula amaitzen. (...). Mutilak musean jokatzera joaten dira, edo hortik zehar, ezer egin gabe egoten dira gehiago, lasaia-go".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

Esan dugu mutilak lasaiago egoten direla langabezi egoeran eta hori euren rol tradizionalaren ikuspuntutik baino ezin da ulertu. Gizonezkoen ohiko rolak euren pertsonalitatea garatu eta lan eremuan egotea justifikatzen zuen, espazio publikoan egotea, alegia. Gizonezkoak eremu horretan onik ateratzeko hezten zituzten, edo arrakasta izateko, guxtienez. Gizonezkoak eramaten zuen dirua etxera, noski, eta, beraz, nagusitasun papera zuen etxean. Garai hartan, lan mundua gizonezkoei mugatuta zegoen eta bertan aurkitzen zuten beste eremu batzuetan ez zuten indarra eta segurtasuna, esate baterako, afektibitate eremuan ez zutena, emakumezkoen esku baitzegoen.

Gaur egun ere, erabat zabaldua dago gizonezkoak lan munduaren jabe diren ustea. Nahiz eta emakumezkoak lan mundura sartzen ari diren, aurrerago azalduko dugun moduan, gizonezkoek kontrolatu eta menpean dute oraindik ere mundu hori. Ondorioz, gizonezkoek honakoa barneratu dute txiki-txikitatik: lan mundura sartzea prestakuntzaren arabera zailagoa edo errazagoa izango dela, baina gizonezko izateagatik, denerako gai direla eta dago-kiena lortuko dutela, hau da, lan egitea. Neskek, aitzitik, mutilei baino zailagoa izango zaie la barneratu dute. Mutilek kontrolatutako mundura sartzen ahaleginduko dira, eta beraz, gehiago eskatuko zaie. Horregatik dute jarrera lasaiagoa mutilek langabezi egoeraren aurrean, azkenean lana aurkituko dutela uste baitute, besterik gabe. Badakite neskek baino aukera gehiago izango dituztela lanposturen bat lortzeko orduan, prestakuntza orientazioa hobeto egokitzen zaiela lan merkatuko eskakizunei eta baliabide gehiago izango dituztela lana bilatzeko orduan. Laburbilduz, mutilen lasaitasuna justifikatuta dago, errazago dute-eta.

Mutilek oso bestelako jarrera izaten dute, ordea, lan mundura sartutakoan. Aurrerago ikusiko dugun moduan, lanean ari diren mutilek guztiz kontrako jarrera izaten dute: pertsona lehiatsu bihurtzen direla ikusiko dugu, inizatiba izaten dutela orduan, ausartak izaten dira, arriskuak euren gain hartzen dituzte, aktiboak, saiatuak, seguruak, trebeak izaten dira, ez dute beldurrik izaten... Euren eremuan dabiltzanean gertatuko da aipatutako guztia. Bitartean, lasai-lasai egongo dira zain.

Neskek, beraz, oso jarrera desberdina dute langabeziaren aurrean, mutilen jarrerarekin alderatuta. Iniziatiba gehiago eta jarrera eta arrazoi sendoak dituzte. Oso argi dute neskek: edonola irten behar da langabeziatik, independentzia eta egonkortasuna emango dien lana lortu behar dute, benetako berdintasuna lortzeko abiapuntu gisa. Mutilek duten prestakuntza bera, lanak ematen duen independentzia bera eta egonkortasun bera lortu behar dituzte, benetako berdintasunean aurrera egin ahal izateko.

EAEko neska gazteentzat premiazkoa da lana bilatzea. Testuinguru horretan, ez da harritzekoa beste gai garrantzitsu batzuk alde batera uztea askotan. Amatasunaren gaia oso garrantzitsua da mutilek eta neskek langabeziaren aurrean duten jarrera balioesteko orduan, eta, gero ikusiko dugun bezala, aldagai erabakigarria izango da zenbait diskriminazio egoera ulertzeko, hau da, lan merkatura sartzeko garaian nahiz lan garaian geratzen diren diskriminazio egoerak ulertzeko. Mairena Fernández Escalantek⁽²¹⁾ eman zigun amatasun eta lanaren arteko gatazka horren berri. Hauxe adierazi zuen: emakumezkoak ikasketak amaitutakoan hasten direla lanean, etxetik kanpo, eta, beraz, amatasuna lan egoera sendotu arte atzeratzen dute eta askotan uko egiten diote ama izateari.

EAEko neskek nahitaez atzeratzen dute amatasunaren aukera. Eurentzat, ama izatea lan egonkorra lortzearen ondoren dator, eta, beraz, lan arazoaren azpian jartzen dituzte familiako eta amatasun gaiak. Eta gainera, badakite lana bilatzea zailagoa dela eurentzat mutilentzat baino. Lanaren behar handiagoa dutela uste dute, pertsona moduan sendotzeko eta desoreka egoera posibleak saihesteko.

EAEko nesken diskurtsoari dagokionez, neskek ez dute planifikatzen amatasuna atzeratzea eta ez dute oso kontzienteki egiten. Gai hori ez da garbi adierazten, ezta teorizatu ere, baina neskek argi dute zein izango den gertaeren segida: lanik ez dagoen bitartean ez da seme-alabarik izango; lan segurtasunik eta independentzia ekonomikorik ez duten bitartean ez da seme-alabarik izango; etxeko lanak banatzeko orduan berdintasunik ez dagoen bitartean (eta are gehiago: erantzukizunkidetzak) ez da seme-alabarik izango; "haurren agenda" partekatzen ez den bitartean ez da seme-alabarik izango.

(21) Op. Cit (1994)

34. ILUSTRAZIOA Genero desberdintasunak langabeziaren aurrean duten jarrera eta portaeretan



Gainera, neskek badakite ama izateak, gaur egun, agenda bikoitza deitutakoa ekartzen duela, hots, konpromiso bikoitzak dituela agendak: batetik, lanarekin lotutako gaiak, eta bestetik, etxearekin eta seme-alabak haztearekin lotutako gaiak. Argi dute egoera horrek bultzatu egiten dituela diskriminazio egoera posibleak eta estresa sortzen duela emakumezkoengan. Edurne Uriartek⁽²²⁾ ondorengo hau adierazi zuen: emakumezkoen lanaldi bikoitza deitutakoak (ia emakumezko langile guztiei eragiten die) eragina izango duela etorkizunean ere jaiotza tasak baxuak izateko.

EAEko nesken bizi proiektua ez da etxeko eremura mugatzen: lan eta lanbide proiektua ere bada, eta harantzago joateko aukera izanez gero, seme-alabak izan eta familia osatuko dute.

"Aldatu egin da gure pentsamoldea. Lehen emakumezkoak seme-alabak izateko eta etxean lan egiteko ezkontzen ziren. Orain ikasi eta lan egiten dugu; ama sena baduzu edo seme-alabak izan nahi badituzu (atzeratu egiten duzu)".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

(22) URIARTE, EDURNE (1994). "Las transformaciones en el papel de la mujer". *Inguruak* aldizkaria 10. alea, EHU.

"Nik lana egin behar dut, 6 hilabetetan egon naiz langabezian eta zoratu egingo nintzela uste nuen eta kontuan hartu ikastaro asko egin ditudala eta bestelako gauza asko ere bai, baina lana egin behar dut. Eta nahiago dut berak (senarrak) hartzea (amatasun) baja nik baino".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Lehen emakumezkoen helburu bakarra ezkontzea zen, baina orain erabat aldatu dira gauzak. Orain emakumezkoek lan egiten dute, gizonezkoek bezalaxe".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"(Amatasuna) erabaki garrantzitsua da; lanik utzi nahi ez baduzu, akaso albo batera utzi beharko duzu".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Emakumezkoek, gaur egun, ez diote soldadari besterik gabe uko egiten".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Neskek nahiago dute lan egitea eta ez dute seme-alabarik izan nahi".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Zenbait neskak seme-alabak izan nahi dituzte, baina ez dute lana galdu nahi".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Niri lana eta egonkortasun ekonomikoa axola zaizkit (...). Nik ez dut seme-alabak izatea planteatu ere egiten".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Amatasunaren arazo nagusia emakumezkoek nahi ez izatea da. Emakumezkoak, nahiz eta kanpoan lan egin, oso arduratsuak izaten dira etxean, zoritxarrez. Beraz, estresa sortzen da. Egunean zortzi edo bederatzi ordu egin behar badituzu lan eta etxera itzultzean lanean jarraitzen baduzu (...), estres bikoitza sortzen da. Berak (neskak) ez du egin nahi".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"(Seme-alabarik ez izatea) Nire ustez hori gertatzen da aurrera begiratzen dutelako (emakumezkoek), ez haurdunaldiak bakarrik, baita seme-alabak izateak ere zer dakarren ikusteko. Lehen berandu arte geratzen bazinen lanean, orain seme-alaba duzu eta nahiz eta besteren batek zaindu, etxera joan behar duzu, pentsamolde horixe dugulako, batez ere seme-alaba txikia bada, eta gure buruari esaten diogu ezin dugula hainbeste gauzaz arduratu".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

Lehen neskek eta mutilek desberdinak zirela uste zuten, baina ez zuten uste diskriminazio egoerarik gertatzen zenik. Aurreko atalean, langabeziari buruzkoan, esan dugu neskek jarre-
ra borrokalariagoa, beligeranteagoa, aktiboagoa garatu dutela. Ondorengo hau ere ikusi
dugu: mutilak baino errazago hasten direla desorekak ulertzen eta hautematen. Desoreka
egoerarik larrien eta nabarmenetako batzuei aurrea hartzen hasi dira: etxeko lanak egitea,
seme-alabak zaintzea, arduraldi osoa lanari, etab. Edonola ere, bestelako gauza asko eta
asko azaltzeko daude. Horietako batzuk atal honetan ikusiko ditugu; lan merkatura sartzea-
rekin zuzenean loturiko alderdiak jorratuko ditugu. Hurrengo grafikoan garai honetako ikus-
pegi orokorra agertzen da.

35. ILUSTRAZIOA Berdintasun berniza lan merkatura sartzeko garaian



Lan munduratzeko garaian, ondorengo da mutilen eta nesken arteko berdintasun erreferentzia generikoa: biek aukera berberak izatea lan merkatura sartzeko. Legearen aldetik,

den-denek, mutilek eta neskek, lana izateko eskubide berbera dute, eta beraz, horri dago-kionez, ez dago desberdintasunik. Neskek eta mutilek badakite aipatutakoa eta inork ez du zalantzan jartzen emakumezkoen lan merkatura sartzeko nahia bidezkoa ez denik.

Baina, ikuspuntu teorikotik praktikara pasatzen garenean, gazteek ikusten dute, benetan, ez daudela baldintza berberetan. Neskek, batez ere, diskriminazio egoerak jasan dituztelako, argiago ikusten dute desoreka egoerak gertatzen direla, hainbat arrazoiri lotuta. Edonola ere, mutilek ere ikusten dute diskriminazioak egiten direla.

Nahiz eta ikuspuntu legal eta teorikotik lan merkatura sartzeko aukera berberak izan, inork ez du uste hala denik. Mutilek eta neskek hainbat egoera aipatu dituzte eta kaltetuak, ia beti, neskak izaten dira. Horregatik dute sentsibilitate eta gaitasun handiagoa diskrimina-zioak hautemateko. Ezkutuko diskriminazioak bost ardatz hauen inguruan gertatzen dira: bikotea, amatasuna, ardura, desberdintasun fisikoak eta estetika. Baina zehatzago azaldu baino lehen, ondorengo hau azpimarratu behar dugu: gazteek onartu egiten dutela neskak, oro har, diskriminatu egiten direla, eta ez dute zalantzan jartzen; badakite halaxe gertatzen dela.

"Guk errazago dugu lan aukeraren bat lortzeko".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Beno, badakigu gizonezkoen eta emakumezkoen artean gizonezkoak aukeratuko dituztela lan gehienetan".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Gizonezkoak nagusi izan dira beti gauza guztietan eta orain kostatzen da nagusitasun hori kentzea".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Egia da, nire lagun bat (neska) ingeniaria da eta berarekin ikasi zuten mutilek 2-3 hilabete-tan lortu zuten lana, eta berak, berriz, urtebetean edo bi urtetan".

(Gizonezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"(...) Izan ere, neska bazara eta ingeniari-tza ikasten baduzu, akaso ez zaituzte lanerako har-tuko, entxufez ez bada, behintzat".

(Emakumezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"Niri gertatu zait: curriculum-a bidali nuen eta ezagutzen nuen mutil batek berdina bidali zuen eta elkarriketa egiteko berari deitu zioten".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Nire lagun batzuek (neskak) lan egiten dute eta gauza asko eta asko jasaten dituzte. Eurei egiten dietena niri eginez gero, dena bertan behera utziko nuela uste dut".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Emakumezkoek badakite gauzak zailagoak jarriko dizkietela. Gauza asko jasan beharko ditugula pentsatzen dugu. Emakumezkoek badakite oztopoak jarriko zaizkiela beti".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Emakumezkoak arlo batzuetan aritzen dira eta gizonezkoak beste batzuetan. Normalean aukera gehiago dituzte (...). Lanari buruz (...) ari naiz".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Aitak pentsatzen du mutikoa, besterik ezean, kamioiak deskargatzera behintzat joango dela".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Emakumezkoak gutxietsi egiten dituzte; gizonezkoei berez duten maila onartzen zaie, baina emakumezkoei ez".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Pixka bat okerrago daudela (emakumezkoak) uste dut, bai, bai. Lan kontuetan nahiko arazo izaten dituzte. Lan laboralak (sic) barne hartzen dituen gai guztietan askoz okerrago daude emakumezkoek gizonezkoek baino".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Lan onenetan, menperatu egiten gaituzue (mutilek neskak)".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Neskok askoz gehiago ikasi dugu eta lan kaskarragoak dauzkagu eta mutilak baino okerrago gaude".

(Emakumezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Eta soldatzaile ikasten dugu eta ez gaitu inork hartzen".

(Emakumezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

36. ILUSTRAZIOA Genero desberdintasunak lan merkatura sartzeko duten jarrera eta portaeretan



Bai mutilek eta bai neskek adierazi eta aztertu dute garai horretako funtsezko alderdia: mutilek abantailak dituzte, neskekin alderatuz gero. Neskak diskriminatuta daude, argi eta garbi. Bai mutilek eta bai neskak konturatzen dira horretaz, nahiz eta neskak pixka bat beligeranteagoak edo pixka bat gogorragoak izan hori salatzerakoan. Edonola ere, horren atzean ia inolako hausnarketarik ez dagoela esan behar dugu. Ez dago desoreka garbi hori azalduko duen lan teorikorik. Inor ez da kexatzen, ez da honelakorik entzuten: "ez dago eskubiderik" edo "hau ez da zuzena" edo "ez dago justiziarik"... Inork ez du "zergatik" gertatzen den galdetzen. Inork ez du diskriminazio generiko hori identifikatzen edo izena ematen, matxismo izenez definizio lausoa ematen ez bada behintzat.

Guk honela identifikatu dugu diskriminazio hori: emakumezkoak lan merkatura sartzea barrutik oztopatzen duen estrategia, kulturak finkatutako jarraibideei eta eremu horretan tradizionalki nagusi izan diren gizonezkoen irizpideei jarraiki. Korporatibismoa baino ez da. Batez ere gizonezkoen kontrolpean egon den eremua atzeratzeko eta zaintzeko modua.

Cristina Fernández(23) ere salatu zituen emakumezkoei lan mundura sartzeko jartzen zaizkien trabak. Hauxe adierazi zuen: zenbait enpresa sektorek errezeloa dutela emakumezkoak tradizionalki emakumezkoenak ez diren lanpostuetan kontratatzeko eta emakumezko langileen irudia gutxietsi egiten dutela kulturalki. Edurne Uriartek(24), bestalde, ondorio hau ateratu zuen: emakumezkoek zailtasun handiagoak dituztela lana aurkitzeko eta mantentzeko; lana aurkitzeko dagokionez, emakume izatea oztopo handia da hainbat eta hainbat lan lortu ahal izateko; lanpostuan jarraitzeko dagokionez, amatasuna, oraindik ere, arazo larria da lanean jarraitu ahal izateko, lana ematen dutenen jarreragatik eta haurrak zaintzeko, askotan, lana utzi behar izaten dutelako ere bai. Javier Elzok(25) ere honakoa adierazi du: neskak pesimistagoak direla mutilak baino, epe labur/ertainean lan egonkor eta segurua lortzeko aukerei dagokionez, lan merkatuak aukera gutxi eskaintzen dizkiela uste baitute, nahiz eta behar bezala prestatuta egon.

Mutilek, banaka, ez dute emakumezkoak lan eremura sartzearen kontrako jarrerarik azaltzen. Salbuespenen bat izan ezik, mutilek ez dute ezer esateko, emakumezkoak lanean hasteari dagokionez, nahiz eta gogo handirik ez erakutsi eta euren portaera oso aktiboa ez izan.

"Niri ez litzaidake axolako emazteak lana egitea eta nik ez".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Ezta niri ere".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

Lan merkatuan izugarritzko korporatibismoa dago gizonezkoen artean eta lan munduratzeko garaian, jada, agerian geratzen da; korporatibismo horrek emakumezkoenganako etsaitasun konnotazioa dauka. Emakumezkoei, langabezian egon eta lan merkatura sartzea pentsatzen duten unetik, ondorengoa gogoratzen zaie: eremu hori oraindik gizonen esku dagoela, gizonezkoen etsaitasuna aurkituko dutela eremu horretan eta ez dietela ia batere lagunduko.

Garai horretan, zera gogoratzen zaie emakumezkoei: lan eremura sartu nahi izanez gero, gizonezkoek baino gaitasun handiagoa erakutsi beharko dutela. Gizonezkoek baino askoz espediente hobea izan behar dute. Oro har, honakoa adierazten die lan merkatuak emakumezkoei: tradizionalki gizonezkoek zuzenduriko eremu horretara sartu nahi izanez gero, lehiakortasun abantaila nabarmenak izan beharko dituztela.

EAEko gazteek ez dute nahikoa elementurik erreferentzia bati forma emateko, diskriminazio egoeraren hieroglifikoa argitu ahal izateko. Legea eta datuak kontuan hartuta, badakite ez dagoela berdintasunik eta desoreka egoerak gertatzen direla, baina zergatik gertatzen diren ikusten ez duten bitartean, zaila izango da aurrera egitea.

(23) FERNÁNDEZ, CRISTINA (1992): "Mujeres jóvenes y el mercado de trabajo" *Jóvenes* aldizkaria, 2. alea.

(24) Op. Cit (1994)

(25) Op. Cit (1994)

37. ILUSTRAZIOA Diskriminazioak lan mundura sartzerakoan



Beste desoreka egoera batzuk (zehatzagoak) deskribatu aurretik, gizonezkoei lanbide sektore batzuetan ematen zaien tratua inguruko zenbait gai ere planteatu direla esan behar dugu:

"Neskek lan jakin batzuetan sartu ezin diren moduan, mutilek ezin izaten dira beste lan batzuetan inolaz ere sartu, nire ustez".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Jendaurrean egoteko itxura ona izan behar dute neskek".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Ez dago berdintasunik ez zuen kasuan, ezta gurean ere; izan ere, haurrak zaintzeko neskek aukera gehiago dituzte mutilek baino, baina industrian mutilek dute aukera gehien".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

Mutilek eta neskek, eta azken horiek batez ere, hurrengo bost egoeretan emakumezkoak diskriminatu egin direla aipatu dute, lan merkatura sartzeari dagokionez:

a) **Bikotea eta Familia:** EAEko neskak lan elkarriketetara joaten direnean, askotan galdetzen diete ezkongabeak diren, senargairik ote duten, seme-alabarik ote duten edo epe laburrean izateko asmorik duten. Horietako galderaren bati edo gehiagori baietz erantzunez gero, lana lortzeko aukerak izugarri murriztuko zaizkie. Eta neskek kexatu egiten dira, noski, egoera hori dela-eta.

"Elkarriketetan, mutilei ez diete galdetzen seme-alabarik izateko asmorik duten; neskei bai, ordea".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"(Mutilei buruz) Galdetu ote dizuete bikoterik duzuen, etorkizunerako zein plan duzuen eta seme-alabarik izan behar duzuen".

(Emakumezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Graduatu osteko ikastaroan esan ziguten mutilek emaztegaia dugula esateko eta neskek senargairik ez dutela esateko".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Nik baditut lagun administrariak (neskak) eta seme-alabak izateko asmorik ote duten galdetzen zaienean, denek gezurra esaten dute, euren burua babesteko".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"(Mutila izanez gero) ez dizkizue hain gauza pertsonalak galdetuko, lau txorakeria baino ez. Zuzenago hitz egiten dute".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Mutilei ez zaie galdetzen (seme-alabarik izango ote duten)".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Soldaduska egin duzun galdetuko dizue eta emakumezkoek, berriz, ezkondua den, ezkongabea, seme-alabarik izateko asmoa ote duen (...), emakumezkoek seme-alabarik izanez gero, amatasun baja hortxe dago-eta".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Kontratatu behar zaituztenean, adina galdetzen dizuete, senargaia ote duzun, handik gutxira ezkonduko zaren eta seme-alabarik izateko asmoa ote duzun".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Seme-alaben gaia elkarriketetan agertzen da, oraindik ere: zenbat urte dituzun, ezkondua zaren (neskei)".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

b) Amatasun baja: gai hau eta aurrekoa erabat lotuta daude, baina aparte aztertu nahi izan ditugu, mutilek eta neskek entitate propioa baitute.

Irakurri berri ditugun aipamenetan, neskei bikote eta familia planei buruz galdetzen zaiela ikusi dugu, eta mutilei, berriz, beste modu batera galdetzen zaiela eta beste ondorio batzuekin.

Baina gaia askoz ere korapilatsuagoa eta mingarriagoa da amatasun bajari buruz zuzenean hitz egiten denean. Orduan ezusteko zerbait gertatzen da: elkarriketetan neskei ematen

zaien diskriminazio tratua argi eta garbi kritikatu eta gero, egoera salatu beharrean, diskriminazio jarrerara hori justifikatu egiten dutela ikusi dugu:

"Ni enpresaburua izanez gero, agian ez nituzke neskak hartuko. Nire negozioa izanez gero, ba, auskalo".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Ez zait zuzena iruditzen, baina ulertzen dut; biharko egunean haurdun geratzen banaiz, badakit bota egingo nautela. Eta ulertzen dut (...); izan ere, (...) badakit hori ez dela jendarean aritzeko irudi egokia (jatetxe batean mexikarrez jantzita ibiltzea)".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Normala da hori, hainbesteko lan eskaera dagoenez, errentagarriena erabiltzen duzu. Normala da".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Amatasun baja (...) traba da enpresarentzat; batek amatasun baja hartu behar duenean, beste pertsona bat kontratatu behar da, eta agian ez du lana ezagutuko, inguruko denek ahalegin handia egin behar dute horri laguntzeko; horixe gertatzen da".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Nik ulertzen dut enpresaburuaren jokabidea. Zergatik egiten du ihes (amatasunetik)? Pertsona hori egunean jartzea oso deserosoa delako, etab., ekonomikoki ez da ezer eurentzat".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Ni izango banintz enpresaburua, galdetuko nukeela uste dut (seme-alabak izango dituen galdetzea)".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Enpresa batez arduratuko bazina, agian zeuk ere, azkenerako, galdera horixe egingo zenieke emakumezkoei".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Enpresei dagokienez, ezin dira gai etikoak aintzat hartu, enpresak ez baitira karitatezko ahizpatxoak".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Niri logikoa iruditzen zait, ez dut esan ondo dagoenik (amatasunari buruz galdetzea)".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Enpresaburuek beste pertsona batzuk kontratatu behar dituzte eta diru gehiago gastatu behar dute, amatasun batak direla-eta".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Emakumezkoek baja gehiago hartzen dituzte gizonezkoek baino".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"(Kostu) ekonomikoa dirua euren poltsikotik jartzea bada, orduan ez, baina imajinatu (...) zer-nolako kostua izan dezakezun lan jakin bat galtzeagatik (amatasun baja dela-eta): errendimendu baxua, produktibitate baxua, beste langile batek lagundu egin behar du eta bere lan-postua uzten du (...), errendimendua baxua izango da ia produkzio kate osoan"

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

Lan merkatuaren jarrera emakumezkoak sartzearen kontrakoa da argi eta garbi. Diskriminazio egoera gertatzen da, eta horrez gain, funtsean, badirudi gogaitu egiten duela emakumezkoak lan eremura sartzeak, enpresaburuari arazoak, oztopoak eta galerak baino ez dizkiotelako ekartzen. Eta EAEko hainbat neskak barneratu egin dute egoera hori. Badirudi gizonezkoek mesedea egiten dietela, lan egiten uzteagatik. Neska gazteen hitzetatik ondorio hau atera dugu: gizonezkoen onarpena sentitzen dutela, neskarik gabe diseinatutako mundura sartzen uzteagatik.

c) **Ardura:** EAEko gazteen ustez, neskek beste desoreka egoera batzuk ere bizi dituzte ama izateagatik. Badakite emakumezkoak arduratzen direla gaur egun etxeko gaiez, eta baita seme-alabez ere.

Horrela, emakumezkoek uztartu egin behar dituzte lanorduak eta seme-alabak zaindu eta hazteko ardurak, eta beraz, lanerako ardura ahuldu egiten da, denbora gutxiago eman baitezakete lanean, seme-alaben eginbeharren ardura dutenean. Fenomeno horri agenda bikoitza deitzen zaio. Hau da, etxetik kanpo lan egin eta seme-alabak dituzten emakumezkoek bi agenda burutu behar dituzte egunean: lan konpromisoak dituzte alde batetik, eta seme-alabak hazteko eta etxeaz arduratzeako konpromisoak bestetik. Cristina Fernándezek (26) ohartarazi zigun gai horren inguruan: ezinezkoa izango da emakumezkoak lan merkatura gizonezkoen baldintza berberetan sartu eta jarraitzea, gizonezkoen eta emakumezkoen orduen banaketan aldaketa handiak gertatzen ez badira behintzat.

Gazteek egiaztatu dute aipatutakoa eta argi dute oztopo handia dela emakumezkoentzat, lan merkatura sartzeko garaian; izan ere, mesfidantzak eta errezeloak sortzen baitzaizkie enpresaburuari, emakumezkoak kontratatzeako orduan.

"Elkarrizketa batean hauxe esan zidan gizon batek: mutilak baino ez zituztela nahi, kontratatu zituzten azken nesken kasuan, senargaiak euren bila joaten baitziren zazpi eta erdietan eta ez zirelako gelditzen (lanean jarraitzeko)".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Eta umeak hazizurriak edo beste edozer badu, beti emakumezkoa iritsiko da berandu (lanean). Emakumezkoak gehiago arduratzen dira seme-alabez, hori halaxe da".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

(26) Op. Cit (1992)

"Emakumezko langileak problematikoagoak dira gizonezko langileak baino, nahiz eta lana hobeto egin".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Emakumezko askok lana uzten dute seme-alabak izandakoan eta hori halaxe da".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

*"Nik uste dut aurrera begira egiten dutela (neskarik ez kontratatzea); ez haurdunaldiak baka-
rrik, seme-alabak izateak zer dakarren ere kontuan izanda. Lehen berandu arte geratzen
bazinen lanean, orain seme-alaba duzu eta nahiz eta besteren batek zaindu, etxera joan
behar duzu, pentsamolde horixe dugulako, batez ere seme-alaba txikia bada, eta gure
buruari esaten diogu ezin dugula hainbeste gauzaz arduratu, medikua... Aurrera begira egi-
ten dute (enpresaburuek)".*

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

*"Lanak aparteko orduak edo bestelakoak eskatzen baditu, egia da emakumezkoak lotuago
daudela, etxera iristeko irrikatzen egoten dira, umeengana joateko. Gizonezkoak, oster-
a, lanean gelditzen dira, zeren, azken finean, emaztea etxean baitago".*

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

Edurne Uriartek(27) bete-betean asmatu zuen honakoa adierazterakoan: gizonezkoek eta emakumezkoek esan zutela etxeko eginbeharrek eragin negatiboa dutela emakumezkoen lanbide sustapenean. Izan ere, gizonezko eta emakumezkoen %15ek uste dute eragin negatiboa dutela eta %45ek eragin handia dutela.

Gure kasuan, harrigarria da ondorengo hau egiaztatzea: gazteak gai direla emakumezkoen egoera (lana versus amatasuna dialektika) gordintasun eta zehaztasun osoz deskribatzeko, hau da, babesik ezeko egoera, bidegabekeria, diskriminazio argia, eta hala ere, ez dira gai ageriko desorekak zalantzan jartzeko.

Senar-emazteei edo bikoteari buruz hitz egin dugu, amatasunari buruz eta amatasunaren eguneroko jarduteari buruz. Elementu horiek emakumezkoak diskriminatzeko iturritzat identifikatzen dituzte, batez ere etxearen esparruan desorekak daudelako, eta horiek lan esparrura eramaten dituztelako desorekak.

Gazteek segurutzat jotzen dute etxeko ardura gehienak emakumezkoen esku daudela eta, ondorioz, traba gehiago dituzte lanpostuak lortzeko, eta badirudi enpresaburuak (gizonez-koak) dezente balioesten dituela emakumezkoen desabantailak. Beraz, gazteek, egoera horretan, justifikatu egiten dute nolabait lan merkatuaren banantze mekanismoak, eta horrela, zailagoa egiten dute emakumezkoek lan merkatura sartzerakoan dituzten trabak salatzea.

Mutilen jokabidea anbigua da, ez dakite oso ondo zein jarrera hartu. Alde batetik, honela-koak adierazten dituzte: "gauzak horrela daude, zer egingo diogu, aldatzen ez diren bitarte-

(27) Op. Cit (1994)

an, halaxe jarraitu beharko dugu"; bestetik, badirudi traba horiekin ados daudela, eta hone-lakoak adierazten dituzte: "sentitzen dut, baina gu errentagarriagoak gara; beraz, ondo iru-ditzen zait gu hartzea".

Egia esateko, ondorengo suposizio hau da nagusi, nahiz eta argi ez adierazi: mutilak, lan merkatu sartzeko eta gero, bertan egongo dira bizitza osoan. Zati egonkorra izango dira lan merkatuarentzat. Gainera, merkatuak badaki mutilen bilakaera eta bizitzaren ardatza lan inguruan gertatzen direla. Bikotea izan dezakete ala ez, seme-alabak izan ditzakete ala ez, baina mutilek beti izango dute lana. Eta lana lortzen dutenetik ez dute inoiz lan merkatua utziko, honek eurak bota arte. Gizonezkoen bizitza lanaren inguruan garatzen da.

Emakumezkoak, aitzitik, ez dira hain egonkorak lan merkatuarentzat. Eta ez dira egonko-rrak seme-alabengatik batez ere. Bikotea izateak edo ez izateak ez ditu arazoak eragiten lan merkatuan, baina seme-alabak izateak hankaz gora jartzen du ezarritako ordena: arazoak amatasun bajarekin batera hasten dira, baina larriagoak izan daitezke. Emakumezkoek lana utzi edo arduraldia murrizten dute zenbaitetan, eta hori ez zaio lan merkatuari gustatzen. Izan ere, emakumezkoen bizi proiektua ez da lanera mugatzen, ez da gizonezkoena bezain egonkorra eta/edo aurreikusteko modukoa. Eta lan merkatua ez dago ohituta egonkortasun, ardura eta aurreikuspen falta horretara eta ez zaio gustatzen. Eta hortik sortzen dira ema-kumezkoak lan merkatu sartzeari jartzen zaizkion trabetako batzuk.

d) **Fisikoa:** EAEko neskak ustezko gutxiagotasun fisikoagatik (indarra) ere diskriminatzen dituzte lan merkatu sartzeko orduan. Gai horrek nesken aukerak murrizten ditu lan jakin batzuk egiteari dagokionez. Arrazoi hori ere behin eta berriz errepikatzen da lan merkatuan, eta mutilek eta neskek hitzez adierazten dute, nahiz eta funtsezko aldeak egon.

EAEko mutilek ez dituzte fisiko edo indarragatiko diskriminazioak argi eta garbi kritikatzeko (salbuespen batzuk izan ezik) eta, zenbaitetan, diskriminazio hori justifikatuta dagoela ema-ten dute aditzera. EAEko neskak, oster, isilik eta pentsakor egoten dira. Badirudi, barru-barruan, bat datozela arrazoi horiekin, hots, bat datozela lan merkatuak lan batzuetan dis-kriminatzeke erabiltzen duen arrazoiarekin, eta ez dute ezer esaten, ez dutelako bestelako argudiorik. Antza denez, neskek ere ez dute uste desoreka egoera denik; aitzitik, emaku-mezkoek lan batzuen aurrean duten desabantaila baino ez dela pentsatzen dute. Ez dute erreferentziarik egoera hori desorekatua dela ikusteko. Ezta gizonezkoek ere. Ondorioz, egoera agerian geratzen da, baina ez da desoreka iturritzat jotzen.

"Nik ezagutzen dut gai hori, bizitzea egokitu zaidalako; jendea nola kontratatzen duten ikusi dut, eta emakumezkoak, lan fisikoak direnean, baztertu egiten dituzte. Hori egia da".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Lan fisikoetan aldeak daude, alde ikaragarriak. Administrazio edo jendaurreko lanetan izan ezik, izugarritzko diskriminazioa dagoela uste dut".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Lan fisikoak egiteko ez dute emakumezkoen hartu nahi".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Mutilak gauza batzuetarako gai gara eta neskak beste batzuetarako. Esate baterako, emakumezkoak kamioiak deskargatzen... ez".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Badira desberdintasunak; emakumezkoek, agian, ezin dute gizonezkoen lana egin, indar fisikoagatik".

(Esplorazio bilera, 15-18 urte).

e) **Estetika:** diskriminazio egoerak sortzen dituen azken elementua estetika da; hori ere askotan errepikatzen da pertsonen lan jakin batzuetarako oztopoak jartzeko orduan, hautagaien fisiko edo itxurari loturiko irizpideak finkatu diren lanetarako, alegia.

Nahiz eta alderdi horrek bai mutilen eta bai nesken diskriminazioa eragin ahal izan, benetan neskek jasaten dituzte kalterik handienak eta eurak bizi izaten dituzte desoreka egoerarik gehien. Horrela, emakumezkoek iragazki bat gehiago pasatu behar izaten dute lan merkatura sartu ahal izateko, gizonezko gehienek pasatu behar ez duten iragazkia.

"Jendaurrean egoteko itxura ona izan behar dute neskek".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Niri, adibidez, itzultzaile lana egiteko, curriculumarekin argazkia bidaltzeko eskatu didate".

(Emakumezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Eta lan eskaintzaren batean neurriak eskatzen zituzten. Eta nire lagunek (neskak) neurriak bidali dituzte curriculumetan".

(Emakumezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Nik lan egiten dudan egunkariko sailean praktikak egitera neskaren bat etortzea nahi zuten eta gainera ederra izatea".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"(Elkarrizketetara) Minigonarekin joanez gero, puntu gehiago emango dizkizute".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Kanarietako orkestretako nire lanei dagokienez, neskak kontratatzen zituztela ikusi dut eta ederrak izatea eskatzen dute".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Edozein dendarara sartu eta neska guztiak ederrak dira, saltzaile guzti-guztiak".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Ni nagusia banintz eta hiru lan elkarrizketa izanez gero, bi mutil eta neska bat, hiruretan gaitasun berberak ikusten baditut, baina neska oso ederra bada...".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Enpresa batean argazkiarengatik hartzen zintuzten. Eta, zoritxarrez, argazkian gaizki agertuz gero, deitu ere ez zizuten egingo".

(Emakumezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Eta bulegoan lan egiten duzunean, argazkiarekin, ea nor den ederrena".

(Emakumezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Jendaurrean aritzeko, fisikoa garrantzitsua da gizonezkoen kasuan eta emakumezkoen kasuan, baina emakumezkoen kasuan askoz ere garrantzitsuagoa".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

EAEko nesken diskurtsoak frustrazio kutsua dauka, etsipenezkoa, eutsitako haserrea nola bait. Ez zaie gustatzen "missen" lehiaketa zaharraren moduan tratatzea. Ez zaie gustatzen, baina ez dute jarrera beligerantea argi adierazten: diskriminazio egoera hautematen dute, baina berotu gabe kontatzen dute, etsipenez.

EAEko mutilek oso bestelako jarrera dute. Hasteko, badirudi emakumezkoen egoeraz ohartzen direla eta lanpostua lortzeko beste oztopo honetaz ere bai. Baina kritikatu eta iraindu beharrean, bere horretan iraunarazteko arrazoiak bilatzen dituzte eta justifikatu egiten dute fisikoa iragazki gisa erabiltzea emakumezkoen kasuan. Aurkitzen duten zurigarria jendaurrean egiten diren lanpostuei buruzkoa da. Baina beste arlo batzuetara ere zabaltzen dute, arrazoi nabarmenik gabe. Egia esateko, EAEko gazteek, oro har, ez dute zalantzan jaritzen desoreka hori.

Lan merkatura sartzeko garai hau (hezkuntza garaiko gehigarririk gabe) lan eremuko oztopoen adibide garbia da, hau da, lan eremuak emakumezkoek bertara sartzeko saihesteko jarritzen dizkien eragozpenen erakusgaia, sartzeko atzeratzeko edo, bestela, sartzen direnak iragazi eta aukeratzeko oztopoen adibide garbia.

EAEko neskek, hasteko, esaera honi aurre egin behar diote: lan eremua gizonezkoen ohiko eremua da eta argi utzi nahi dute emakumezkoak besteren eremura sartzen direla, arrotza zaien eremura. Eta gizonezkoek planteatzen ez zaizkien proba eta baldintzak bete behar dituzte. Beraz, alde batetik, argi uzten dute nork kontrolatzen duten lan eremua eta, bestetik, zein emakumezko sar daitezkeen eta zein ez hautatzen dute.

Neskek, normala denez, bazekiten etsaien munduari egin behar ziotela aurre, nahiz eta kontzienteki ez jakin. Urte askotan prestatu dira lan merkatura sartzeko galarazten dien gizonezkoen arrazoirik ez emateko: asko ikasten dute, asko dakite, espediente onak dituzte, prestatu egiten dira, alde batera uzten dute amatasuna, fisikoa orain arte inoiz ez bezala zaintzen dute, lan asko egiten dute, etab.

Oraingoan, ez dute zalantzan jarri lan eremua gizonezkoen kontrolpean dagoen. Oraingoan, eremu horretara sartzeko baino ez dute nahi. Horregatik daude kexa gutxi batzuk soilik; diskriminazio egoera batzuk salatu egiten dituzte, beste batzuk etsitako estoizismoa jasan eta beste egoera batzuen kasuan ez dute erreferentziarik kritika zehaztu ahal izateko.

Neskek, lan merkatura sartzeko lortu edo ez, portaerazko bi eredu edo eskema hauek dituzte: amaren erreferentzia klasikoa, etxeko langilea; edo, bestalde, "superwoman" izenez eza-

gutzen den eredua, etxetik kanpo lanaldi osoa eta etxe barruan beste lanaldi osoa aldi berean egiten dituenak.

Bi erreferentzia horiek balioa galdu dute. Ez datoz bat EAEko neskek eskatzen dutenarekin, eta erreferentziarik ez dutenez, zapuztuta daude, erdi etsita, haserre, nekatuta, estresatuta, hitz batez, diskriminatu egiten dituztela ikusten dute, baina ez dute tresnarik desoreka egoera guztiak identifikatu, adierazi eta salatu ahal izateko.

EAEko mutilak, berriz, zain daude. Ez zaie axola emakumezkoak lan merkatura sartzea, beti ere, eurentzako "arriskutsua" ez bada. Badakite lan eremura sartuko direla, modu batera edo bestera. Badakite neskek baino laguntza gehiago jasoko dutela. Modako diskoteka batera puntako orduan joatea bezalaxe da: nesken ilara luzea egiten da sarreran, baina mutilei ez zaie axola, nagusia ezagutzen dutelako eta sartu egingo direla dakitelako. Agian ez dute barrako edo pistako lekurik onena lortuko, barruan daudenean saiatuko dira. Baina ziur daude sartu egingo direla; ilaran dauden neskek, aldiz, ez dute ziurtasun osoa.

Mutilek badakite lan eremuko geroko demokratizazioak ez diela, oraingoz, eurei eragingo. Diskriminazio edo desabantaila egoerak, oro har, euren alde izaten dira; beraz, ez dituzte diskriminazio egoerak neskek bezala bizi izaten. EAEko mutilak ez daude oso inplikaturik, emakumezkoak lan eremura sartzeari dagokionez, gai horretatik kanpo geratzen dira. Euren barruan, agian, ondorengoak sumatzen hasi dira: emakumezkoen lan merkaturatze masiboa etxera eraman ditzakeela gatazkak. Eta hor bai eragin diezaiekeela: euren etxean, bikotearekin eta seme-alabekin.

LAN GARAIA

3.6

Beharbada lan eremuan egin da lan gehien gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunean aurrera egiteko, eta bertan lortu dira aurrerapen gehien gizonezkoen eta emakumezkoen arteko hesiak eta desorekak eraisteko. Gainera, lan eremuak ditu, ziur asko, berdintasun erreferentziarik garbienak; beraz, EAEko gazteek zenbait tresna dituzte egoera sorta zabala interpretatzeko.


Hala ere, EAEko gazteen berdintasun erreferentzia, batez ere, alderdi nabarmen eta neurgarrien ingurukoa da. Honakoak eskatzen ditu aipatutako erreferentziak: gizonezkoek eta emakumezkoek lanak elkarbanatzea, aukera berdinak izatea lanak lortzeko, soldata bera kobratzea zeregin berberak burutuz gero, jazarpenik edo bestelako abusu sexualik ez izatea, amatasuna eta ondorengo hazkuntza babestuta egotea, espazioak elkarbanatzea... Hau da, berdintasun erreferentziak, oinarri-oinarrian, zuzenbidezko berdintasuna eskatzen duela esan dezakegu, berdintasuna lan eremuan modu objektiboan hartu eta neur daitezkeen alderdietan.

Erreferentzia hori kontuan izanik, gazteak gai dira berdintasun eremuak sumatzeko eta diskriminazio egoerak antzemateko, gutxieneko baldintza horiek betetzen ez direnean.

Inork ez du berdintasun erreferentzia zalantzan jartzen lehen maila horretan. Gazteek "lane-ko jolasaren" arauak balira bezala onartu dituzte eta inork ez ditu zalantzan jartzen: bete egin behar dira arau horiek. Emakumezkoei batez ere ematen dien babes legala eta bestelako babesa direla-eta, EAEko gazteek mutilen eta nesken arteko berdintasunean aurrerapauso handiak eman direla pentsatzen dute. Gizartea, oro har, oso harro dago berdintasun "bernizeko" osagai horretaz.

Baina EAEko gazteek, neskek batez ere, bigarren mailan mutilen eta nesken artean desoreka eta diskriminazio egoerak gertatzen direla ikusten dute (askoz ere egoera argiagoak). Izan ere, "izatez" ez baitira betetzen berdintasun erreferentzia osatzen duten baldintzak. Egia esateko, gazteek ez dute uste diskriminaziorik egiten ez denik amatasuna eta seme-alaben hazkuntza direla-eta; mutilek eta neskek lanean gora egiteko aukera berberak dituztela ere ez dute uste; kasu guztietan lan berbera eginez soldata bera kobratzen denik ere ez; mutilek eta neskek lanak bereizketarik gabe egiten dituztela ere ez dute uste; benetan lanpostuen banaketa egiten dela sumatzen dute.

38. ILUSTRAZIOA Berdintasun berniza lan munduan



SEXUAREN ARABERA DESBERDINTASUNAK ETA DISKRIMINAZIOAK BEREIZTEKO ZAILTASUNAK

a) **Amatasuna eta seme-alaben hazkuntza:** Aipatu dugu amatasuna dela emakumezkoak lan merkatura sartzerakoan duten oztoporik larriena. Behin sartu eta gero, bertan jarraitu eta aurrera egin nahi badute, amatasunaren ideia burutik kendu beharko dute, gazteen adierazpenek argi utzi duten moduan. Hala ere, gaia pixka bat gehiago azpimarratu behar dugu.

"Badirudi nolabaiteko bateraezintasuna dagoela ama izatearen eta lana egitearen artean, ezta?"

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Negozioren bat izan eta gauza ondo joatea nahi baduzu, pertsona bat prestatzen duzu, bere beharreen zaude eta emakumezkoa bada, eta haurdun geratzen bada eta lau hilabetetan... zer egin behar duzu? (...) errazagoa da mutila hartzea".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Ez da haurdunaldiaren gaia (soilik); medikuarengana ere zuk joan behar duzu, nola esango dio gizonezkoak nagusiari: 'umea medikuarengana eraman behar dut', 'zure emazteak eraman dezala' eta beti emakumezkoek eskatzen dituzte baimenak umeak zaintzeko, denerako baimena".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Baina (enpresaburuek) bai galtzen dutela dirua (amatasun baja dela-eta), beste pertsona bat hartu eta prestatu behar dutelako".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

Oro har, EAEko neskek mutilek baino argiago identifikatu eta hitzez adierazten dute amatasunaren eta lan egonkorren arteko "bateraezintasuna". Nesken artean nolabaiteko nahasketa dago. Izan ere, batzuek diskriminazio egoera garbitzat jotzen dute arazoa, baina beste batzuek justifikatu egiten dute enpresaburuen jarrera.

Mutilek, oster, jarrera hotza dute, eurengan eraginik ez balu bezala. Zenbait egoerari buruz hitz egiten dute, amatasuna emakumezkoen lanbide bilakaeran oztopoa izan daitekeela adierazten dute, baina ez dute problematikari buruzko iritzia argi eta garbi ematen; egoerak deskribatu egiten dituzte, baina ez dituzte balioesten.

b) **Igoerak eta kargudunak:** badirudi gai honen inguruan gehiago sentsibilizatuta daudela EAEko gazteak, nahiz eta oraingoan ere neskek argiago izan desoreka egoerak gertatzen direla, lanean igotzeari buruz edo aginteko lanpostuak lortzeari buruz hitz egiten dugunean.

"Erantzukizun kargu gehienak gizonezkoen esku daude".

(Gizonezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"Zuzendaritza gaietan gizonezkoak baino ez daude".

(Gizonezkoa. Lan egonkorari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Nire lanbidean oso gauza tristeak gertatzen da: emakumezko asko eta asko daude, baina igotzeko eta goian egoteko orduan, gizonezkoak".

(Emakumezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Nire lanean gehienak emakumezkoak dira, baina nagusia gizonezkoa da beti".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Goieneko nagusia gizonezkoa da beti".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Tarteko mailetan emakumezko asko daude, baina goi-goian dagoena gizonezkoa da beti".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Karguak mutilek lortzen dituzte".

(Emakumezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"Presidente guztiak gizonezkoak dira".

(Emakumezkoa. Asoziazionismoari buruzko bilera).

"Nik lan egiten dudako konpainian 'fifty-fifty' gaude, gizonezkoak eta emakumezkoak, eta emakumezkoak administrariak dira guztiak eta erantzukizun postuak gizonezkoen esku daude".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Erantzukizun postu guztiak gizonezkoenak dira. Hierarkia eskalan, emakumezkoek administrazio mailan dute aginte pixka bat, eta emakumezko abokatuak zertxobait".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Oso lan finetan, hoteletan, badira neskek, baina 'maitrea' gizonezkoa izaten da".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Praktikak egitera hiru sartzen dira, adibidez, eta gero, mutila hartzen dute edo mutila hasten da igotzen".

(Emakumezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

EAEko neskek ez dute atzera egiten euren ostrazismo egoera salatu eta kexatzeko orduan. Teorian, gizonezkoek eta emakumezkoek aukera berberak dituzte lan hierarkian igotzeko, baina, errealitatea oso bestelakoa da: gizonezkoek lortzen dituzte lan munduko zuzendari-tzako goi kargu gehienak, eta emakumezkoek pixkanaka-pixkanaka uzten diete sartzen. Mutilak ere konturatzen dira horretaz, baina euren hizkera ez da hain kritikoa. Egoera berbera deskribatzen dute, baina "zer egingo diogu, ba" baino ez dute esaten. Neskek, aldiz, galdera hauek egiten dituzte: "Zergatik gertatzen da hau? Zergatik ezin dugu guk lanpostutik igo?". Neskek kritikatu egiten dute gizonezkoen korporatibismoa, lan merkatuan gurtiz

integratzeko beste oztopo bat delako. Mutilek arrazoia ematen diete gogo handirik gabe, eta ez dute inolako asmorik aldaketa estrategia posibleetan inplikatzeko.

Siadecoren(28) azterlanean aipatu zuten emakumezkoak diskriminatu egiten dituztela lan-postutik igotzeko prozesuetan. Honakoa adierazi zuten aipatutako azterlanean: lanbide igoeran enpresek kontuan hartzen dituzten oinarritzko irizpideak (antzinatasuna, libre egotea, mugikortasuna) diskriminazio eragilea direla eta lanbide igoeratik kanpo uzten dituztela emakumezkoak, oso zaila baita elementu horiek emakumezkoen lan bizitzan jasotzea.

c) **Soldata.** Berdintasun erreferentziak haxe eskatzen du: gizonezkoek eta emakumezkoek soldata bera jasotzea lan bera eginez gero. Hala ere, gazteek argi eta garbi ikusten dute hori ez dela beti gertatzen. Beti bezala, oraingoan ere, neskek jasaten dituzte zuzenago diskriminazio portaerak, desoreka kontzientzia handiagoa dute eta adierazpen kritikoenak egiten dituzte, desberdintasunak desorekatzat hartuta. Mutilek, aldiz, jarrera axolagabe eta hotzaz onartzen dituzte egoerak, eurengan inolako eraginik ez balute bezala.

"Gizonezkoei gehiago ordaintzen digute nahiz eta emakumezkoen lan berbera egin".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Lanean ibili naizenean, (emakumezkoek) soldata baxuagoa onartzen dute eta ez dakit bada..., gauza asko, eta ez dira kexatzen".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Neskei gehiago kostatzen zaie lana aurkitzea, eta gero, aurkitzen dutenean, eta hau egia da, bi lagun lan berbera egiten, emakumezkoak soldata baxuagoa: zergatik?"

(Emakumezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"(...) Eta gizonezkoei baino okerrago ordaintzen zaie, hori egia da".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Dezente gehiago esplotatzen dituzte (emakumezkoak) eta dezente gutxiago ordaintzen diete".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

EAEko neskei min ematen die mutilek baino gutxiago kobratzeak, baina badirudi sentimendu horrek, beste batekin nahastean, indarra eta sendotasuna galtzen dituela. Beste sentimendua nolabaiteko gutxiagotasuna izan daiteke, edo bestela, zuhurtasuna. Mezu subliminalak etengabe jaso eta gero, badirudi EAEko neskek honakoa barnerratu dutela: gizonezkoena den eremura sartzen direla eta gizonezkoek sartzen uzten dietela, nahiz eta beti "gogo onez" ez izan. Horrek intrusismo sentimendua eragiten die. Testuinguru horretan, nesken ustez, zuzenena antzeko soldatak jasotzea da, baina, halaber, ez dute oraindik euren gain nahikoa aginte morala hartu aipatutakoa argi eta garbi eskatzeko.

(28) Op. Cit (1996)

Siadecoren(29) azterlanean, lan berean emakumezkoek gizonezkoek baino soldata baxuagoak jasotzen dituztela salatu dute eta, gainera, gizonezkoen kasuan, arrisku faktoreztat hartzen direla hainbat egoera, eta osagarriak eta plusak jasotzen dituztela horiengatik. Isabel Sánchez Bianchik(30) ere aipatu du desoreka hori; mutilek, batez beste, neskek baino sarrera altuagoak dituztela adierazi du.

d) **Lanpostuen banaketa:** EAEko gazteen erreferentzia teorikoaren arabera, edozein pertsonak, gizonezko edo emakumezko izan, edozein lan egin dezake. Baina errealitate gordinak axioma hori benetan betetzea oso zaila dela erakusten digu. Lehendabizi, eta ikusi dugun moduan, EAEko gazteek prestakuntza eta lanbide orientazio guztiz diskriminatzailea jasotzen dutelako, nahiz eta eurek hezkuntza eta gizarte ikuspuntutik guztiz berdina dela pentsatu; gazteek uste dute orientazioa desberdina dela mutilen eta nesken artean ezau-garri natural (edo ia) bereizgarriak daudelako. Gazteen iritziz, pertsona bakoitzak, banaka, gizonezko izan edo emakumezko izan, bere borondatez aukeratzen duela prestakuntza eta lanbidea. Gure ustez, orientazioa bera akastuna da, eta horregatik, lehenik eta behin, mutilek lan batzuetara joko dute eta neskek beste batzuetara. Baina, bigarrenik, nahiz eta prestakuntza profil berdinak izan, mutilek eta neskek zeregin desberdinak egiten dituzte zenbaitetan.

"Obrako jende guztiaren artean, emakumezkoak ez. Asko jota, bulegoko proiektuetan..."

(Gizonezkoa. asoziazionismoa).

"Nire enpresan 300 bat lagun gaude eta %98 gizonezkoak gara, emakumezko bakanak idazkariak dira. Ez dago (lanpostu) desberdintasunik emakumezkoak ez dagoelako (bulegotik kanpo)".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Idazkaria (emakumezkoa) eta horrelakoekin ez dago arazorik. Bera bulegoan eta nahi duten guztia, baina eskuzko lanak egiteko, oso gaizki. Nik ikusi egin dut-eta".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Bai, badira emakumezkoak, baina bulegoan daude".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"(Emakumezkoak LHn) jardungo duzun munduan, zurgintzan, igeltserotzan, iturgintzan, denak gizonezkoen lanak omen dira, ezta?".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Lan horiek estereotipoak omen dira, ni ile apaindegi batera joaten banaiz maritxutzat hartuko naute eta emakumezko batek zurgin lana egiten badu, mari-mutila izango da. Horrela da eta urte askotan izan da horrela. Aldatuko ahal dugu!".

(Gizonezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

(29) Op. Cit (1996)

(30) Op. Cit (1994)

"Nik enpresan egiten dudana lan gizonetakoak ere egin dezakete, eta zergatik gaude 12 neska?"

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Nik ikusten badut neska batek azazkalak beltzak edo eskuak babaz beteta dituela, berak uste izango du beste guztiek mari-mutiltzat hartuko dutela"

(Gizonetakoak. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

Gauza ugari idatzi dira gai honi buruz, hau da, hezkuntza orientazio desorekatuaren ondorioz sortzen den eta gazteek hautematen ez duten lan diskriminazioari buruz:

- Edurne Uriartek (1994) gaia azpimarratu du: azterlana egin zuen unean, emakumezkoak zuzendaritza langileen %9 eta goi mailako teknikari eta profesionalen %36 ziren. Beste zenbait lanbidetan, ordea, gehienak emakumezkoak dira, hala nola, administrari laguntzaileak, merkatariak, saltzaileak eta zerbitzuetako langileak.
- Siadecoren(31) azterlanak ondorengoa jakinarazi digu: neskek tradizionalki emakumezkoenak izan diren arloetara jotzen dutela, eta gizonetakoaren arloetara jotzen badute, kritikatuak izateaz gain, gero, agian, ezin izango dute lan merkatura sartu.
- Ainhoa Castellsek(32), bestalde, generoagatiko lan sailkatzea azpimarratu du. Honakoa salatu du: emakumezkoek argiketari izan nahi badute, kosta egingo zaiela, baina gizonetakoek ere kosta egingo zaiela, harreman publikoen arloan lana egin nahi izanez gero.

Azaldu ditugun lehenengo bi maila horietan (zuzenbidezko maila eta izatezko desoreken maila), gazteek erreferentzia garbia dute hainbat egoera juzgatu ahal izateko eta egoera horiek desorekak eragiten dituzten argitzeko. Esan dugu EAEko neskek agertu dutela sentsibiltate handiagoa; izan ere, kontsultatu ditugun genero adituen arabera, neskek "betaurrekoak" dituzte desorekak eta diskriminazioak hobeto ikusteko. Baina mutilek ere nolabaiteko sentsibiltatea azaldu dute. Salaketa hori, edonola ere, egin daiteke, desorekak ezagutarazten laguntzen dieten erreferentziak dituztelako.

Baina desoreken hirugarren maila antzeman dugu eta ez dago erreferentziarik desoreka horietarako, ez dago "betaurrekorik". Askoz ere eremu ilunagoa da guztiontzat, mutilentzat batez ere. Izan ere, neskek abantaila bat dute, nolabait esateko: zuzenean bizi dituztela desorekak eta horrek euren sentsibiltatea zorrozten du. Edonola ere, EAEko neskek diskriminazio egoerak antzeman, sumatu, hautematen dituzte, baina ez dakite oso ondo nola azaldu behar dituzten, hitzez nola adierazi, zein izen eman, eta azken finean, haserretu egiten dira.

EAEko mutilek ez dute erreferentziarik eta ez dute inplikatzeko gogo handirik; ez dira hain sentikorrak diskriminazio egoera horien aurrean. Beste erreferentzia batzuk behar dituzte, diskriminazio egoerak behar bezala interpretatu ahal izateko.

(31) Op. Cit (1996)

(32) Op. Cit (2000)

Hirugarren maila horretan, lau alderdi aipatuko ditugu, lan eremuko ezkutuko desorekak hobeto ezagutzen lagunduko diguten alderdiak, alegia. Lan munduaren alderdirik ilunenean sartuko gara, diskriminazio egoera ugari gertatzen baitira bertan, eta ez dago inolako erreferentziarik horiei muga jartzeko.

a) **Lan kultura:** lan eremua soilik gizonezkoen esku egon da duela urte gutxi arte. Etxe eremua, berriz, emakumezkoen esku egon da. Gizonezkoen eta emakumezkoen hezkuntza etorkizunean egingo zituzten zereginetara bideratuta zegoen. Badirudi pleistozenoari buruz ari garela, baina 30, 40 eta 50eko hamarkadetan EAEko gazteek jaso zuten hezkuntzari buruz ari gara. Ez da hainbeste denbora igaro.

Gizonezkoak zenbait gaitasun eskuratzeko prestatzen zituzten, eurei egokitutako zereginetan arrakasta izateko, edo gutxienez, onik ateratzeko: lan egitea, dirua irabaztea, familiaren euskarri izatea eta agintea euren esku izatea familiaren barruan. Emakumezkoak ere presatu egiten ziren aurrerago egin beharreko zereginetarako: seme-alabak izan, horiek hazi, seme-alabei entzun, kontsolatu, lagundu, zaindu, senarraren nahiak bete (baita hitzez adierazi gabekoak ere), familiako giroaz arduratu, etxeko lanak behar bezala egin eta etxeko ekonomia behar bezala zaindu. Oso erreferentzia garbiak zituzten bai gizonezkoek, bai emakumezkoek; erreferentzia osagarriak baina baztertzailak, elkarren artean tirabirarik ez sortzeko modukoak.

Banaketa desorekatu horretan, gizonezkoek eremu publiko osoa (lan eremua) eta eremu pribatuaren parte bat (agintea eta azken erabakiak) hartzen zituzten euren esku.

Emakumezkoak etxe eremuan sartu eta gero, lan eremua gizonezkoen erreferentziako ezaugarrien arabera diseinatu eta antolatu zuten bereziki. Egoera horren ondorioz garatu da, batez ere, gizonezkoen lan kultura deitutakoa.

"Jaun eta damaren tratuak mintzen ninduen".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"50 urtekoek neskei aulkia hurbiltzen diete".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Ezkonduta egonez gero... soldata bat baduzula pentsatzen dute, mutila eta neska izanez gero, (lana) mutilari ematen zioten, familiako burua direla pentsatzen baita oraindik ere".

(Emakumezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Enpresa egitura? Matxista da, nik baietz uste dut".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Niri zera gertatu zait, praktikak egiten ibili eta nagusiarekin egon eta berak esatea, adibidez, 'honek (neska) behar duena da norbaitek berarekin larrua jotzea' eta nik begiratu eta 'bai, egia da' esatea".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Enpresako postu garrantzitsuetan, mutilarekin trago batzuk hartzera joaten zara eta putxe batera joaten bazara, ongi, baina neskaren kasuan, zer dela-eta eraman behar dira beste leku batzuetara?"

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Gizonezkoa ondo dago bere mundua delako, oraindik ere bere mundua da (lan eremua)".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Emakumezkoak lan mundura sartzea oparia dela dirudi".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Eta ezin duzu tirantedun kamiseta jantzi, esango dizutenaren beldurrez, pertsona ahula zarela pentsatzen dutelako eta nagusiek ez dute lanpostu horretako (geologoa) emakumezko bat nahi, gizonezko langileak aztoratu egingo dituzula esaten dutelako".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Nirean badaude desberdintasunak gizonezkoen eta emakumezkoen artean, ez dutelako nahi emakumezkoen agintzea eta emakumezkoek gizonezkoen izaera gogorrik ez dutela uste dute".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Behe mailako gizonezko langileek gogoz kontra onartuko lukete emakumezko nagusia edukitzea".

(Gizonezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Gaizki ikusita dago nagusia neskekin bazkaltzera joatea".

(Emakumezkoa. Langabeziari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Oraingo jendea taldean lan egiten hasi da eta jende asko ez da moldatzen, nahiago du... egin hau edo bestea".

(Emakumezkoa. Lan egonkorrari buruzko bilera, 20-30 urte).

"Emakumezko izateagatik soilik gutxien dituzte".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 25-20 urte).

Lan eremua gizonezkoen mundutzat hartzen da inplizituki. Antza denez, gizonezkoek utzi egingo diete emakumezkoen parte hartzen, baina inork ez du egitura aldatzeaz hitz egin, hots, gizonezkoen argi eta garbi on egin eta emakumezkoen oztupoak jartzen dizkien egitura aldatzeaz. Kasu honetan, adierazpenak, oro har, hain kritikoak ez direla ikusi dugu; ez dute garbi zalantzan jartzen lan mundua gizonezkoen eskuratu izana. EAEko mutilen eta nesken jarrera antzekoa da kasu honetan: urrutzea, berotasuna galtzea, etsitzea, aldatu ezin den gertakaria deskribatzea.

b) Korporatibismoa eta Etsaitasuna: ez dugu aurretik aipatutako eta azaldutako gaien sakonduko, baina hemen berriro helduko diogu, ezkutuko desoreken hirugarren mailan ere

agertzen direlako. Emakumezkoak lan eremura sartzearen berehalako ondorioa da. EAEko mutilek II. Mundu Gerrako kolaborazionisten antzeko jarrera hartu dute. Ez daude erabat ados lan eremuko funtzionamenduarekin, baina ez dute bestelako erreferentziarik, klasikoaz aparte: gizonezkoa bizitza osoan lan eremuan jardutea, nortasun propioa garatuz eta zehaztuz. Ez dituzte zalantzan jartzen desorekak eta diskriminazioak eragiten dituzten egoerak, baina txalotu ere ez dituzte egiten. Badirudi mutilen araua euren goikoei, gizonezkoak noski, "obedientzia zor izatea" dela, lan munduan eta baita lanbide munduan ere.

Argi adierazi gabe, gizonezkoen mundu horrek iraunarazi nahi du eta ezkutuko korporatibismoa da adierazgarririk garbiena. Emakumezkoengandik babesteko, zenbait mekanismo sortzen ditu lan inguruneak berak, emakumezkoen sarrera oztopatu eta moteltzen duten mekanismoak, alegia; horietako asko ikusi ditugu jada, lan merkatura sartzeari buruz hitz egin dugunean.

Nahiz eta EAEko neskek zehaztasunez ez adierazi, etsaitasun kutsua sumatzen da giroan: neskak egoteak aldatu egiten du lan munduko oreka, edo ez dituzte neskak gogo onez onartzen, edo zerbait falta izaten da eurekin harremanak izateko orduan... Zerbait bitxia gertatzen da: badirudi gizarte mailan emakumezkoek exijitu egiten zaiela lan merkatura sartzea, eta gizonezkoek, oro har, eta mutil gazteek, bereziki, gogo onez onartzen dutela azaldu behar dute, beste erremediorik ez dute-eta. Hau da, lehen mailako berdintasun baldintzak beteko dituzte, baina saiatu egingo dira, –hasiera batean behintzat– emakumezkoentzat ez den munduan, emakumezkoak deseroso senti daitezen.

c) **Estereotipoak eta Pertzepzioak:** mutilei eta neskei egokitutako estereotipo klasikoek funtzionatu egiten dute oraindik ere, ezkutuko egoeren maila horretan. EAEko gazteek eredu klasikoak eta horien estereotipoak dituzte, bestelako erreferentziarik ez dutelako.

Ikuspuntu horretatik, eta kapitulu honen hasieran ikusi genuen moduan, ezaugarri hauek egokitzen zaizkie neskei: saiatuagoak dira, euren buruari gehiago eskatzen diote, gehiago arduratzen dira inguruaz, ordenatuagoak dira, parte hartzea gehiago bultzatzen dute, sentikorragoak dira, harkorragoak, emozioak eta, oro har, euren inguruan gertatzen dena hobeto antzematen dute, izaeraz ahulagoak omen dira, euren gaitasunak erakutsi egin behar dituzte, gutxietsi egiten dituzte, zuhurragoak dira, etab.

Mutilei, berriz, ezaugarri hauek egokitzen zaizkie: ez dira hain saiatuak, lanetik ihesi ibiltzen dira gehiago, euren buruari gutxiago eskatzen diote, lasaiagoak dira, gutxiago arduratzen dira inguruaz, seguruagoak dira, ausartagoak, inizatiba gaitasun handiagoa dute, ez dira lotsatzen, oraina bizi dute, trebeagoak dira, etab.

Funtsean, bi deskripzio horiek bat datoz bi generoei betidanik egokitutako ezaugarriekin. Eta gazteek hasieratik justifikatu dituzte, mutilak eta neskak desberdinak direla aipatuz. Horra arte ez dago aldaketa handirik.

Baina estereotipo horiek, orain arte, gazteek erantzukizunen arloan mugitzeko zituzten erreferentziak sustatu dituzte. Orain, bizkor aldatzen ari da egoera, baina estereotipoek eta erreferentziek ez dute proportzio berean aurrera egiten. Izan ere, gazteek beste eredu batzuk behar dituzte, bizi duten errealitatearen interpretazio zehatzagoa egin ahal izateko.

Honakoak dira, berez, errealitatearen ezaugarriak: aldaketa prozesuen bizkortasuna eta aldaketa horiek eragindako nahasketa eta zalantza. Horrez gain, harreman erreferentziak zaharkituta badaude, edo gutxienez, nahikoak ez badira, nahasketa egoera areagotu egiten da eta sumindu egiten dira beste eskema batzuekin funtzionatu nahi dutenak. Horixe gertatzen da, hain zuzen ere, gure gazteen kasuan.

d) **Amatasuna eta hazkuntza:** aurretik luze hitz egin dugu gai honi buruz eta adierazpen ugari eman ditugu. Hala ere, aipatutako alderdia azpimarratu behar dugu, oso garrantzitsua baita ezkutuko desoreken hirugarren mailan.

Gazteek asko hitz egin dute gai horri buruz eta neskak, batez ere, kezkatuta daude, uste baitute amatasuna dela berdintasuna lortzeko oztoporik handiena. Eta halaxe da. Izan ere, lan egonkorra lortzeko, hainbat baldintza behar dira eta, itxura denez, baldintza horiek ez datoz bat amatasuna eta seme-alaben hazkuntzarekin.

Antza denez, seme-alabak lan egonkorra lortu aurretik izaten dituen neskak, gizartean finkatutako berdintasun irizpideei dagokienez, ez du gutxieneko kota lortuko, eta gainera, beste neskentzako oztopoa izango da, sexuen arteko benetako berdintasuna lortu ahal izateko.

Gazteen berdintasun erreferentziak amatasunarekin loturiko alderdiak hartzen ditu barne, baina lege eta/edo ekonomi ikuspuntutik soilik. Legeek eta/edo arauak babestu egiten dute emakumezkoen lanpostua haurdun geratuz gero, baina ezin dituzte beste diskriminazio egoera batzuetatik babestu. Eta hori argi eta garbi ikusi dugu lan merkatura sartzeko prozesuan dituzten oztopoei hitz egiterakoan.

Hirugarren maila honetan ezkutuko, diskriminazio arriskutsu batez hitz egin nahi dugu. Konturatu gabe, neskek honakoa barneratu dute: ezin dutela seme-alabarik eduki independenteak izan eta mutilekin berdintasun egoeran lan egin nahi badute. Baina ezin dute adibideren baten bidez adierazi; hainbat datu eta eszenaren bidez atera dute ondorio hori.

39. ILUSTRAZIOA Diskriminazioak lan munduan

LAN ESPAZIOA	
DISKRIMINAZIOAK	
MUTILAK	NESKAK
NESKEK BAINO SOLDATA ALTUAGOAK JASOTZEN DITUZTE LAN BERA EGINDA.	MUTILEK BAINO SOLDATA BAXUAGOAK JASOTZEN DITUZTE, LAN BERA EGINDA.
LAN TEKNIKO, TAILER, BULEGO ZUZENDARITZA, INDUSTRIAN KOKATZEN DIRA.	JENDEA HARTZEKO LANETAN, BULEGO ETA ZERBITZUETAN KOKATZEN DIRA.
LANEAN IGOTZEKO ETA ERANTZUKIZUN POSTUAK LORTZEKO ASKOZ ERE ERRAZTASUN GEHIAGO DITUZTE.	LANEAN IGOTZEKO ETA ERANTZUKIZUN POSTUAK LORTZEKO ASKOZ ERE ZAILTASUN GEHIAGO DITUZTE.
KORPORATIBISMOAN BABESTEN DIRA ETA NESKEENGANAKO LAN MUNDUAK DUEN ETSAITASUNEAN LAGUNTZEN DUTE.	LAN MUNDUKO KORPORATIBISMO ETA ETSAITASUNARI AURRE EGITEN DIETE.
ASKO BALIOESTEN DA AGINTE "BERTIKALA" ETA PERTSONALA GAUZATZEKO MUTILEN GAITASUNA.	GUTXI BALIOSTEN DA AGINTE "HORIZONTALA" ETA ERLAZIO AGINTEA GAUZATZEKO NESKEN GAITASUNA.
LANA ETA AITATASUNA ALDI BEREAN EGIN DITZAKETE.	AMATASUNARI ETA SEME-ALABEN HAZKUNTZARI UKO EGIN BEHAR IZATEN DIETE.

Lan eremuaren atal honetan azaldu ditugun gai guztiek emaitza haxe dute: gure gazteek lan munduaren aurrean duten jarrera eta zeregin horri aurre egiteko gogo aldartea; denbora asko eta ahalegin handia emango dute zeregin horretan eta euren etorkizuna eta bizi proiektua, neurri handi batean, zeregin horren arabera izango dira.

EAEko mutilak aztertuko ditugu lehenbizi. Oso gustura daude lan eremuan. Beste eremu askotan baino gusturago, batez ere afektibitatearen eremuan baino gusturago. Lan eremuan oso gustura sentitzeko prestatu, hezi eta sozializatu dituzte. Langabezi garaian lotsatiak dira, jarrera pasiboa dute, ez dute inolako iniziatibarik... Baina hori guztia goitik behera aldatzen da lan merkatura sartzen direnean. Bertara sartzeko irrikaz daude, euren mundura sartzeko. Lan munduan definituko da, funtsean, euren nortasuna. Bertan ez dira nahastuta sentitzen, ezta urduri ere. Guztiz kontrakoa, fidakor sentitzen dira, lasai, seguru, boteretsu eta ingurua menperatzen dutela sentitzen dute, emakumezkoen aurrean babesten dituen ingurua, balioesten dituen, balio izateagatik euren jarduerari diru ordaina eskaintzen dion ingurua. Lan mundua babesleku arautua, lasaia eta ezaguna da.

Diskriminazio edo desoreka egoerei dagokienez, ez dira oso trebeak horiek ikusteko, aipatutako lehen edo bigarren mailakoak izan ezik. Edonola ere, egoera horietatik nahiko urrun egoten dira, ez dira inplikitzen, gaiak euren eragingo ez balie bezala. Euren ustez, nahikoa

da emakumezkoak lan eremura sartzea eta ez dute uste gauzak gehiegi aldatu behar direnik.

Etorkizuna emakumezkoen esku egon daitekeela ikusten dute (prestakuntza, lan jarrera, pairamen... handiagoa dutelako), baina eurei ez diela eragingo sumatzen dute. Mutilak gai dira izatezko desorekak antzemateko, baina ez dira gai desoreka horiek zalantzan jartzeko, ezta portaera eta egoera jakin batzuk argi eta garbi kritikatzeko ere.

Hauxe da mutilen arazo nagusia: gizonezkoen funtzionamendu erreferentzia klasikoa baino ez dutela. Eta, noski, badakite erreferentzia horrek ez duela balio gertatu diren eta gertatuko diren aldaketei behar bezala erantzuteko. Beste eskema batzuk behar dituzte eskema klasikoak apurtzeko eta datozen aldaketak interpretatu ahal izateko, aldaketa horietako protagonistak izango direlako nahitaez.

EAEko neskek, aldiz, oso jarrera desberdina dute. Nahiz eta argi eta garbi ikusi zer gertatzen ari den, batzuetan ez dira gai izaten behar bezala adierazteko: baina hauteman egiten dute, sentitu, sumatu. Jarrera gogorra dute, gizonezkoen feudoa erasotzeko prest daude. Prestatu egin dira, asko eskatzen diote euren buruari, independenteak izan nahi dute, berdintasun egoeran lan egin nahi dute, euren puntu ahulak ezagutzen dituzte, badakite zein oztopo gainditu behar dituzten. Aldaketaren protagonistak dira, desoreka egoeratik berdintasun handiagoko egoerara bitarteko aldaketaren protagonistak, alegia.

Badakite zein egoeratan bizi diren eta, oraingoz, galtzeko arrisku guztia dutela, baina aldatu egin nahi dute egoera. Hala ere, mutilen antzeko bidegurutzear daude: portaerazko bi erreferentzia dituzte; batetik, klasikoa, amaren irudian pertsonalizatua, eta, bestetik, "superwomanen" erreferentzia, berriena. Baina kale egiten dute bi erreferentziek. Amek izan ez zuten independentzia emango dien lana nahi dute, baina ez dute nahi horrez gain familiaren erabateko erantzukizuna euren gain hartzea, "superwomanen" ereduak adierazten duen moduan. Beste erreferentzia batzuk behar dituzte, beste alternatiba batzuk izateko. Mutilek eta neskek, biek, behar dituzte eredu desberdinak, anitzak, berdintasun harremanetan oinarrituak; horiei esker, batetik, diskriminazio egoerak interpretatzen jakingo dute eta, bestetik, etxeko bizikidetzan, aisialdian eta erantzukizunen munduan beste alternatiba batzuk zabalduko dituzte.

Baina mutilek eta neskek ezaugarri komuna dute jarrera horretan: diskriminazioen aurrean duten ezintasun sentimendua. Diskriminazioen iturria eurengandik aparte, helduen munduan dagoela pentsatzeagatik sortzen zaie sentimendu hori. EAEko mutilen eta nesken ustez, berdintasunezko portaera dute euren artean, inolako diskriminaziorik gabe. Euren iritziz, ez dute inolako desorekarik sortzen, aitzitik, helduen munduak eragiten ditu desoreka egoerak.

Gazteek ez dute euren burua oraindik helduen mundu horretan ikusten; gazteak dira, ez dute lanik egiten edo lan merkatura sartu berri dira eta ez dute seme-alabarik edo duela gutxi jo dute familia osatzeko bidetik. Ez dute zerikusirik emakumezkoek jasaten dituzten diskriminazioetan. Helduen gizartearen biktimak direla adierazten dute eta eurengandik aparte, helduen gizartean, kokatzen dituzte lan eremuko desoreken egoera aldatzeko mekanismoak.

Lan munduari buruzko atal honi amaiera emateko, interesgarria da ondorengoaren inguruan gogoeta egitea: gizonezkoen lan kultura tradizionala zein indarrez agertzen den sektore batzuetan eta besteetan. Ondorengo eskeman laburbildu dugu aipatutakoa:

40. ILUSTRAZIOA Gizonezkoen tradizioa lan eremuetan



Zaila da mapa zehatz batean adieraztea zein sektore ekonomiko, lanbide, lanpostu eta abarretan den nagusi gizonezkoen kultura eta zeinetan arindu den nagusitasun hori.

Hala ere, ondorengo hau azpimarratu behar dugu: gazteek lan munduari buruz (langabeziari eta lan munduratzeari buruz ere bai) egindako adierazpenak kontuan izanik, gizonezkoen lan kultura zenbait eremutan nagusi dela esan dezakegu; gizonezkoen lan kultura aipatzean rol klasikoa adierazi nahi dugu. Aipatutako eremu guztiek ezaugarri hauek dituzte:

- Langile gehien-gehienak gizonezkoak dira eta emakumezkoak, berriz, gutxi batzuk baino ez. Kopuruari dagokionez, emakumezkoak ez dira oraindik eremu horietara heldu.
- Emakumezkoak kopuru aldetik gutxiago izateaz gain, tradizioz ere ez da emakumezko-rik egon eremu horietan.

- Gizonezkoen eta emakumezkoen estereotipo klasikoak ozta-ozta aldatu dira eta horien ezaugarriak ez dira zalantzan jarri.
- Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasun "naturalak" aipatzen dira egoera hori justifikatzeko. Bakoitzaren fisikoa (azken batean, indarra) da hizpide nagusi.
- Ondorioz, eremu horiek iragazkortasun txikiagoa, oztopo gehiago eta etsaitasun handiagoa dute emakumezkoak sartzeari dagokionez.
- Errezelo handiagoa diote aldaketei eta emakumezkoak sartzeak ekar dezakeenari.
- Oro har, diskriminazio egoerak kentzeari dagokionez, esan dezakegu eremu horiek izan dutela aldaketa gutxien.

Lan eremu horiek esku lanbide eta/edo antzeko beste lanbideekin lotuta daude, sektore industrialekin, tailer eta/edo landa inguruan eta antzekoetan burututako lanekin eta besteren konturako lanekin.

Jarraitasuntzat hartu dugunaren kontrako aldean (bestelako eremuetan) gizonezkoen lan kultura tradizionala beste balio batzuez betetzen ari da eta jarrera zaharkituak alde batera uzten ari dira.

- Langile gehienak gizonezkoak izan edo ez, emakumezkoak ez dira gutxi batzuk izaten. Heldu dira eremu horietara eta, kopuru aldetik, emakumezko dezente daude.
- Emakumezkoak ez dira oraintsu hasi eremu horietan.
- Gizonezkoen eta emakumezkoen estereotipo klasikoek ez dute aldaketa nabarmenik izan, baina zenbait ezaugarri barneratu dituzte.
- Fisikoaren gaiak (indarrak) ez du ondoriorik, nahiz eta gaia aipatu.
- Eremu horiek iragazkortasun handiagoa, oztopo gutxiago eta etsaitasun txikiagoa dute emakumezkoak sartzeari eta horrek ekartzen dituen aldaketei dagokienez.
- Errezelo gutxiago diote aldaketei eta emakumezkoak sartzeak ekartzen duenari.
- Oro har, diskriminazio egoerak kentzeari dagokionez, esan dezakegu eremu horiek izan dutela aldaketa gehien.

4

ONDORIOAK ETA PROSPEKTIBA

Ikerketak proposatutako eremu eta guneetan gazteen bizipenak eta esperientziak aztertu ondoren, txostenaren azken kapitulu honetan orain artekoa laburbildu nahi dugu. Horretarako, ikuspegi globaletik begiratu eta ondorio orokorrak aterako ditugu, orain arte adierazitakoa laburtzeko ez ezik, etorkizunera begira eztabaida pizteko eta ikerketa ildo berriak ezartzeko ere balioko dutelakoan.

Ilido horretan, datozen orrialdeotan funtsezko hiru gai nagusi jorratuko ditugu:

- A) Diskriminazio kontzeptua euskal gazteen testuingurutik eta errealitatetik ikusita.
- B) Berdintasuna lortzeko bidean gertatzen ari diren eraldaketen eta aldaketen aurrean gazteek adierazten dituzten iritziak eta jarrerak.
- C) Eta aurrekoari estu-estu lotuta, ikerketak proposatzen dituen jokaera jarraibideak eta prospektiba, batez ere bi helburu lortzera bideratuta: aldaketa prozesuan sakontzea eta berdintasun handiagoa lortzeko bidean oztupoak kentzea.

Ondoren, hiru gai horiek garatuko ditugu, eta baita horietako bakoitzarekin zerikusia duten beste hainbat elementu ere.

DISKRIMINAZIO KONTZEPTUA EUSKAL GAZTEEN TESTUINGURUTIK BEGIRATUTA ZEHAZTEA ETA ULERTZEA

4.1

Behin ikerketa amaitutakoan, esan daiteke **"diskriminazio"** kontzeptua (eta, nahi izanez gero, askoz ere neutroagoa dirudien **"desberdintasun"** kontzeptua) ia ez direla aipatu ere egin gazteekin izandako elkarriketa eta talde dinamiketan. Edo, bestela esanda, esan daiteke hasieran espero zitekeen baino askoz ere gutxiago azaldu direla. **Diskriminazioa hizpide denean, badirudi gazteak ez direla eroso sentitzen**, eta horren arrazoiak aurkitzerakoan, zenbait hipotesi eman genitzake. Alde batetik, esan genezake termino hori trinkoegia dela, hau da, eduki aldetik –eta, gainera, eduki negatibotik– esanahi handikoa dela, eta, horregatik, komenigarria dela oso seguru jakitea noiz eta non erabili behar den, eta baita zertarako erabili behar den ere. Egoera jakin bat diskriminaziozkoa dela esatea segregazio ekintza begien bistan jartzea da, ekintza hori ez da izaten egiten duenaren onerako eta, gainera, ekintza bera ez da ontzat jotzen.

Ilido horretan, norbaiti diskriminazioaren eragile edo bultzatzaile dela leporatzea normalean gutxiesteko izan ohi da, eta zaila izaten da esanahi hori indargabetzea. Diskriminazioa jasaten edo jasan izan duenarentzat ere ez da egoera erraza. Diskriminazioa, beraz, ez dago behar bezain zehaztuta, zalantzazko mugak dituen eremua da, eta desberdintasuna zer den

eta zer ez den erabakitzea –gehienetan– egoera hori ikusten duenaren baitan geratzen da. Horrela, diskriminazio ekintza jasan duen pertsonaren salaketa oso gutxitan hartzen da aintzat.

Beraz, diskriminaziozko egoera jakin bat ezagutzera ematea eta diskriminazioaren mugak ezartzea hain zaila izanik, beharrezkoa iruditzen zaigu azken hausnarketa egitea eta talde ikertzailearen ustez diskriminazioa hitzaren esanahia zein den argitzea, eta baita gazteen unibertsoan diskriminazioa egiaztatzeko erabilitako baliabideei buruz gogoeta egitea ere. Beraz, tenorea da txostenaren sarrerako kapituluaren egindako galdera batzuei berriz ere heltzeko. Gogora dezagun, orduan, berdintasun kontzeptuaren atzean iruzurra ere egon zitekeela genioela, hau da, itxurazko parekotasunezko bernizaren azpian, desberdintasunezko edo diskriminaziozko egoerak egon daitezkeela.

Ikerketan zehar, sarritan topo egin dugu berniz horrekin, eta estaldura horren azpian zer dagoen jakiteko askotan murgil egin behar izan dugu hainbat elementu, egoera eta zirkunstantzia antzemateko, horiek guztiek, mutil eta nesken arteko diferentziez haraindi, mutil eta neska horiek desberdintasunezko eta diskriminaziozko eremuan jartzen baititu. Murgiltze horretan teknika eta taktika bereziak erabili behar izan ditugu gazteen bizipen eta esperientzia pertsonalak ezagutzeko, gazteen bizitzak, sentimenduak, pentsamenduak eta iritziak arakatzeko. Ibilera luzeko eginkizuna da, zeren ikertzaileak bi norabidetan lan egin behar baitu, gutxienez:

A) Alde batetik, gaztearen ibilbide biografikoa ezagutzea.

B) Bestetik, gaztearen eguneroko bizitza osatzen duten alor eta eremuak aztertzea.

Intentsitate/sakontasun eta hedadura/zabaltasun arteko bateratze horri esker, hain zuzen ere, osatu ahal izan dugu diskriminazioaren gutxieneko definizioa, eta behin hori eginda, optimistegia zen sexuen arteko berdintasun diskurtsoa (hau da, berniza) pitzatu eta azpikoa agerian utzi ahal izan dugu. Beraz, diskriminazioa aztertzeko ezinbesteko baldintza da "intentsitate eta zabaltasun" ikuspegi hori, eta hiru osagai nagusitan oinarrituta dago:

A) Alde batetik, **gazteen bizipen eta esperientziak zehaztasunez eta sakonki aztertzea**. Azterketa horrek emaitza onak izan ditzan, ezinbestekoa da une eta gune aproposak bilatzea, hau da, gazteen izaerarekin eta bizimoduarekin bat datozen egoerak, lagun eta konplize aproposak topatzea. Laburbilduz, ezinbestekoa da tratamendu berezia, berariazkoa gazteekin harremanetan jartzeko. Hori izan da ikerketaren xedea, eta helburu horretatik abiatuta lortu den materialaren balorazioa oso positiboa da. Gazteekin izandako harremanetan jasotako irudiak eta sentsazioak oso argigarriak eta esanguratsuak izan dira; horrela, harreman horiei esker diferentzia zer den eta desberdintasuna edo diskriminazioa zer den bereizten "ausartuko" gara.

Eginkizun horretan ezinbestekoa izango da irmotasuna, edozein ikerketatan bezala, berdintasun iruzurtia, hau da, ikusten ez den diskriminazioa, agerian jarri nahi baldin bada, behintzat. Diskriminazioaren funtzionamendu konplexua eta gaur egun erabiltzen dituen mekanismo zoliak ezaguturik, eginkizun horretan beharrezkoa izango da beti "atzerakako" estrategiari jarraitu eta abiapuntura jotzea, egoeraren jatorrira begiratzea. Behin hori egindakoa, ikuspegi horri esker ustez berdintasunezko egoerak direnak diskriminaziozko maniobrak direla konturatu gara; egoeren hasierara itzulita baino ezingo dugu neurtu hainbeste alda-

rrikatzen diren berdintasunezko egoeretan ea benetan parekotasun elementuak dauden edo ez diren irudipen hutsak; hau da, zenbateraino ez diren ameskeriak eta egoera horien barruan ez dauden balio eta estereotipo tradizionalen errepikapenaren dinamika sorrarazten duten gailuak, hots, gizarte inertzia areagotzen duten tresnak.

Ikerketa honi dagokionez, gazteak eurak arduratu dira atzera begiratze lan horretaz, hau da, euren eguneroko bizimoduko egoera askoren jatorria aztertzeaz. Hasiera batean, uste zuten egunerokotasun hori erabateko parekotasunezkoa zela, hots, bi sexuen artean erabateko berdintasuna zegoela. Alabaina, eztabaidaren eta talde hausnarketaren ondoren, gazteek –euren harridurarako– mutil eta neskak bereizten dituzten diferentziak aipatzen hasi ziren. Egia da, bai, askotan ez zirela aurrerago joan, alegia, mutilak eta neskak bereizten dituzten ezaugarriak adierazte hutsean geratu direla; baina egia da, baita ere, sarritan hausnarketa eta kritika urrutirago joan zirela eta diskriminaziozko egoerak –gehienetan nesken kalterako– adierazten zituzten arrastoak eta giltzak hauteman zituztela.

Orain konturatzen dira, hain zuzen, guztiak diskriminaziorik gabeko hezkuntza sisteman sartzen badira ere, mutilek eta neskek prestakuntza alternatiba desberdinak aukeratzen dituztela eta gero, lan mundura iritsitakoan, ikasketa horiek neskak eta mutilak leku desberdinetan jartzen dituztela, gehienetan mutilek neskek baino aukera gehiago eta hobeak dituztela. Orduan ohartzen dira badagoela "zerbait" –gizartea dela uste dute gehienek– mutilei eta neskei esaten diena zer ikasi behar duten, edo bestela esanda, mutil edo neska izanik, zer ikastea komeni zaien.

Orduan konturatzen dira nesken eta mutilen artean hainbat alorretan (kirola egitean edo jolas jardueretan, adibidez) ustez zegoen berdintasuna kolokan dagoela, praktikan ageri diren desberdintasunak direla medio, eta praktikan neskek protagonismo eta aintzatespen txikiagoak dituztela aipatutako bi eremuotan. Edo, baita ere, euren bikotekidearekin etxeko lanen berdintasunezko banaketa negoziatzerakoan, estereotipo eta tradiziozko erreferente astun eta larriak ageri direla eta eragotzi egiten dutela benetako parekotasun harremana gauzatzea.

Ikerketa egiterakoan kontuan izan ditugu hausnarketa, irudi eta bizipen horiek, eta, horiei guztiei esker, gauzak argiago ikusi ahal izan ditugu; alegia, **agerian geratu da diferentziak noiz ziren aniztasunaren eta heterogeneitatearen ondoriozkoak; eta, aitzitik, noiz ziren gaur egungo genero sistema eta sexu diskriminazioa errepikatzeko joera zutenak.**

B) Diskriminaziozko hainbat egoeraren inguruan gazteek adierazi dituzten bizipenez eta esperientziez gain, ikerketan beste elementu bat erabili dugu gazteen diskriminaziozko kontzeptuaren ikuspegi eta definizio berezia zehazteko. Horretarako ere oso baliagarria eta onuragarria da atzera begiratzea edo egoera jakin baten jatorria bilatzea, baina ez zerbait zehatzaren motibazioa aurkitzeko, baizik eta **edozein gazteren biografia osatzen duten ekintzen eta jardueren segidak nolako bilakaera edo ibilbidea izan duten argitzeko.** Segida hori zehaztasun handiz aztertu beharra dago, berdintasuna/desberdintasuna errazten duten elementuak zein diren jakiteko arrasto ugari eta baliotsuak eman baititzake, eta, halaber, balio baitezake hainbat eremutan bizitako diskriminaziozko egoerak kateatzen dituzten mekanismo eta erak hobeto ulertzeko; izan ere, biografia hori aztertuta hainbat desberdintasun egoera eta esperientzia ikusi ahal izango baititugu.

ibilbide biografiko honen abiapuntua nerabezaroa da –gazteek 15 urte inguru dituztenean– eta gutxi gorabehera 30 urte betetakoan amaitzen da; denboraldi luze horretan datu ugari jasotzen dira berdintasunaren eta desberdintasunaren genealogia antzeko bat egiteko. Ildo horretan, oso deigarria da gazte horien ikuspegi, diskurtso eta bizipenak alderatzea, batez ere gazteenenak eta zaharrenenak, eta ikuspegi horretatik, zera atera dezakegu ondorio nagusi gisa: **helduen esku dauden guneetara iritsi ahala, desberdintasun handiagoak hautematen direla.**

Horrela, hamabost urteko gazteek euren gunea berdintasun gunetzat jotzen dute, ia guztiek, gainera. Euren eguneroko eremuetan eta batik bat garrantzi handien duten esperientzietan eta eginkizunetan, ordea, desberdintasuna oso ondo ezkutatuta ageri da, bai gaur egun berdintasun objektiboko guneak direlako (adibidez, hezkuntza arloa, mutil zein neskek berdin-berdin sar baitaitezke bertan), bai berdintasun berniz geruza oso eraginkorra delako eta ustez oso zaila delako gune horretan desberdintasunik egotea. Azken gune mota horren adibide garbia aisialdia da eta ez da inolako hausnarketarik egiten genero sistemak zenbaterainoko ondorioak eragiten dituen gazteen jardura eremu garrantzitsu horretan.

Alabaina, badirudi adinean eta ibilbide biografikoan aurrera egin ahala, euren eskarmentuak eta beste gune batzuetara iristeak baliabideak ematen dizkietela desberdintasunak argiago ikusi ahal izateko. Ikuspegi hori, ordea, helduek antolatutako eta zuzendutako egituretan sartzearekin lotzen dute gazteek. Horren adibide garbiena lan munduan sartzea da. Gazteek, karrera profesionalerako prozesuan, batzuetan bide konplexuak eta bidegabekeria ugari topatzen dituzte, eta badirudi bideko gorabehera eta oztopo horiek gaitu egiten dituztela ekintza bidegabeak eta desagokiak antzemateko. Sentikortasun hori, gainera, askoz ere gehiago garatzen dute neskek, sentiberagoak baitira desberdintasun eta diskriminazioarekiko.

Biografietako beste une bereziki interesgarri bat bikotekidea egin eta loturak estutzeko unea da. Izan ere, horretarako tenorea iritsirik, gehienetan aldaketa handiak izaten baitira mutil zein nesken buruko eskemetan eta jokabideetan, batez ere helduen munduko hainbat rol eta jarraibide hartu behar dituztelako. Harremana estututakoan, gune sinboliko, harremanezko eta fisiko batera –euren etxebizitza lortu nahia– iristen dira, hainbat arau, rol eta gizarte itxaropenenez mugatua. Testuinguru horretan, berriz ere "ezarritako" eredu eta erreferenteak topatzen dituzte eta zaila egiten zaie horiei aurre egitea. Behin eta berriz aipatzen dute oztopo hori; horrela, gazteek **uste dute gizartea dela euren bizitzetako eskema zurrunen erantzule nagusia: *gizartea horrelaxe dago eginda*.** Euren harreman estu-estuenetan ere tartean sartzen da gizartea. Arduren banaketan ere muturra sartzen bide du gizarteak: emakumezkoak etxeaz eta gauza pribatuez ardura daitezela eta gizonezkoak gai publikoez eta lan eremuaz. Gaur egun ere, gizartearen agindu horiek eragin handia dute bikotekide gazteen harremanetan eta elkarbizitzan.

Gazteen eremu gisa definitutakotik zenbat eta urrunago, orduan eta muga nabarmenagoak ezartzen dizkie gizarteak. Baina argudio hori aztertzerakoan, ezin dugu ahaztu ifrentzua: sarri askotan gazteak ez direla gauza berdintasunaren erronkari aurre egiteko, edo jarrera hori konformismoaren ondoriozkoa dela, batzuetan hori egitea baita erosoena. Jarrera hori sakonago aztertuko dugu aurrerago, diskriminazioaren aurrean gazteek duten jarrera aztertzeko dugunean.

Beraz, ondorio gisa, azpimarra dezagun gazteen izaera biografikoa osatuz baliabide aproposak ditugula eskura gazteen kontuak hobeto ulertzeko. Izan ere, sarritan ez baita erraza izaten gazte mundu hori behar bezala ulertzea, maiz puzzle antzeko bat osatu behar izaten delako, gazte mundua izaera heterogeneokoa, anitza eta aldi berean aldakorra delako.

C) Diskriminazio kontzeptua argitzerakoan ikerketan erabilitako hirugarren estrategia hau-
xe izan da: **gazteek euren jardueretarako, eginkizunetarako, harremanetarako eta abar-
rerako erabiltzen dituzten eremuak ikuspegi dimentsioanitzetik eta poliedrikotik
aztertzea**. Taktika horren bidez ikuspegi konplexua jartzen da agerian: pieza guztiak elka-
rrekin lotuta daude ibilbide, zubi edo korridoreak direla medio eta horietatik berdintasun
zein desberdintasun elementuak ibiltzen dira atzera-aurrera. Mapa konplexu horren disei-
nuaren birtualtasuna zera da: genero sistemaren funtzionamenduaren ikuspegi orokorra
islatzeko gaitasuna eta bestela antzematen zailak izango liratekeen diskriminazio edo des-
berdintasun egoerak ezagutaraztea.

Ibilbide biografikoan bezala, gazteen bizitzaosatzen duten gizarteko eremu desberdinen
arteko harremanen eta loturen sarea ikuspegi orokorretik aztertuta, errazago ikusten dira
hainbat elementu, gerta baitaiteke alderdi jakin bat aztertzerakoan elementu asko ezkutuan
geratzea eta ez ikustea. Hain zuzen ere, aipatutako erlazio horretatik begiratuta, diskrimi-
nazioaren azterketak oso nabardura aberatsak erakusten ditu. Biografi azterketaren kasuan,
abiapuntuak eta helmugak segidek elkartzen zituztela genioen; behaketa dimentsioanitzen
kasuan, berriz, oso argigarria izan liteke puzzlearen irudia hartzea. Izan ere, puzzleetan beza-
la, pieza guztiak behar bezala elkartu ezean, oso zaila egingo zaigu diskriminazioaren irudia
bere osotasunean ikustea.


Estrategia horri jarraiki, errazago ulertzen da nola sortzen diren zenbait eremutan desber-
dintasun batzuk, edo desberdintasun horiek itxura desberdina hartzen dutela, aldatu egiten
direla eremu batetik bestera iragatean. Ildo horretan, neska askok hezkuntza alorrean jasan
beharreko desberdintasun ugari ulertzeko, derrigorrez familiak neska horiengan dituzten
itxaropenak aztertu beharko ditugu lehenengo, eta berdin eragingo du faktore horrek nes-
kek jolas jardueretan dituzten jarraibideetan, egin nahi duten kirola aukeratzeko eta
abar. Halaber, emakume gazte askok lan eremuan eta karrera profesionalean hartzen dituz-
ten jarrera asko eta askotan eragin izugarria dute bikotekidearekin lortutako akordioek, edo
zenbait gaitan –adibidez, amatasunean– dauzkaten asmoek.

Ikuspegi orokor hori gabe, eremu desberdinen eta eremuotan parte hartzen duten ele-
mentuen arteko harremanak behar bezala ezagutu gabe, askoz ere zailagoa da (eta neurri
handi batean azalekoa eta sinplista ere bai) diskriminazioa edo desberdintasuna salatzea.
Horregatik, ikerketa honek uste du behaketa zabala bitarteko egokia dela, bai gazteen erre-
alitatea –hain konplexua!– ulertzeko, bai desberdintasuna aztertzeak dakarren erronka zail
eta konplexuari aurre egiteko.

Orain arte adierazitako guztia laburbiltzeko, esan dezagun hiru ardatzotan (bizipenena, bio-
grafikoa eta dimentsioanitza) egindako entseguak eta hausnarketak ekarpen erakargarria
eta aberasgarria egin dutela hainbat elementu, argudio eta giltzak aurkitu ahal izateko, hain
zuzen ere, mutil eta nesken arteko diferentzia "garbi" direnak eraldatu eta genero sistema
ekoizten eta ugalarazten duten desberdintasun bihurtzeko prozesuetan eragiten duten ele-
mentuak ulertzeko.

41. ILUSTRAZIOA Diskriminaziozko jokaerak antzemateko eta aztertzeiko ikuspegi metodologikoa

EZ DAGO DISKRIMINAZIO KONTZEPTURIK GAZTEEN DISKURTSOAN.
DISKRIMINAZIOAZ HITZ EGITEAN, GAZTEAK DESEROSO SENTITZEN DIRA.



BERDINTASUNA LORTZEKO BIDEAN ALDAKETAK ETA AURRERAPENAK: GAZTEEN IRITZIAK ETA JARRERAK

4.2

Betidanik gazteria aldaketa, iraultza eta eraldaketarekin lotu izan da. Badirudi gazteek berezko indarra dutela gizarte joera eta dinamika berriak egiteko, horietako asko pertsonen askatasun eta berdintasun handiagoak lortzearekin zerikusia dutenak. Izan ere, euskal gazteen ustez, euren aurreko helduak (normalean gurasoak, baina batzuetan aitona-amonak ere bai) gogor aritu ziren borrokan lorpen batzuen alde, besteak beste, gizon eta emakumeen artean parekotasun handiagoa egon zedin. Alor horretan, gazteek uste dute eraldaketak ikusgarriak izan direla, batez ere aldaketak zein denbora laburrean eta zenbat gizarte eremutan gertatu diren kontuan hartuta: hezkuntzan, lan munduan, etab.

Aintzatespen hori esplizitua da, baina iruditzen zaigu gazteengan indar gaizto batek bezala jokatzeko duela. Ildo horretan, esan liteke gazteek oso argi ikusten dituztela euren aurreko-

ek bultzatutako aldaketak; hain argi, non iruditzen baitzaie desberdintasuna (hots, emakumezkoak eta gizonezkoak mugatzen zituen diskriminazio tradizionala) ezabatu egin dela, disolbatu, edo leku jakin gutxi batzuetan bakanduta geratu dela. Badirudi desberdintasuna beste garai eta une historiko bateko oroigarria dela, gaur egun barruti baztertu batzuetan baino ez dagoena. Ikuspegi horretatik, sexuen arteko desberdintasun nagusi gehienak ezabaturik, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko diferentziak geratzen dira. Diferentzia horiek naturaren eta neska-mutilen izaeren ondoriozkoak dira, eta ongi gorde behar dira, gainera, harreman aberats eta emankorretarako ezinbesteko kontrastea baita: *ona da elkarren desberdinak* (diferenteak) *izatea, aberasgarria eta onuragarria da guztiontzat, gizon zein emakumeentzat*, diote bai mutilek eta bai neskek.

Oro har, diferentzia horiek naturaltasun osoz bizi dituzte gazteek. Uste dute ez direla diskriminazio egoeren ondoriozkoak eta ez dutela diskriminaziorik eragiten. Ez dituzte diferentziak kolokan jartzen, ezta kritikatzeko ere: segurutzat jotzen dituzte eta horietatik abiatuta egiten dituzte mutilen eta nesken erretratuak; horrela, neska-mutilek gizarteak ezarritako gizonezkoaren eta emakumezkoaren estereotipoei jarraitzen diete estu-estu.

Ikuspegi horrek eraginda, mutilak eta neskak diferentzietatik baztertu egiten dira, hau da, uste dute alde horiek eurak baino gehiago direla, ez daukatela ezer egiterik aldatzeko edo ez aldatzeko. Mutilek eta neskek berdintzat jotzen dituzte euren buruak eta desberdintasunak eta diskriminaziozko egoerak sortzeko, ezinbestekoa da euren borondatea baino gehiago den kanpo ekintza batek eragitea. Indar arrotz horiek gehienetan helduen mundukoak izaten dira eta indar horiek izango dira, hain zuzen ere, epe laburrera edo ertainera aldaketa motelduko dutenak: diferentziek bere horretan jarraituko dute (berdin-berdin jarraitzea nahi baitute) eta desberdintasunak edo diskriminazioak pixkanaka desagertu egingo dira.

"(Ba al dago aldatzerik?) ez, dena dago-eta, nola esango nuke... Ezin da aldatu, dena horrela dago eta kito, ezin da aldatu".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 15-18 urte).

"Nik uste dut ez dagoela desberdintasunik. Gizartearen barruan bai, baina gure artean ez".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 15-18 urte).

"Horri dagokionez, gazteok erabat menpean gaude (gizartearen menpe)".

(Gizonezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Oraindik asko daukagu egiteko, ez da egia emakumea gizonaren berdina dela. Emakumeak ari dira saiatzen, baina gizonek ez dituzte ateak irekitzen. Gazteek bai, baina helduak izan eta agintea eskuratu bitartean..."

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 18-25 urte).

"Gu aldatu gara, bai, baina guk ezin dugu ezer egin aldaketa horiek nabarmenarazteko".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Zerbait aldatu da, bai, baina jende ez askorentzat ezer gutxi aldatu da".

(Emakumezkoa. Esplorazio bilera, 25-30 urte).

"Gazteek, bada, adibidez, guk, txipa aldatuta daukagu, baina berrogeita hamar urtetik gorakoek... hor ez da ezer aldatu".

(Gizonezkoa. Lan ezegonkorreko bilera, 20-30 urte).

"(Diferentziak) gizartearen ondoriozkoak, gurasoen ondoriozkoak izango dira..."


(Emakumezkoa. Lan ezegonkorreko bilera, 20-30 urte).

Arestian adierazi dugunez, ikerketan zehar konturatu gara gazteak euren gurasoen belau-naldiarekin alderatzen dutela euren burua eta badakitela aldaketa batzuk gertatu direla (emakumezkoak lan mundura sartzea, etxeko lanetan ardurak partekatzea, gizonezkoak etxeko harremanen eta afektibitate eremuetan gehiago konprometitzea, lege aldetik aurrerapenak, etab); horregatik, mutilen eta nesken arteko harremanak, euren aiten eta ameenkin alderatuta, oso desberdinak dira. Eta, gainera, gazteek uste osoa dute ez dutela haiek bezala jokatu, ez dituztela gurasoen jarrera berberak hartuko. Gazteek uste dute aldaketa dakartela eta irudipena dute diskriminazioak jasan eta saihestu beharko dituztela, harik eta diskriminazioak aldatzeko egokiera iristen zaien arte.

Baina inoiz ez dute adierazten eurak direnik aldaketaren eragile nagusiak: egoera da aldatu dena, eta eurak aldaketa horren seme-alabak dira. Gazteek uste dute berdintasunezko erreferentzetan eta eredutzat dituztenak dagoeneko gauzatuta daudela edo gizartean pixkanaka eta independenteki sartu ahala bete egingo direla gizartean erabakitzeke ahalmena areagotuz doazen neurrian. Baina hortik aurrera ez dute beste ezer ikusten. Elkarriketatu genuen hezkidetzak eta aukera berdintasuneko langile batek zioenez, gazteek "betaurrekoak" behar dituzte errealitatea genero klabetik irakurtzeko eta interpretatzeko, gaur egun ikusteko gai ez diren diskriminaziozko egoera ugariak agerian jarri eta behar bezala ikusteko.

Arazoa zera da: gazteek desberdintasun erreferente gutxi dituztela eta eskura dauzkaten bakanak eguneroko bizitzako nahikoa azalean daudela. Horregatik, gazteek euren berdintasunezko eta desberdintasunezko erreferenteak zabaldu edo areagotu behar dituzte, euren egoera subjektiboetarako, esate baterako, euren jarreretarako, balioetarako, estereotipoetarako, aukera edo itxaropenetarako, etab. Ez da nahikoa ikuste, espazio, zenbaki edo lege klabeak izatea. Gazteek baliabide sofistikatuagoak behar dituzte, erreferente berriak, erabatekoak, gaur egungo egoera gainditzeko eta gaur egungo gazteei euren ingurua behar bezala interpretatzen laguntzeko.

42. ILUSTRAZIOA Beharrezkoak dira ereduak eta erreferenteak diskriminaziozko egoerak agerian jarri ahal izateko



Beraz, aldaketa inguru honek hainbat ezaugarri izango lituzke: mutil eta nesken arteko berdintasuna, mutilen eta nesken arteko diferentzia "naturalak", gizarte diskriminaziozko egoera jakin batzuk (batez ere nesken kalterako, nahiz eta mutilek ere batzuk jasan), aldaketa egoera berrirako erreferenterik gabe... Nolanahi ere, ordea, egoera horren aurrean neskek eta mutilek jarrera desberdina hartzen dute:

- **Nesken jarrera irmoagoa eta ausartagoa da**, ideiak garbiago dituzte, indartsuago eta sentikorrago ageri dira. Badakite eurentzat zailagoa izango dela lana lortzea eta lanean hobetzea edo gora egitea, badakite gehiago eskatuko dietela eta horregatik gehiago eskatzen diote euren buruari. Ardura berezia jartzen dute prestatzeko eta lehiakorrak izateko. Oso garbi daukate euren lehentasunezko helburuetako bat lana lortzea dela eta, lan horri esker, euren amek gozatu ez zuten independentzia eskuratzea, baita euren amatasunari uko eginda bada ere. Alderdi hori oso garrantzitsua da: neskek badakite amatasuna oztipoa dela lanean egonkortasuna lortzeko eta lanean gora egiteko eta horregatik atzeratu egiten dute "sine die". Ama izatea ez daukate gertuko helburutzat. Langabezia eta lana lortzea gai garrantzitsua eta hizpide nagusi da bai mutilentzat eta bai neskentzat, baina arazo hori askoz gordinagoa da neskentzat, jakin baitakite askoz ere zailagoa dela eurentzat lan munduan egonkortzea. Horrela, euskal neska askoren burue-

tan ez dago ama izateko asmorik, baina ez dute baztertzen behin lanean egonkortasuna lortutakoan izatea. Ama izango dira, baina "ad calendas graecas".

Bizitzen ari diren rolen aldaketaren aurrean, beraz, nesken jarrera mutilena baino eraginkorragoa da, baina aldi berean berdintasunezko **erreferente berriak behar dituzte**, dagoeneko zaharkituta geratu diren estereotipo klasikoak aldatzeko.

Lan mundura sartzeak ahalegin handia eskatzen die emakumeei, lanean ez ezik, etxeko lanetan ere jardun beharra baitaukate, berdintasunean oinarritutako ardura banaketen kontzeptua oraindik ez baita behar bezala sartu eta ezarri etxeetan. Ahalegin itzel horrek estresa eragiten die emakumeei eta gaitz horren ondorioz etortzen dira haserrea, konformagaitasuna eta nolabaiteko asaldura.

- **Mutilek, berriz, jarrera pasiboagoa hartzen dute, bizi duten nahasketaren ondorioz-edo.** Gizonezkoen jokaera klasikoaren ereduak pitzatzen eta puskatzen ari da eta ez dator bat errealtatearekin. Mutil eta nesken artean berdintasunezko erreferente berriak izango dituzten jokaera **eredu berriak behar dituzte**, gizartearen ereduak ez baitute balio etorkizunerako, gizonengandik espero dena betetzeko.

Kontziente dira gertatzen ari diren aldaketez, baina ez dakite zein bideri jarraitu, nola jokatu, neskekin lekua partekatzeaz gain, beste zer egin behar duten. Neskek gero eta gehiago eskatzen diete, mutilek ez dute euren aitek bezala jokatu nahi, baina ez dakite zehatz-mehatz zer egin behar duten.

Horren ondorioz, noraezean daude, nahasita, jarraitu beharreko gidari baten zain. Jarrera hori, beraz, neskena baino pasiboagoa da, baina aldatu egiten da lan munduan. Izan ere, eremu horretan mutilak oso gustura baitaude, euren "habitat natural"ean murgilduta. Duela oso gutxi arte lan mundua gizonei bakarrik zegokien, eta orain, emakumeak sartzen ari badira ere, leku aproposa da gizonek euren hainbat ezaugarri agerian jartzeko eta erakusteko, besteak beste, independentzia, segurtasuna, ausardia, hizketarako etorria, sormena, lehiakortasuna, guraria, garapena, erabakitzeak kemenak, arriskuak bere gain hartzea, etab.

Maila orokor horretan, beraz, neskak aldaketako indarra dira, gutxieneko lorpen batzuk barneratu dituzte eta lortutakoei ez diete uko egin nahi eta, gainera, eraldaketa berrien eragile nagusiak ere badira; mutilak, berriz, zeharo beste muturrean daude: nahastuta ageri dira. Baina maila orokor horretatik jaitsita, hainbat nabardura adierazi genitzake aldaketa eragiten edo oztopatzen ari diren elementuak hobeto ezagutzeko.

Oro har, esan genezake aldaketarako indarra emakumeena dela nagusiki. Emakume batzuen jarrerak ere, ordea, oztopatu egiten dute parekotasuna lortzeko bidean eman nahi diren aurrerapausoak eta, ildo horretan, emakume batzuek diskurtso matxista eurenganatu dutela egiaztatu ahal izan da; baina horren arrazoiak, konplexuak eta anitzak izanik, ikerketak honetatik kanpo geratzen dira. Baina emakume horiek albo batera utziz gero, badirudi eraldaketak gertatzeko ezinbestekoa dela neskek lorpen historiko horiek eurenganatzeari, etorkizunean proiektatzeari eta garatzeari. Badirudi inertzi indar baten menpe daudela eta indar horrek aldaketa –edo aldaketa egiteko aukera ikustea– gizarte eremu guztietara eramaten duela: hezkuntzatik lan mundura, kirolera, aisialdira, familiara eta etxeko antolamendura, politikara, etab. Eta indar hori behar bezala zaindu beharra dago, bideratzeko eta erraz ibil dadin, baina egiazko zerbait bezala ikusten da.

Erresistentzia, batez ere, mutilek jartzen dute. Baina ezin da esan mutil guztiek jartzen dutenik. Izan ere, ikerketan zehar hainbat informazio, datu eta ebidentziak argi erakutsi digute-nez, mutil profil berriak ere badaude, aldaketen bizipenen eta esperientzien –eta ondorio positiboen– inguruan osatuak, aldaketa horiekiko jarrera irekiak erakusteaz gain, eraldaketa berrien eragile aktibo eta parte hartzaile bihurtzeko asmo garbia azaltzen dutenak. Horren aurrean, gazteen diskurtso eta jarreraren azterketak continuum bat egitera behartzen gaituzte, eta bertan mutilen hainbat tipologia nabarmendu: mutur batean aldaketekiko itxienak eta aurkakoenak jarriko ditugu; bestean, berriz, aldaketaren aldekotzat edo eragile eta berdintasun estrategien aldekotzat har ditzakegunak kokatuko ditugu.

- Continuum-aren mutur batean, **aldaketekiko aurkako jarrera** erakusten dutenak daude. Profil honetako mutilen ezaugarri nagusietako bat diskurtso matxista da eta gizon eta emakumeen arteko parekotasun egoerak ekar litzakeen onuren aurrean, lotsa handirik gabe erakutsiko dute euren errezeloa. Diskurtso kontziente edo ez hain kontziente batekin, tonu oldarkor handiagoarekin edo txikiagoarekin, baina egia da honelako mutilak egon badaudela euskal gazteen artean. Gehienek euren ikuspegiari laguntzeko eta baieztapenei eusteko mugimendu feministarekiko jarrera beligerantea erabiltzen dute –mugimendu feminista barregarri utzi nahian eta zeharo gaiztoa balitz bezala– eta mugimendu horrekin lotutako guztiaiekiko ere jarrera berbera dute: diskurtsoa, aldarrikapenak, lorpenak, etab. Aurkako jarrera honek ez du sexu berdintasuna ukatzen: desberdintasunak ukatzea du abiapuntu. Gizon eta emakumeak berdin-berdinak dira, bakoitzak bere diferentziak izanik, eta diferentzia horiek, ikuspegi eta diskurtso honen arabera, ezin dira bihurtu desberdintasun.

Interpretazio honen arabera, ez dauka zentzurik aldaketak planteatzeak, ez baitira beharrezkoak. Pertsona bakoitzak bere eginbeharrez arduratu beharra dauka eta garatu egin behar ditu, eta diskriminazioa edo bidegabekeria bakarkako parametroetatik baino ezin dira ulertu: emakumeek diskriminazioak jasan ditzakete, gizonetakoek jasan ditzaketen bezala, baina diskriminazio horren jatorria inoiz ez da izango sexua, edo ezin izango da interpretatu genero sisteman oinarrituta.

Mutil edo neska izatearen "sortzetiko" eta "berezko" diferentzia horietan oinarrituta, gizarteak txoko, gune eta funtzio desberdinak zehazten ditu mutilentzat eta nesKentzat eta diferentzia horiek ez dute sortzen harridurarik, oso logikotzat jotzen dira. Gizarteak dinamika jakin bat markatzen du eta gizaki bakoitzak dinamika horretara ahalik eta ongien egokitu beharra dauka; aldaketa eskatzen duen edozein aldarrikapen gizarteko ordena hausletzat jotzen da, ezarritakoa indarrez desegiteko saiakeratzat.

- Continuum honen hurrengo fasean beste profil batekin egiten dugu topo, hain zuzen, **aldaketei irekia** deituko diogunarekin. Figura nahikoa zalantzagarria da, ñabardurez betea, eta, horregatik, tipologia ez da oso homogeneoa.

Alde batetik, diskurtsoa erresistentziazko jarreraren oinarrituta dago, baina aldaketaren aldeko jarrera irekiagoa erakusten du. Horrela, **irekitasun hori pasibitatean eta beligerantzia ezean** oinarrituta dago. Aldaketa onartu egiten du, baina gizartean oso nabarmena delako eta, itxuraz, aldaketa horren aurka ezin duelako ezer ere egin. Ikuspegi honetatik, aldaketa eta aldaketaren ondorioak ukatzea kontrakarrean jartzea litzateke, hau da, eguneroko bizitzako hainbat egoeratan hor dagoen zerbaiti aurka egitea. Horren aurrean, jarrera eroso

hartzen du, etorkizunak zer ekarriko duen zain. Dirudienez, ez dio aurre egin nahi edo ez du ukatu nahi eraldaketek ekarriko dutenari, baina ez daude prest aitzindariak izateko, eta euren inguruan ez dituzte sustatuko beste sexuarekiko berdintasunezko edo parekotasunezko dinamika edo estrategiak. Mota honetako mutilak prest egongo dira lanen banaketan laguntzeko, eskatzen baldin badiete, edo prest egongo dira neskekin elkarlanean ari-
tzeko, beharrezkoa baldin bada. Tipologia honetakoek jarrera irekiagoak eta permisiboagoak hartzerakoan eragin handia izango dute inguruak ezarriko dituen baldintzak. Tipologia honetako mutil gazteek onartu egiten dute euren bikotekideak etxetik kanpo lan egitea, baina egoera ekonomikoak hala eskatzen duelako, eta horregatik onartzen dute etxeko lan batzuk partekatu behar izatea eta eurek ere rol batzuk hartu beharra euren gain, inoiz horrelakorik egingo zutenik pentsatzen ez bazuten ere.

Continuum-etik aurrera eginez gero, beste tipologia bat topatuko dugu, hain zuzen ere, **itunekiko irekia**. Profil honetakoek onartu dute aldaketa gertatu dela eta pentsamolde ireki-koak dira. Horregatik, prest ageri dira gizarte eraldaketako egoerei aurre egiteko. Profil honetako gazteek badakite belaunaldi berri bateko kide direla eta mutil eta neskak eskema berriekin funtzionatzen hasi direla. Badakite emakume eredu bat (adibidez, euren ama izan zitekeena) desagertzen ari dela, edo gutxienez erreferente berri batzuetarantz aldatzen ari dela, eta, horregatik, prestatuta egon nahi dute famili, lan eta gizarte egoera berrietarako. Egoera berria ezagutzen du eta, horregatik, negoziazioaren aldeko jarrera agertzen du eta egoera eta aukera berriak agerian jarriko dituzten itunak egitearen aldekoa da. Ezbairik gabe, estrategia hori aldatu egingo du bizitzea egokitzen zaion egoeraren arabera.

Tipologia **ireki** honen barruan, beste mota bat ere aurkitzen dugu: aipatutako continuumaren muturreraino iristeko prest dagoena. Tipologia honetakoek diskurtso eta **jarrera malgua dute, aldaketa erraztearen aldekoa**, baina hainbat arrazoi direla medio ez daukate behar bezalako baliabiderik –esperientziak, bizipenak, ikuspegiak, erreferenteak, etab.– aldaketaren eragile aktiboak izateko. Tipologia honetako mutil gazteek berdintasunezko eta parekotasunezko planteamenduetan oinarritzen dituzte euren hausnarketak, baina sarritan ez daukate euren egoeran lagunduko dien konponbiderik, jarraibiderik edo giltzarik, identitate berria definitzeko, edo euren harremanetan, inguruarekiko elkarreragiketan sartzeko dinamika berriak diseinatzeko. Ikerketa guztian zehar sarritan agertu dira horrelako mutil gazteak, eta egiaztatu ahal izan dugunez, taldeak berak oinarritzko materiala ematen zien neurrian (argudioak hobeto definitzeko eta zehazteko), gazte horien diskurtsoa sendotuz eta indartuz joan da.


- Mutil irekiaren tipologia alde batera utzita, eta continuum horren mutur-muturrean, **erabat aldaketaren aldekoak diren mutilak** topatu ditugu. Gazte horiek berdintasunaren alde emandako pausoak txalotzen dituzte, uste osoa baitute ezinbestekoa dela bi sexuen arteko berdintasuna. Parekotasun horren planteamendua, ordea, jatorrizkoa da. Aurreko diskurtso batzuetan ere berdintasuna eskatzen zen, baina nolabaiteko zalantzak zeuden horrek praktikan zer esan nahiko zuen; diskurtso horiek ez bezala, planteamendu berri honek parekotasuna bizipenenean eta esperientzian oinarrituta defendatzen du, mutilak eta neskak berdinak direlako uste osoan oinarrituta, eta ustez batzuenak zein besteenak diren diferentziak –gehienetan diskriminatzeko aitzakiatzat erabiltzen direnak– bi sexuetoako edozeinek har ditzakeen balio, ezaugarri, bereizgarri eta ikurrak dira. Tipologia honetako gazteak oso irekiak eta malguak dira, jakin-minez beteak eta kezka-

tsuak, nesken eremuan oso ongi moldatzen direnak, mutilenean moldatzen diren antzeko erraztasunaz. Tipologia honetakoak berdin aritzen da trukean mutilekin zein neskekin, eta elkarrekintza horretatik baliagarriak eta erabilgarriak egiten zaizkion hainbat balio eta ezaugarri ikasten ditu.

Tipologia honetako mutilak, taldean aritzen direnean, oso diskurtso muturrekoa kaleratzen dute, eztabaida dinamizatzen dute, eta argudio ezagunenetatik kanpo dauden hausnarketarako elementu berriak eta argudioak adierazten dituzte.

Tipologia honen jatorrian edo jarrera honen eragileetan sakonduz gero, arrazoi batzuk aurkituko ditugu, besteak beste, famili eremua, hezkuntza esperientzia, lagunak edo zenbait esperientzia. Ziur aski, ez da egongo arrazoi bakarra; aitzitik, bat baino gehiago izango dira. Horien guztien artean, tipologia honetako gaztearen irudia osatzen dute: irekia, jakin-minez betea, amultsua, komunikatiboa, elkarriketarako irekia, irudimenez betea, mutil eta nesken laguna, mutil eta neskengandik gertu dagoen gaztea; hazte honek betetzen eta asetzen duten balio eta ezaugarriekin egindako rolak hartzen ditu, ustez gizarteak eta kulturak emandako ezaugarriak (batzuk mutilenak, besteak neskenak) norenak izan behar duten kontuan hartu gabe, beretzat guztiak baitira baliotsuak eta aberasgarriak, eta horiek erabiliz hainbat eremutan mugitzeko gauza da.

43. ILUSTRAZIOA "Diferentzia" eta "diskriminazioen" aurreko jarrerak



Txostenak proposatzen dituen prospektiba eta jokaera jarraibideak oinarritzko bi elementuren inguruan biltzen dira:

- A) Lehenengoa, jokaerarako edozein ekimen zein eztabaida punturen inguruan eraiki behar den definitu beharra dago. Horrela, ikerketa honen iritziz, txosten honetan behin baino gehiagotan nabarmendu dugun "berdintasun berniz" izeneko ongi aztertzea eta horri buruz hausnartzea litzateke egokiena.
- B) Bigarrena, ikerketak zera proposatzen du: oso garrantzitsua dela berdintasunezko eredu eta erreferente berriak bilatzen, zehazten eta diseinatzearen alde lan egitea, gaur egun mutil eta neska gazteen arteko parekotasuna lortzeko bidean dauden oztopoak gainditzeko; beraz, eskema bidezkoagoetan eta berdintasunezkoagoetan oinarritutako gizartea eraikitzeko.

**"BERDINTASUN BERNIZA"
GAINDITZEA EDO
BERDINTASUN
KONTZEPTUAREN
DEFINIZIO BERRIA**

4.3.1

Txostenean zehar argi geratu denez, genero sistemaren ekoizpen eta ugalketa taktikak agerian jartzerakoan, zailtasunik nabarmenenetako batzuk bi hauek dira: "berdintasun berniza" izeneko eta gizarte diskurtsoaren bidez "berniz" horren hedapena dira; horregatik, sexuen arteko dinamikak eta parekotasun harremanak indartzeko edozein proposamen definitzerakoan ere zailtasun horiekin egingo dugu topo.

Gertaera hori zein bistakoa den eta zein ondorio larri eragiten dituen argi adierazten dute txosteneko hainbat adibidek eta egoerak. Beraz, bada garaia konponbide edo alternatiba batzuk azaltzeko, egoera korapilatsu honi irteerak bilatzea ahalbide dezaten. Ildo horretan, proposamena hiru mailatan antolatuta dago.

1. Lehenengo mailak edo eskalak hausnarketarekin dauka zerikusia. Gizartean "berdintasuna" hitzez ulertzen dena diskurtso sinple eta azalekoan barneratzeak nolako eragin gaiztoak eta kaltegarriak izan ditzakeen ikusita, badirudi beharrezkoa dela sexuen arteko parekotasunaren esperientzia eta bizipena hobeto ezagutzeko kontzeptu eta teoria berrien bila jarraitzea.

Neskek eta mutilek berdintasunak zer esan nahi duen **ikasi egin dute** eta, oro har, poztu egiten dira emakumeen egoerari ekarri dizkion onurak ikustean; baina badirudi gabezia handiak daudela hitz horren benetako esanahia **ulertzeko**. Oso gutxi nabarmentzen dute ber-

dintasunaren benetako esanahia, hots, zein aberasgarria izan daitekeen bestea –mutila edo neska–, beste sexukoaren egoera, ezaugarriak eta berezitasunak ikasteko bide gisa aintzat hartzea, trukerako aukera gisa, banakako edo taldeko aberastasun gisa. Gabezia horiek argi azaltzen dira mutilek neskekiko erakusten duten enpatia ezan, eta alderantziz, elkarren berdin bezala elkarri hitz egiteko, edo mutilei edo neskei gizarteak ezartzen dizkien ezaugarriak baztertu eta diren bezala elkar aintzat hartzeko dituzten zailtasunetan.

Gaur egun, mutilek emakumezkoak aintzat hartzeko lehen zituzten arrazoi berberak dituzte: emakumezko laguna, neska laguna, arreba edo ama balioesterakoan, sentiberatasuna, entzuteko gaitasuna, prestutasuna, ematen duten maitasuna... hartzen dituzte kontuan. Neskek, berriz, gizonetzkoak (laguna, mutil laguna, neba edo aita) aintzat hartzerakoan, oraindik ere arrazoi nagusiak irmotasuna, ematen duten segurtasun sentsazioa, inguruan eragiteko ahalmena, izaera alaia... hartzen dituzte kontuan. Balio eta ezaugarri horiek gizarte prestigioaren eskalan maila desberdinetan dauden neurrian, mutilek eta neskek aitortzen dute mutilak eta neskak ez direla berdinak. Desberdintasun hori, ordea, zaila da salatzen edo gaitzesten, ikusezina, aipaezina, hautemanezina baita. Baina elementu hori hor dago eta hor azaltzen da mutilen eta nesken arteko harremanaren abiapuntura jotzen dugunean, hau da, praktikan gertatzen dena aztertzen dugunean.

Baina azken hori proposamenaren bigarren mailari dagokio.

2. Bigarren maila honek, beraz, jasaten duten diskriminazioari aurre egiteko, emakume batzuek kontzienteki edo inkontzienteki diseinatzeko dituzten estrategiei lotutako fenomeno inguruko eztabaidarekin dauka zerikusia. Estrategia horietako bati **maskulinitatea** deitzen zaio. Emakumeek, batzuetan, gizonenak diren atributuak, ezaugarriak, keinuak eta kanpoko elementuak eurenganatzeko dituzte eta horri maskulinitate prozesua deitzen zaio. Fenomeno honi buruzko irakurketak esaten digu emakumeek eredu jakin bat –gizonarena– hartzen dutela antzeratzeko, hain zuzen ere, gaur egun eta gure gizarteetan prestigio eta gizarte botere mailalara iristeko eta handik agintzeko edo kargu batean aritzeko egokientzat jotzen den eredu. Ikuspegi horrek, ordea, irakurketa bikoitza du. Alde batetik, emakume horiek konturatu dira inoiz ez dituztela aintzat hartuko pertsona gisa, gizonetikiko berdintasun maila berean, eta orduan bide errazena hartzen dute: arrakasta duenaren balioak eta ezaugarriak hots, maskulinoa, eurenganatzzea. Emakume horiek, ordea, sarritan kritikatu egiten dituzte, berez euren emakumezko atributuak izan beharko lirakekeenak (hau da, balio eta atributu femeninoak) alde batera uzten dituztelakoan. Baina ikuspegi horri beste bat ere jar geniezaioke aurrealdean, logikoa gainera: nork edo zerk esaten du atributu batzuk maskulinoak edo femeninoak diren? Nork defendatu behar du batzuen edo besteen esentzia? Zertan oinarritzen ditu bere argudioak? Eta agian garrantzitsuago dena: zer irizpideren arabera epaitu ahal da emakume horiek egindako aukera?

Antzeko egoera bizi dute –baina alderantziz– gizon askok, emagizontzat jotzen dituztenean, betidanik emakumezko atribututzat jo izan diren ezaugarriak erabiltzen dituztelako.

Orain arte adierazitakoaren arabera, badirudi gizarteak zigortu egiten dituela beste sexuaren balioez eta ezaugarriez "kutsatzen" direnak. Bakoitzak bere balioei eta aukerei eutsi behar die, nahiz eta jakinaren gainean egon gizonetzkoek eta emakumezkoek irudikatzen dutena ez dela erabateko berdintasunezkoa. Egia esan, txostenean zehar mutil eta nesken atributu gisa aipatu ditugun guztiak osagarriak dira, atributu horiek guztiak giza esentziare-

nak, pertsonarenak direla abiapuntutzat hartuz gero, behintzat. Ez dira osagarriak, ordea, banaketa bereizia gertatzen denean –balio hauek neskentzat, balio hauek mutilentzat–, jakinaren gainean egonda horietako bakoitzaren gizarte balioa, "gizarte balioen burtsan duen kotizazioa" ez dela berbera. Horrela, pertsonaren konplexutasuna era irekiagoan eta guztiz onartzen ez den bitartean, eta pertsonaren baitan identitatea eraikitzerakoan eta definitzerakoan dagoen aberastasuna eta indarra ere aintzat hartzen ez diren bitartean, mutilak eta neskak berdintasun egoeran aintzat hartzea oso zaila izango da, eta, hortik abiatuta, erabateko parekotasunerako bidea paradoxaz eta ameskeriaz betetako bidea izango da.

Beraz, beharrezkoa da –enuntziatuan adierazten genuen bezala– gizarteko eztabaidan eta gazteen arteko eztabaidan are gehiago sakontzea, horrela mutilek/neskek mutilei/neskei zer ekarpen egiten diegun jakiteko; batzuek besteengandik zer behar dugun edo zer ikasi behar dugun jakiteko; besteen oinarrizko balioetatik zer geureganatzea kostatzen zaigun jakiteko; zer esan nahi duen trukeak, zein rol berri geureganatzeko prest gauden eta abar. Hori guztia ikuspegi eraikitzaile eta positibotik begiratuta, noski, eztabaida honetan ez baitago galtzailerik; aitzitik, denok irabazten dugu, denok daukagu zer irabazia.

3. Proposamenaren hirugarren mailan eguneroko erronka nork bere egitea planteatzen da, hau da, praktika, estrategia, programa eta ekimen praktiko eta zehatzei aurre egitea. Oraingoan hausnarketa eta eztabaida hainbat leku, jende edo erakundetara bideratzen da: adituen foroetara, administrazioa, gizarte eragileengana, hedabideetara, beti ere egunero gazteekin lan egiten duten kolektibo eta gizakiak baztertu gabe. Maila honetatik proposamen zehatzak bultzatu behar dira eredu eta erreferente berriak sortzeko, gero horiek zenbait norabidetan eragin dezaten. Lehenik eta behin, "berdintasun berniza" indargabetzeko elementu gisa; bigarrenik, eztabaida pizteko faktore gisa, bai eremu orokorrean, bai gazteen euren berriazko eremuetan; eta, azkenik, irudi berriak bideratzeko balioko duten giltzarri eta gida gisa, eskema berri horietatik abiatuta garapena eragiteko familian, koadriletan, bikoteetan, hezkuntza munduan, lan munduan, dibertsioan, kirolean, asoziazio mugimenduan, etab.

Oro har, eta ildo orokor gisa, zenbait funtsezko alderditan egin beharko genuke ahalegin handiagoa:

- Hasteko, berdintasunaren hautemate faltsua agerian utzi eta bertan behera utzi beharra dago: neskak eta mutilak ez dira berdinak, hainbat desberdintasun egoera daude hezkuntza alorrean, famili hezkuntzan, koadrilako harremanetan, etab. Bazter guztietan daude desberdintasunak, berdin du non begiratzen dugun. Desberdintasun horiek agerian jarri behar dira gizarte harremanetako eremu guztietan.
- Batzuek diote mutil eta neskak desberdinak direla arrazoi naturalak direla medio, baina ideia horri ere ateak itxi behar zaizkio. Gazte batzuek, diferentziak ia naturalak direla arrazoituta, estereotipo klasikoei heltzen diete eta arrazoi horiek behera bota beharra dago. Ez da egia neskek eta mutilek diferentzia naturalak dituztenik (agian egongo dira, bai, alde biologikoekin zerikusia duten batzuk, baina ezin dituzte diferentzia guztiak arrazoitut).
- Erreferente egokiak eman behar dira, argi eta garbi adierazteko ezin dela lan munduan genero berdintasuna landu eta aldi berean hezkuntza mundua (orientazioa eta profil pro-

fesionala) ahaztuta utzi, ezin direla baztertu famili mundua eta etxekoa, edo ezta aisialdia. Eredu guztiak, publikoak zein pribatuak, lanekoak zein aisialdikoak, hezkuntzakoak zein lanekoak, etab. elkarri lotuta daude, eta ez da nahikoa lan munduan desberdintasunik ez egotea. Inoiz ezingo da lortu berdintasuna alor batean, gainerakoetan ere lortzen ez baldin bada. Berdintasuna lortzeko prozesuak orekatua izan behar du, gizakiaren bizitzako eremu guztietan egin behar ditu aurrerapenak.

- Erreferente horiek gertukoak izan behar dute, hau da, pertsonak ezagutzen dituztenak. Pertsonentzat ezin ditugu egituratu eredu ezin hobe eta eskuraezinak. Eredu erabat lor-garriak izan behar dute. Horretarako, eredu horiek ezaugarri zehatz batzuk izan behar dituzte eta helburu horiek lortu bitarteko iraunaldi mugatua ere bai.
- Erreferenteak norbera hobetzeko eredu aktibotzat hartu behar dira. Hau da, erreferenteak ezin dira izan elementu estatikoak, ezin da izan aukerakoa erreferenteetara hurbiltzea ala ez. Erreferenteak etengabe berrikusi behar dira eta mutilek eta neskek barneratzen dituzten neurrian osagai berriak sartu behar dira. Erreferente horien osagai "aktiboa" oso garrantzitsua da, batik bat mutilentzat, gertatzen diren aldaketen eta aurrerapenen protagonista senti daitezen.
- Erreferenteek gazteei (mutilei zein neskei) ezaugarri batzuk eman behar dizkiete: aurre-ra egiteko segurtasuna, elkarrekin harremanak naturaltasunez ezarri ahal izateko lasaitasuna, aldaketak eskatu ahal izateko aginte moralak, "ez" esan ahal izateko autoestimua, alderdi edo alde bateko interpretazioak saihesteko argitasuna...

Etorkizunari dagokionez, epe labur eta ertainean aldaketa erritmo edo bilakaera mantsoa izango da. Gaur egungo mutilek desberdintasunak adierazten dituzte, baina gaur egungo egoerarekiko jarrera erosoak dute, geldoa, lan merkatuko gaur egungo zailtasunetan babes-tuta. Familian, berriz, badirudi prest ageri direla bikotekideei laguntzeko, baina ekiteko ad-orerik ez dute eta ez daude prest dagozkien ardurak euren gain hartzeko. Inguru horretan, beharrezkoa da erreferenteek emakumeei gestio lanen presioa arintzea eta gizonak ere horretan konprometitzea.

Oraingoan, behintzat, badirudi famili gatazken garaia datorrela. Izan ere, gazte horiek euren familiak osatzen dituztenean egoera gatazkatsuei egin beharko baitiete aurre: neskek barneratuta daukate mutilen berdinak izan behar dutela. Ezin hobeto prestatu dira lan eremuan lan egiteko, baina eremu horretan diskriminazioak jasan beharko dituzte eta, horien ondorioz, zapuztu eta haserretu egingo dira. Mutilek, berriz, diskriminazio horiek ikusi, ikusiko dituzte, eta, behin baino gehiagotan, diskriminazioetan esku hartu ere egingo dute. Horrez gain, oraindik ere ez daukate barneratuta familiaren eta/edo etxearen eremuan berez dago-kien ardura eta, horregatik, desberdintasun eta tirabira ugari sortuko dira.


Horrez gain, garai horretarako erreferente berririk izan ezean, mutilek gaur egun daukaten nahasmenduan murgilduta jarraituko dute; neskak, berriz, are gehiago haserretuko eta zapuztuko dira.

Nolanahi ere, gazteen belaunaldi honek berdintasun maila garrantzitsua lortu du; adibidez, ikasteko aukera handiagoak dituzte, lan merkaturako sarbidea gero eta gehiago erraztu zaie edo etxeko lanen banaketan gero eta berdintasun handiagoz jokatzeko dute. Alabaina, guz-tiak sozializatu egin dira eta badirudi ez direla gazteek erdietsitako lorpenak. Hemendik

aurrera, ordea, mutilek zein neskek beste era batera sozializatzeko eta berdintasunaren bidean aurrera egiteko aukera daukate. Autoestimu dosia behar dute, behingoz ikusi ahal izateko etorkizuneko gidoia ez duela hor goiko "gizarte" izeneko inork idazten, eurek baizik, mutilek zein neskek egingo dutela eta euren esku dagoela berdintasun ametsa gauzatu ahal izatea.

Txostenaren azken zatian, zehaztapenaren hirugarren maila honetan are gehiago sakondu nahi dugu eta ikerketan aztertutako hiru eremuetako bakoitza garatzeko (afektuak, aisialdia eta ardurak) lan ildo batzuk proposatu nahi ditugu. Proposamen hori plusa da ikerketan, aztertzen ari garen gai honetan, goiz ala berandu, gizarte argazkia egiteaz gain, ulermena eta interpretazioa landuko dituen eredu diseinatzearen alde egin beharko baitu; hau da, azken batean kalitate izaeran barneratuko beharko baitu.

44. ILUSTRAZIOA "Berdintasun berniza" gaintitu beharra



AFEKTUAK. FAMILIA INGURUA, KOADRILA, BIKOTEA

Afektuen mundua oso eremu konplexua da, batez ere jokaerarako edo esku hartzeko edozein proposamen egiterakoan. Horrez gain, berdintasunarena bezalako eremuaren inguruan lan egin behar baldin bada, zailtasuna are handiagoa da. Hori da, behintzat, ikertzaile taldeak atera duen ondorioetako bat. Afektuen mundua, definizioz, gauza pertsonalen eta intimitatearen eremua da; harreman estuenean eta sakonenean mundua; eta, batez ere, berdintasuna berezko balioztat aintzat hartzen duen eremua, nahiz eta gero gehiago edo gutxiago ezarri eta garatu errealitatean.

Illo horretan, esan beharra daukagu hasiera-hasieratik bi oztopo larri ditugula, gutxienez. Lehenengoa, proposamenak sartzeko edo programak diseinatzeko zailtasun handia, eremu horretan ez baita erraz onartzen kanpokoek esku hartzea. Bigarrenkoa, eremu honetan sistematikoki ukatzen den kontzeptu baten –desberdintasunaren edo diskriminazioaren– inguruan edozein jokaera edo hausnarketa mota planteatzeak dakarren zailtasuna.

Egoera zail eta konplexu horren aurrean, konponbideetako bat zera izan daiteke: dagoeneko hor dauden egiturak hobetzea eta optimizatzea, beti ere aintzat hartuz azken urteotan jakin izan dutela aldaketa garrantzitsuak sartzeko eta horrela erakutsi dutela garai eta egoera berrietara egokitzeko malguak eta jokatzeko gai direla.

Illo horretan, interesgarria izan daiteke jarrera eta jokaeretan sendotzen ari diren eraldaketan inertziaz baliatzea eta ahalik eta gehien "luzatzea", txikleak balira bezala. Planteamendu horri jarraituz, ondoren azalduko diren hausnarketak batez ere familian, koadrilan eta bikoteetan lan egiteko aukerak aztertzeko dira.

Dinamika berriak dira, harreman berrietarako zirriborroak, gaur egun oraindik hasi besterik egin ez direnak, baina etorkizunean garatzeko aukera interesgarriak dituztenak. Dinamika hauek beste dinamika batzuk eragingo dituzte eta beste alderdi batzuekin sarean funtzionatuko dute, afektuen eremuan ez ezik, lan munduan, hezkuntza munduan, aisialdian... eta baita gizarteko gainerako eremuetan ere.

Ikus ditzagun dinamika horietako batzuk, eta zein ahalmen dituzten ere bai.

Familia

- Familia edo etxeko gune askotan, etxea eremu partekatutzat hartzen ari dira pixkanaka, mutil zein neskentzat askoz ere eremu integratzaileagoa eta irekiagoa balitz bezala. Eremu horretan, eskala bertikala baztertu eta horizontala ezarri da; horrela, funtziona-

mendu eskema hierarkiko eta patriarkal tradizional asko saihestu ahal izan dira. Ez da, ez, noski, familia guztietako errealitatea, ezta etxe guztietakoa ere, baina badirudi familiako harremanetan balio eta lanabes berrien oihartzuna nagusitzen ari dela: negoziazioa, elkarrizketa. Ildo horretan, badirudi familia prestatuta dagoela dinamika berrien integrazioan sakontzeko, eta dinamika horietan guztiok hainbat gauza (denbora, zaletasunak, helburuak, nahiak) gehiago partekatu ahal izango ditugula guztiekin eta hortik abiatuta balio, funtzio eta jarreraren aldaketa sustatu ahal izango direla.

Beraz, interesgarria da familiaren profil berri hau ezagutzea eta, etxean egin daitezkeenez gain, elkarrekin aritzeko eremuak eta jarduerak indartzea, familiako kideen arteko elkarrekintza sustatzea, denbora elkarrekin aprobetxatzea eta neskek eta mutilek rola trukatzeko elkarrekin.

- Azken hamarkadetan, familiako kideen eguneroko jardueretan hainbat aldaketa izan dira. Seme-alabak denbora gehiago ibiltzen dira eskolan edo unibertsitatean, amek etxetik kanpo lan egiten dute, aitek sarritan espero baino lehenago hartzen dute erretiroa, etab. Zereginetan eta familiako errutinan izandako aldaketek izugarri eragin dute etxeko mantentze lanetan eta kideen antolakeran. Adibidez, aldatu egin dira erritmoak, erosketa eta kontsumo ohiturak, garbiketa eta ordena kontzeptuak. Oro har, berez ekonomi eta enpresa eremukoak diren balio eta printzipio asko etxeko antolaketan erabiltzen dira. Adibidez, aurrezte, denbora ekonomia, azkartasuna, erosotasuna edo konforta irizpideak etxe askotan maximatzen hartzen dira.

Ikuspegi praktikoago eta pragmatikoago hori bultzatu beharra dago, halaber, etxeko lanen banaketa bidezkoagoa eta antolatera berdina dagoa lortzeko. Ildo horretan, maila teorikoan zein praktikoan lan egin beharko litzateke, etxeetako antolatera ereduak, hau da, beste leku batzuetan funtzionatzen ari diren eskema eta banaketa ereduak erakutsiz, ahal bada egokitzeko era aproposak bilatuz. Lan hori familiarengandik gertu dauden hainbat erakundetatik bultzatu daiteke, adibidez, auzoetatik, gizarte zentroetatik, ikastetxeetatik edo elkarteetatik, familiaren eguneroko bizitzan agertzen diren eta familiak elkarrekin harremanetan jartzeko balio duten guneetatik.

- Gaur egungo familietan bizi den giroak argi erakusten du zenbateraino aldatu den egitura hau. Barne harremanetan eta funtzionamenduan sartu diren balio berriek nabarmen erakusten dute negoziazioa dela baliabide garrantzitsuena etxeko kideen artean akordioak lortzerakoan. Ildo horretan, komenigarria da bide horretatik aurrera egiten jarraitzea, harik eta barne dinamika bihurtu arte. Horretarako, ezinbestekoa da hezitzaileen lana, batik bat haurren eta gurasoen artean zubi lanak egiten dituztenena. Eginkizun horretan eskolak dezente lagun dezake, batez ere hausnarketa jarraibide berrien bultzatzaile gisa; izan ere, hausnarketa horien bidez gurasoek, alde batetik, eta seme-alabek, bestetik, batzuen eta besteen funtzioak, eskubideak eta betebeharrak ulertuko baitituzte.
- Prestakuntza guztien eskura dago, maila guztiak ikasteko aukera daukate mutilek eta neskek, eta, beraz, abiapuntua berdintasunezkoa da lan mundura iritsi ahal izateko. Txosten honetan erakutsi ahal izan dugunez, geroko errealitatea oso bestelakoa da eta emakumeekiko diskriminazio nabarmenak azaltzen dira. Desberdintasun horiek, ordea, zuzentzea badago, batez ere lehiakortasunean eta prestakuntzan neskak eta mutilak

berdin-berdinak direla eta ahalmen eta dohainetan parekoak direla jabetu ahala. Horretarako, ezinbestekoa da gizartea kontzientziaztea, baina hezteko adinean dauden gazteen inguru hurbilena ere bai, hau da, baita gurasoak ere.

Hori kontuan izanik, hedabideetatik zabaldu ahal diren mezuak beste eragile batzuen lanarekin bateratu behar dira eta hainbat lagunen esku hartzea eskatzen du, besteak beste, hezitzaileena, irakasleena eta hezkuntza eta lan munduarekin zerikusia duten erakundeena. Hona hemen estrategia horren xedea: mutil eta neskentzat berdintasunezko aukera eta egi-tasmoak diseinatzea.

- Azken urteotan etxeko lanen eta arduren banaketa bidezkoagoa lortzeko hainbat familia hartzen ari diren estrategiak eredu eta erreferente berriak sortzen ari dira, gizon eta emakumeen irudi berriak, baina ia guztiek, gaur egun, ezezagunak izaten jarraitzen dute. Horrela, bikote askotan errealtate den praktikak ez dauka inolako publizitaterik eta, horren ondorioz, ez daukate jendearen aintzatespenik edo onarpenik. Beraz, alferrik galdu egiten da famili dinamika berri horiek ezagutarazteko aukera, neskak eta mutilak ikasten ari diren rol berriak jakinarazteko tenorea, eta, horrela, eskema klasiko eta tradi-zionalek berdin jarrai dezaten laguntzen da, gizon eta emakumeen erreferente ezagunei inolako ekarpenik egiten ez dieten eskemak bere horretan jarraitzen dute.

Beraz, komenigarria izango litzateke irudi berri horiek ezagutzera emateko aukerak lantzea eta gazteen belaunaldi berrien eredu eta erreferente berriak bihurtzea.

- Azkenik, familia barruan areagotuz doan joera aipatu behar genuke, komeniko bailitza-teke berdintasun estrategia gisa nabarmentzea. Bistakoa da, beste garai batzuekin alde-ratuta, anai-arrebek gaur egun aukera ugari partekatzen dituztela, eta baita gustu eta interes komunak ere. Bi sexuetako gazteak elkarrengandik oso hurbil daude, duela 20 edo 30 urte baino askoz ere gertuago. Hurbiltasun horrek, beste truke mota batzuk ahal-bidetzez gain, informazio interesgarriaren trukaketa, lankidetzak estuagoa, komunikazio zinezkoagoa errazten du; azken batean, mutil eta nesken artean empatia handiagoa lor-tzeko bideak urratzeko aukera ematen du. Aukera horrek itxuraz txikia baina benetan handia den saltoa egitea ahalbidetuko luke; izan ere, gero biek antzeko estrategiak eza-rri ahal izango bailituzkete familiatik kanpoko eremuetan: lagunen arteko harremanetan eta bikote harremanetan, adibidez.

Baina teoritik praktikarako jauzia ez da erraza, anai-arreben arteko harremanari buruzko ezaguera eta informazioa oso kaskarra baita. Beraz, edozein ekimenek edo esku hartzek baliozkoa dirudi: berariazko ikerketetatik hasita, seme-alaben arteko harremanaren alderdi zehatzak lantzeko gurasoekin egin beharreko lanetara.

Koadrila

- Familiaren eremuan hautemandakoaren ildo beretik, etxean izandako aldaketek pixka-naka beste eremu batzuetan (adibidez, lagunen taldeetan) sorrarazten dituzten sinergiak hauteman daitezke. Horrela, mutilentzat eta neskentzat rol eta jokaera jarraibide berriak agertzea errazten ari da lagun artean ere elkarren arteko harreman eredu berriak izatea. Beraz, komenigarria da afektibitate eta harreman eremuen artean zubiak eraikitzea,

mutil eta nesken artean edozein motatako truke estrategia luzatzeko eta leku egokiak izateko. Familiaren barruan funtzioak eta lanak banatu beharra dagoen bezala, koadrilak ere prestatuta egon behar du lanen banaketa bere gain hartzeko, mutilek eta neskek ez diezaieten ezinbestean betiko jarraibideei ekin, hau da, mutilak eginkizun jakin batzuetan eta neskek beste batzuetan.

Horretan jarduteko, beharrezkoa da ahalegin eta irudimen handia, eta horiek koadrilak eta lagun taldeek euren jarduerak egiten eta aisialdia partekatzen duten eremuetan ezarri beharra dago, hau da, elkarreetan, aisialdi taldeetan, gazteentzako lekuetan, gazteentzako etxetan, lan alorretan, etab.

- Emakumeak gero eta gehiago ari dira sartzen eta parte hartzen orain arte gizonenak baino ez ziren eremu batzuetan (lan munduan, kulturen, politikan, etab.) eta, horri esker, lanabesak eta esperientzia hartzen ari dira gizartean mutilen parean esku hartzeko. Indar hori gizarte osoaren mesedetan aprobetxatu beharra dago eta, zergatik ez, maila guztietako harreman pertsonalen mesederako. Ildo horretan, sakondu beharra dago koadrila eta lagun taldeen ikuspegi berezi batean: bizipen eta ezagupenetan aberatsa den eremuan, truke eremuan, ongi pasatzeaz gain, beste hainbat gauzatarako lekua ere baden eremuan. Beraz, komeni da azpimarratzea harreman horietan aisialdia beste hainbat eremurekin elkartu beharra dagoela, adibidez, hezkuntzarekin, lanarekin, gauza pertsonalekin, eta elkarrekin egitasmoak bultzatzea, mutilen eta nesken arteko harreman normalizatuak gauzatzeko.

Zergatik ez sustatu gai desberdinen inguruko sormenezko ideien lehiaketak, lagun taldeak, koadrilak protagonista direla?, zergatik ez saritu lagun taldeen ekimenak?, zergatik ez dagoeneko osatuta dauden taldeetan mutilek eta neskek elkarrekin lan egiteko dinamikak (bidaia, topaketak, gizartean esku hartzeak...)?

- Afektiboaren beste maila batzuetan praktikan jartzen ari den jokabideko rol eta jarraibideetako malgutasunak laguntasunaren eremuan ere adierazpidea izan dezake. Mutilen eta nesken arteko rolak trukatzeko laguntzen duen edozein esperientzia –elkarrekin, aisialdi klubak edo gazte zentroak– oso onuragarria izan daiteke. Esperientzia horien helburua hau litzateke: tradizionalak mutilei eta neskei eman izan zaizkien lan eta funtzioak ere gehiago ikastea, adibidez, afektua eta komunikazioa garatzeko tailerrak –ustez "emakumezkoen munduko" ezaugarriak– eratzea, edo, esate baterako, tradizionalak "gizonezkoenak" izan diren joko, kirol eta beste trebetasun batzuei buruz eztabaidatzea, hausnartzea edo ikastea.
- Aurreko ideia jarraituz, bereziki premiazkoa dirudi koadrila edo lagun taldea harremanetarako eremu intimo gisa hartzeko ideia eta ikusmoldea azpimarratzeko estrategiaren bat diseinatzea, mutil eta nesken arteko komunikazioa eta afektibitatea laguntasunaren balioak garatzeko. Gazteek hitz egiteko premia dute eta inoiz baino gehiago behar dute norbait entzuteko eta euren esperientzien eta bizipenen konplize izateko, eta, gezurra badirudi ere, koadrilak, hau da, osagai guztiak parekoak dituen multzoak, zailtasunak izaten ditu eskaera horiek asetzeko. Alderdi hori kontuan hartu behar dute gazteekin lan egiten dutenek eta gazteekin harremanetan jartzen direnek, horretarako arrazoiak edo egoera edozein dela ere.

Nolanahi ere, koadrila eremu informala izanik, behar horiek agertzea eta gauzatzea zein zaila den kontuan izanda, interesgarria izango litzateke egitura honen inguruko ezagutza eta ikerketa sustatzea, are gehiago Euskal Herrian ezaugarri berezi batzuk dituela kontuan izanik.

- Azkenik, aipa dezagun emakumeen egoeran egindako aurrerapenei esker laguntasun harremanetan –hain eremu konplexua den horretan– itxaropen printza ugari piztu direla. Halaber, espero dugu estereotipo tradizionalak behingoz ahazteak eremu honetan ere funtzionamendurako eskema berrien diseinurako balio izatea; horrela, "lagun" izatearen erreferente eta ereduak ezaugarri eta funtzio berrien arabera definituko dira, erreferente eta eredu horiek berdintasun handiagoko trukearen bidetik bultzatuko dira, eta mutil eta neskak ez diren aintzat hartuko gizartean mutil edo neska izateak esan nahi duenaren arabera, pertsona diren neurrian egiten duten ekarpenaren eta direnaren arabera baikik.

Bikotea

- Gizarteari dagokionaren eta gizakiari dagokionaren artean nolako erlazioa dagoen kontuan izanik, eta afektiboaren barneko eremuen artean praktikan gertatzen den lotura aintzat hartuta, seguruenik ere gazteen bizitzan funtsezkoak diren sozializazio eremuek (adibidez, familiak eta koadrilak) berdintasunezko eskemak lortzeko bidean aurrera egiten duten neurrian, bikote gazteen funtzionamenduan ere parekotasun handiagoko jarrerak agertuko dira. Segida horrek logikoa dirudien arren, ahalik eta gehien bultzatu beharra dago, bitarteko eta estrategia guztiak erabiliz, zeren, bestela, aukera ezin hobea galduko bailitzateke etxeetan berdintasunaren aldeko famili dinamikak sortzen dituzten guneak lortzeko.

Ezbairik gabe, bikoteari arreta berezia eman behar zaio. Lehenengo, gizonen eta emakumeen arteko negoziazioa ahalbidetzen duen eremu eta une sortailea delako, beste egitura "gaiztotu" batzuetan elkarrizketa eta elkar ulertzea eragozten duten eragozpen eta oztoporik gabea. Bestalde, bikotea bereziki aztertu beharra dago; izan ere, epe labur edo ertainean familia berri bat izango baita, non harremanetarako, komunikaziorako, eraketarako eta funtzionamendurako estrategia berriak diseinatuko diren. Mutil eta neskentzat rol berriak hedatzen eta barneratzen laguntzeak aukera berriak jartzen ditu mutil eta neskak definitzeko eta, beraz, bikote harremana bizitzeko eta sortzeko aukera berriak izateko.

- Ezbairik gabe, gaur egungo egoera ekonomikoak ondorio kaltegarriak dakartza gazteen garapenerako eta itxaropenetarako. Baina errealitate horrek onurak ekar diezazkieke bikote gazte askori. Gaur egun, mutilek eta neskek euren karrera profesionalak eta euren egitasmoak parekotasunezko egoeran garatu nahi dituzte. Diskurtso horrek bizitzako itxaropenak eta norberaren errealizazioa islatzen ditu, baina, halaber, argi uzten du baliabide ekonomikoak bikoteko kideetako bakoitzak eman beharra, bestela zaila izango baita batasunari eustea. Egoera horrek etxeko eraketarako planteamendu orekatuak eragiten ditu. Ez kasu guzti-guztietan, jakina. Ezta kasu gehienetan ere, oraindik; baina argi dago emakumeak etxeko lanen kate estutik askatzeko aukerak areagotzen ari direla eta gizonak gero eta gehiago ari direla parte hartzen etxeko eraketa eta mantenu lanetan.

Ezin da ukatu lan ildo horretatik jarraitu beharra dagoela, eta lan horretan bildu behar ditugu indar guztiak: teorikoak, praktikoak, ekonomikoak, legezkoak, etab.

- Bikote gazteak dagoeneko ari dira afektibitateko eta komunikazioko beste eremu batzuetan (adibidez, familian eta koadrilan) garatzen ari diren eredu eta erreferenteek dakartzaten onurez baliatzen. Ildo horretan, eremu horietan zein lanean, hezkuntzan, etab. egiten diren aurrerapenak lagundu egingo dute mutilei eta neskei ematen zaizkien rola, funtzioak eta itxaropenak definitzeko eskema tradizionalak hausten. Lan ildo horretan lan eginez gero –hedabideen bidez, berariazko programak diseinatzuz edo legeak eta araudiak aldatuz– lasaialdia ekarriko lieke mutil eta neskei, ez baita erraza "gizarte aginduak" bete beharra, are gehiago, "agindu" horiek gehienetan nahasmena eta mutil zein nesken estres mailak areagotzeko baino balio ez dutenean.

Egoera horren adibide paradigmatico bat hainbat gairen inguruan sarritan sortzen diren eztabaidak dira, adibidez, amatasunaren eta aitatasunaren inguruan. Eztabaida horiek askotan alde bateko ikuspegitik bakarrik planteatzen dira edo alderdietako bat baino ez da inplikatzeko –normalean neskak–, berez gizarteko eremu orokorragoetan kokatu beharreko errealitatea izan beharko lukeenean; hain zuzen, mutil eta nesken inplikazioa eta trukea lortzeko estrategia bultzatu beharko litzateke aldi berean, hori bezalako erabaki garrantzitsua bien artean hartu beharko bailukete.

- Azkenik, aurrerapausoak eman behar dira pertsonen bizitza afektiboarekin eta sexualarekin zerikusia duten alderdi batzuetan malgutasun eta permitibitate handiagoa lortzeko. Bide horretatik aurrera eginda lortuko da, behingoz, maila guztietan sexuen arteko eta pertsonen arteko trukea errazten duten harreman eta afektibitate adierazpenak sustatzea. Irekiera horretatik, eta pertsonen arteko harremanei buruzko ikuspegi berrietatik, gazteek hainbat estereotipo eta erreferente hautsi ahal izango dituzte, batik bat nahitaez errepikatu behar duten afektiboaren eraketarekin zerikusia dutenak. Izan ere, estereotipo horien arabera, mutilak hornitzaileak, komunikatzaileak, erabakiak hartzen dituztenak, neskei segurtasuna ematen dietenak, gauzak egiteko adorea ematen dutenak dira; neskak, berriz, afektua eta maitasuna ematearen arduradunak, adikorrak, zainketez arduratzen direnak...

Alor honetan ere gizarteak ez dauka hausnarketa eta jarraibiderik programa eta estrategia praktikoen diseinuan eragiteko, gero pertsonen errealitatean islatu ahal izateko. Horregatik, premiazko beharra zera da: beste toki batzuetan ildo horretan gauzatzen ari diren esperientzien berri izatea, edo baita gizarteko beste eremu batzuetan egiten ari direnena ere, beti ere bikotearena bezalako eremu hain intimo eta pertsonalean ezartzeko modukoak izatekotan.

45. ILUSTRAZIOA Afektuen eremuan erreferente berriak



AISIALDIA

Jolaserako lekua

Oro har aisialdiaren eremua eta zehazki jolaserako lekua aztertuta, ondorio nagusi bat aterako dugu: beharrezkoa da mutilen eta nesken arteko hurbilketa erraztea, mutilen eta nesken arteko elkarrekintza eta trukea gero eta trinkoagoa bultzatu behar dugu, gizonezkoen eta emakumezkoen subkulturak banandu eta babestu izan dituzten oztopoak desagerrarazteko. Beste sexua hobeto ezagututa, egitura hori malguagoa izango da eta indarrean dauden genero estereotipo asko ezabatu egingo dira.

Illo horretan, interesgarria izango litzateke jolaserako lekuan ere desberdintasunak agerian jartzea eta mahaigaineratzea. Estrategia horrek eskarmentu handia du beste eremu bazuetan (adibidez, lan eremuan) eta beharrezkoa izango da lan kualitatibo eta kuantitatiboak egitea, gaueko, festako eta oro har aisialdiko eremuan gizonezkoen nagusitasuna agerian jarriko duten datu objektiboak lortzeko. Adibidez, interesgarria izango litzateke informazioa lortzea ondorengoei buruz:

- Taberna, dantzatoki eta abarren gerenteak gizonezkoak edo emakumezkoak diren jakitea.
- Emakumeek kudeatutako eta gizonek kudeatutako lokalen arteko aldeak ezagutzea.
- Mutilek eta neskek dituzten baliabide ekonomikoei buruzko gauza gehiago jakitea.
- Etxera zein ordutan iristen diren jakitea.

Kirola

Kirol munduan eragiten duten eta mutil eta nesken artean desberdintasun egoera nabarmenak sorrarazten dituzten genero mekanismo batzuen oinarritzko giltzak nahikoa ezagunak direnez, badirudi etorkizunari begira beharrezkoa izango dela neurri zehatz batzuk ezartzea, batez ere ondorengo alderdiekin zerikusia dutenak:

- **Hedabideen eginkizuna:** Kirola gaur egungo gizartean funtsezko erreferentea –eta ikuskizuna– denez, hedabideek –horrelako gertaeren ezagutarazle nagusiak– eginkizun garrantzitsua dute berdintasun guneak sortzen eta bultzatzen. Horregatik, dei berezia egin beharko litzaieke eragile horiei, ondorengo lan hauetan lagun dezaten:
 - Erreferenteak ematerakoan gizonezkoenak eta emakumezkoenak eman ditzaten.
 - Kirol mistoak eta mutilek eta neskek elkarrekin egiten dituzten kirolak erakuts ditzaten.
 - Kirola bere osotasunean (mutilen eta nesken ezaugarriak bereizi gabe) ikusten ikasteko baliabide bihur daitezen.
- **Administrazioaren eginkizuna:** Generoari dagokionez, kirol eremuan apenas sakondu den teorikoki. Horregatik, beharrezkoa izango litzateke:
 - Datu objektiboak ematea, aldeak eta diskriminazioak nabarmenarazteko.
 - a) Kirola egiten duten mutilen eta nesken kopuruak.
 - b) Nerabezaroan kirola egiteari uzten dioten mutilen eta nesken kopuruak.
 - c) Kirol instalazioen erabiltzaileak.
 - d) Entrenatzaileen kopuruak (gizonezkoak eta emakumezkoak).
 - e) Kirolen segmentazioa, sexuaren arabera.
 - Mutilek egiten dituzten kirolak eta neskek egiten dituztenak indartzea.
 - Mutil kirolariek eta neska kirolariek baliabide berberak izatea.
 - Nesken lorpenen eta jardueren berri emateko hedabideekin eta federazioekin lankidetzan aritzea.
 - Kirol munduan gaur egun emakumeak gutxietsita ageri diren eremuetan emakumeen sarrera bultzatzea: entrenamenduan, arbitrajean, kirol elkarteetan zuzendaritzan, etab.

- Nesken kirola eskolako etapan sustatzea, pixkana-pixkana trebetasun eta egoera fisiko egokia lor dezaten, gero, helduagoak direnean, kirola egiten jarraitu ahal izateko.

Azkenik, etorkizunari begira, kirol munduan mutilen eta nesken arteko aldeak pixkanaka desagertzeko, gazteek ere balio dezaketen konponbideak azaltzen dituzte euren diskurtsoetan.

"Neskek futboleko gehiago jokatu balute, bada, agian indarra eta azkartasuna ere gehiago garatu lituzkete. Eta mutilek gimnasia gehiago egingo balute, malgutasuna eta koordinazioa garatu lituzkete".

(Gizonezkoa. Kirolari buruzko bilera, 15-18 urte).

"Nik uste dut bereizketa hori egin daitekeela, oso urrunetik baitator, telebistako egunero-kotasunetik eta hortik. Baina nik uste dut neska bat gauza dela mutilen kirolak egiteko, eta baita alderantziz ere. Behar den gauza bakarra zera da: malgutasun handiagoa behar badu, bada, malgutasunarekin iristen ez bada beste ahalmen bati esker iristea. Ahalmen desberdinak garatu dira, baina nik uste gaitasunak berberak direla, ahalegina baino ez dela behar".

(Gizonezkoa. Kirolari buruzko bilera, 15-18 urte).

"Helburu berberara irits liteke, bide batetik ez bada, beste batetik ere berdina dago iristea".

(Gizonezkoa. Kirolari buruzko bilera, 15-18 urte).

Asoziazionismoa

Eremu honetan emakumezkoen zein gizonezkoen ahalmenen erabateko garapena oztopena eta baldintzatzen duen segmentazioa amaitu dadin, beharrezkoa litzateke:

- Estereotipo zorrotzekin jarraitzeak gizartean parte hartzearen eremuan dituen ondorio kaltegarriak nabarmentzea. Konponbidea epe luzeko hezkuntza lana litzateke, baina ez estereotipoak apurtzeko balioko duen kanpo lana gisa hartuta, gaur egun indarrean dauden balio sistemak pitzatzeko gai izango den lan gisa hartuta baizik.
- Neskek zein mutilek –eremu honen baitan– rol batzuetatik besteetara pasatzeko dauzkaten zailtasunak nabarmentzea.
- Eremu honetan, tradizionalki emakumezkoen ezaugarritzat hartu izan diren balioak ikas-teko eta trukatzeko eremu gisa garrantzia ematea, hau da, subjektuen arteko harremanak erabiltzea; eta baita tradizionalki gizonezkoen ezaugarritzat hartu izan diren beste batzuk ere, adibidez, eremu publikorako irisbidea eta eremu publikoan nagusi izatea.
- Beste asoziazio batzuen sorrera –edo sustapena– erraztea, hain zuzen, eraketa eta kudeaketa eredu berrietarako estrategia eta erreferente berriak emango dituztenak.
- Desberdintasunak agerian jarriko dituzten datu objektiboak ematea:
- Elkartean zenbat gizonezko eta zenbat emakumezko dauden.

- Lehendakariak: zenbat gizonezko eta zenbat emakumezko dauden.
- Gizarte lanerako elkarteak eta "politika" lanerako elkarteak.

46. ILUSTRAZIOA Aisialdiaren eremuan erreferente berriak



ARDURAK. HEZKUNTZA ETA LAN EREMUA

Behin eta berriz adierazi dugunez, gazteek uste dute euren belaunaldian generoen artean berdintasuna dela nagusi. Jakin badakite euren belaunaldiak ez duela zerikusi handirik gurasoenarekin eta, gainera, ez dute haien antzekoak izan nahi. Testuinguru horretan, neskak dira, batez ere, euren amengandik ongi bereizi nahi dutenak. Hasteko, pixkanaka lortzen ari dira, adibidez, goi mailako prestakuntza jasoz eta lan munduan gehiago esku hartuz. Euren itxaropena etorkizun desberdina izatea da: euren bikotekidearengandik independente izatea. Koadrilako harremanak eta bikotekoak, euren gurasoen belaunaldian izan ziren harremanekin alderatuta, oso desberdinak dira.

Alabaina, aurreko beste belaunaldi batzuek ez bezala, ez daude oso konbentziturak izan behar dutela aldaketaren aitzindari. Hau da, mutilek zein neskek uste dute belaunaldi "garbikoak" direla: euren artean, mutilen eta nesken arteko tratamendua berdina da, diferentzia naturaletan berdinduta daude, baina uste dute ez daukatela behar adinako indarrik gauzak behin betiko aldatzeko.

"Menpeko" jarrera hartzen dute, babesik ez balute bezala. Uste dute helduen munduak ikaragarri mugatuko dituela eta desberdintasunen mundu hori gaitzetsi egiten dute. Desberdintasunak helduen gizartean (lanean, familian, etab.) kokatzen dituzte eta gizarte horren aurrean jarrera lotsatia hartzen dute. Ez daukate behar adinako indarrik eta erabakitasunik gauzak aldatzeko.

Agian neskak, jarrera irmoagoa erakutsiko balute, aldaketaren eragile bihurtu litezke, baina mutilen laguntza izan ezean, aldaketa horiek oso motel gertatuko dira. Horrez gain, biek (mutilek zein neskek) erreferente garbirik ez baldin badute, nahasmen egoera bera (mutilen kasuan larriagoa) ere eragozpena izango da etorkizuneko aldaketetarako.

Mutilek berdintasunezko erreferenteak behar dituzte itsutzen dituen nahasmen egoeratik irteteko: ez dakite zehatz-mehatz berez zer egin beharko luketen, ez dakite aldaketa prozesuetan eragiterik izango duten ala ez, ez dakite nola lagundu ahal izango duten prozesu horietan. Iruditzen zaie prozesu horrek dagoeneko badituela bere protagonistak: emakumeak. Emakumeak dira lan munduan sartu behar dutenak, hainbat egoera (bidegabekeriak, tratatu txarrak, abusuak, sexu erasoak, laneko diskriminazioak...) salatu behar dituztenak, etxeko lanetan ardurak bi sexuen artean berdin banatzeaz bikotekideak kontzientziatu behar dituztenak, etab. Mutilak baztertu egiten dira, uste dute zer eginik ez dutela; edo ez dakite zer egin.

Mutilek berdintasunezko erreferenteak behar dituzte prozesuan konprometitu ahal izateko, generoen arteko berdintasunaren abantailak agerian jarriko dituzten erreferenteak, desberdintasunezko egoerek mutilentzat nolako desabantailak eragiten dituzten salatzen.

Nesken egoera, berriz, zeharo desberdina da. Neskei eskatzen zaie berdintasuna lortzeko prozesuan aitzindari izan daitezen eta badakite hori, baina ez dakite ongi zein norabide hartu behar duten. Ez dakite nori eskatu behar dizkioten aldaketak, baina euren borrokan sarritan etsipenak jotzen ditu, ez baitute erreferente garbirik eredutzat hartzeko eta guztien aurrean erakusteko.

Txostenean zehar behin baino gehiagotan esan dugu beharrezkoak direla eredu berriak mutilentzat eta neskentzat, alderdi zehatzak landu ahal izateko. Arduren eremuan, eredu berriak sustatzeko elementu prospektibo gisa ondorengoak proposatzen ditugu:

- Mutilak eta neskak behar bezalako tresna eta trebetasunez hornitzea, irakasleen arreta eta ardura desberdineko egoerak antzeman ahal izateko.
- Hezkuntza eremuaren, prestakuntza orientazioaren eta profil profesionalaren arteko loturak azpimarratzea, desberdintasunak nabarmendu ahal izateko.
- Mutilen eta nesken prestakuntzako ibilbide desberdinak nabarmenaraztea eta batzuentzat zein besteentzat dauden egiturazko oztopoak agerian jartzea.

- Genero zehatz bati lotutako prestakuntza eskatzen duten lan eskaintzak aztertzea eta neurtzea.
 - Langabezian mutilek eta neskek agertzen dituzten jarrera eta ahalmena agerian jartzea, abiapuntuko egoera desberdinak azalduz (neskei gehiago eskatzea, lana aurkitzeko hautemandako behar handiagoa, langabeziatik irteteko zailtasun handiagoa...).
 - Amatasunaren arazoa oztopo larria da emakumeek langabeziatik irteteko eta lan munduan sartzeko eta, beraz, arazo hori salatzea. Halaber, lan merkatuak amatasuna nola ulertzen duen salatzea: bajen eta ordezkapenen arazo iturria, lanean ardurarik eza eragiten duena, ardura handiko lanak hartzea eragozten duena, etab. Azken finean, gainera, amatasuna eragozpena da egonkortasunerako eta lanean gora egiteko.
 - Argi uztea indar fisikoa ez dela behar adinako arrazoi lanean hasterakoan bereizteko eta lana lortutakoan lan egiteko: mutilek eta neskek lan fisiko berdina egin dezakete.
 - Atentzioa eman neskei, gainera, lana aurkitzerakoan beste ezaugarri batzuk ere eskatzen zaizkiela, adibidez itxura fisikoari dagozkionak (batzuetan mutilei ere bai, baina askoz ere gutxiagotan).
 - Nabarmentzea mutilen eta nesken artean lanpostuetan izaten den bereizketa erreala, mutilenak eta neskenak diren lanpostuak eta lanak deskribatuz.
 - Lan kulturari beste eraketa modu batzuk ematea: agintaritza errelazionala, adimen emozionala, harreman horizontalak, etab.
 - Mutilak eta neskak lan merkatuko korporatibismo ezkutuz kontzientziaztea eta nesken presentziarekiko dagoen etsaitasuna nabarmenaraztea.
 - Datu objektiboa ematea, batik bat ondorengoei buruz:
1. Mutilen eta nesken batez besteko notak.
 2. Testu liburuetan erabiltzen diren adibideetan emakumea baztertzeko duten joeren erabilerak.
 3. Prestakuntza adar bakoitzeko irakasleak harturik, zenbat diren gizonezkoak eta zenbat emakumezkoak.
 4. Tradizionalki gizonezkoenak izan diren prestakuntza ibilbideak (elektronika, elektrizitatea, berokuntza, ingeniariak, etab.) ikasten dituzten nesken eta mutilen ehunekoak.
 5. Tradizionalki emakumezkoenak izan diren prestakuntza ibilbideak (administraritza, ilea-paintzea, pedagogia, etab.) ikasten dituzten nesken eta mutilen ehunekoak.
 6. Langabezian dauden nesken eta mutilen ehunekoak, ondorengoan arabera sailkatuta: adina, prestakuntza, jardura ekonomikoko adarra, etab.
 7. Mutilak zein lanbidetan diren nagusi eta neskak zein lanbidetan diren nagusi, langabezi-tasa eta guzti.

8. Langabeziarekin, prestakuntzarekin eta generoarekin harremana duten segmentazioa eta tipologiak.
9. Neskei eta mutilei egiten zaizkien behin-behineko kontratuen ehunekoak, jarduera adararren arabera eta egoera zibila eta seme-alabak izatea ala ez kontuan izanda.
10. Zatiko arduraldiko kontratuen ehunekoak, bai neskenak, bai mutilenak, jarduera adararren arabera eta egoera zibila eta seme-alabak izatea ala ez kontuan izanda.
11. Ustez indar fisikoa eskatzen duten lanbideak: zenbat emakumezko ari diren eta indar fisikoa zenbateraino eskatzen duten neurtzeko adituen iritzi objektiboa.
12. Lan berdina egiteagatik mutilek eta neskek jasotzen duten batez besteko soldata alderatzea, jarduera adararren arabera.
13. Mutilen eta nesken esku dauden ardura handiko lanpostuak eta karguak zenbatzea.
14. Amatasun edo aitatasun bajak hartzen dituzten mutilak eta neskak zenbatzea.
15. Seme-alabak hazteko bajak eta/edo baimenak hartzen dituzten mutilak eta neskak zenbatzea.

47. ILUSTRAZIOA Erreferente berriak arduren eremuan



E
ERANSKINA

Generoa eta gaztediari buruzko ikerketaz arduratutako taldeak amaiera berezia eman nahi izan diogu azterketak iraun bitartean egin dugun bilera, gogoeta eta eztabaidei eta azterketaren fase teoriko, praktiko, zein metodologikoei. Horretarako, gaztediarekin harreman zuzena duten adituekin lan bilera bat egin dugu, eurak ere gazteak direlako eta gaztediarekin lotutako hainbat arlotan lan egiten dutelako. Gainera, aditu horien prestakuntza eta esperientzia kontuan izanik, genero azterketari eta ikuspegiari gogoeta aberatsa eskainiko ziotela uste genuen. Horren ildotik, Gaztediaren Euskal Kontseiluari ondorengoa eskatu genion: euren lan eta harreman eskemetan genero ikuspegia barneratuta izan zezaketen lagunak identifika zitzala. Bilera hori ikerketaren lan plangintza eta helburuetan jada aurreikusita genuen, euskal gazteen presentzia eta ahotsa ziurtatzen lagunduko zuen baldintzetako bat izan zitekeela uste baikenuen; garapen metodologikoarekin lotutako etapetan ez ezik, gogoetak eta ondorioak zehazteko faseetan ere bai. Beraz, ikerketaren bilakaera osoan kontuan izan da gazteek une oro ikerketan parte har zezatela, bai eta azterketaren ikuspegiak neska-mutilekin kontrastatzeko asmoa ere.

Gazte adituekin izandako bileren helburuak, batez ere, bi izan dira:

- A) Lehenik, txostena bera testatzea eta gazteek azken agiriarekiko zein iritzi zuten eta zein hausnarketa egiten zuten jakitea. Taldearen iritzia ez ezik, gazte bakoitzarena ere jakin nahi zen. Metodologiari, prozesuari, hausnarketa eta ondorio orokorreari buruzko iritzia jakin nahi zen, baina baita hiru lan arloetan –afektuak, aisialdia eta ardurak– egindako azterketari eta diagnosiari buruzkoa ere.
- B) Bigarrenik, lan taldeak berak txostenean adierazitako egoeratik eta euren esperientzia eta hausnarketetatik hainbat ondorio atera zitzala lortu nahi zen.

Alderdi biak lantzeko, lan taldeko kide bakoitzari txostenaren zirriborroa eman zitzaion, eta taldeko bilerarako gonbitea egin. Ondoren adierazten diren ideiak eta alderdiak eztabaida saio horren emaitza dira, eta txostena egin ondorengoa denez, txostenaren eranskin moduan agertzea iruditu zaigu egokiena. Gainera, azken ohar horien bidez bidea urratzen da ikerketari buruz edo horren kariaz beste prozesu edo eztabaida batzuk sortzeko.

Jarraian adierazten diren ideiak bi ataletan bil daitezke: txostenaren beraren eta ikerketaren analisia, batetik; eta lan taldeak azken hausnarketan emandako iritzien azalpena, bestetik.

Atal honetan azpimarratu beharreko lehen ezaugarria taldeko guztiak txostenak azaldutako azterketa orokorrarekin –egoeraren argazkiarekin– bat datozela da. Hain zuzen, euren hitzetan egoera bi alor nagusitan adierazten da:

- a) Alde batetik, aztertutako alorretan generoen arteko desberdintasun handiak daudela ikusten da. Horrela –eta desberdintasun horiek nola sortu edo birstortzen diren, zein ondorio dituzten edo nola adierazten diren alor bakoitzean zehaztu eta aztertu behar bada ere– gazte aditu horien iritziz, alor horiek guztiak oro har hartuta gizartearen errealitatearen gutxi gorabeherako irudia ematen dute. Eta irudi hori berez edo inertziaz adierazten den diskurtsoan aldarrikatzen den berdintasun irudiaren guztiz bestelakoa da.
- b) Beste alde batetik –eta aurreko ideiarri oso lotuta–, ikerketak agertzen duen argazkiak berniz ideia hori azpimarratzen du. Eta ideia hori neska-mutil aditu gazteen hausnarketaren gune ere bada, hain zuzen, gizartean –gizonen eta emakumeen egoeran eta bi sexuen arteko harremanetan– itxuraz izan den aldaketa benetan nolakoa den aztertzen dutenean.

Ildo horretan, diagnosiak bat egiten du oinarrian txostenaren planteamenduarekin: emakumearen egoerak azken hamarkadetan izugarritzko aldaketa izan du, eta horrek itxurazko berdintasun irudi bat sortarazi du –benetan gertatu diren aldaketekin batera–, baina irudi horren azpian diskriminazioa eta desberdintasun soziala dakarten estrategia diskurtso eta elementuak daude. Gazte adituek azpimarratzen dutenez, elementu horiek kaltea dakarkie zuzenean emakumeei eta, zeharka, gizarte berdino bat sortzea eragozten du.

"Eta horrek eragin handia du lortu diren aldaketen garrantziarekin, egia da 40 urte atzera egiten badugu aldaketa handiak izan direla, eta horrek zilegi bihurtzen du jendeak esatea 'beno, zer nahi duzue'."

(Emakumezkoa. Gazte adituen taldea).

Ikerketan zirriborratutako eta gazte adituek egiaztatutako irudi hori baliagarria da –eurek bilkuran adierazi zutenek– marko teoriko edo analisirako egitura moduan, batetik; eta lanerako material praktikoa moduan, bestetik. Alde horretatik, txostena ontzat hartu da bai hausnarketarako tresna gisa, bai landu beharreko beste ikuspegi batzuk antzemateko gida gisa, bai eta alderdi zehatzagoetan edo partikularragoetan sakontzeko lan ildo berriak garatzeko oinarri gisa erabiltzeko ere.

"Niri, oro har, gauza bat gustatu zait eta baliagarria izango zait, eztabaidak egiteko erabiltzen ditugun agerietan; edo hezkuntzako monografikoetan bat-bateko iritziak botatzen ditugu, eta askotan esperientziaz badakigu desberdintasunak daudela, baina esperientziaz da. Azterketa horri balioa ematen badiogu, gure argudioei balioa ematen diegu, eta gurekin jarduten duen jendeari frogatu egiten diegu izan badela eta, nolabait, horrekin egin behar dela lan".

(Emakumezkoa. Gazte adituen taldea).

Eta hain zuzen balorazio on horretan ikerketan erabilitako metodologia eta teknikak azpimarratu dira, izan ere erakargarriak, dinamikoak eta, batez ere oso adierazgarriak direla adierazi baita: gazteek behin eta berriro azpimarratu zuten oso garrantzitsua zela gazteekin harremana izatea, eta txostenari balio izugarria ematen diotela gazteen adierazpenek (hitzez hitzekoek), bizipenek eta espresioek.

Gazte adituekin izandako bileretatik ateratako ondorioak hiru multzotan bil daitezke, hiru kezka nagusi adierazten dituzten multzotan. Izan ere, kezka dira gazteen munduko egungo arazoak direlako, eta, bereziki, gizarte berdina goa sortzeko oztopo direlako, genero sistemak ezarritako estereotipoak, eskemak eta bide hertsia haustu dituen gizarte sortzeko oztopo direlako.

Lehenengo kezkak **agerian jartzen du gizartearen –eta bereziki– gaztaroaren hainbat alorretan antzematen den krisia**. Krisi hori nortasuna sortzeko prozesuetan eta pertsonen arteko harremanetan gertatutako aldaketak eragin dute, aldaketa horiek, praktikan, eredu eta jardura indibidualistak ugaritzea eta konpromisoa eta parte hartze modu berriak sortzea eragin baitute. Eraldaketa horiek feminismoaren egungo ikuspegiaren, horren mugen, horren ekarpenen edo horren kritiken inguruko eztabaidetan adierazi dira, eta azterketaren lehenengo fasean elkarrizketatutako adituek ere adierazi zituzten. Baina gazteek inguruarekin eta bizi diren gizartearen aurrerapenarekin duten konpromisoaz hitz egitean ere aipatzen dira eraldaketak. Horiek argi adierazten dituzte gazteek nortasuna sortzeko prozesua bizitzeko moduak izandako aldaketak, bai eta aldarrikapenak eta nahiak planteatzeko moduek izandakoak ere. Moduak euren gurasoek erabilitakoen guztiz bestelakoak dira: haien gizarteratzean harreman motak arautuagoak ziren, bizimoduak mugatuagoak, eta, hainbat inguruetan, gizartearen jarduteko ereduak bat –askok aukeratutakoa– militantzian eta konpromisoan murgiltzea izaten zen.

Illo horretan, gazteek beraiek ere honako galderak egiten dituzte: non daude gazteak? Zer gertatzen da gazteekin? Zein eginkizun dute gizartearen aldaketa prozesuetan? Zein eginkizun dute afektu, harreman, aisialdi, hezkuntza, eta lan munduan gertatzen ari diren aldaketetan?

Galdera horiek lotura handia dute lan taldeak ondorio gisa adierazitako kezkarekin: **gazteek berdintasun prozesuan aldaketa eragiteko duten eginkizuna**, mutilen eta nesken artean berdintasun handiagoa lortzeko ahaleginean duten eginkizuna. Illo horretan, bildutako gazte taldearen iritziz, Euskal Herriko gazteen –nesken zein mutilen– konpromisoa sustatu behar da zenbait xede eta helburu lortzeko:

- a) Gazte diren heinean, konpromisoa hartzea eta aintzat hartzea gizartearen aurrerapenean duten ardura. Gazteek aldaketaren emaitza (helduek lortutako aurrerapenak) direla onartu arren, ezin dira horrekin konformatu, eta lagundu egin behar dute lortutako hobekuntza eta onura horiek jarraitu eta aurrera egin dezaten.
- b) Gizon eta emakume diren heinean, pertsona guztiak norbanako moduan onartzeko konpromisoa hartzea –gizonak zein emakumeak izan–, horien ezaugarriak, kalitateak, berezitasunak eta ahalmenak onartuz.
- c) Pertsona diren heinean, konpromisoa hartzea berdintasunean eta parekotasunean oinarritutako gizarte eta talde garapenerako erreferente eta eredu berriak egiteko; hain zuzen, pertsonen garapena eta adierazpena mugatzen duten irudi, estereotipo eta itxaropenak alde batera uzteko.

Konpromiso horiek aurrera eramateko ahalegin handia egin behar da eta hainbat alorretan estrategiak abian jarri: maila pertsonalean zein kolektiboan; hezkuntzan nahiz politikan. Ildo horretan, adituen taldearen proposamenak arlo askotakoak ziren: esaterako, gazteek maila pertsonalean jarrera aldaketa sakona izatea –eta jarrera horiek eragina izango lukete ingurunean eta eguneroko jardueretan, eta inertzia positiboa eratzen lagunduko lukete–; edo elkarte edo erakundeei gazteen kontzientziazio eta hezkuntza lan kolektiboan eragingo luketen eredu eta plan zehatzak egiten lan egin dezaten eskatzea.

" (...) gazteak aldaketaren eragileak al dira? Edo zerbait jasotzen ari dira, mezu bat jasotzen ari dira. Gauza horietaz ezer gutxi dakit, baina funtsean ados nago, eta dirudienez horrela da, horrela izatea da politikoki zuzena, eta azaletik begiratzen badiogu itxura horixe ematen du, baina benetan hainbat gauzak iraun dezaten laguntzen ari gara; eta uste dut azterketa sakona egin behar dela, zer gertatzen ari den jakiteko".

(Gizonezkoa. Gazte adituen taldea).

" (...) ikuspegi horretatik gazteak aldaketaren eragilea izan behar du, ez egon aldaketaren emaitzen zain. Atalen batean esaten dute: gu beste leku batzuetara iristen garenean, ba, aldatuz joango gara. Ez, aldaketaren eragilea gaur-gaurtik, orain eta zauden egoeratik. Eta gero lan egitea, alderdi ahulenak sendoenekin osatuz, etorkizunean beste gizarte eredu batzuk eraikitzeke kontu hori ahaztu eta orain hasteko".

(Gizonezkoa. Gazte adituen taldea).

Orain arte adierazitakoaz gain, adituek adierazitako beste kezka bat ere adierazi behar da: **mutil gazteek, gizonek, zein eginkizun berezi izan behar duten aldaketaren prozesu horretan.** Funtsean, kezka berdintasunak dakarren aldaketa prozesuan mutilek parte hartzeko moduak eta ereduak aurkitzea da. Aldi berean, gizarte osoak –guztio, gizon zein emakume barne garena– sakonki aztertu behar ditu agertzen ari diren erreferente berriak, izan ere erreferente berri horiek ordezkatu egin behar baitituzte eskuarki gizonezkoen munduaren ikuspegira eta neurrira egindako eredu eta eskema tradizionalak. Hausnarketa horrek, batetik, norberaren inplikazioa behar du eta gizonen garapenerako espazio berrien alde egitea –harremanen, afektuen eta eremu intimoaren alorra–; eta, bestetik, pribilegioak beste-ei ere uztea eta konpromisoa hartzea neskek jasaten duten desberdintasuna desagerrarazteko. Aldaketak eta krisiak denontzako dinamika positibo eta aberasgarriak dakartzala pentsatu behar da; prozesu hori denentzat onuragarria izango da, eta amore ematea, elkarlanean aritzea, elkarri laguntzea izango dira jarrera nagusiak.

"Bada asko gustatu zaidan gauza bat, atentzioa eman didan gauza bat: asko azpimarratzen da egun ditugun pertsona, gizon eta emakume ereduak ez duela balio eta eredu berriak egin behar direla; hori etorkizuneko bidea iruditzen zait, jokabide garrantzitsua".

(Emakumezkoa. Gazte adituen taldea).

" (...) gizarteratze prozesu desberdinak daude, eta "ezarrita" dauden helburu desberdinak daude; eta horren ondorioz, lehen bezain analfabetoak gara mutilak afektuen eta nesken inguruko hainbat alderditan, eta mutil eta nesken arteko harremanetan; eta inkomunikazioa dago... eta gero, beharbada bikotean ere adierazten da, eta zenbaitetan mutilak erreferenteak aurkitzen ditu lan munduan, betiko lekuan, eta badiro horrela hezi zaituztelako dela,

eta ingurune horretan oso "eroso" izaten zara; gerta daiteke, halaber, eta horrela adierazten da, afektuen eremua neskek eurentzako gordetzen duten eremua izatea, eta batzuetan eskusiboa ere izatea, eta mutilak alderdi horretatik analfabetoagoak izan daitezke, ez dute hor mugitzeko tresnarik, eta urruti samar ere geratzen zaizu. Orduan, funtsean, errepikatzen ari gara eta sendoak garen alderdietan egiten dugu indarra, eta iruditzen zait, hain zuzen, justu bestela egin beharko genukeela, hori guztia ireki beharko genukeela. Baina zer gertatzen da... alor intimoetan sartzen ari zara, segurtasun gutxiago dagoen arloetan, gauzak kolokan gera daitezkeen arloetan; orduan, horretarako, ausardiaz ekin behar zaio prozesuari, ausardiaz eta honelako ekimenez".

(Gizonezkoa. Gazte adituen taldea).

"Hemen badago atal bat, emakumeen taldeak antolatzen ari direla eta gizona begira, zain geratzen dela, emakumeen aldaketa horiei moldatu nahian-edo; ez dakit nola, baina nik uste dut bilatu behar duguna gizonak ere aldaketen eragileak izatea dela, emakumeen gaietan..."

(Emakumezkoa. Gazte adituen taldea).

"(...) gizonok konturatu egin behar dugu, pixkanaka, gizarteko kultura horren "biktimak" garelako, bizi ditugun rolen, erakutsi dizkiguten rolen biktimak, eta ohartu egin behar dugu izugarriko hutsunea dugula eta normalean ez gara horretaz ohartzen. Zuk esaten zenuen horixe da: ez dakigu afektuen eremuan sartzen, ez da guretzat zerbait negatiboa, ez dugu lehen urratsa ematen, gehienetan; batzuek bai, baina gehienok ez; baina gehienak ez gara ohartzen gure prestakuntzan, gizaki gisa dugun prestakuntzan akatsa dela; hortik hasi beharko genuke, hutsune handiak dituela ezagutarazi gizonari, eta hor gizakiaren zenbait balio garrantzitsu galtzen dituela; ez dakit nola egiten den hori, baina nik uste dut hor eman beharko litzatekeela lehen urratsa".

(Gizonezkoa. Gazte adituen taldea).

B

BIBLIOGRAFIA

ARNAIZ FONTECHA, J.I.: "La influencia del género en el comportamiento sexual humano". *Inguruak. Revista vasca de Sociología y Ciencia Política*. 22. alea. 1998ko abenduak.

CASTELLS, AINHOA: "Juventud vasca. Cómo son, cómo están", *Emakunde* aldizkaria. Emakunde, Gasteiz, 2000ko martxoak.

DÍEZ GONZÁLEZ, ROSA: "Mujer y exclusión social", *II Jornadas de Exclusión Social*. Lan eta Gizarte ongizaterako arloa, Santurtziko Udala, Santurtzi, 1997.

ELZO, JAVIER eta BESTE BATZUK: *Jóvenes Españoles 94*. SM Argitalpenak, Madril, 1994.

ELZO, JAVIER eta BESTE BATZUK: *Jóvenes Españoles 99*. SM Argitalpenak, Madril, 1999.

FERNÁNDEZ, CRISTINA: "Mujeres jóvenes y mercado de trabajo", *Jóvenas* aldizkaria, Madril, 2. alea, 1992ko abenduak.

FERNÁNDEZ ESCALANTE, MAIRENA: "Mujeres en el umbral del siglo XXI", Documentación Social, *Revista de Estudios Sociales y de Sociología Aplicada, Mujer*, Madril, 105. alea, 1996ko urria-abenduak.

JAYME ZARO, MARÍA: "La incidencia del género en la construcción de la identidad personal", *Emakunde* aldizkaria. Emakunde, Gasteiz, 1997.

LÓPEZ MASCARAQUE, MARIBEL: "El rol de las chicas jóvenes en los grupos informales", Documentación Social, *Revista de Estudios Sociales y de Sociología Aplicada, Mujer*, Madril, 105. alea, 1996ko urria-abenduak.

MARTÍN SERRANO, M. eta O. VELARDE HERMIDA: *Informe Juventud en España*. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. Instituto de la Juventud. 1996.

ORTEGA, FÉLIX eta BESTE BATZUK: *La Flotante Identidad Sexual*, Madrilgo Unibertsitate Konplutensea, Madril 1993.

PARÉS, ANNA eta RIFÁ: "Los valores sociales de los jóvenes", *Entre jóvenes* aldizkaria, 35. alea, 1994ko martxoa. Bartzelonako Diputazioa.

RAMÍREZ GOICOECHEA, EUGENIA: *De los jóvenes y sus identidades. Socioantropología de la etnicidad en Euskadi*. Centro de Investigaciones Sociológicas, Madril, 1991.

RIERA, J.M. eta E. VALENCIANO: *Las mujeres de los 90. El largo trayecto de las jóvenes hacia su emancipación*. Morata Argitalpenak S.A. 1991.

RUIZ OLABUÉNAGA, JOSÉ IGNACIO: *La Juventud Liberta, Género y estilos de vida de la juventud urbana española*. Fundación BBV, Bilbao, 1998.

SÁNCHEZ BIANCHI, ISABEL: "Las jóvenes de los noventa, ciudadanas del siglo XXI" *Entre jóvenes* aldizkaria 35. alea, 1994ko martxoak. Bartzelonako Diputazioa.

SIADKO: *Detección de dificultades relacionadas con el riesgo de exclusión de las chicas jóvenes basadas en estereotipos de género: planteamiento de estrategias*, SIADKO, Donostia-San Sebastián, 1996ko azaroak.

URIARTE, EDURNE: "Las transformaciones en el papel de la mujer". *Inguruak* aldizkaria. EHU, Bilbao, 10. alea, 1994ko azaroak.

URRIZOLA ZABALZA, M^{te} JOSÉ: "La educación no formal como conformadora de valores, actitudes y comportamientos", *Emakunde* aldizkaria. Emakunde, Gasteiz, 1997.